Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Mallabia



Aurkibidea

Udalerria: Mallabia

Sarrera



Durango, Markina eta Eibar artean dago Mallabia, eta erdibide horrek nortasun eta izaera berezia eman dio herriari. Durangaldean dago kokatuta, baina zerbitzu aldetik Debabarreneko udalerria da, Ermua eta Eibarrekin batera. Historiaz eta hizkeraz ere, erdibide horretan dago Mallabia. Hiru alderdi nagusi ditu herriak, eta bakoitzak joera ezberdina izan du urteetan zehar (orain gutxiago) eta hizkeran ere nabarmentzen da hori. Markina inguruko hizkera egiten dute Gereaga (Geria) auzoan; Durangaldekoa Zengotitan (Zengoittan); Eibar-Ermua ingurukoa erdigunekoek eta Ermua alboko auzoetakoek. Euskal hiztunen portzentaje esanguratsua dela-eta UEMAko (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea) kidea da.

- **Biztanleak**: 1.178
- **Euskaldunak**: %73,94

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **43**
- Zintak: **70**
- Pasarteak: **588**
- Transkribatutakoak: **136**
- Audioak: **132**
- Bideoak: **455**

Proiektuak

- Ahaztuen Oroimena
- Artzantza Bergaran
- Deba Eskualdeko Ahotsak - Mallabia.
- Dialektologia-EHU
- Eibarko ondare industriala
- Ermua eta Eitzako euskara
- Ermuko Ahozko Ondarea
- Ermuko eta Mallabiko "Drogetenitturri" aldizkaria

- Euskal Herriko Ahotsak
- Fondo partikularrak
- Mallabiko euskara - Pello Mugarza

Hizlariak

Domingo

Felix *Agarre*

Zelestino *Atxitteko*



Rosa Agirregomezkorta Eizagirre (1927-2022)

Amuriza

Elias Antxia Apoita (1921)



Longa baserrian jaio zen, hamar anai-arrebatatik zaharrena zelarik. Aita etxekoa eta ama Gerea auzoko Uxar baserrikoa zen. Auzoko eskolan ibili zen seitik hamabi urte arte. Gerra denboran Abadiñon Kristina arreba galdu zuen. Osabak irakatsita ikazkin eta karegintzan jardun zuen. Idiekin garraio lanean ere ibili zen, egurra eta ikatza garraiatzen. Bizi guztia baserrian eman du. Ziortza-Bolibarko Zabale baserriko Santa Meabebasterretxekin ezkondu zen eta bost seme-alaba dituzte.

Pako Antxia Arrate (1925-2017)



1925. urtean jaio zen Longa auzoko Longaetxebarri baserrian. Eskolan gutxi ibili zen umetan etxean lagundu behar izaten zuelako. Gero, gerrak zazpi hilabetez eten zuen eskola eta gerraostean ez zuen eskola gehiagorik jaso. Longarte baserriko Miren Sangronizekin ezkondu zen.

Felipe Aranburu Amondo *Estakuakua* (1928-2016)

Zubittei baserrian jaioa. Eztakua Azpira ezkondu eta bertan baserriko lanetara dedikatu zen. Alfa lantegian beharra eskaini zioten gerora eta, goizean, tailerrera orduko, behi-esnea partitzen zuen bezeroen etxe-pegoretan. Baserriko lana, baina, beti gustatu zitzaion.

Bittori Aranburu Errasti (1905-1997)

Mallabian jaioa, Apoita baserrian. Malengo baserriko Bizente Bilbaorekin ezkondu zen. Elkarrizketan Margarita ahizparekin batera azaltzen da. Pilar Bilbao alabak ere parte hartu zuen elkarrizketan.

Margarita Aranburu Errasti (1913-2009)

Mallabian jaioa, Apoita baserrian. Elkarrizketan Bittori ahizparekin batera azaltzen da. Pilar Bilbao lobak ere parte hartu zuen elkarrizketan.

Victoria Aranburu Garitaonandia *Santukua*
(1923-2014)

Mallabiko "Bengo" baserrian jaio zen 1923an eta 25 urterekin Ermura ezkondu zen "Santukua" baserriko Gregorio Mugerzarekin. Hiru seme-alaba izan zituen. Baserriko bizimodua eta lexikoa ederto ezagutzeaz gain, laborantza kontuetan andre jantzia eta hizlari aparta. Gizona "karreterixan", idiekin pisuzko gauzak alde batetik bestera eramaten ibiltzen zen, gerora etxegintzan aritu bazen ere. Hirurogeitaka urtez Ermuan bizi arren, Mallabiko euskarari eutsi zion.

Juan Astarloa Ibaibarriaga *Betiondo* (1905-1990)



Mallabiko Berano auzoko "Egia" baserrian jaio zen 1905ean. Ezkondu zen arte Eibarren ibili zen beharrean. 1932. urtean Barinagako "Asabel" baserriko Ageda Lakarekin ezkondu eta hiru urte geroago Ermura, "Betiondo"ra, etorri zen andre-gizonok ezkongabetan erositako baserri-etxera. Baserriko lanetan murgildu zen buru-belarri. Kantuak eta bertsoak ikaragarri maite zituen eta gaztetan ikasitako kopla ugari gogoratzen zituen zahartutakoan ere. Gustuko zuen "Arrate Irratira" deitu eta bere bizipen eta gogoan izandako abestiok irratizaleekin konpartitzea. Ermuan hil zen 1990ean. Ermuan bizi arren, mallabitarrera da bere berbeta modua.

Paulina Astarloa Uriarte *Aurtenetxe* (1929-2024)

Mallabiko "Goittondo" baserrian jaiotakoa da 1929an. Eskolak herrian bertan hartu zituen. Gaztetan Ermuko "Patakonia" ondoko arotzerian egon zen lanean, Santo Kristoak gurutzean eta josteko makinen gaineko tapak bernizatzen. 1952. urtean Felix Telleriarekin ezkondu zen, haren Beranotxiki auzoko Aurtenetxe baserrira. Sei seme-alabaren ama da eta beranan aurretik beste ume gehiagoren ardura izateak, kanturako zuen berezko dohainari lagundu zion. Kantari eta kontulari aparta.

Etxebarri

Alejandro Gallastegi (1916-1997)

Mallabiko Uxarte baserrikoa.

Basilio Gallastegi (1922-2006)

Onandigoiko baserrian jaioa.

Matea Gallastegi Azula (1928)



Goita auzoko Uxarte baserrian jaio zen. Zazpi anai-arrebatatik seigarrena izan zen. Aita etxekoa eta ama Iurretako Azula baserrikoa zen. Gerea auzoko eskolan hasi eta Mallabikoan bukatu zituen eskolok. Zaldibarko Sallente auzoko Arizti baserrian neskame egon zen hiru urtez. Gero beste urtebetez Eibarko "Ferreteria Unzeta"n jardun zuen lanean. San Trokas baserrira ezkondu zen etxeko Eduardo Garitaonandiarekin. Lau seme-alaba izan zituzten.

Martzel Garitagoitia Arriaga (1922-2016)



Gerea auzoko Goikoetxe baserrian jaiotakoa 1922an. Eskolara joatea gustuko zuen, baina baserriko lanak zirela eta, laster utzi behar izan zituen ikasketak. 11 urterekin umezain joan behar izan zuen. Gero, gerra sasoian, Ermuko Ongarai baserrian egon zen morroi. Antzinako bizimoduari buruzko azalpen interesgarriak eman zituen egindako elkarrizketetan. Ahaztuen Oroimena taldekoek ere egin zioten elkarrizketa, gerrako bizipenak jasotzeko (ikusi euren webgunean).

Dolores Garitagoitia Larruskain (1921-2016)



Ziortza-Bolibarko Artabeitia baserrian jaio zen. Aita etxekoa eta ama Markinako Altzaleikoa zen. Zazpi anai-arrebatatik zaharrena izan zen. Bolibarko eskolan eta Markinako mojetan ikasi zuen. Zaldibarko taberna batera neskame bidali zuten, baina ez zuen gustuko izan eta 15 egunez lan egin eta gero etxera itzuli zen. Etxean geratu zen harik eta Mallabiko Zengotita auzoko Aldape baserrira ezkondu zen arte, etxeko Felix Aldaperekin. Bi seme-alaba izan zituzten.

Digna Garitaonandia Mallabiabarrena (1923)



Areitio auzoko San Trokaz baserrian jaioa. Raketista izandakoa 1939tik 1947ra bitartean. Bartzelonan egin zuen debuta. Bertako Nuevo Mundo eta Condal frontoietan jokalari profesionala izan zen zortzi urte luzez. "Txikita de Mallabia" izenarekin jokatzen zuen. 24 urterekin ezkondu eta erraketa utzi zuen.

Maria Gerenabarrena Astorkia (1914-2008)



1914ko abuztuaren 14an jaio zen Mallabiko Gerea auzoko Amezti baserrian. Auzo guztietan eskola txikiak zeuden eta Maria Gereako eskolara joan zen urte batzuetan. Ezkondu zenean, auzo bereko Agarre baserrira joan zen bizi izatera. Egun, bertan bizi da.

Martin Gerenabarrena Astorkia

Mallabiko Gerea auzoko Amezti baserrikoa. Gazte-gaztetatik artzain ibilitakoa, ardi eta bildotsen gaineko informazio sakona eta zehatza ematen du grabazio honetan.

Damian Gisasola Arregi *Eskiñe* (1918-2008)



Mallabiko "Berano Nagusi" auzoko "Eskiñe" baserrian jaiotakoa da 1918an. Mallabian, herrian bertan zegoen eskolara joan zen lehenengo eta "Artixeko" auzo-eskolara 13 urte bete arte. Ikasle ona izan zen eta ondo aprobetxatu zituen urte haiek, han ikasitakoak gerora ere balio handiko izan zaizkio eta. 18 urte bete berri, gerratea hasi eta Arrate inguruan trintxerak egiten hasi behar izan zuen; 1936ko gerra gogoratze hutsak kalte egiten dio. Barinagako "Asta" baserriko Maria Garetxanarekin ezkondu zen 31 urte zituela eta 3 seme-alabaren aita da. 1958tik aurrera, bere auzoko ordezkari izendatu eta Mallabiko Udaletxean zinegotzi lanetan jardun zuen urte batzuetan.

Pedro Goitta

Luzia Lasuen Agirre (1903-1994)

Mallabiko Iturralde baserrian jaioa.

Leixarra

Pedro Longarte Gerenabarrena



Mallabiko Gerea auzoko Agarre baserrian jaioa. Baserriko bizimodua gertutik ezagutzen du. Bizitzako sasoi batzuetan baserritik kanpo lan egin badu ere, baserrian bizitzen jarraitu izan du. 1980. hamarkadan Ameriketara joan zen artzain. Urte batzuk bertan eman ondoren, baserrira itzuli zen. Egun, bertan bizi da.

Antonia Madariaga Agirre (1914-2009)



Anboto mendiaren magalean dagoen Abadiñoko Mendiola baserrian jaio zen 1914an. 3 urte zituenean, baserria utzi eta Durango aldera dagoen Barrenetxe baserrira joan ziren. Geroago, 7 urte inguru zituenean, Mallabiko Zengotitabengoa baserrira joan ziren. Baserriko bizimoduaren inguruko kontu ugari kontatu zizkigun. Hiztun zoragarria eta azalpen bikainak ematen dituena.

Juan Mandiola Bidaguren *Asuntze* (1941-2008)

Mallabiko "Asuntze" baserrian jaio zen 1941ean. Jose eta Teresaren ume-bikotetik nagusiena izan zen Juan. Beraienean, betidanik egon izan zen abesti eta bertsoetarako joera eta dohaina. Patxi Mandiola bertsolaria beren osaba zen; eta osaba Jose Domingoren altzoan, bideak elurtuta zeudela eta erromeriara jaisterik ez zutenean, makina bat abesti entzundakoak dira anai-arrebok, belaun banatan jarrita. Juan bera ere gaztetan bertso-kantatzen ibilitakoa da, inguruko erromeria egunetan eta domekatan, lagunen aldran DKV zahar baten joan-etorria egiten zutenean. Bere akorduz: "Guk gure kaxetakuek botatzen genduzen, berezko huts-hutse zan gurie". Elena Cengotitabengoa Arietaleanizbeaskoa elorriarrarekin ezkondu eta seme bat izan zuten. Sallabente auzoan pulimentu-tailertxo bat izan zuen, baina hari laga eta baserriko lanari ekin zion berriro. Ermuan bizi arren, mallabitarrera da bere berbeta. Bere esana gogora ekarrita, "urtiek ez dielako hutsan baixen pasatzen!"; 67 urterekin laga zigun. Ermua eta Mallabiko "Drogetenitturri" aldizkariaren 117. alean, 2004ko urrian kaleratutako artikuluan, jasota dator gizon hau hobeto ezagutzeko beta ematen duen "Boteprontoan" galdera-erantzuna.



Maria Meabebasterretxea

Guenetxe baserria; Gerea auzoa

Enrike Mugarza Idarraga (1932)



Mallabiko Trabaku Behekoan jaioa. Gurasoak ere mallabiarrak zituen. Gaztetan "Compresores Betiko" lantegian hasi zen lanean, Eibarren. Han zegoela, Lambretta lantegitik deitu zioten, eta bertara joan zen, motorrak asko gustatzen zitzaizkiolako. 27 urtez jardun zuen Lambrettan lanean. Hasieran katean lan egin bazuen ere, segituan motorrak probatzeko lanera pasa zuten. 1961-1973 bitartean, 12 aldiz atera zen "Vuelta España" txirrindulari lasterketan, lambrettarekin, "enlace" modura. Betidanik izan du tresna zaharrak gordetzeko zaletasuna eta, pixkanaka, etxeko garajean museoa prestatu zuen bildutako gauzekin. Antzinako bizimoduari buruzko hainbat azalpen eman zizkigun egindako elkarrizketetan, eta baita bere museo aberatsa erakutsi ere.



Esteban Olalde Astarloa (1923-2013)

Pilar Onandi

Luzio Pradera Unamunzaga (1929-2019)



Kalbarioko "Errementarixe" deritzon etxean jaio zen. Aita zuen bertakoa eta etxean bertan perratokia, arotzeria eta errementari tailerra zuten. 14 urterekin eskola utzi eta aita eta osabaren ondoan ikasi zuen lanbidea. Arotzerian baserriko tresneria egiten zuten: gurdiak, bost hortzak, zazpi hortzak... Luzio batez ere perratzaile moduan da ezaguna, horrexetan jardun baitzuen 40 urterekin lantegian hasi arte. Inguruetako zazpi perratoki berak egindakoak dira eta baserririk baserri zein bere etxean jardun zuen beharrean. Erabiltzen zituzten erreminta artean eman zizkigun bizimodu horren zirrikitu guztien berri.

Miren Sangroniz Arriaga (1931-2023)



Longarte baserrian jaio zen. Mallabiko mugan egon arren, Bolibarri dagokio Longarte baserria. Longa baserrietako baten nagusiak eraiki zuela Longarte eta Longa auzoaren muga haraino zelako jarri ziola izen hori kontatzen dute Mirenek eta Pako Antxia senarrak elkarrekin egin zitzaien elkarrizketan. Gerea auzoan ibili zen eskolan Miren; 14 urterekin utzi zuen eskola.



Pedro Sarasua

Guenetxe baserria; Gerea auzoa

Florencio Sarasua Zabala *Txikito Mallabia*
(1926-2014)



Mallabiko Torre baserrian jaio zen 1926an. Vicenta ama zen bertakoa eta Francisco aita Ziortza-Bolibartik bertara ezkondutakoa. Zortzi anai-arreba izan ziren eta "Artixeko" eskolara joan zen, harik eta koskortu arte. Indar handiko gizon gihartsua izanda, laster hasi zen harri- eta karga-jasotze erakustaldiak egiten inguruko jai eta erromeria egunetan. "Basarri" bertsolariak 'La Voz de Españan' idazten zuela, "El peque de Mallabia" izena jarri zion eta harrezkero horrela deitu izan diote. Oraindik gainditu gabe dagoen errekor bat berea da: 62 kiloko pisuarekin, bere bikoitza zuen 125 kiloko harri zilindrikoari 98 altxaldi ematea, 10 minutuko hiru txandatan banatuta. Erretiratu ostean, oraindik indartsu ikusten zela, eta 44 urte beteta berriro irten zen plazara; Ermuan plazaratu zen azken aldiz, 62 urterekin. Ermua eta Mallabiko 'Drogetenitturri' herri aldizkarian, 2006ko ekainaren 136 zenbakian, berari egindako elkarrizketa bat dago irakurgai.

Antonia Solozabal Unamunzaga (1911)



Mallabiko Donatz baserrian jaioa. Auzoan bertan zuten eskolara joan zen urte batzuetan. Ezkondu ondoren, Galarraga baserrira joan zen bizi izatera. Senarra, Eusebio Arregi, Mallabiko alkate izan zen 22 urtetan zehar.

Martina Uriarte Aranburu (1917-2014)



Mallabiko “Estakua” baserrian jaio zen 1917an. Eskolara Mallabira, herrira eta Artixeko auzo-eskolara joatea egokitu zitzaion. Joakin eta Lorenza ziren bere gurasoak, eta haiek izandako 9 seme-alabetatik bera izan zen etxeko gaztena. Ermura ezkondu zen, Pablo Arana berriztarrarekin eta bi dira andre-gizonon seme-alabak. Ermuan 9 urte eman ondoren, Eibarrera joan zen bizitzera. Ederto gogoratzen eta kontatzen ditu umetan zein gaztetan ikusi eta bizi izandakoak. Eibarrera bertakotuta 50 urtetik gora egon arren, bere jatorrizko Mallabiko hizkeran egiten du berba.

Mari Karmen Urkidi Ganboa *Aniño* (1942)



Mallabiko Arandoño-goiti (Aniño-goitti) baserrian jaio zen 1942an. Ama bertakoa zen eta aita Bolibarkoa, Arta auzoko Lexartza baserrikoa. Ume eta gazte denboretako bizipen ugari ditu gogoan. Ezkonduta bizi da Ermuan, eta bertako "Txindurri" dantza-taldean seme-alabak dantzari zituelarik, dantzarako euskal jantziak egiten hasi zen. Gaur egun kanporako ere josten ditu baserritar-arropak. "Pispillu" abesbatzaren sorreratik da bertako partaide eta "Elkartasuneko Tonbolan" eta "S. Martin Azokan" kolaboratzaile esanguratsuenetakoa da.

Evarista Zelaieta (1924)



Mallabiko Trabakugoikoa baserrian jaioa. Baserrian tabernatxo bat zuten eta baserriko lanez gain, gazterik hasi behar izan zuen tabernan ere lan egiten. Bertan egiten ziren erromeriak oso ezagunak ziren inguruan. Ezkondu ondoren, Eibarrera joan zen bizi izatera.

Julian Zelaieta Aranburu (1935)



Trabakugoikoan jaio zen, sei anai-arrebatatik gazteena izan zelarik. Aita etxekoa eta ama Osma auzoko Gomeziaga (gaur desagertuta) baserrikoa zen. Auzoko eskolara joan zen hamaika urte arte. Durangoko maristetatik pasatu ondoren, seminario ezberdinetan ikasi zuen 22 urte izan zituen arte. Ez zen apaiz ordenatu. Bere jaiotetxea baserri txiki bat izateaz gain, taberna, denda, estanko, ile-apaindegia eta pentsu-biltegia ere izan zen; erromeria-plaza eta bolatokia ere bazituen. Bola-joko, txirrindularitza edota lasterketa lehiaketa asko egoten ziren Trabakuan bera umea zenean. Haien artean “kontrafabore” apustuak (desafioak). Arrate Irratiko hasieran lanean jardun zuen pare bat urtez, Maria Angeles Arrieta bere emaztea izango zenarekin batera. Durangora ezkondu zen.

Eloy Zelaieta Gisasola *Hanbreko* (1934)



1934an jaioa, Mallabian. Markinako bidean dagoen "Hanbre" tabernakoa da eta hortik datorkio gaitzizena. Txistularia izanik, horren gaineko kontu ugari kontatzen ditu, baita Mallabiko erromerien gainekoak ere. Ermuan ospatutako 47. Txistulari Eguna zela eta, bere esanak jasota datoz Ermua eta Mallabiko “Drogetenitturri” herri aldizkariaren 89. aleko artikulu batean.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Diaspora

1.1. Ameriketara artzain

- **Hizlaria(k)**: Longarte Gerenabarrena, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: MAL-001/003
- **Iraupena**: 0:04:50. **Hasi**: 00:05:50. **Bukatu**: 00:10:40
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Mugarza Martinez, Pello
- **Gaia(k)**:
  Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan
  Diaspora » Disporara bidaia » Diasporara bidaia
- **Laburpena**: New York-etik Chicagora Pedro bakarrik, eta bertatik artzain egin behar zuen tokira.

Transkripzioa
Selan edo alan allegau gaittuk Nueba Yorra. An jeunan itxaitten mejikano bat: "cabras, pastores, seguirme a mi, seguirme a mi!" Amairu giñan, baiñe gero or mordue juntau giñan. Esa(n) najutzan "Oye, quiero mear" da, "Espera un poco". A aastu txiselarrixe geunkela guk.Txixe eitta be guardixias e! Eseun an eskapuik!
Gero papelok arrelau bierra jauan. Orduas apurtu giñan, ostantzin guk es gunkan galtzeik. Gero niri andixeik etorri jatasan trastornu danak, se guk ordu batetan abioie artu bagenduan Nueba Yorren sasoien allegauko giñan. An artuko genduan da niri usabak itxaingo justan. Gero andik apurtu suan. Etorri suan tasistie, baltz bat, onako Dekaube-boswagen antzekuk sittunan an. Danok esiñ erun de ni tte frantzes-euskaldune atzera. Kokolo bi an. "Ya iremos luego" esa(n) najutzan. Jun gaittuk otela. Allegau giñan da bestiek apaitten asitte jauasen. Kandelak, argixek, animadora bat jauan an dantzan da, "nora etorri gaittuk ?" pentzau najuan neuk. Batek esa(n) junan, (a enajunan geixa ikusi, Berriskue sala-ta),"ondo jango gendula, ondo jango gendula Ameriketan, jan bai eittok Berrisko Juliantxonin" A desesperaute eskutau sunan andik, geixa ikusi be enajuan ein. Ni tte frantzes-euskaldune kuartu bata lo eitta. Nerbiosua gixajue! Ak jan bes. Abioien bes, ak esaban es kakik es txisik eiñ!

Gero ortik joidu niñuen: "Tú mañana vas a salir a las seis". Ni(k) bakarrik, beste amasei itxi an da. Seiretan Nueba Yorren abioie artu Txikagorako, Txikagon artu binajunan Solaikako, ta Solaiken artu binajunan Triunfosa. Esa(n) najutzan "pero eso no puedo hacer yo" "No vas a hacer? Si". Español eskribidu justenan mejikanuorrek. "Nueba Yor-Txikago,Txikago-Solaik, Solaik-Triunfos. Esto no le enseñes a nadie, porque eso no te van a entender, eso te doy a ti". Nitzat.
Baiña, nik esa(n) najutzenan, "yo no puedo". Ak eskutati(k) kendu nai niñunan ni.
Selebrie, araxe arte enaban ikusi, erlojuek egoteittuk ipinitte "tal hora tal despertador" jote(n) uenak, automatiko. Dirriiingg!...frantzes-euskaldune itxarrik jaunan. "Entzute(n)...?". "Bai, entzute(n) juat" esa(n) najutzan. Jagi nitzunan. Ondiok an jeuan an ibilli san seroi, tutulerrioi; an jaunasen lagune(k) pe, beste matxo batzuk, eta esa(n) justenan:
-A donde va usté?

-Yo a las seis -Árek español entenitze(n) juen.-Yo a las seis tengo que estar allí.
Sartu genduasen maletok abioien. Neu te andra bat sartu giñenan abioien. Nik eru(n) najuan billurre! Lañue jauan. Ak jote jittuan sirenak! Uuuuu! Uuuuu! Neuk esate(n) najunan: "lekuta etorri nok iltteko ointxe orraittiño!" Da gero esa justenan ak mejikanuk: "es ari bajatu lelengo gaatzen dan lekun, a eseik kontau, se gaatukok beste leku baten". Jota ipini niñuan...! Pentzau najuan "ixen daittela nai dabena, nik jun enbiot eta!
Bagoiesak aurra. Etxuat ikusi euri tanta aundixarik aintxe eitteban baiño. Bajatu giñena ixeni(k) pako aeropuertue suan; aintxe bete sunan mordue. Auxe besteko euri tantak, i! Andik Solaika. An bajatu nitzuan..., nun naueni(k) pez.

1.2. Artzain Ameriketan

- **Hizlaria(k)**: Longarte Gerenabarrena, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: MAL-001/004
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:10:40. **Bukatu**: 00:13:40
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Mugarza Martinez, Pello
- **Gaia(k)**:
  Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan
  Diaspora » Disporara bidaia » Diasporara bidaia
- **Laburpena**: Bidaiaren inguruko gorabeherak. Ugazaba nola ezagutu zuen.

Transkripzioa
Solaiken bajatu nitzuan. Urrengo Solaiken be lo mismo, galduen galdue estok? Baiñe trankilddu ei(n) nitzuan da ixen baiño etxeukek nai dabena pentzaute najukan. Gisontxo bati esa(n) najutzan Triunfos? da ak aittu justan. Esa(n) justenan, número diez, bere salidie, jarteko aintxe, eberdiko amabixek ordue, klok estaki(t) se, egoteko aintxe. Ju(n) non ara, asafatioi an joienan, Triunfos? esa najutsenan da... uaak! ei(n) junan. Nausi kontuek erreta jaunan kuittaue. Ak artu oneta mangatik eta txoferrorri erun niñunan. Triunfos? esa(n) najutzenan da, iaa! Bajau non beera, i, lenguajie es jakittie!
Baiña naikue asiertu euki najunan bedorras bakarrik. Jakin barik órrek trasborduok ein en 'bidabe, e!
Ju(n) nitzunan. Banajan an da usaba ixen nabana, ...auxok nire usaba!
-Su sa Benitto?- esa(n) najutzan da
-I as Pedro?
-Bai. Ordue ixen da batamat berbetako ikusteko be!. pentzaik, trasara, sekule erretratuik ikusi barik!
Bijiana ortxe amaittu suan.

Artu niñuan kotxien da esa(n) justan "erropak erosi bijittuau" "Pikapa"(pick up) baakisue ser dan, telebisiñun ikusitte daukesue, oeko erropa, oe oso osue... baiña selako mantak, selako gausak. Askenien kutxillo, kartera, madre gustixe erostue. Esa(n) najutzan "ónek esi(n) neikes ni(k) pagau sati baten" "Amabost egunekuas pagaute daukesak".

1.3. Artzain Ameriketan

- **Hizlaria(k)**: Longarte Gerenabarrena, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: MAL-001/005
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:13:40. **Bukatu**: 00:14:50
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Mugarza Martinez, Pello
- **Gaia(k)**:
  Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan
  Diaspora » Ohiturak eta bizimodua diasporan » Familia eta harremanak diasporan
- **Laburpena**: Ameriketara artzian joan zeneko kontuak. Ugazabarekin lehenengo hartu-emana nolakoa izan zen. Arrantxora heldu eta beste euskaldun batzurekin elkartu.

Transkripzioa
Bueno, allegau nok rantxure. Antonio Larriñe jeunan an da esa justan.
-A ardi-kanpue ikustok?
-Bai- esa(n) najutzan- Ikusi sera eingo najuan.
-Aintxe bisio(k) pa beste mallabittar bat, Antonio Elgezua.
-O bai, -esan najutzan. Lelengo lo aretxas ei(n) najuan.
An egun bat ei(n) najuan da gero erun niñunan ara. Andik asi giñan gero basoko, Juan Bastaitte, napar bat eta Juan Jose. Kanperu ei(n) najuan ordun urtin.

1.4. Artzain Ameriketan

- **Hizlaria(k)**: Longarte Gerenabarrena, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: MAL-001/006
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:14:50. **Bukatu**: 00:17:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Mugarza Martinez, Pello
- **Gaia(k)**:
  Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan
- **Laburpena**: Ameriketan artzain egon zenean, lehenengo urtean, "kanpero" lanak egin behar izan zituen. Biren artean zaintzen zuten artaldea.

Transkripzioa
Kanperu ei(n) najuan ordun urtin. Gero, otoñun esaten dana, negurutz, Juan Bastaitte tokau jatan. Jesus!
Bagentorrasen da denporaldie txarra jaunan,edurre, bisustue...Negarres or jatok:
-Nik etxakixat or kanpue nun itxi.
Esa(n) najutzan neuk, e:
-I, denpora txarra jak, gau txarra jatok eta sartik or sulue pixkat eitten daben lekure "wenkerke" esate(n) jakok, gordelekue, se gau txarra jak eta. Negarres etorri jatan esaten "nik etxakisat or na erretirau" "Kabuen la letxe", esa(n) najutzan, "ainbeste urte daroiala or da, emendi(k) beti pasau as arutz da onutz... sartik ara txamixala kanpuoi da joko juat nik ara illuntzire. Oin emendik aurra illuntzixe entzeira etorto(k) pa, argi ibilli biok!.

Beiñ atzaldeko laurek eskero oin saso onetan argi!
Ei(n) juan denporalde bat! Kastor Euskitze, San Mielgue, esibala ion da katiak ipintteko laguntasune bibala. Ni ardixas netorran; neuk ipiñi nutzasan. Kate gemelak ipintten gastxua dittuk baiña estittuk gatxa(k) pe. Doblik dittuk, baiña eiñ enbiok!
Ipiñi najutzasen kataiok. A suan gaba! Ardik esin gaatu...

1.5. Artzain Ameriketan

- **Hizlaria(k)**: Longarte Gerenabarrena, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: MAL-001/007
- **Iraupena**: 0:03:05. **Hasi**: 00:17:00. **Bukatu**: 00:20:05
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Mugarza Martinez, Pello
- **Gaia(k)**:
  Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan
- **Laburpena**: Ameriketan artzain zegoela gertatutakoak.

Transkripzioa
Bakarretxe esaten dan mendixe dok ikeragarrixe, an egoteittuk ogetamar banda sasoien. Esa(n) najutzan,"ik segidixok bidiai, itxaidek an linie pasetan dan lekun, kanpolekun, ni etorriko nok ara". Da, ak se eijok? Esa(n) najutzan ori baiño geixa, "galtzasela ikusten bok gaatu ari, nik topaukaut". Baiña, oixe, esatie dok txárrena. Ak galdute doiela be aurra, "topauko najok ni-tte".
Domeka eberdixe suan, beittu juat katalejuekin...Jesus! gaberako allegau bigendun lekure eberdiko jauan junde. "Ostia, onako gisonekin be aguntau enbida gero!". Pasau suan a be!
Urrengo egune txarra jatorran, edurre, bisustue ta txarra. Mejikano bat jatorrenan ardixekin beeti(k) gora. Ardixe be onako edurrin estok ondo ibiltten da bixok leku batera goiasen. Neuk esa(n) najuan, "orraittiño aurreko kanperuok, puntok pixkat e... "se, ni banatorran Eltzubixen atzias da, bestioi emen. Esebes, aurra!
Ju(n) nitzuan saldixorras da esa(n) najutzan mejikanuorri: "Oye, si no apartas la punta se van a mezclar" da, "Es que yo también tengo miedo, pero no puedo, estoy solo". Beste mosoluoi kanpun sartute begire. Bueno, apartau giñan an. A egune pasau suan da illuntzixen neuk esa(n) najutzan:
-Juan, pixki-pixkat espok ori baiño idea geixa etxakixat selan biaun negue pasetan.
-Eske nekabuendios!
-Ire nekabuendiosak etxustek bape serik emoten -esa(n) najutzan- Orrek etxeukek indderrik. Emen enbiok bata bestiai lagundu te, pixkat ori baiño geixa urten. Iru urte geixa daroiesak emen da nundi(k) na abillani(k) pe estakik ik.
Jakin be etxakixan. Udebarrixen ipintten bok kanpue orra begire neguen ipiñi biok bestera begire, se afrontue diferentie dok eta. Pasau suan a.

1.6. Artzain Ameriketan

- **Hizlaria(k)**: Longarte Gerenabarrena, Pedro

- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: MAL-001/008
- **Iraupena**: 0:05:40. **Hasi**: 00:20:05. **Bukatu**: 00:25:45
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Mugarza Martinez, Pello
- **Gaia(k)**:
  Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan
- **Laburpena**: Abenduaren 12an oso eguraldi txarra egin zuen eta Pedro galdu egin zen. Artzainen bizimodua Ameriketan.

Transkripzioa

Doze de diziembre allegauon. Atzaldeko lauretan galdu nitzunan. Laiñue ta edurre ta bisustue jo junan da neuk igerri nutzen, "ointxe estakit na begire nauen". Da, tak, asaldu juan, ete(n) juan... ikusi najuan...koño! Eltzubixen etxie, kasureko! Emo(n) jutzenat atza runbue Eltzubire ta bixen bittartien galdu! Dana bolkana ixenekue don a, sulu-mulu sulu-mulu. Illuntzixen galdu asela ikusten bon onakoxe saata bat don aundixe dirijitzeko. Esebes, kanpuen plantaute.

Jo juan isotz batek da kanpuen lo. Ur-erropie erre najunan, satittute, atzamarrak berotzeko. Otza! Etxeuan se erreik da bera justuen kendu nutzen saldixai. Saldixek igerri justan niri galdute nauena...ordun riflie eukitten bot berai tiretuko nutzen. Atzien muxillie soltau najutzan da jake nausixe, edarra. Áretxek kendu nutzesan da jota saldixek galopie. Ju(n) sunan saldixoi, txakurrek geratu sittunan nirekin. Sartu nitzuan sulo moduko baten baiña an be leku txarra. Atzamarrak elau bier da metxeruas atzamarrak berotu..., urrengo eberdiko amabixek etorri sittunan. Etxunan altzetan kanpuk, lañue jaunan jota itxutute. Altzau junan lañue ta nun ikustoten emendixik Goittonda lantxik neure etxie, garbi-garbi, "Koño, an!". Orduko Juan notisie emonda jauan selan galdute nitzen. Beste bat pasau suan bere etxondun, Txilibron esatutzen artzain bat: "Eske artzaie galdu da ta".

Arek gure usabai:

-Oneidan artzaie galdute ei da Bakarretxen.

-Ba, kanpoti(k) bada salditti(k) beera jausitte, mankaute egongo da, elaute egongo da.

Bata be etxatan pasau, es jausi es elau. Banajoiek etxerutz egune argittustenin, lañue kendustenin, eberdiko amabixetan da, Jose Andres da usaba:"Koño, saldixe". Nire saldixe.

Saldixek eittejok, en jeneral, aurreko egunien lo nun eindduan ara jun. Ikusibenin saldixe ara junda gure usabak:

-Pedro mankaute, onek bota dau -euskera txarra eitte jok, garbittute ixengo da esateko modun. Ni etxera ta, usaba ta Jose Andres:

-Koño,bisi as, e!- Jose Andresek wiskixe ekarri justan.

-Bai, bisi nok. Onako jentemoduas bisik urtetie kosta eittok-esa(n) najutzan.

Beste mosoluoi beeti(k) gora datorrela, "etxuat pentzau bisik ikusteik, etxuat lo asko ein gabien" esa(n) justan. "Neuk eijuat asko" esa(n) najutzan. Bera etxin jauan, ni kanpun isotzetan da berak esabala lo asko eiñ esaten. "Ixillik ego(n) ari" esa(n) najutzan. Aintxe amaittu suan a. A geixa berbai(k)parik pasau suan. Rifleik eseukela. Riflie euki eskero ik tirue jaurtzok, bestie(k) pe jaurtzue ta gixau eittas.

Ekarri jutzan riflie. Urrengo egunien ardixek eskapau. Gabin eskapau eittejuek, ori eukitte(n) juek oin txarra. Ju(n) nok katiuskak bernutzik jantzitte ta, ementxe kamiñuetan egoton ba intermitentetxu bat, igul-igula ipinttok etxian gaiñin, gero gixetako, baiña a ikusteko baiño urriña ju(n)

nitzuan. Esin gixau etxa, esiñ etorri. Topau najittuan ardixek, baiña esin gabin etorri etxa, nundik nebilleni(k) pes: "Nire kanperue or egongo(k) pa"! Da, se ei(n) najutzen? Ona dok oixe, beteranixiek erakutzi eittuk; ardixei emon txakurkada bat, etorri dien lekutik atza eurek etxera jote juek eta noberak eurei segidu. Olantxik etxa etorri. Etorri nitzuan etxa ta jota lo ronko jauan. Esa(n) najutzan: "Ik riflie or daukek eta ni kanpun nasenik estok jakiñ estok? Ba emetik aurra ordu bixek arte errelebue eingok ik eta nik eingo juat aurra, edo bestelan neuk eingo juat ordu bixek arte, edo orreta". Eske errelebue enbiok!
Ardixek askenengo salidie ordu bixek ingurun eitte(n) jok, gabin. Txanda bi eukitte(n) jittuk. Orduntxe geldi egotok. Ostantzin gau te egun ardisain ta a an konserban. Allegau gaittuk etxa ta, esa(n) juan geixa bera estoiela ardire ta, estakit selakue ta baakit selakue. "Ori gausioi or arrelau" esa(n) nutzen, se, Jose Andresi be arek Aste Santu baten eskapau ei(n) jutzan da Jose Andresek esa(n) jutzan: "nikin geixa estok lorik eingo". Sin mas ni menos, di-da eskapau. Jose Andresek amorru itzela jutzan. Da gero niri inkau justan.

Eskasauek tokau jatasen gero.

1.7. Artzain Ameriketan

- **Hizlaria(k)**: Longarte Gerenabarrena, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: MAL-001/010
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:30:10. **Bukatu**: 00:32:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Mugarza Martinez, Pello
- **Gaia(k)**:
  Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan
- **Laburpena**: Pedrok nahiago izan zuen artaldea bakarrik gobernatu; bost urtean bakarrik jardun zuen artalde osoa zaintzen, laguntzarik gabe.

Transkripzioa
Bixaonien esa justan:
-Pedro, esa jungo su ara, Norfok arte?
-Es araiño enoie. Araiño juten banas gero araiño jun biot -Ak atza be leengue. Esa justan:
-Lelengo bandie etakosu?
-Bai.
-Bakarrik jun biosu.
Aintxe salbau nitzuan. Bost urtien bakarrik ibilli nitzuan. Esa(n) najuan "beste mouteko bisimodue. Bueno, kriston serak eukitteittuk, endreduek, traste pillue itzela be banajukan, ganau pillue itzela be bai, gero kontrarixue(k) pe asko, ardidunek eta ure emotie be eure kontureok eta... Esate(n) justan Okamikak -aitte-semiek bixek eitte(n) juen, "bakarrik esin leikek eiñ ori". "Aprobau biot".
Ni bierrak enajok billurtzen, ni billurtze(n) najok ganorabako personiek. Ni(k) gabas erute(n) naban ure ta igerri eitte(n) najutzan ure nun bisan, igerri es, ik euk dakik eure martxie. Nik eitte najuan es egon egarrittu arte, egarrittu orduko erunde euki bidan lekueta urek. Ure emoteko sisternie najukan itzela, amasei kanofa. Árek altzau te bajau eitten bierlekue

eukitteben. Árek beteta ipiñi, banda aundixe basan da, bero aundixe baetorren árek bete ta beste sisternakada bat ekarritte eukitte najuan nik ara, baiña gabas, e!

1.8. Artzain Ameriketan

- **Hizlaria(k)**: Longarte Gerenabarrena, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: MAL-001/011
- **Iraupena**: 0:05:10. **Hasi**: 00:32:00. **Bukatu**: 00:37:10
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Mugarza Martinez, Pello
- **Gaia(k)**:
  Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan
- **Laburpena**: Artzain-txakurraren garrantzia.

Transkripzioa
Txakurre euki najuan: Braunin. Niri nobesientas kuarentaikuatro dolares kobrausten ona etortie. Eneuken diru asko baiñe a txakurre neure ondun ekartie ixen balitzok pagauko najuan beste olako bat. Askok esango lukek "edarrak jaurtze jittuk orrek", baiñe nik estimau nuken. Ak makiñabat apurun librau niñuan. Jose Andresek-eta ilteko destinau juen. Espaiñire etorri sanin Jose Andresek esa(n) justan, "Bier baittuk txakurrek neuk jukas onak". Lista eta Urtain txakur bi fenomenuek. "I, da a Braunin ser?. Ekarrik, balixo espa jok gero be bajak ilttie", esa(n) najutzan. Sein baiño sein, iru txakur. Árek sittuan txakurrek! Urtain barres listuaue! Faltau barik, Jangoikue bera baiño listuaue, baiña puterue suan itzela, arek artuko jutzan usaiñe Ondarrukuai be!
Gero Gorospek, "I, bat emon bistek. "Emo(n) najutzan Gorospei. Bakeruk ill jutzen. Okamika gastik "I, oixe Lista emon bistek", eta "ibilli tte ibilli, txakurrik onenak neuk euki jittuat eta neuk txakurri(k) parik gaatu bijuat, batai emon, bestiai emon. Emongua(t) pa" Bakeruk ill ari be. Baiña, etxuen txakurrik erretiretan. Nik, parisiño denporan, etxin egote(n) giñenin, txakurrek bakotxa bere kaixolan egote(n) sittuan da estimau, e! Illuntzixen bueltatxue, soltau te eurek ibiltte sittuan, da atza barrure. Juan Bastaittenak berrogeta hamar ardi itto jittunan gabin olantxik ainddute. A sunan trillue!. Bixaonien burkaraka sula.
Neure Braunixorras gaatu nitzunan, bestiok ill justesan. Ainkak joitze(n) jakunasen. Berbetan etxakixenan, baiña esan kiñus eitte(n) junan. Selan abill ba?. Berak kiñue eindde ondo ebillela, i! Barre eingosue ori esanda. Ainkak apurtute ta, esa(n) najutzan usabai, "ekarrixu botikie" An jauan onetaiko argisarixan antzeko goso bat, pomada antzeko bat. Atera etortze(n) suan kuittaue, "etzu(n) ari tte ekarrisak ainkak", eta onaintxik plantau txakurre ainkekin gora, artu ospal batekin botikie da gustora txakurre, berak "eskerrak" esateko modun.
Beste bat, Pantxo, aren umie. Txakur saarraok gastiai erakusteko ónena, baiña suan agiñes gogorra txikixe. Ikuste(n) juan a saarrak, eldu eitteutzela, gero nik asarre, "jota berton ill gaut gero" txikixorri tte, saarrak berantzat artze jittuan, eta arek sentitze(n) juan. Baiña, erakutzi aretxek onduen, nobera(k) paiño obeto.

1.9. Artzain, Ameriketan

- **Hizlaria(k)**: Longarte Gerenabarrena, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: MAL-001/013
- **Iraupena**: 0:03:35. **Hasi**: 00:40:15. **Bukatu**: 00:43:50
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Mugarza Martinez, Pello
- **Gaia(k)**:
  Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan
- **Laburpena**: Ameriketan bizitzea tokatu zitzaion hainbat egoera desberdin, gorabeherak...

Transkripzioa
Oñestuas ostantzin be pasau najittuan iru-lau eskapada itzelak. Beste domeka gox bat suan, edarra, denpora bat jauan...laiñoik iñun be bako bat. Ordun ardi sikukin najauan. Etxok ardi sikuek bierrik eukitten amarretan jun, sortziretan jun. Ardi sikue euk altzeta(n) espok amaiketan be lo egotok. Lo edo alperrien, ustela. Koiotie an, txau, txau, txau, txau, txau, txau... "Orretxek umiek jeukesak ortxe" pentzau najuan. Jun de banajabik eta, denporie sobra, ba, urte(n) junan onako gausa bat rarue... laiñu moltzue lakoxie. Asi suan trumoie, baiña ikusi bako gausak, siñistu be eiñ esin leikesenak.
-Ser?-pentzau najuan. Etxá be esiñ etorri, jota orpun jote niñuan, txakurrek barres ainketan sartute. Trumoias sustaute egoteittuk, endemas olakue pasau esko.
Bata ilstenien, bestie, Kalisto. Axe sunan bai "Kalisto". A beti saldixan keisan, a alperraue sunan! Gero oiñestuek bestie ilttie pasau sanin berak golpei(k) pes. Trumoie entzutebanien nobere ainketan traban. Erresau be eitte najunan. Etxa nintzenin posik ego(n) nintzunan.

Beste domeka atzalde bat, peruanukin. Ogixe ei(n) najutzen, árek tentias jauasen.
Kasu baterako peruanuk jauasen Durungo alderdittik etorritte, ni. emendik junde, Oisen. Gixajuek, an, es erropaik... da erropie nik neukan burdixen eruteko baiño geixa. Santik emote(n) justasen, gaiñera tratauteko erropak. Esa(n) najutzen peruanuei: "Qué os hace falta, pantalón, camisa?. "De todo, de todo"! Bajatu non beera baten, beittu bes selakue san, kargau saldikadie...baitte gabiro itxitte. Ogixe ein, domeka atzaldie pasau genduan de primera.

1.10. Artzain Ameriketan

- **Hizlaria(k)**: Longarte Gerenabarrena, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: MAL-001/021
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:14:25. **Bukatu**: 00:15:40
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Mugarza Martinez, Pello
- **Gaia(k)**:
  Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan
  Diaspora » Ohiturak eta bizimodua diasporan » Aisialdia diasporan
- **Laburpena**: Denbora librea zertan ematen zuen.

Transkripzioa
Etxuat ikusi gausa bat itzelarik aintxe ikusitte nauen baiño. Belbioko jaixek sittunan. Gu Kerryn gaunasen. Esa(n) najutzenan Juan Pedroi: "I, Belbiora jun bijuau".

1.11. Artzain Ameriketan

- **Hizlaria(k)**: Longarte Gerenabarrena, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: MAL-001/023
- **Iraupena**: 0:06:15. **Hasi**: 00:18:30. **Bukatu**: 00:24:45
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Mugarza Martinez, Pello
- **Gaia(k)**:
  Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan
- **Laburpena**: Ugazabarekin harremana nolakoa zen. Artzainaren bizimodua; une garratz asko. Ardi eta bildotsen inguruko azalpenak.

Transkripzioa
Ni konforme bisi nitzuan, baiña egun asko egoteittuk garratza(k) pe. Ni akordeta(n) nok domeka batas be: esiñ ardik manejau, egarri sittuan, itxurie, ta esi(n) nabala ardik batu. Ta sunan dana ardi koja, olantxik esanda bardin ddok, puta sikin bat. Txakurrek mankau juen. Aras gaatu amar billotz, oixe dok txarra. Ardi ganorabakue, lelengo-lelengo tiretixosu garauneta tirue, asko da oba. Pena emotue ilttie, baiña arek eittue amar-amabost gaatu beras, da gero árek eruten da, ortikos emetikos abillala, bestiek danak endreatzeasek. Desiertuko kontuek dittuk orrek.

Nik askenengo urtien suerte txarra euki najuan, galdu najittuan irurogetamar edo. Esa(n) najutzan usabai, "ementxe ibilli nas txarto, marka danak dukas, (markie ixetok baltza, adarixe ta onek) baiña ardixek falta die". Ekarri jittuan ogetamabost. Abioie ta elikoterue ta danak ibilli sien topetan, baiña, itxurie, raintxeron batek artute barrure, berak alan esaban, baiña estok ori esebe. Esuan eser pasau. Urtero jatues irurogei-irurogetamar billotz koiotiek, ori badok sooser, e!
An jute(n) sa goxien laurek... esta ixen bier alperra ara mendi punta juteko. Laurek-bostak egune sabaldu orduko, urrusa sasoien. Dauesenik onenak igul, bat edo bi ittota, suk apuntau eittosu. Ni orretan susena ixe(n) nitzuan. Batzuk eittejuek bat ikusten badabe lau apuntau igul, bera trankilla gaatziaittik, baiña tontoik etxak. Usabak bajakik gitxi gora-bera semat jun leikesan. Usabak esate(n) jok "suk bat ikusi bosu bi galdu die". Arek urteneratik kalkuleta(n) jok: "Onek mille ta bosteun billotzetik galdukoittu berreun billotz", a kontaute jeukene. Gero desiertu(k) pe arditten asko jatejok. Gero lelengo bandie dana aginbakarra, billotz-bakarra ta askenengo urteko ardixe ta... árek ilttekuk ixeteittuk. Niri pena emote(n) justan ilttie da, onek, Jose Andresek esate(n) juan "nik ilttie baiño gura juat atzera itxi, desiertun beste batek artuko jittuk eta".

1.12. Artzain Ameriketan

- **Hizlaria(k)**: Longarte Gerenabarrena, Pedro

- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: MAL-001/025
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:28:00. **Bukatu**: 00:30:10
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Astoreka, Ander
- **Gaia(k)**:
  Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan
- **Laburpena**: Ameriketan artrzain egon zeneko kontuak. Ugazabarekin harremana nolakoa zen. Artzainaren bizimodua; une garratz asko.

Transkripzioa
- Lehenengo suerta daten urti suerta daten erosuena, itxuri dauenez uzabak esan eustanez e, banoa bai zaldidxokin, zaldidxok temedaridxoa. Zaldi pari itzela, ene edarrak animalidxak karruaz, etxia hantxe geuk geunken. Baiña hori, etxi bai etxi zelan esaten eutsen hari? karrokanpue, zaldidxekin. Baiña guruntza bagoin, bigarren uzaba, ha lehengue amaittu zuan, ba etxa allaga zan ondo ta ba […] amaittu zuan. Gero Luisaz egon nintzenin, horrek ein eustan harek etxie, ordun inmigraziñokok liau eitten zittunan, ba bi baiño lau, oge biko etxie zelaku ta holaku, papelak zelan nik ez neukezan ondiok […]. Bueno, ipini eustanan asko kostata e, honako […] izenaz da, ta gero oge bi, terrenue azpidxan, larogeta hamar arloko terrenue, ure garbidxaz, coleman argidxe, coleman argidxe bakizu zer dan? gero ha kendu ta nik butanue ipini.
- Zer da coleman argidxa?
- Coleman ba hori, bete gasoliñiaz ta hori metxiaz ta argidxe eitten dabena.
- Karburua.
- Ez, karburue ez, coleman beste bat da. Bardin da. Gero, nun ikusten doten e honek gas-botilla moduko butanoa han, etxin trelako zahar bati inkeute, trelako zahar bati, ze ein najuan? kendu ha, gero kanpora erun, kotxe bateri llantie soldiau atzien kamioie, ta han sartu ipinitte, nik eitten neban holako gauzak e, uzabak baekixan, nik nahi nabana ostu, ta gusta jatana ondo ta bai hoixe. Zeozer e etxin llabi falta bazan e, […] zittunan Jon, nire moduko mutil zaharra ta: “Llabi falta da” ta “Jon jun Pedron kanpora, hara bakarretxera hantxe eukiko dozu segurua” ta hoixe. Nik, nik, han ez da egoten iñori eskatzeko e, han etxetik eruten ez […] etxera eruten […] baiña horretan pertsona bazittuan, nik zertzuk eitten nittun.

2. Ohiturak eta bizimodua

2.1. Artzain Ameriketan

- **Hizlaria(k)**: Longarte Gerenabarrena, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: MAL-001/020
- **Iraupena**: 0:04:50. **Hasi**: 00:09:35. **Bukatu**: 00:14:25
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Mugarza Martinez, Pello
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
  Diaspora » Ohiturak eta bizimodua diasporan » Diasporako bizimodua
  Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan

- **Laburpena**: Ameriketan arrtzain egon zeneko bizipenak. Hainbat egoera desberdin bizi izan zituen.

Transkripzioa
Ni asko distraitze(n) nitzunan neure trastiokin. Pintxasue eindde be nik neuk arreleta najittunan, kamioiai nai e... Ni eindde najan, atzeko burdixai, lau tornillo eukitte jittuk erruberan. Allegau nitzenien, jota braust!, erruberie beera. Laurek galtzie suertau. Komisarixie esate(n) jakona burdi itzela ok. Jun atza lorrotzien da lau tornilluok topau. Esa(n) najuan "ortxe egon bidabe onek", ekarri, lotu te abante. Kamioiai pintxasue eitte jakola ta nik basuen arreleta naban. Gero etxien egote(n) nitzenien onakue ta olakue ta, llabiek artu te kaja, an estok egoten esebe, e!. Da pustu selan eitte(n) nebala pentzetok erruberie? Soltau bujia kamioiai, an bujia sulun sartu bujiai soldiauteko tubue preparaute erunda ta, txuff, txuff, bujia sulotik jaurtze(n) jon ba axie, aras pustu. Niri akordau jatan aundiñe suan... kanpue ipintten. Kanpue nibel ipiñi bier isetok, bestela estufaik etxak ondo gaatzen, da oie be etxak ondo gaatzen. Banierduan da kli-klo itto jatan. Ni(k) kontaktue kendu es. "Ointxe da edarto", etxustek, ba, baterixie dana jan! Urrengo esa(n) justan "I, kanpue kanbixau bijuau". "Bai, ointxe gasak edarto, baterixaik etxeukek". Esa(n) najutzan "arrankauko juau". Altzau najutzasen aurreko errubera bixek, bata egurrekin kaltzau, bestie katuakin altzau, lotu sokie erruberan, kuartan sartu te... arrankau! A suan loterixe! Ori bai bádala esperimentue akordetakue!

2.2. Artzain Ameriketan

- **Hizlaria(k)**: Longarte Gerenabarrena, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: MAL-001/022
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:15:40. **Bukatu**: 00:18:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Mugarza Martinez, Pello
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
  Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan
- **Laburpena**: Ikusi zuen gauza ikaragarria.

Transkripzioa
Etxuat ikusi gausa bat itzelarik aintxe ikusitte nauen baiño. Belbioko jaixek sittunan. Gu Kerryn gaunasen. Esa(n) najutzenan Juan Pedroi: "I, Belbiora jun bijuau". Guk an ikusi gendun gausa bat... esunan a gisonan kapasidades einddekue. Millo bat bonbille ixotute jungo balitzes be...katxarro bat, itzelesko gausie. Erremara mordue pasau bisunan, jutaldi itzela jaunan mendis mendi; da gaatute begire egon giñan. Ei(n) juan, ba, minittu erdi arek agertu te eskutau eitten. Gure artin "a estok ixen, ba, gausa normala". Urrengo etorri sanin esa(n) najutzan usabai "estosue eser entzun? "Es". Urrengo etorri sanin, "baakisue ser ikusiosuen suek?". "Es". "Ba, a ixenda rusuek bota daben koetian atzie". Gitxik ikusi daben gausa bat ikustie suertau jakuan.

2.3. Abadearen inguruko azalpenak

- **Hizlaria(k)**: , Felix; Gallastegi, Basilio; Goitta, Pedro; Onandi, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: MAL-002/004
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:06:45. **Bukatu**: 00:07:35
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Gezuraga, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Abadearen inguruko kontuak.

Transkripzioa
- Zera sermotutxu bat eingo dotsela, esan ba hori sarie esan nau gero zestuk eitten zittune. Sermotutxo bat eingo dotsela abadik.
- Ez dakit hori.
- Ta ba sermotutxuoi, ta gero e ahuntzek eruten ei zirin [Maltaraeñien], ahuntzek bittartian harutz ta honutz, ba harek euren kopapuntu hori, han batu dittuek, ta ba gero ba haixe, urekau modue, [...] ta sakritsauei¸ sakritsauei azkanengo “hi bertako ministrua azelako lau edo bost”, proust, albokoariai, sakristauai, hori be Gerin (Gerian) pasauteku da ba.
- Egin leike.

2.4. Ezagun baten inguruko kontakizuna

- **Hizlaria(k)**: , Felix; Gallastegi, Basilio; Goitta, Pedro; Onandi, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: MAL-002/009
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:15:15. **Bukatu**: 00:16:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
  Lanbideak » Polizia
- **Laburpena**: Ezagun baten inguruko kontakizuna. Guardia Zibila ehiztarien atzetik basoan. Baserritar gutxik zekiten erdaraz.

Transkripzioa
- Lapatzan hasi garien ezkero lehenengo Lapatzakua amaittu bihaeko juau.

- Bai, bai.
- Esteban, Esteban Lapatza, ta harek mendixen ardi txabolia. Ta guardia zibillek kazadorien ondorik. Ta guardia zibillek: "Oye, ¿ya has visto cazadores?", ta "Sí, ya he visto, pero yo no sé dónde andan", atzera Estebanek. Ta "Pues, ¿a dónde vas tú?", "Yo a monte, sacar a las ovejas", Esteban horrek.
- Bapez baiño gehixa ' zan! Orduen berbarik be [ezin jakin] erderaz [danak be]!
- Ez, ba!
- Bai, erderaz apeziñokua ei zan. Bai, apeziñokue.

2.5. Mallabiko baserritar baten inguruko kontuak

- **Hizlaria(k)**: , Felix; Gallastegi, Basilio; Goitta, Pedro; Onandi, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: MAL-002/010
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:16:00. **Bukatu**: 00:16:40
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena**: Antzinako ipuin zaharra. Erlojua kordelarekin lotuta. Mallabiko baserritar baten inguruko kontuak.

Transkripzioa
- Harek erloju ' be, hemen kordel baltza...
- A! Bai. Lehen kordoie...
- Ta honakoxie, patatie. Ta "Ze ordu da, Esteban?", ta "Laste ikusiko dou. Hamarrak eta hamar." Gure aittak esaten eban beti hamarrak eta hamarrin eukitten ebala harek. Ta beti preguntia. Ta Trabakora ta [Oxara] juten ei zan, ta "Ze ordu, Esteban?" Tentatzen be bai, e? Ta "Laste ikusiko dou. Hamarrak eta hamar."
- Hori sorgiñena kontaixozue, Esteban Lapatzana.

2.6. Lan-istripuak; seguruak

- **Hizlaria(k)**: , Felix; Gallastegi, Basilio; Goitta, Pedro; Onandi, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: MAL-002/012
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:20:00. **Bukatu**: 00:22:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Arantzeta, Jon
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
  Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- **Laburpena**: Antzina Mallabian gertatutakoa. Lan-istripuak; seguruak.

Transkripzioa
- […] albañel ixo izen biher bienien, aldamiñu altzatzen, aldamiñue, ta bati komunerako larrixe etorri jakon, bajatu aldamiñun behera ta jun ein zan komuna ta bestik atzera altzau ta ekin otsen biherrien, ta a komunien dauen artien jausi ta hil zien […].
- Hartu ogixe hutsik ez ein.
- Andrie jun jakon: “ bai e, zu hortxe egoten zara da guri pasa jaku biherra” ta “zer pasau da ba?” “e aldamiñu jausi ta egon dizanak hil diela. Ta “es mas” suertie euki dabela komunin eotiaz. Handik urte beta harei alargunari han hil ziran alargunari bosna millo kobratzeko, zera diru etorri jakon, ta andrioi jun ein jakon, ta: “oin be zozer pasaten jatzu zuri” ta “bai”. “Alargun

geldittu zirenei bost millo kobrau biher dabe /bidabe/ ta zu beti komunin eoten zarilako ezebez".
- Komunin eon ziñilako ezer ezin kobrau.
- "Hantxe denpora larrei eitten dozu" ta kobrau barik geratu zan.
- [...] mutil lekitxarra zan, ta jun zan Lekitxora ta barku galdu ein zan, ta ba galdu zirin gizonei ba diru edo segurue edo zera. Andrak [...] nire gizonak[...] ez zekizien segururorik.
- Bai ba kobratzie nahi […].
- Bere gizona zergaitik ez zan hil. Harek harek ondo ekixen.

2.7. Mandeuliak eta erromeria

- **Hizlaria(k)**: , Felix; Gallastegi, Basilio; Goitta, Pedro; Onandi, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: MAL-002/015
- **Iraupena**: 0:00:35. **Hasi**: 00:26:55. **Bukatu**: 00:27:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
  Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena**: Mandeuliak eta erromeria.

Transkripzioa
- Ta Lapatzak, kortako behixei manda-eulixak --oin manda-eulixa be gastau ein da ganauetan be!--, ta [...] potetxo baten sartu ta han, Trabakun, plazie zan, erromerixie. Ta potiorri tapioi etara ta etxerako gogue neska morduek, kontizu. Pikau mandeulixek ta etxerako gogue!
- Zorrotza [...] , gero!
- E?
- Manda-eulixek zorrotza eitten dau heldue. Pikadie zorrotza mandeulixek.
- Enee! Hoixe!

2.8. Semea abade egiteko dirurik ez

- **Hizlaria(k)**: , Felix; Gallastegi, Basilio; Goitta, Pedro; Onandi, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: MAL-002/028
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:12:20. **Bukatu**: 00:14:10
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Antzinako bizimodua. Semea abade egiteko dirurik ez.

Transkripzioa
- Ta beste gauze bat, bidie, zera, kongregaziñorako [diruan izena], hamen auzuen be abade bat [ein guran], estudixatzen, Otsonen. Eta aittek eta amak ezkondu ein gure alabie, ba, harentzako diru pixkat ekartiarren,

abadia eitteko dirue ekartiarren.
- Hamar mille pezeta edo kostatzen ei zan...
- Ehun duket, berrehunekue, argitzen jakuela, baiña hirurehun-laurehunekue gure. Abadien karreria amaitzeko diru palta. Ta ehunekue ta berrehunekue argitzen jakuela, baiñe... guk etxien daukou mutil ona, gure [aittitte... morro], etxerako mutil ona etxin daukou, baiña dirue faltau abadien karreria amaitzeko. Ta ehunekue ta berrehun... Duketa, hamaika erriel. Entzun ondo, e! Hamaika erriel, ba, etarakozu kontue [esloie deukozuenak] zenbat urtetzen eutsen. Duketa hamaika erriel. Ta ehunekue ta berrehunekue argitzen jakola, baiñe hirurehun-laurehunekoik ez. Ta, halantxik, gero Elorrixotik etorri, ba, ez jakixat, hirurehun edo laurehun edo ze ekarriko eban, handik etorri karreria amaitzeko...
- Dirudune.
- ... dirudune. Halan amaittu zuan hori gure zaharren denporan. Nik neuk ezautu, haren ehun-berrehun [biher zittunen] andrioi, etxera ezkondutekue, Otsonekue, ezautu najuan. Pascuala. Baiñe haren aurreko guresuk ez.

2.9. `Xenpelar´en "Azken juizioko bertsoak"

- **Hizlaria(k)**: , Felix; Gallastegi, Basilio; Goitta, Pedro; Onandi, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: MAL-002/031
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:16:05. **Bukatu**: 00:17:10
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena**: `Xenpelar´en "Azken juizioko bertsoak" bertso sortako pare bat bertso abesten ditu. (hurrengo pasarteansorta honetako bertso gehiago)

Transkripzioa
Hemen kristauak bidian degu, ba
azken juizio eguna
geure begien bistan
ikusi behar deguna.
Josepateko zelai santuko
tronpeta-soinu illuna
galduak pena eramango du
eta justuak fortuna.

Zeruak ditu hamabi ate
aingeru bana guardian
urrezko murallak eta
alhaja fiñak erdian.
gloria [...] danean
musikaren alegrian
hori alkanzatutzera danok saia
gaitezen fede garbian.

- Ta, ba, kantauko dotsuraz gehixago papeletik nahi badozu.

2.10. `Xenpelar´en "Azken juizioko bertsoak"

- **Hizlaria(k)**: , Felix; Gallastegi, Basilio; Goitta, Pedro; Onandi, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: MAL-002/033
- **Iraupena**: 0:06:05. **Hasi**: 00:18:30. **Bukatu**: 00:24:35
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena**: `Xenpelar´en "Azken juiziok bertsoak" bertso sorta.

Transkripzioa
Munduko gauzen errematia
dakar azken juiziuak
hauts bihurtuta utziko ditu
herri ta palaziuak,
mendiak lehertu alkarren kontra
herri ta naziuak
zententzi hori botako digu
Jesusen bendeziuak.

Itsasoak su, eguzkia illun,
illargia odolak hartu
lurra ikara eta, gaiñera,
errio danak agortu,
munduko gauza baliosuak
erre ta ikatz bihurtu
pekatariak umil gaitezen
bada zerekin beldurtu.

Heriotzaren larritasuna,
suspiriua barrendik,
nahi ez degula bertan hil behar
anparo gabe iñundik
Josapateko zelai santura
juango gera hemendik
ez da zeruan sartuko Jesus
desanparatzen duanik.

Jesus zerutik Josapatera
aingeruakin batean
pekatarien artzai umilla
badator hoien tartean
zelai santura juango gera
bide guziak betean
gure orduko larritasuna
zententzia eman artean.

Alkarren bistan emango digu
zetentzia bat zorrotza
gure obrak han azaldu behar
gaixtoarentzat ze lotsa!
Pekatariak altxa dezagun

Jesusengana bihotza,
konsideratu gugaitik nola
pasa zuan heriotza.

Josapateko zelai santuan
asko degu ikusiko
Jesus nola dan zetentzia bat
guri ematen hasiko.
Gaixtua danak inpernurako,
onak ez du mereziko
justuarentzat zeruan silla
eternidade guziko.

Aita Santu ta errege hoiek,
obispo ta apaiz guztiak,
pobre ta aberats diranak berdin
maixu horren justiziak.
Diruak ez du han balioko
hori gaude ikasiak.
Zeiñi berea emango dio
jangoikuaren graziak.

Anima galdu baten tormentu
eta nahigabe haundiak
zer diran ezin konsideratu
gizonaren memoriak
eternidade guztiko penak
etsaien mende jarriak
horra munduko gustuak eta
egun engaiñagarriak.

Guztiok gera pekatariak
deseoz edo obretan
tentaziuak guretzat dira
ez da dudarik horretan.
Gorputz argala erortzen bada
bere bizio txarretan,
gure anima entregatzen du
etsaien atzaparretan.

Bi bide daude ezker ta eskubi
komeni da ikastia
aukerak daude, bata zerura
inpernurako bestia
gure anima jaungoikuari
hainbesteraiño kostia
eta zer pena hartuko duan
Luziferrentzat uztia.

Infernua da kalabozo bat
mortal ikaragarria
han sartzen danak ikasiko du
tormentu hoien berria.
Luziper dago hango errege
ezpatarekin jarria.
Harren mendean egon beharra

animak daukan larria.

Zeruak ditu hamabi ate
aingeru bana guardian
urrez muraillak egiñak eta
alhaja fiñak erdian.
gloriak daukan edertasuna
musikaren alegrian
premio hori alkantzatzera
gabiltzan fede garbian.

Aita Santua Erroman dago,
izena Pio deritza
haren kontrako enemiguak
inguraturik gabiltza.
Jangoikuaren birtutia da
beti errenditzen gaitza
kristau fidelak, kunpli dezagun
ebanjelioko hitza.

Bertso berrien errematia
zer datorkigun jakiña
horra nik esan nola behar dan
egia [justuen] samiña
premio hori alkantzatzera
enpeñatu ahalegiña
zu bitarteko eskatzen zaitut
aingeruen erregiña.

- Amaittu dira horrek.
- [...]
- Bueno, hori klasiori amaittu da.

2.11. Mallabiko antzinako kontuak

- **Hizlaria(k)**: Gallastegi, Alejandro; Gallastegi, Basilio
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: MAL-005/002
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:00:40. **Bukatu**: 00:02:15
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Mugarza Martinez, Pello
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena**: Durangora joan eta orduan gertatutakoa kontatzen du. Sorgin kontuak.

Transkripzioa
Esteban Lapatza, Manuelen aitte, sara saltzen Durunga jute suan da, gabien billurretan ibiltte suan. Gabak asko billurtze juan. Sarak astun artute doiela, "arre, arre! Kataluña Lorgoño"- kantatze juan- "Kataluña

Lorgoño, arre, arre! earto goies da."
Askabarrin astue gaatu ei jakuan aurrien da, "arre, earto goies da" esa(n) jutzan astuai, baiñe astue geldi.
-Se errekoiño da emen?- aurrie dana bete-bete sorgin urte(n) jutzen dantzan.
- Jesus esanda seiñetu notzen da anda errekoño martxosten danak- esa(n) juan.

2.12. Mallabiko antzinako kontuak

- **Hizlaria(k)**: Gallastegi, Alejandro; Gallastegi, Basilio
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: MAL-005/004
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:04:40. **Bukatu**: 00:06:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Mugarza Martinez, Pello
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
  Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena**: Baserritarren arteko kontuak.

Transkripzioa
Uxarteko osabie ta Goittako osabie jun sittuan baten Lapatza, denpora txar batas. Estebani denpora txarra gustatze jakuan da esa(n) jutzen árei:
-Au denporie earra!
-Bai, denpora txarra da!
-Bart ordubatetan txori torrepuk(sic) etxaburuko aixtixen "kirrink, kirrink" eitte najuen. Ori seiñaletxu politte denpora earrak eitteko.- esa(n) jutzen Estebanek.
Uxarteko osabiek esa(n) jutzan:
-Gurien be atzo katuek sille beltetan sekuleko dantzak erabilli sittuen.
-Je, je! Ori beste seiñaletxue politte denpora earrak eitteko, katu saarren sille beltetako dantzak. Ori seiñaletxue politte denpora earrak eitteko.
Denpora txarra gustatze(n) jakuan, kontisu, ta denpora txarrak posik eukitte juan.

2.13. Mallabiko antzinako kontuak

- **Hizlaria(k)**: Gallastegi, Alejandro; Gallastegi, Basilio
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: MAL-005/006
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:07:30. **Bukatu**: 00:08:25
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Mugarza Martinez, Pello
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- **Laburpena**: Baserritarren arteko kontuak.

Transkripzioa
Leena, Mallibixen, Turubio Etxebarriko ta Talo Txiki asarratu sittuan. Eldu jutzen burruke, Mallibiko Sirkulun de eskillaretan beera bueltaka ju(n) sittuan. Eskillara buruko lauen gaatittuk eta Don Julian medikuakin bat ei(n) juen an. Don Julianek pentzatze(n) juan asarratute ebisela, baiñe okerrerixas ebillasen bixek.
Don Julianek "bakie, bakie" esa(n) jutzen da Turubiok:
-Santisima Dios! Bedorrek duke gure arduraik ala?- kontestau jutzan medikuai.
-Arduraik es, baiñe, neuk pagaukot serbesa pixkat eta serbesa pixkat eran biau.
Baietz esan da, bixek artu, Talo Txiki tte Turubio ta, jun de serbesie era(n) juen iruren artien.

2.14. Mallabiko antzinako kontuak

- **Hizlaria(k)**: Gallastegi, Alejandro; Gallastegi, Basilio
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: MAL-005/011
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:15:50. **Bukatu**: 00:17:35
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Mugarza Martinez, Pello
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
  Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena**: Teileria inguruan gertatutako ipuina.

Transkripzioa
Basilio Iñusiñako ta Eugenio, Basilion aitte, tellerixan araketan jabillasen baten. Basiliok Urkixako auntzai oostu te poltzikun txiliñe jeukan. Basilio íttaurren da aitte átzien, Basiliok poltzikoko txiliñai saatie etatze jutzan.
Aittek oserbau jutzek átzetik saatie ta esa(n) jutzek:
-Se dukek or?
-Nik etebe etauket. Nik etauket eter!
Osta be ekiñalditxue ta osta be "txikili-txikili" txiliñek saatie:
-Soose baukek eta erakutzik!
-Nik etauket eter!
Osta be beste jeurt bat edo bi tte osta be saatie. Aittek derrigorrien erakutzi erai jutzan da: Urkixako auntzan txiliñe.
-Nundik ekarriok au?
-Urkixako auntzai kendu nutzen atzo.
-Ba, entregaik derrepente. Ementxe gánauek geldi diela ítxaine eingo juat eu etorri arte ta entregaik ori Urkixa segidun.
Ta bilddu juan Urkixa txiliñe entregatza.

2.15. Mallabiko antzinako kontuak

- **Hizlaria(k)**: Gallastegi, Alejandro; Gallastegi, Basilio
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: MAL-005/012

- **Iraupena**: 0:01:41. **Hasi**: 00:17:35. **Bukatu**: 00:19:16
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Mugarza Martinez, Pello
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- **Laburpena**: Baserritarren arteko kontuak.

Transkripzioa
Oin urte asko, Gomesian, enpalmian onduen, kéixak jeuasen edarrak. Ni, Antonio Aitxuluetan dauena ta "Entran" Lapatza jun gintzuasen keixatá. "Entran"-ek eskupetie jeukan da Gomesiako Paulak txakurre esarri oskuan keixa gaiñien gauesela. Salto ei(n) genduan keixatik eta "Entran" Lapatzai esa(n) najutzan:
-Ekarrik ona eskupetioi.
Txakúrrek aurres-aurre "bau-bau" saunkatze justan. Jaurti jutzat da txakurre bustenas gora. Agin danak bota najutzasen tiruakin.
Gero Paulak esa jutzen semiei, txakurre eridute geldittu dala basuen da etortzeko.
Etorri sittuan Andres ta, Pedro ta. Gu orduko Goitta Etxebarrire aiñeketan pasaute.
Ortusar Txikixe jebillan Eltzubire, Gregori nobixa juan da. Mutillok eskopeterue topatzen jabillasen, baiñe etxuen topatzen. "Eltzubiko atiek "kirrink" einddau te Ortusar Txikixe ixen da tirue jaurtitzena" esa(n) juen.

2.16. Mallabiko antzinako kontuak

- **Hizlaria(k)**: Gallastegi, Alejandro; Gallastegi, Basilio
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: MAL-005/014
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:19:50. **Bukatu**: 00:20:55
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Mugarza Martinez, Pello
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- **Laburpena**: Baserritarren arteko kontuak.

Transkripzioa
Oin urte mordue dala, Goitta-Etxebarrire jopide aundixe jeuken gure anai Patxik, Basiliok eta Anton Goittak. Goitta- Etxebarrixen étxeuken argik eta étxaurretik joian Apoittera linie ta argixe ipini bibela. Lasto alanbrias ipini juen argixe. Txipristiñek etatze jittuan eskatzien da:
-Turubio, eixosu bedorri txise!
Txise eitten asi ok eta etxutze(k) pa imanak tiretu!
Gero suteko lapikue be egosiko leukela arek indderrak. Suteko lapikora ipiñi juen da eskatzien sier bueltaka...
Ortxe amaitzok ori.

2.17. Mallabiko antzinako kontuak

- **Hizlaria(k)**: Gallastegi, Alejandro; Gallastegi, Basilio
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: MAL-005/015
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:20:55. **Bukatu**: 00:23:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Mugarza Martinez, Pello
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
  Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena**: Antzina gertatutako ipuina.

Transkripzioa
Basilio Iñusiñako, leena mutikotan, Iñusiñako esparrun ardi sain ego(n) suan. Eugenio Anddiberrekon aittitte onako perillias, perilla aundixas ibiltte(n) suan.
Basiliok ardi sain euen lekutik:
-Ainddiberreko biter! Ainddiberreko biter!- esa(n) jutzan.
Ainddiberreko etxaunek es, baiñe etxekandriek entzun ser esautzen da etxekandriek gero Basíllion amai esan Basiliok ser esautzen.
Gero Basilion ama(k) pe árekin ondo gure juan da árei edarra eittiegaittik, jaixegun euberdi ostien, Ainddiberrera eru(n) juan Basilio, etxaunei eskun mun eraindde parka eskatzen. Ainddiberreko etxaune kafie artzen jeuan da esan ei jutzan:
-Onek Ainddiberreko biser esan ei otzu te parka eskatzen dakat.
-Ba jarri emen. Ekarrixosu oni kafie-esa jutzan etxekandriai.
-Bai, baiñe, lelengo parka eskatute oba da, úrrengorako be!- etxekandriek.
-Es, jarri emen, neure onduen. Euki espanajok esustan esango ta. Jarri ari ementxe ta ekarri oni kafie.
Ta ekarri kafie ta kafie emo(n) jutzan beran ondun.

2.18. Mallabiko antzinako kontuak

- **Hizlaria(k)**: Gallastegi, Alejandro; Gallastegi, Basilio
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: MAL-005/016
- **Iraupena**: 0:02:14. **Hasi**: 00:23:00. **Bukatu**: 00:25:14
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Mugarza Martinez, Pello
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Hileta Ermuan. Baserrira itzultzeko beldurra.

Transkripzioa
Gure ámama ta Bóliña, Ermure, euren etxarteko baten enterrure jun sittuan leena.
Ermutik etxa datosela, Aitxixotik bueltan, Mallibittik etorri bier, bestetik bide txarra jauan da.
Datosela, San Pedrora allegaittuk ta mosoluek San Pedroko kanpantorran "kirrissssk! ei(n) jutzen. Billurtu sittuan bixek eta gure ámamak esa jutzan

Bóliñai:
-Se ixen da ori?
Bóliñak esa jutzan:
-Estaki(t) nik, geure bidien goies da Jangoikuk gure daben bat ixengo da. Andik eta burdin kurutza berbai(k) pe alkarri ein barik, ixixillik etorri sittuan. Burdin- kurutza sienien batak Boliña jun bier eta bestiek Goitta etorri bier. Ámamak esa(n) jutzan:
-Neu be órtixik nator, émendik juten billur nas da.
-Su jungo siñateke, baiñe neu esin nitteke- da bixek Boliña jo juen.
Ori suan Boliñako Donaton aittitte, ta Donaton aittitte suan Agustin Bóliña. Aittek esa(n) jutzan Agustiñi:
-Agustin!
-Ser?
-Lagundixok oni Goittara!.
Da Agustiñek lagundute etorri suan Goitta.
Ori be kastauo(k) pa!

2.19. Mallabiko antzinako kontuak

- **Hizlaria(k)**: Gallastegi, Alejandro; Gallastegi, Basilio
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: MAL-005/017
- **Iraupena**: 0:02:21. **Hasi**: 00:25:14. **Bukatu**: 00:27:35
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Mugarza Martinez, Pello
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- **Laburpena**: Baserritarren arteko kontuak.

Transkripzioa
Goittako beeko esparrun, Onandiko beixek beti sartze sittuan. Eurek gari ebatetako gordeta eukitte juen a basue ta beti Onandiko beixek barrure. Iñusiñako Basilion amak esan egun baten Úxarteko osabiai:
-Oin be Ónandiko beixek suen esparrun an das, ba!
Jun Úxarteko osabie ta beixok bájakarrasen etxa ta, Ónandikuk solo lusien gari ebaten. Diar ei(n) jutzek beixek etxa dakasela euren esparruen egon diela ta. Eta ei jutzen an jardun bat. Júmari Ónandikuek. "Nekabuen Dios" esan ei juan da abisauok beeti(k) gora. Antoni sanak beetik alako kalamatrikaik, seguru, te Uxarteko osabiek esan ei jutzan:
-Banator beerago, émendik estot eser entzuten da.
Abixau ei suan Úxarteko osabie beera ta, ostabe aren jardune seguru, beetik.
-Ixillik ego(n) saitte seure agin aundixokin- agiñik bape es ei jeukan, ba- Ixillik egon saitte seure agin aundixokin- esa(n) jutzek eta:
-Banajaukesak naixa neukek ire potru(k) paiño.

2.20. Mallabiko antzinako kontuak

- **Hizlaria(k)**: Gallastegi, Alejandro; Gallastegi, Basilio

- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: MAL-005/018
- **Iraupena**: 0:17:25. **Hasi**: 00:27:35. **Bukatu**: 00:45:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Mugarza Martinez, Pello
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
  Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena**: Pedro Lapatzaren inguruko kontuak. Erromeria Osman.

Transkripzioa
Pedro Lapatza, leena, Traaka jute suan euberdi ostien, sarritten Traakuk eurek baskaldu orduko. Besteik iñok erlojuik etxeukan, erlojue ser san be askok étxuan jakingo. Arek erlojue poltzikuen, urriñetik entzuteko saatie "tris tras, tris tras, tris tras..." erabiltte juan. Traaka jun da, iñor beuen, danei, soltau erlojue ta, "onek erruberionek orri buelta emoteutzela, bestiai bestik eitteutzela, bestik a eitten dabela, erakutzi dana ta axe erakutzittekuen Osma erremerixa.
Osman eitte(n) suan leena erremerixie, ta San Junen be bai. A Osma, Markitten jukan nobixie. Eskondu be aretxekin ei(n) suan.
Gomesiakun eitte juan ijui aundi bat- ijuilari edarra ei suan. Estebanen etxetik entzun aren ijuixe ta:
-An gure orru-aundi, an gure orru-aundi, istarri-aundi badoie.
Eiberren bisi ixen suan. Neu(k) pe ondo esautu najuan. Bittor eskondu sanien be San Junen lelengo ta gero Traakun ikusi najuan, Bittorren bodan. Ni txakur-estegure ju(n) nitzuan, ta aintxe bota genduan egune sabaldu artekue.

2.21. Mallabiko antzinako kontuak

- **Hizlaria(k)**: Gallastegi, Alejandro; Gallastegi, Basilio
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: MAL-005/019
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Mugarza Martinez, Pello
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- **Laburpena**: Haize handia egon zeneko gertakizuna.

Transkripzioa
Oin urte mordue axe billurgarri bat ego(n) suan emen parajien. Lapatzan Bittor da aitte sana sustau sittuan etxien egoten be ta oeko koltxoi bana artu lepuen bixek eta etxaburuen txabolie jeuken da araixe txabola jun sittuan. Tantai aundi bat apurtu jutzen kontran axiek eta billurtu sittuan. Landa barrenien beste tantai aundi bat apurtze(n) jok, billurtu sittunan an be. Etxaburun estartatxo bat jeuan, aintxe koltxoi bat bota aspittik, beste bat gaiñetik, eta goxa artekue aintxe pasau juen.

2.22. Mallabiko antzinako kontuak

- **Hizlaria(k)**: Gallastegi, Alejandro; Gallastegi, Basilio
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: MAL-005/020
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:01:00. **Bukatu**: 00:02:15
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Mugarza Martinez, Pello
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
  Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena**: Antzina gertatutako ipuina.

Transkripzioa
Leena, Goitta Etxebarrixen berrogeiñe urte inguruko asto saar bi jukesan. Nik eta lengosuek Dionisiok artu genduasen astuok aurrien. Sologoittin isengurie jauan. Sartze jittuau astuok isenguran eta urten esin. Neskasartxu Mari Justiñek erreparatze(n) oskuk, martxa eitte jutzau Lapatzako soluetan gora, Lapatzako etxaburure ta andik beittu guk:
-Madarikastiok!-esate(n) oskuan beetik neskasartxuorrek- Madarikastiok! Astuek sepulturan ipiñi oskusus de!

2.23. Mallabiko antzinako kontuak

- **Hizlaria(k)**: Gallastegi, Alejandro; Gallastegi, Basilio
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: MAL-005/022
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:03:30. **Bukatu**: 00:04:45
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Mugarza Martinez, Pello
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Antzina gertatutako ipuina.

Transkripzioa
Leena, gure aitte sana, Ónandiko osaba sana ta Otzoneko Jose Domingon aitte sana Mallibittik, eta maixue San Pedroko elixpien andriakin. Batamatek, etxakixat seiñ ixengo san:
- Maestro kakamaestro! Maestro kakamaestro!-osta be.
Maixuorrek urtetze jok eta aite sanak eta Ónandiko osaba sanak anka.
-Quien ha sido? Quien ha sido?
-Nekauen sos, gero!- Esa jutzan Otsoneko Jose Domingo sanak. Bueltau juan maixuoi aguro átzerutz.

2.24. Mallabiko antzinako kontuak

- **Hizlaria(k)**: Gallastegi, Alejandro; Gallastegi, Basilio
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: MAL-005/023

- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:04:45. **Bukatu**: 00:07:25
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Mugarza Martinez, Pello
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
  Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena**: Antzina gertatutako ipuina.

Transkripzioa
Iñusiñako Basilio Goitta boleta etortze suan, Goittako posu onda. Traperue sestue itxi Otzoneko landabarreneko orma gaiñien da Iñusiña trapuik dauen ala es jakitten da Basilio beeti(k) gora.
Ak traperuk sintture barrixek eta erabilttte(n) jittuan da Basílliok jakin selan erabiltte(n) sittun.. Errekistau jutzek beeti gorutzien sestuoi tte sestuan ondarrien sintture barrixek topau. Lotu gerrixen da, ara!
Gero Úxarteko osabie ta kuadrillie juntaittuk eta:
-Iño, sinttture barrixe be baukesu.
-Amak ekarristen atzo Durungotik.
-Joño, Mari Josepak ekarriotzu?
-Bai, amak ekarriste.
-Baitte dotorie!
Baebillan sintturias da etorriok traperue bueltie eindde. Sintturian paltie artu jok eta igerri ak.
Atrapau jok traperuk eta sapusteko kontue. Bertan kolpe ei(n) jutzek eta Bixenti Ortusar beeti(k) gora, Traakora. Ak goiko bidetik:
-Et, et! Geu be emen gaittuk gero!
Orduntxe Basilio librau. Traperuk orduntxe ainddu, bestelan apurtze(n) juan bertan. Sintturie kendu eta itxi juan sintture barik.

2.25. Mallabiko antzinako kontuak

- **Hizlaria(k)**: Gallastegi, Alejandro; Gallastegi, Basilio
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: MAL-005/024
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:07:25. **Bukatu**: 00:08:05
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Ibañez, Jon
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena**: Antzina gertatutako ipuina.

Transkripzioa
- Harek erlojuk be, hemen kordel baltza.
- A ba lehen kordoie.
- Ta honakoixie patatie.
- Bai.
- “Ta ze ordu da Esteban?” Ba laster ikusko dogu, “hamarrak eta hamar”. Gure aitxak esaten eban beti hamarrak eta hamarrien eukitten bala harek, ta beti preguntie tragaporata porsea juten ei zan, ta “ze ordu Esteban?” ta tentatzen be bai e! Ta “laster ikusiko dogu, hamarrak eta hamar”, ta…

2.26. Mallabiko antzinako kontuak

- **Hizlaria(k)**: Gallastegi, Alejandro; Gallastegi, Basilio
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: MAL-005/028
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:10:55. **Bukatu**: 00:13:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Ibañez, Jon
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena**: Antzina gertatutako ipuinak.

Transkripzioa
- Han kamiño eskiñan keixa baltzak edarrak ta keixara igon dou horren anaie, ni ta hori, Eiberren hori bizi dana, Eugenio.
- Bai.
- Ta keixa ta haren eskopetie Eugenion anaiana.
- Bai.
- Iñaxiona. Ta andri horrek e sentidu gaittu keixan ta “hona pri pri pri, hona hona, hona, intu horri intu horri!”. Ta salta ein dau keixa ganetik ta horri lapatzak ekarri hona eskopeti hoi ta txakurre ta hor hamar bat metrora edo goratxua “uau uau uau”, “danba” nik, ta hauxe ein jutsen buztanai, buelta. Ta gero horrek lapatzak mutikuek zezteru zan aitte, horren Eiberren bizi danan aitte.
- Manuel.
- Ta tentau harek Manuelek ta txakurrek Priñek ondo jaten dok? ta bai esnetan e ogixe bustitxen bapez duk hagiñik ta esnetan busti ogixe ta jaten dau ta gustora lapatzako zaharroi, ta ba gero e ospa ta gero amak esan bere mutikuoi ba txakurrei ze pasau jakon, tiru bota dotsela ta harek ezagutu ez gu urrintxua egon be ta, ta gero hori e beheku Ortuzar txikixe, nobixie euken han Eltzubixen, Eltzubixen ta harek e mutiko gaztiok zeintzuk izan ete giñen-edo basouk errekistatzen ta harek e entzun dok atiek kirikin ein dabela ta Ortuzar txikixe ixen zala, Ortuzar txikixe hor be.
- […] ta danak librau.
-Kirikin ein ebala atij eta ba etxera kontxu nobixian etxera ba hori Jerezeku hori.
- -Zeuk be desentik zera bide zidorra einde ipiñi ta tranpie ipiñi ein zotsen.
- Zeri?
- Ortuzarri.
- Tranpie ipini?
- Tranpie holakoixie, bai.

2.27. Abadearekin ikasitakoa

- **Hizlaria(k)**: Leixarra
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: MAL-007/003
- **Iraupena**: 0:00:25. **Hasi**: 00:06:45. **Bukatu**: 00:07:10
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane

- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Don Antonio abadea. Dotrina irakasteaz gain, matematikako oinarrizko ariketak ere irakatsi zizkien.

Transkripzioa
- Don Antonio.
- Don Antonio?
- Bai. Ha abade ona! Honaxe etortzen [zan] dotriñie emoten, ta ha... Tablie, tablie be erakusten oskun harek. Dotriñie bakarrik ez, tablie erakutsi hak kantaute, [zapata... hankie...]: "Cautro por cuatro dieciséis" ta kantaute Bai. Ta hak diru asko [...] esaten eben. Ta gero, ba, diruek danak elixiai itxi eutsezen hak. Bai. Elixiai itxi diruek danak. Ha gizon ona, esaten eben.

2.28. Mojak eta fraideak baserriz baserri

- **Hizlaria(k)**: Leixarra
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: MAL-007/004
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 00:07:10. **Bukatu**: 00:10:25
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- **Laburpena**: Mojak eta fraideak baserriz baserri joaten ziren garia, artoa, arrautzak batzen.

Transkripzioa
- Zuk ez dakit... zuk be ezautuko zenduzen mojak eta frailliek eta etorten zin...
- Inporta dotsu hamentxe jartie?
- E?
- Inporta dotsu hemen jartie?
- A! Bai, baiña nik ze esango dotsut, ba? Aiba... Nik danak aldrebes esango dotsuraz ta!
- Ez!
- Ba, lehen etorten zien frailliek eta; ta bat hortxe Iruzubittakue edo [Elorrixakue] be bai, honakotxe kapa haundi batekaz, ba. Zabaltzen eban altzuen, ta artue urkuldu haretxek arin. Urkuldu bae egoten zan, ba, sarritten iguel, ta urtien-urtien etorten zan ha. Ta laster urkultzen eban. [...] be bai; "Oin urkuldu...", "Ekarri, laster urkulduko dou ta" esaten eban harek. Ta gero, hurrengo, euen beste bat, hor Gipuzkukue etorten zan, ba? Talue ta esnie harek. Baten [... ein euskun hemen...]; talue ta esnie be goxien pozik jaten eban harek gizajuk. [...] zan ha.
- Gixajuk , bai... Harek arrautzak batzen etortzen zien, ta harek...
- Hori da. Harek arrautzak batzen zittun. Ta, ba, orduen geuk be talue jaten gendun gehixenetan, oin, behin oin sasoe hontara ezkero. Ta, ba, gosien etorten zan ta talue ta esnie, ba, birritan edo jan eban harek. Bai, ta [fraille...] bai.
- Gero estanpie emoten eban. Berak estanpie...

- Estanpie. Enee...! Hau gitxia´ zan, baiña beste mutille zan gurin estanpie emoten eutsen --ha txikixaue zan-- ta, ene, ba! Santue emon eutsela berai ta haren poza! Harek ekarten eban, ba! Etorten ziñin, ba, danei emoten gontsen guk. Sekulo ez geuntsen emon barik itxi iñori be.
- [Hor behien danei] ez [eutsen] emoten; hor hemen baiño jente listuaue euen. Han etortzen zan zera, praillie, ta [...] Juan, ni baiño nausixaue mutilla. Ba, bastante nausixaue. Ha esne-saltzen ibiltzen zan, ba. Ta mutikuek: "Tio, tio praillie etorri da", ta "Ba, esaixok jainkuek emongo dotsala". Mutikuek junda...
- Ta mutikuek [hartaraxe] esan ha frailliei, ta, ba, gero fraillie buelta eindde.
- "Jainkuek emongo dotsule esan dau" ta buelta ein ta ixilik...
- Eske hori [eurek] esateko kostunbrie [deuko]; hori esaten eben lehen abadiek eta: jangoikuek emongo doskule. Ta jangoikue, ba... Guk baiño hurrao deuke, ba, harek jangoikue eskatzeko [be]!
- Elementu edarrak horrek! Joe...!
- Eurak noberai eskatu...
- Baiña guri eskatu beti!
- [Jangoikuai eskatzeko esan] ta gero guri eskatu. Hori dok markia hori! [...]
- Mojak be etorten zien lantzien, baiña mojak gitxitten etorten zien. Harek be arrautzak batzen etorri zien baten, ta beste baten babie batzen be bai. Artue batzen ez zien etorri sekula mojak. Ez. Mojak etorri [izen zien] babie ta arrutzak. [...] akordetan naz ni. Baiña urkuldu bae egoten bazien babie nahi artue, segidun danan arte moldeten gendun. Derrepente! Eurak prest egoten zin laguntzeko!
- Bai, eurentzako hartzeko, [jakiña!]
- Ta [...] ez eban eukitten hor [... Elorrixakuek] be? Ta Berrizko mojei saltzen eutsen gero. Ez, [kateunien], [Kateunien], tabernan. Halan esaten eben, tabernarako hartzen zittule.
- Bai, [...] saldu [...].
- Arrautzak eta hortaikuk. Ba, holantxik, ba, gauzak asko. Oin be paseten die, baiña lehen be paseten zien.

2.29. Lihozko arropak

- **Hizlaria(k)**: Gerenabarrena Astorkia, Maria; Longarte Gerenabarrena, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-009/006
- **Iraupena**: 0:04:38. **Hasi**: 00:15:36. **Bukatu**: 00:20:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
  Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Lihozko ("linuzko") arropak. Gizonari bere amak arreorako eman zizkion lihozko izarak, koltxa-azalak eta buruko-azalak. Koltxa-azalak bordatuta zeuden (alkatona esaten zitzaion). Ardi-lanazko koltxoiak.

Transkripzioa
- Erropa haundixak edo izarak edo, liñuzkuak izango zian, ez?

- Garbittu eskuaz danak. Danak garbittu eskuakin lehelengo. Han barrikan egosten zienak be lehelengo eskuaz jabontzen zien.
- Lauskittute.
- Lehelengo. Ez da, gero, ha, bera be gauza edarra izeten, eskuaz...
- Eta zelan esan detsazu horri? Lauskittu?
- Lauskittu.
- Lauskittu. [Honan].
- Pixkat zikin haundiñak kendu ta...
- Bai.
- Lauskittu, hori berbioi ez dakit iñun be [esaten deutsen].
- Lauskittu, ba... Ze esango dot besteik, ba?
- Geuk aitzen dou, baiña honek...
- Bai, bai, bai.
- Eta erropia zelakua zan? Takarra? Liñuzkua edo...?
- Liñuzkuek gitxi eozan, baiña lehen liñuzkue takarra izeten zan. Sendue. Ez dakit, ez dozu ikusi hori teliori sekulo?
- Bai, gogorra, ez?
- Bai. Gero akaso ikusiko dou. Hor, alabiek deko, ba, etxe barritxue eindde ta hari emon neutsen. Euki be gitxi, e? Ehune lehen-lehen dana haxe. Ostiantziengo...
- Honen ume sasoien haixe gongo zan...
- Ostientzengo tela barik. Baiña nire jaixotetxien, ez zan egon hori. Nire suegriek baeukezan batzuk eta emon eutsezan, neba-arreba bi zien, nire gizona ta arrebie. Ba, gizona gripe denporan hil zan ta, ba, gero halan segidu eban. Ta, ba, ezkondu zanien, lehen esaten zan, ba, arrio modure-edo emoten eutsen etxien be bai, ta suegriek emon eutsezan aittai hiru ixera ta hiru koltxa-azal. Horrek koltxa-azalok nik sekulo honaxe artien ez dittut ikusi.
- Kerrue-edo esaten jako horri. Kerruzko...
- Kerrue? Bai, kerrue beste bat izeten dok [...]. Ixetez, dana ehune, baiña kerrue [ixeteko] fiñaue edo ez dakit, ba, zer.
- Kerruzko izerak.
- Bai, bai. Ehunezko izerak. Oin, kerrua izeten da fiñaue, mehiaue edo holan. Ta haretxek emon eutsezan semiai...
- Arreo moduan edo...?
- Bai, bai. Etxien, ba, hiru ixera, hiru koltxa-azal ta burrukuek esaten jakuen. Almuhada lez, hiru burruko azal. Ta senduek, takarrak bai, e?
- Honek [usetako] norberantzako txarrak dia, e? Ni akordetan naz ta...
- Ta, bai. Ta euken harek koltxa-azalak, harek koltxa-azalak badakizu zer zien? Nik be honaxe artien sekula ez dittut ikusi ta, gaiñera, usau be ez nittun ein hemen be. Ixerak bai. Ta harek koltxa-azalak euken, nahiko txiki zin [izeretarako] ohien, baiña koltxa-azalak euken honakotxe...
- Moldaduria.
- ... alkatona esaten jakon. Alkatona. Azulaz eindde garixan dibujue ta beste dibujo bat. Ta hiruretaik bat, egixa esateko, alabiai emon neutsan. Orduan Ondarrura ezkondu zan, ba, ta pixkat afantxuaz emon neutsen.

2.30. Bedeinkazioak

- **Hizlaria(k)**: Solozabal Unamunzaga, Antonia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-011/021
- **Iraupena**: 0:02:09. **Hasi**: 00:31:45. **Bukatu**: 00:33:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- **Laburpena**: Abadeek herritik bedeinkatzen zituzten soroak. Garizuman, gurutzeak bedeinkatzen ziren. Ur bedeinkatua. Trumoiaren beldur.

Transkripzioa
- Abadiak ibiltzen zian soluak-eta bedeinkatzen? Halakorik entzunda dakazu?
- Ez. Eurak Mallebittik be... Lehena´ esaten eben, baiñe herrittik bedeinkatu.
- Herrittik bertatik?
- Bai, ta halan bedeinkatu. Ta gero kurutziek ekarten zien. Hiru kurutza... Zein egun? Garizuman eitten zien kurutzak bedeinkatu. Txortie ein, kurutzatxue ein, holan, gora egurrekin, holan sartu... bedeinkatzera eruten zin erremu egunien. Ta gero bedeinkaziñuen abadiek handik hillebetera-edo etxe... Baiñe Mallebittik, e! Ta, holan, etxien sartu hor, han... Ta noberak.
- Soluan?
- Bai.
- Gero, atian ipintzen zan zeoze?
- Baitte!
- Garizuman, be bai?
- Ba, orduntxe ipiñi ta kittu. Dauela! Ataixen be bai, holan, ereiñotza ta erramue, txortatxue, holan, bentanian eskiñatxuen-ta be bai. Dotore!
- Eta ur bedeinkaturik?
- Ur bedeinkatue beti egon da ointxe arte hemen.
- Bai? Ibiltzen ziñazien garizuman ura, ur bedeinkatua, partitzen?
- Bertatik ekarri! Guk Mallabittik ekarten [...] ur bedeinkatue. Oin be egoten da hemen, Mallabixen. Partitzen dabe garizumako azkenengo domekan edo; bedeinkatzen dabe, orduntxe ipintten dabe danak hartzeko, herri guztik. Oin be bai, e!
- Eta lehen ze izaten zan hori, sagraua, ez? Kurutziana ta...
- A! Bai. Oin kurutzaik-eta ez.
- Basarrixetan ezer txarrik ez pasatzeko ta...
- Bai, trumoiandako-ta esaten eben.

2.31. Irakasleak kanpotik etorritakoak ziren; baserrietan apopilo egoten ziren

- **Hizlaria(k)**: Gerenabarrena Astorkia, Maria; Longarte Gerenabarrena, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-013/001
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:02:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

- **Laburpena**: Pedroren garaian eskolan izaten zituzten zigorrak. Ezer gutxi ikasi zuen, eskolara ez baitzen askotan joaten. Irakasleak kanpokoak izaten ziren eta apopilo egoten ziren baserriren batean.

Transkripzioa
- Eta zeintzuk zian maestrak zeure denporan? Zeuen denporan zeintzuk...? Akordatzen zarie izenen batekin edo? Mallabikuak ala kanpotarrak?
- Ez, kastillanak jeneralian.
- A, bai, e?
- Bai. Nik hurren-hurrengua Mallabikua egon zan, baiña hori honen, arreben,-ta sasoian, Kontxita hori. Nik hurren-hurrengua Durangokua ezautu naban, morena bat. Ta bestik Tolosa [edo], auskalo nungue zan, ta mordo bat pasau be in zin hor. Bueno, pasau, ba, nik itxi ta gero.
- Bueno, horrek, ze esango dotsut nik? Ba, destinau eitten zittuen, ta batek eingo eban igul [udaldi] bat, ta hurrengo urtien beste bat.
- Bai, ez ziala hemen geratzen...
- Ez. Ta holaxen..., baiña orduen bideik be ez eguen ta etorri ta bertan egoten zin apopillo basarrin baten.
- Basarrixan bertan, e?
- Bai.
- Hortxe, Guenengun edo Barrenengun ta Elizburun be luze egon zan.
- [...] Barakaldokue edo nungue zan, Guenengun, ta urtiek, hak erun zittun bost urte. Ta bestekaldien --Guenengue bizitza bikue d]--, bestekaldin, Jesusa esaten jakon bat, ha luzero egon zan hor. [Makal] zala edo ez dakit zer ta hemen [pasatzen zan], neguen-ta paraje hotza ta gogorra da hau, ta harek be ein eban egotaldi bat. Ta gero Maruja [Goietxen].
- Han egoten zien horrek? Baitta Kaperotxipi, Donostikue zan, [...].
- Horrek ya zure sasoikuak dia, ez?
- E?
- Kaperotxipi eta horrek ya zure sasoikuak... Zuk ezautu zenduzenak?
- Bai, bai.
- Horrek ez, ez. Nik esaten dittudanak nire denporakuek zin. Horrek bestiek...
- Zaharrauak, bai.
- Kaperotxipi ya...

2.32. Gereako auzo-eskola

- **Hizlaria(k)**: Zelaieta, Evarista
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-016/006
- **Iraupena**: 0:05:50. **Hasi**: 00:06:15. **Bukatu**: 00:12:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena**: Gereako auzo-eskolara joan zen umetan. Bizkaiko Foru Aldundiak egindako eskola. Aldundiaren laguntasuna. Zazpi urterekin hasi zen eskolan; gerra hasi zenean eskola amaitu egin zen. Maria Aristondo izan zen Gereako eskolako irakaslea. Eskolan bertan sukaldea ere bazuten. Dotrina.

Transkripzioa

- Eskolara...
- Eskolara, ba, eskolie Gerien. Handik, geure auzunien Gerien. Gerena edo Geria. Ta eskolie hantxe eukitten gendun.
- Eskola ona, gaiñera, ezta?
- Eskola ona. Kakatzie ta bidiek eta txarrak, baiñe eskola ona.
- Esan zenduan, gaiñera, diputaziñuak-eta ipinittako eskolak ziala...
- Bai. Horrek "Escuelas de barriada" diputaziñuek ein zittuen Bizkaikuek oin dala larogei urte ingurue. Ze urte izengo zan... "año veinte"? "No, veinte no", antxiñaua. Ba! Holakon baten. Diputaziñuek ein zittuen Bizkaixen, ta herri gehixenetan, e! Danetan eingo zittun, seguramente danien. Mallebixen daz hiru barriadako eskola.
- Zeuen auzuan bat...
- Gerie.
- Eta bestiak ze auzotan?
- Bestie Zengotita, ta bestie Berano, "barrio Berano". Hortxe.
- Diputaziñuak, orduan, lan haundixa ein zeban, ez?
- Bai, diputaziñuk lan haundixa eitten eban. Ta berak bialtzen zittuen materixala be eskoletara: liburuek eta... Liburuek eta guk pozik ikusten genduzen lapitzen bat edo holakuek be. Ta baitta --sukaldie baeuken bai eskoliek, ta-- sukalderako iketza-ta diputaziñotik etortzen zien. Bai. Ta mapak-eta. Mapak. Guk euki genduzen modoko mapak nok eukitzen dittu, ba?
- Hori, ba.
- Bai.
- Bai, bai. Gaiñera, holako eskolak, normalian, gauza gitxitxo ta bueno, liburuak be banaka batzuk baiña...
- Bai, liburuk. Ointxe be ni [sarri] akordatzen naiz, liburutxuk... Ez genduan gorde be ein. Apurtuko zin han, baiñe liburuk ta mapak... Ta honako mapa bat euen, zelan esango dotsut, ba, nik? Igeltsuzkue, e! Holan, hor gaiñien ipinttie moduan. Ta harek markatzen zittuen, nahi badozu itsosue, nahi badozu kostie, nahi badozu isla bat... Harek danak markatzen zittun. Badakizu zer [dien] horrek ikasteko? Jo, onak! Onak, e! Onak zien horrek.
- Zenbat urtekin hasi ziñan eskolan?
- Eskolara? Zazpi urte edo holan. Eukiko nittuan zazpi urte. Baiña, neskatue be txikitxue, kaskartxue ta urrin jun biher eskolara ta... Ta gero gerrie etorri zan ta gerriekin, ba, eskolie itxitta egon zan.
- Orduan, akabo.
- Ordun akabo. Gero, beste kurson bat edo eingo naben Berrizen, Berrizko kolegixuan.
- Gerra sasoian edo gerra-ostian?
- "El año... treinta y nueve". Ez dakit [zer]. Ba, gerria amaittu zanien ixengo zan. Ez dakit. Horixe.
- Ta maistria? Gogoratzen dozu maistrian izena?
- Maistria? Bai. Maria Ariztondo. Haxe egon zan luzeruen Geriko maistria.
- Eta ze rekuerdo dakazuz? Asko ikasi zenduan? Gogorra zan?
- Ona, ona. Maistra ona. Euskeldune ta... Euskerazko materixalik be ez euen. Hori ez. Baiña harek berak kuadernuk berak eskribidute --Bizkeiko mendixek eta Bizkeiko gauzak-eta-- emoten oskuzen. Berak prestaute. Euskerazko materixalik ezebez.
- Baiña berak prestatzen zittuan?
- Berak prestauta zeozertxo. Dana, eitten eban ahalegiñe, berak. Baiñe dana erdera ikesi gendun, dana erdera.
- Baiña berak zeueri euskeraz esaten zetsuen zeoze ta...
- Bai, euskeraz, euskeraz eitten oskun.

- Zeuen artian be...
- Bueno, erdera be bai, ezta? Erdera be eitten zan, baiñe geure artin euskera. Baiñe bueno, ondo.
- Nungua zan bera?
- Eibarkue. Bai.
- Eta ze juaten zan, Mallabira egunero? Edo bertan egoten zan?
- Bai, bertan. Geure etxien egoten zan. Bai, Maria.
- Orduan halako... Estilatzen zan, ez? Maistria-edo kanpotik etorrittakua bazan, basarriren baten...
- Bai, basarrixetan be egoten zien beste maistra batzuk. Edo Bilboko... Bilbo aldekuek edo, sarrittan, Bilboko maistrak, ba, eskolia han onduen euan baserrixan edo holan egoten zien. Bai.
- Eta esaten dozu eskolan bertan sukaldia [...].
- Bai, bai. Guk han babak be egositta jaten genduzen.
- Lapikotxua eruaten zenduen etxetik?
- Ez, lapikotxua etxetik ez, babak. Ta urdai zatitxue [honan]. Noberana ezautzeko hari gorrixaz edo hari berdiakin-edo lotute, babak jandakun jateko. Ta pozik.
- A! Bai, e?
- Pozik!
- Eta zeiñek prestatzen zittuan han, orduan, babak?
- Maistriek ipintten zittun ta... Berak. Ta beste batzuk lagundu. Gero guk, ba, ontzixak garbittu ta holako bihartxuek ein ta...
- Eta ze izaten zan eskolia, goizez eta atsaldez?
- Bai, goiz ta atsalde. Goiz ta atsalde.
- Zapatuetan be bai?
- Zapatuetan bai. Eguenetan atsaldie jai, eguen atsaldie jai. Ordun hori izeten zan. Eguerdixen -elixie da han, elixatxo bat, oin be bada han--dotriñara. Eguerdixen dotriñara.
- Egunero?
- Ez dakit, ba, nik egunero jungo giñen. Igul ez. Hamaika terdixetatik hamabixetara edo eukitzen gendun dotriñie elixan abadiakin.
- Hori ze izaten zan, ya jaunartzia eitteko sasoian?
- Bai. Abadiakin dotriñie ta holan, jainkuan legeko aginduek eta gauza danak ikesi ta horixe.

2.33. Eskola kontuak

- **Hizlaria(k)**: Zelaieta, Evarista
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-016/007
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:12:05. **Bukatu**: 00:14:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Eskolan zer ikasten zuten.

Transkripzioa
- Eskolan, esan dozu, maistria ahalegintzen zala Bizkaiko mendixak-eta erakusten...
- Bai, Bizkaiko mendixak...
- Ze gehixao ikasten zenduen? Matematikia...

- Maistriakin? Bueno...! Dana! Dana ikesten gendun maistriakin.
- Gauza asko...
- Liburu batzuk geunkezan... Hasten zien "religión", gero hurrengo "gramática", gero hurrengo "geografía", gero hurrengo "geometría"... Danetik euken [harek] liburuek! Harek bakotxetik. Oin umiek bakotxeko liburu bat eukitten dabe, baiñe harek liburuek danak eukezan. Asko ez, baiñe...
- Bai, nahikua kurso horretarako.
- Bai, bai, bai, nahikua. Ta hurrengo kursorako be bai. Bai. Ta ikesi? Bueno! Asko!
- Geografian, ez dakit zuk esan zestazun Frantziatik gora ya ez zenduela... Espaiñiako geografixia ta ondo ikasi bai?
- Espaiñiako geografixie bai, regiñuek-eta! Regiñu danak. "Las provincias". Baiña dana erderaz, e! Kataluñan dauezan probinzixak edo Andaluzian euezenak edo Leonen euezenak edo danok horrek. Horrek Galiziakuek horrek danok ikesi. Baitte errekak be. Espaiñiako errekak ta euren afluentiak be ondo. Ta markau. Han egoten zan mapie, ta palotxo batekin, aber, markau nundik eta nora juten zien harek errekak eta. Bai.
- Mutillak eta neskak batera ikasten zenduen?
- Batera, batera. Taldien mutil ta neska.
- Eta auzoko ume guztiak, edade diferentakuak izan arren, batera?
- Batera. Bai. Pasatzen zana, basarrixetakuek, ba, gitxiao bialtzen zittuen umiek eskolara. Etxien prisie euenien, ez zien juten etxe batzuetakuek; beste batzuk bai.
- Bai, sasoi txarra zanian. Edo gari-batzia edo zeozer...
- Edo ganauek zainddu biher ziela, edo bestie ein biher zala, ba [...]. Baiña, ostantzien, danok haintxe. Bai, neska ta mutiko han.

2.34. Umetako kontuak

- **Hizlaria(k)**: Zelaieta, Evarista
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-016/009
- **Iraupena**: 0:03:38. **Hasi**: 00:18:02. **Bukatu**: 00:21:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- **Laburpena**: Umetako kontuak. Eskolara joan gabe geratu zirenekoa. Eskola kontuak. Zigorrak.

Transkripzioa
- Eskolara eitten zenduen kale batzuetan?
- Gitxitten, e! Gitxitten. Baiñe behin edo behin bai. Behin edo behin ein genduen kale.
- Ta ze eitten zenduen? Mendira juan edo...?
- Bai, mendire juen. Orduen geuk [erun] gendun ordun bazkarixe. "Sikue" esaten geuntsen. Tortillatxo bat edo eruten gendunien, horri esaten geuntsen "sikue". Ta orduen emoten oskuen etxien, ba, lehenengo tortillatxo bat ogi-bittartien ta gero atsalderako ontza bat txokolate ta ogixa. Ta akordau jakun, ba, bape ez jutie eskolara; maistrie be berandu

etortzen zala ta ez dakit zelakue ta badakit zelakue. Baiñe gero, kale ein gendunien, guk baiño ariña ' etxien jakin! Hori zan kontue! Baiñe, bueno, pasau zan.
- Etxian, orduan...
- Etxien, ba, hasarre!
- Hasarre eitten zeben?
- Bai. Etxien gogor eitten eben, eske etxien gure izeten eben eskolara jutie, eskolara jutie.
- Inportantia zan eurendako, ez? Eskolara juatia ta erderia ikastia, ez?
- Bai, ba. Inportantie zan. Gurien gure Juantxuk be, maistra bat okerra egon zan, ta harek jun gure ez eskolara --nire... horrek soiñojotailliorrek, nire anaiorrek--. Ta gure amak hartu aurrien ta "Jungo ez haz, ba, eskolara?! Horixe bai!", ta bide luzien berak erun jun daitten. Bai. Ha jotaillie zan, maistrie jotaillie zan ha. Honek mutillok ein etsen... Regla bat eukitten eban. Jo. Jo eitten eban falta bat eukitzen badozu sumarrien. Hiru falta bazenduzan, hiru reglakada, hantxe. Ta honek mutikuok, hiru mutikok, harrapau eutsen reglie ta apurtu. Ta gero kontuek! Ta maistriorrek, ba, kastigue ipini etsen: ba, igul-igule erun reglie edo, bestelan, pezeta bana, pezeta bat pagau. Pezeta bat, zer? Diru asko zan! Batzuk etxien esan be ez. Zelan eskatuko eutsen, ba, amai reglie maistriei reglie pagatzeko pezetie biher dabela? Ta kutxillo txikixe-ta erun, ta basora jun ta ein reglatxo bat eta maistriorri erun ta konpondu zien.
- Konformau zan?
- Konpondu zien. Baiña susto edarra pasaute.
- Orduan, gaiñera, etxian be ezer ez zan esango, ez? Maistria jotaillia zala edo...
- Bai, baekixen, jo eitten eban ta...
- Bai? Bazekixen hori etxietan?
- Bai, bazekixen. Juten jakozan maistriai be, juten jakozan esaten, ba, ez joteko hainbeste igul, ta beste batzuk, ba, igul dozena bat sagar-edo, erregalue iguel eruten eutsen zeozer be. Baiña harek "di-da!" joten eban ta kitto. Bai, jotaillie zan. Kantun be erakusten eban harek maistrik. Kantue be erakutsi, baiña ha jotaillia. Ni ordun... ni eskolara hasi barri edo egongo nitzen hori zala. Bai, ni txikixau nitzen.
- Zeuri halakorik ez jatzu tokau, ez?
- Neu joten niñunik, ba, ezin neike esan holan, baiñe... Sumarrak igul, illara biko sumarrak, oindiñok llevadaik barik-eta, ezta? Sumartxuok ein ta faltak. Ta segun zenbat falta, reglakadie, e! Emoten eban harek.
- Gogorra orduan...
- Bai. Ni horretxekin sumarrokin akordatzen naz harekin. Sumarrok eitten...!
- Egongo zan, gaiñera, umeren bat abilidade larreirik ez zekana ta...
- Bai, ba. Ta ez ekixenak be bai. Hainbeste... Etorri ez. Udan denpora onakin-ta, etorri ez eskolara ta ikesi barik igual.Ta harek jo.

2.35. Eskolan oporrak

- **Hizlaria(k)**: Zelaieta, Evarista
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-016/010
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:21:40. **Bukatu**: 00:22:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane

- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Eskolan oporrak noiz hartzen zituzten. Ostegun arratsaldetan jai hartzen zuten.

Transkripzioa
- Oporrak-eta noiz izaten zian? Oin moduan udan, eta [...]? Edo hainbeste ez, edo zelan?
- Udan oporrak hartzen zin Karmen egunan bezperan. Ta eskolara hasi, ba, iraillan erdixan. Hille bi ordun be oporrak. Onak. Baiña guretzako, ez [...] oporreri emoten bape estimaziñoik.Ostantzien beste oporrik ez zan egoten.

- Gabonetan-eta ez?
- Ez. Gabonetan egun bi edo ixengo zien jai, baiña ostantzien, beste oporrik ez. Ni ez naz akordatzen. Udie bai; udan bai. Jeneralien, ba, igul esaten zan: "Ene, maistra barrixa etorriko ete da? Ez ete da?", hoixe ardurioi. Baiñe gabonetan... Eguen atsaldie jai eukitten [gendun] guk.
- Eguen atsaldiari esaten zetsazuen... moduren baten deitzen zetsazuen egun horri?
- Ez.
- "Caballero txiki eguna" ta halakorik entzunda dakazu?
- Ez.

2.36. Mallabiko abadeak

- **Hizlaria(k)**: Zelaieta, Evaristа
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-016/011
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:22:55. **Bukatu**: 00:25:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- **Laburpena**: Dotrina eguerdian ikasten zuten abadearekin. Mallabiko abadeak: Don Julián Etxezarraga; Don Gregorio Larrea. Gereako elizaren ondoan abade-etxea zegoen. Mezak.

Transkripzioa
- Dotriñia esaten dozu eguerdixan eitten zenduela...
- E?
- Dotriñia...
- Dotriñia egurdixetan elixan.
- Abadiakin...
- Abadiakin.
- Abadia zein zan orduan? Goguan dakazu?
- Abadie... Nik jaunartzie ein nebanien, abadie egongo zan hor Arratixako bat: don Julian Etxezarraga euen abade bat. Antxiñekue. Harrezkero... ez dakit, ba. Azkeneko egon zan... bueno, gerua ' egon zan don Gregorio Larrea beste bat. Horretxek. Oin azkenaldien egon die gehixao, baiña oin azkenaldien bapez baiñe bueno.
- Honek ze zian, bertan Mallabin abade zianak eta gora igotzen zian

dotriñia emotera ala bertako...?
- Ez, baiña Gerien bertan euen, bertako abadie. Elixian ondun euen abadetxie; hantxe bizi zan abadie. Hantxe bizi izeten zan. Abadie hantxe egoten zan.
- Orduan, zeuek beti ezautu dozue elizia abadiakin eta...
- Bai, bai.
- Sakristaurik-eta egoten zan?
- Baitte. Baitte. Elixie, abadetxie ta sakristau-etxie. Oin ez daz holan, baiña holantxik euezan. Nik holantxik ikusi dot Elosun. Zu Elosuku za '?
- Aittitta...
- Elosun. Aspaldi... Gure lagun batek Elosun senidiek eukezan, ta juten giñen noizik behin Elosure. Ta haretxekin junda na ' horraxe elixa '. Ta horretxen antzera euela Elosun be.
- Eta sakristaua izaten zan elizia pixkat zaintzen zebana ta...
- Sakristanie.
- Sakristania.
- Sakristanie. Harek zaintzen eban. Sankristauek, ba, kanpaiek jo edo...
- Bai. Orduan, gaiñera, biharra eukiko zeben, ez? Meza asko ta...
- Bueno, meza asko...
- Bueno, oin baiño gehixao, edo ez dakit zelan izaten zan...
- Jaixegunien meza bi egoten zien; astegunien meza bat. Horretxek. Gero illuntzixen be kanpaia egoten zan aramaittakue.
- Kanpaiak goixian goixetik hasi eta illuntzira arte, ez?
- Bai, goixien lehelengo kanpaie goixa '. Gero mezia. Ta illuntzixen esaten jakona aramaittakue, "las aves Marías" erderaz izengo da, ezta? Aramaittakua.
- Goixekuari zelan esaten zetsazuen?
- Ba, ez dakit, ez dakit. Guk ez gontsen jaramonik eitten goixekuai ta.
- Baiña illuntzikuari bai, ez?
- E?
- Derrigor etxian egon bihar, edo zelan izaten zan hori?
- Bueno, geuk ez dou pasau, guk ez gendun urtetzen ta.

2.37. Eskolan ikasitakoak

- **Hizlaria(k)**: Zelaieta, Evarista
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-016/012
- **Iraupena**: 0:04:45. **Hasi**: 00:25:55. **Bukatu**: 00:30:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena**: Eskola kontuak. Maria Aristondorekin ikasitakoak. Gramatika; Historia Natural; Fisika; Historia de España...

Transkripzioa
- Bueno, nun gabiz? Relijiñuen, ezta?
- Bai.
- Beittu, ta gramatika? Gramatikan badakizu zenbat ikesi gendun guk? Zenbat gramatika?
- Bai?

- "Nombres, pronombres, artículos, verbos"...
- Asko, ez?
- Asko. Asko.
- Bai, holan, auzo-eskolia izateko...
- Asko. Horrek danok.
- Maistra ona euki zenduen.
- Ona, ona, maistra ona. Gero geometria. Hori ez jakun gustatzen, baiña "lineas: linea recta, mixta, quebrada, aguda"... Enee!
- Eta ondiokan goguan dakazuz?
- Ene, ene, enee... Nire burutik [ez pasau]... "Espiral, circunferencia"... Hori nungu ' da? Geometriakua "circunferencia".
- Bai. Bai. Gauza asko...
- Gauza asko.
- Rekuerdo ona dakazu, ez?
- Eta hori erderaz. Erderaz horrek danok, e! Jakin barik, e! Erderarik jakin barik.
- Orduan jakitzen zenduen ze esaten zenduen?
- Klaro, dibujuek-eta eitten bagenkixen-ta! Dibujatzen [banekixen]: "linea mixta, linea recta, horizontal, vertical"... Horrek danok. Ta gero --hori esan dou geometria--, geografia, geografian be errekak eta horrek kontuk. Ta Bizkeiko errekak be bai. Horrek bai euskeraz ipini oskuzen maistrik. Euskeraz, edo... Ikesteko moduen. Bizkeiko errekak. Bai. Ta lekturie --hori, hori be inportantie zan--, maistrian mahaixen bueltan plantau illaran edo zortzi edo hamar ume edo holan. Liburuek eskuen, baiñe zainddu ein biher zendun hau nos datorren, ze segidu ein biher zan ta. Jarraittu ein biher jakon ta. Jolin! Baiñe gustatzen jakun danoi, haren liburuk euken lektura bat "El rey en busca de novia". Ta danoi hoixe gustau! Hoixe "novia" euken bai, ta haxek eitten oskun nobedadie! Haxe, "Neuri allegauko jata", "Ez, neuri allegauko jata", haxe leitzeko. Ez polittaua zan, ta ez [ez bazan].
- Baiña nobixia agertzen zan ta...
- "El rey en busca de novia". Bai, lekturie be eukitzen genduen. Egunero ez, baiñe... Bueltan plantaute. Ta eguenetan, eguen goixien --atsaldie jai-- karta bat danon arte. Kartie.
- Idazten zenduen?
- Karta bat han tableruen danon arte eitten gendun.
- Zeiñi zuzenduta edo zeiñendako?
- Ba, bakotxak kontu bat ipintten eban, ta hantxe, kontuek ipini ta kartioi ein. Eguenetan hori kartioi. Ta nere lagun batzuk Bilbon senidiek eukezan, ta "jo!", harek bai! Bilbon senidiek eukezan kartie eitteko harei, ta guk ez geunken Bilbon senideik be. Ta, bueno. Hori zan... Hori sartuko da gramatikan, ezta? Kartak eittie. Ez dakit nun sartzen dan.
- Bai, bai, bai. Gauza asko, ez?
- Gauza asko-asko. Hondiñon, hortik be gehixa ' be bai: "Historia natural" be bai, lorak eta. Arbolak ez hainbeste, baiña lorak... Lora kontuen be... Enee! Ez [...] akordatzen. "Estambres y pistilos", deukenak, loratxuek deukezenak. "Hojas"... Bueno, historia naturalekuek horrek. Gero ikesten genduen fisika be. Fisika ze ikesten [geun]? "Vasos comunicantes". Oin ez dakit nik, baiñe... Baitte, "el agua se compone de oxígeno y de hidrógeno". Edo "El viento" edo... Horrek danok. Oin ez naz akordatzen ezekin be.
- [...] ez zarala akordatzen! Mekatxis!
- Enee! Hori be bai. Azkenengue [izeten] zan "Historia de España". Hori be bai. Baiña "Historia de España" guri amaitzen jakun gerrie-ta baiño aurrerao amaitzen zan. "Historia de España" be ikesten gendun: "los godos y los visigodos". Baiñe...
- Erregiak eta, ez?
- Hasten giñen: "Iberos, Celtas, Celtíberos, Griegos"... Hortik. Erregie...

- "Reyes godos" eta halakorik ez zenduen ikasten?
- E?
- "Reyes godos" eta...
- Bai. "Los reyes godos fueron treinta y dos o no sé cuántos reyes. Pero los más importantes: Ataulfo, Recaredo, Wamba y [don Rodeo]".
- Joe, zu ikasle ona ziñan, ez?
- Enee! Horretxek. Bai, "Historia de España" be ikesten genduen.

2.38. Eskolara inspektorea joaten zitzaien ikasturte amaieran

- **Hizlaria(k)**: Zelaieta, Evarista
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-016/013
- **Iraupena**: 0:04:55. **Hasi**: 00:30:40. **Bukatu**: 00:35:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena**: Aldundiko inspektorea joaten zen ikasturte amaieran. Inspektorearekin batera abadea eta udaleko ordezkariren bat. Aritmetika.

Transkripzioa
- Eta esamiñak-eta eitten zenduezen?
- Ba, esamiñe...
- Zelan izaten zan? Pixkat jakitzeko bakoitzak ze zekixan urtia amaittu ta...?
- Ez. Urtian azkenin inspektoria etortzen zan; inspektorie diputaziñotik. Jo, harek etorri biher dabenin, gure preparau... Maistriek esaten oskun: "Atzamar-oskolak ebai, ulie ondo orraztu, zorririk-eta ez deittela agertu, batatxue garbixa". Ta pupitrie jaso biher zanien, "pla!", zarataik barik, gora ta behera ein. Ha datorrenien tente plantau: "Buenos días tenga usted", hori esan. Hori esan. Ta etortzen zan ta harek ez eban eitten pregunte haundiik. Igul zeoze preguntauko oskun, baiñe danak. Baiñe igul erregalatzen oskuzen lapiz bi ta, biñe.
- Orduan, gauza haundixa zeuendako, ez?
- Ta beste holan... Kromuek ez, baiñe... zelan esango dotsut, ba, nik? Muñeko modoko batzuk papelien.
- Rekortabliak edo?
- Rekortabliek. Horrek. Ta eurendako erropatxuk be rekortabliek, ta enee! Haretxek izeten zien politxenak! Inspektorioi etortzen zanien. Ta, ba, bueno. Behin inspektoriek bisittie einddekuen, gero gaiñeko egunek, ba, eskolara juten giñen, baiñe bueno, trankil.
- Txarrena pasauta, ez?
- Bai, inspektorie etortzen zanien. Inspektorie etortzen zan, abadie be etortzen zan berakin eskolara, ta igul aiuntamentukon bat be, igul alkate edo aiuntamentuko gizonen bat be igul etortzen zan. Ta eurek bakarrik ikustie be guri erreparua emoten oskun! Bai, eskolie, formala egoten zan han eskolie.
- Esan dozuna, ez? Inspektoria zetorrenerako batatxua garbixa, ulia ondo orraztuta... Egun horretan bakarrik?

- Egun horretan...
- Zorrixak-eta egoten zian?
- Bai. Bai, egoten zien. Egoten zien, zoritxarrez, baiñe egoten zien. Urik be ez euen etxietan ta! Urik ez euen etxietan! Ze garbittasun? Ez euen, ez euen. Ta alperrik da. Batetik, ez euen zerik; ta bestetik, astiik be ez askok. Gureso askok astixe be ez. Baiñe urik ez euen. Hantxe.
- Egun horretarako, baiña, danak...
- Baiña egun hortako bai. Maistriak esaten eban: "Egun horretan bai. Jun bi 'da atzamar-oskolak eta be ebaitte". Hori be [...] zan. Ta oiñetakuek be, ba, osuek. Sarritten apurtutakuk be igul eskolara. Oiñetakuek osuek, atzamar-oskolak ebaitte, eta ulie, zorririk ez daittela egon. Hori akontezimento haundixe izeten zan, urtin behin etortzen zan ta.
- Bai, berandako be, maistriandako be...
- Bai, maistriandako ardura haundixe.
- Bai, ezta?
- Izango ez zan, ba!
- Bai, pixkat beran umiak...
- Gure eskolan euen hogeta hamasei umendako lekue, edo hogeta hamasei umendako asientuak euezan. Bai. Gero, hortik aparte, han gelan euen mahai haundi bat, ta txikitxuek-edo, han egoten zien beste batzuk. Pentseizu zenbat ume egongo giñen! Asko! Hogeta hamasei ume fijuek han, eta mahaixen egoten zienak beste batzuk.
- Bai, eta harek danak...
- Harei danei be zeoze asmau ein biher.
- Bai, bai.
- Ta aritmetika, aritmetika esan dou? Ez dou esan aritmetika.
- Ze eitten zenduen aritmetikan?
- Sumarrien hasi, lehelengo hasi, ta gero llevadadunek. Gatxak izeten zin llevadadunek ta restarrak. Ta multiplicarrak, dividirrek... danak. Hortik danetatik pasau giñen ondo edo txarto. "Raíz cuadrada" be bai. Bai. Horraiñok be bai. Pentseizu! Zenbat eskola dan hori, e? Ta nik ez neban urte asko ein eskolan. Gurin nire nebak, nire anaiek zaharrenak be hirurek be hola. Bai. Ta beste askok be bai juten zienak. Beste batzuk, ba, esan doten moduen, jun ez zin eitten.
- Bai, gero gehixao kostauko jakuen danen martxia eruatia, ez?
- Ta nire lagun bat oin Elgoibarren bizi da. Harek be esaten dau, e! Harek esaten dau: "Gure lehenaoko eskolie!" Ze ikesi gendun! Asko ikesi gendun hamen! Asko!

2.39. Garizuma

- **Hizlaria(k)**: Zelaieta, Evarista
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-016/015
- **Iraupena**: 0:03:51. **Hasi**: 00:40:00. **Bukatu**: 00:43:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- **Laburpena**: Dotrina euskaraz eta erdaraz ikasi zuten. Garizuman Pazkoakoa bete behar izaten zen (konfesatu eta Jauna hartu). Ondoren txartel bat ematen zioten umeari. Jauna hartzeko, txartela beharrezkoa izaten zen. Abadeek indar handia zuten gizartean.

Transkripzioa

- Dotriñia bardin izaten zan? Buruz ikasi bihar ta... Dotriñia erderaz ein zenduen? Euskeraz?
- Dotriñie euskeraz be ikesten genduen. Bai. Euskera ta erdera ta dotriñie danera.
- Bai. Eta txartelik-edo zeoze eruaten zenduen edo zelan izaten zan hori?
- Bueno, hori txartel kontuoi zan...
- Jaunartzia eitteko edo...?
- Beittizu, garizuman... Garizumie badakixu zer dan?
- Bai.
- Garizuman kunplidu ein biher izeten zan pazkuzkua esaten jakon. Garizuman jun ein biher zendun egun baten --ostantzien juten ez baziñan be-- konfesau ta jaunartzen. Ta orduen, txantel bat hartu biher zenduen parrokixen; billetetxo bat zan. Parrokixan, ba, "zenbat lagun zaoz?", eskatu ein biher izeten jakon abadiai. "Zenbat lagun zaoz, ba, zuek?", ta "Gu sei", "Aiba, sei". Ta emoten oskun bakotxai bana emoten oskuzen. Ta horrek txartelok jaunartzie eitten zan egunien aldatu ein biher eben. Emon atzera sakristauai ta sakristauek emoten eban beste txartela, ezaugarrixe zelan pazkuzkua ein dozun. Izeten zan hori. Hori danien euen hamen. Pentsatzen dot nik Euskal Herri danien egongo zala. Ez dakit. Ta hori ez zeukena, txartela ez zeukena txarto. Hori biher zan, dokumento bat zan hori.
- Kanpotik etortzen zian abadiak konfesatzera edo bertakuak etortzen zian?
- Ez, bertakuek. Ta gero, gure dabena Markiñara fraillietara be juten zan. Markiñen egoten zien frailliek illaran konfesionarixuetan, ta hantxe konfesatzen ta... Baiñe...
- Ta konfesatzen ez zebanari? Edo pazkuako hori eitten ez zebana? Gaizki ikusitta egongo zan, ez?
- Hori txarto ikusitta. Bai, bai. Bueno, hori gure denporarako gastau zan. Gastau ein zan hori kontuoi. Baiña nik ezautu ein dot, ezautu ein dot.
- Orduan, gaiñera, abadiak eta... ez?
- Abadiek autoridade haundixe euken.
- Asko aintzen zeben, ez? Etxe barruan be aintzen zeben, ez?
- Abadiek asko esan gure eban, baiñe abadiek be egoten zien bigunauek eta gogorrauek. Bai, egoten zien guztirekuek, e! Bai, baiña abadiek... Oingo martxie ikusi ta ha ikusi...!
- Asko aldatu da, ez? Danian, baiña religiño kontuan be asko.
- Religiño kontun bai.
- Abadiak pulpittotik-eta, ba, pixkat... edo hasarre, edo "familixa hau ez da elizara etortzen" edo halakorik? Biharbada zeure sasoian ez, baiña amari entzunda edo aittari entzunda halakorik?
- Bai. Abadiek gogor eitten eben. Baiñe gauza horrek konfesionarixuen esaten zittuen.
- Pulpittuan ez?
- Pulpittun gitxia ', gitxia '. Konfesionarixuen.
- Bai?
- Bai, konfesionarixuen. Konfesionarixun, gaiñera, nik [esaten dot], guk [...] danak konfesatzen genduzan guk! Danak! Danak esan biher. Mosu bat, nobixuakin urten pasietan, mosu bat emoten [badotsu], esan ein biher! Bai, bai, bai. Hori... Baiña holantxik zan. Holantxik zan. Akabo.
- Klaro, pentsau be ez, gaiñera, gezurrik esatia edo hau ezkutatzia-edo pentsau be ez, ezta?
- Ez, ez,ez. Guzurrik ez.
- Zeuek dana esan eta gero...
- Dana esan. Harek danak jakitten zittun. Abadiek dana jakin!
- Bai, ez? Etxe bakoitzeko jiria zelakua zan eta...

- Bai, bai, dana.
- Orduan, nobixo kontuan eta halakuak be...
- Nobixo kontuek be esan ein biher abadiai. Ha be esan ein biher.

2.40. Kongregazioak

- **Hizlaria(k)**: Zelaieta, Evarista
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-016/017
- **Iraupena**: 0:00:27. **Hasi**: 00:45:51. **Bukatu**: 00:46:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- **Laburpena**: Kongregazioak: Hijas de María; luistarrak

Transkripzioa
- Kongregaziñua-eta egoten zian orduan?
- Bai, Mallebixen ta. Baiña guk Gerien ez gendun eukitten. Mallebixen bai, kongregaziluek egoten zin.
- Oseake herriko jentiak...
- Bai, bai. Kongregaziñue neskena egoten zan hijas de María, ta mutillena luistarrak. Bai.
- Zeuek, baiña, ez zenduen parte hartzen, orduan?
- Gu Gerikuk giñen ta ez zan egoten hor hainbesteko... Ez zan egoten.

2.41. Elizkizunak

- **Hizlaria(k)**: Zelaieta, Evarista
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-016/021
- **Iraupena**: 0:03:25. **Hasi**: 00:51:10. **Bukatu**: 00:54:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- **Laburpena**: Elizkizunak. Luto kontuak. Elizara, mantelinarekin eta otoitz-liburuarekin joaten ziren.

Transkripzioa
- Orduan, gaiñera, relijiñua ta entierruak eta luto kontuak eta horrek asko zaintzen zian, ez?
- Luto kontuek... bueno! Luto-kontuek. Neu na´ ibilitte nere gizonan aitte hil zanien belarrittakuek be baltzak. Holaxen, bolatxuek baltzak! Nere gizonan aitte hil zan ointxe dala berrogeta zortzi urte hil zan. Baltz jantzitta. Gero mantillak be egoten zien diferentiek: lutokuek eta luto baekuek. Lutoik ez zeuken mantillie zan [blona] edo holan enkaje edo holakue. Ta lutokue izeten zan, ba, tela zati bat, seda modoko bat, holako puntillarik eta ezer bakue, lutokue.
- Mantillia, bestela, noiz erabiltzen zan?

- Mantillie beti.
- Mezatara juateko beti?
- Bai, beti. Mantillie beti.
- Berdin zan andria ezkonduta, ezkondu barik...?
- Bai, bai, berdin zan, beti mantillia.
- Eta ume-umetatik? Edo zelan? Noiz hasten zan?
- Behin elixa´-ta juten hasi ezkero, behin gure jaunartziek eta einddekuen behintzet mantillie bai. Ta nik ointxe... Oin hasi die, ba, holako museotxuek ipintten herrixetan-ta, esate baterako, Zeraiñen ta. Ba, nik ez dakit nun ikusi doten, ta pentsatzen egon nitzen, han gauzen artien mantilla bat be: "Hoixe, ba, bai, horrek hortxe geratu biher juek /bijuek/ museorako". Ta nik gordeta dauket mantillie. Baiñe ordun mantillie ta horrek, apurtzen bazien, ba, erosi ein biher, erosi eitten zan barrixe.
- Mantilla barik mezatara juatia?
- Ez, iñor be ez zan juten. Ez. Ez zan juten iñor be. Mantillie ta liburutxue be bai. Klaro, oin oraziñuek-eta diferente die.
- Misala edo ze zan hori?
- Misala. Oin euskeraz eitten die oraziñuek. Bueno, hau, hau euskeraz eittiau hasiko zan oin dala hogeta hamar urte edo holakoxe bat. Euskeraz. Baiñe lehen ez erderaz, ez badabe eze latiñez eitten zien. Haxe, latiñez. Horrek...
- Enteditzen zenduen zeoze?
- Ez, ez, sekula ez. Ikesi be ez ta entendidu be ez ta ezebez.
- Entzun eta...
- Bai, akabo. Ikesten hasi be ez. Oin elixan, hemen Eibarren, mezian amaittueran "Salve Regina", latiñez kantatzen dabe, ezta? Edo "Arrateko ama" edo "Salve Regina". Ba, nik "Salve Regina" ez dakit. Ha errezatzen dabenien erresarixue. Nik salbie errezauko juat, baiñe "Reginaik" ez. Jente batzuk badakixe, baiña nik ez dakit hori.
- Eta andrazkuak mantillia eruaten zeben moduan, gizonezkuak beste zeoze eruaten zeben...?
- Ez.
- ... holan espeziala edo?
- Ez, gizonezkuek ezebez. Ez eben eruten.
- Hori bai, txapela beti kendu, ezta?
- Bai, bai.

2.42. Gurutz-bidea

- **Hizlaria(k)**: Zelaieta, Evarista
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-016/022
- **Iraupena**: 0:03:35. **Hasi**: 00:54:35. **Bukatu**: 00:58:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- **Laburpena**: Igande arratsaldetan jende asko joaten zen mezara. Gurutz-bidea.

Transkripzioa
- Gero, domeka atsaldetan be elixa´ jentie juten zan, domeka atsaldetan.

Jente... jente asko, batez be garizuman. Garizuman-ta [danak] atsaldin elixa´, ba, kurutzetakuek ein. Badakizu zer dan kurutzetakuak? Via crucis. Ez dozu iños be ein?
- Ze izaten zan hori edo zelan eitten zenduen?
- Elizan egoten die via crucis-ko estaziñuek. “Son catorce estaciones”, hamalau estaziño. Nire misaltxuek badaukez. Danak egoten die orman. Parien gatu, parien gatu, parien gatu... hamalau estaziñuek eitten die via crucis-ien. Ez da gauza haundixe. Hiru bider behien mun, behiei mun eitten jako, “que son las caidas de Jesus”. Hor hamalauen artetik hiru bider lurrai mun eitten jakon, ta hamalau estaziñuek eitten die.
- Hori, elizan bertan?
- Elixan.
- Kurutzarik-eta inguruan... halako... zuk esan dozu, ez? Kurutzetako... Via crucis hori eitteko hamalau kurutza, Mallabixan bertan ez dao, ezta, halako tokirik?
- Via crucis-e eitteko bakotxa jarritte nun dauen edo belaunbiko nun dauen, haintxe ein. Baiñe erdixen, elixan erdixen, erdiko pasilluen, han juten zan abadie kurutziakin. Edo abadiek eruten ez baeben, ba, sakristauek edo akolittuek edo batenbatek kurutza bat eruten eban. Ta beste batek leitzen eban, ba: “Lehelengo estaziñue: Jesus kondenau dabe, ba, kurutzien hilttera. Bueno, aitta–gure bat. Bigarren estaziñua: Jesusek topau eban Veronikie ta arpeixa garbittu otsen. Hirugarren estaziñue: Jesusek tope ein eban beran amakin ta zelan amak negar ein eban. Gero, laugarren estaziñue... ”. Holantxik izeten die, estaziño bakotxin bere gauzak izeten die.
- Eta antziña entzunda amari edo aittari edo kurutzak zerela nunbaitten eta halako fetxatan via crucis hori eitten... Ez?
- Hori via crucisori garizuman.
- Eske, toki batzuetan, ba, Angiozarren eta be [esaten dabe] aspaldi —ya gurutzak galduta dare— baiña bai juaten ziala herrittik...
- A, bai, bai. Hori zuk esan dozune...
- ... ba, auzoren bateko ermittara ta...
- Kurutz-bidie. Kurutz-bidie eitten zan urten elizan ta kurutziei segidu ta segidu itten, ba, goraiñok. Hori Urkiolan be bada´. Baitte Ziortzan be. Ziortzan... Bolibarren pentsatzen dot —neu ez naz baten be egon, e?— baiñe kurutzak eitten Bolibarren hasi ta “tak-tak-tak” goraiño. Ta gu egon giñen urte baten — gero baten baiño gehixaotan— hor Naparruko herri baten: Cascante. Ta Cascanten da´ herrixen gaiñien holako lautada bat eta eliza bat “Nuestra señora del Romero”. Ta urten herrixen ta Romerora arte kurutz-bidie da´. Kurutz-bidie esaten jako horri: kurutzak, kurutzak, kurutzak... hamalau izeten die danien, hamalau. Ta Urkiolan be bai, Urkiolan be bada´. Ez dot neuk ein, e? Baiña badakit nun dauen Urkiolan. Ta Angiozarren be igul egongo da.
- Bai, sasoi baten behintzat bazeuan. Gero ya kurutzak galtzen juan dia ta...
- Bai, ba. Bai, ba. Bai, ba, dana galdu da ta.

2.43. Luto kontuak

- **Hizlaria(k)**: Zelaieta, Evarista
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-016/023
- **Iraupena**: 0:03:50. **Hasi**: 00:58:10. **Bukatu**: 01:02:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- **Laburpena**: Luto kontuak. Elizari ordaindu egin behar izaten zitzaion. Arropak tindatu egiten ziren.

Transkripzioa

- Eta luto kontua esan dozu hori…
- Luto kontue…
- … asko gordetzen zala orduan, ez?
- Luto kontue, ba, lutue hartzen zan urte bat eta erdi. Baltz. Bueno, baltz iguel urtebete. Sei hillebetien, ba, "[…] de luto", medio-lutoko gauzatxu horrek. Ta elixiai… elixiek kobrau itten eban, gauza danak modun. Elixiek ez dau —lehenaukuan be esan notsun— elixiak ez dau parkatzen. Gure amak esaten eban propietarixuk bazien urte bixen erun biher jakola elixa´ ba honenbeste anega garixe; ta errenteruek bazien urte eta erdi, gitxiakin. Baiñe lutue, urtebeteko lutue baltza ta urte ta erdi be baltza be bai beste batzuk jazten eben.
- Eta hori, gaiñera, izango zan gertukoren bat, familixako edo gizona edo aitta edo ama, baiña tia ta halakuekin be bai, ez?
- Halakukin be, ba, hiru bat hillebetien edo jazten zan. Geu be jantzi giñan, amaman lutue be geuk be hartu genduen.
- Gaiñera, ume-umetatik…
- Bai.
- … neskatxuak be…
- Bai, bai, neskatxuk be haintxe, zeozer. Bai, bai, neskatxuk be bai. Eta alargun gatzen zinak betiko. Gizona hiltzen bajakon andriai, andrie betiko baltz. Betiko, e?
- Lutua kentzia pentsau be ez…
- Ez.
- Burutik pasau be ez, gaiñera, ez?
- Barrido ezkontzen bazan, kenduko eban igul.
- Orduan halakorik egoten zan?
- Barrido ezkontzak?
- Bai.
- Bai, alargunek eta ezkondu izen ohi die.
- Gizonezkuak-eta bai, baiña andrazkuak be bai?
- Bai, andrazkuk be bai. Andrazkuk be iños ezkondu dia. Orduntxe luto […]. Gero, behin edade batea ezkeo, buruko pañeluek-eta baltzak buruko pañeluek-eta. Gurien, gure amumak euken buruko pañelo baltza. Gure amama be… igul gazteik —nik aittitta ez neban ezautu— gazteik alargunduko zan.
- Eta buruko pañelo baltza ze izaten zan lutuagaittik edo gero esaten dozu edade batetik aurrera, baiña, ya baltza erabiltzen zala…
- Alargune bazan, baltza. Ta ostantzekuk, ba, holako dibujotxo… holan kuadrotxuek edo ez dakit nik zelakuek eruten zittuen. Bai, holakuek. Baiña lutue, lutue, e? Oin, klaro, ni pentsau be itten egoten naz, e? "Zein hil jatzue?" ikusten zaittut nik oin zu baltz jantzitte ta "Zein hil jatzue?" ta […]. Baiña oin ez dao holakoik, oin ez dao lutoik.
- Bueno, ikusten dia, ez? Baiña bai, gitxi.
- Lutuakin?
- Lutua edo, diñot, ba, ez dakit, lehelengo egunetan, astietan, behintzat, ba, pixkat…
- A, bai, bai, lehelengo egunetan-ta bai, baltz jantzitte ta…

- Bai, ez? Errespetu moduko...
- Bai, ta ondo ikusten dot errespetu modun entierro baten ta... Entierruetan ixen garenien, nire anaie [...], baltz jun ga´. Bal-baltz ez, baiñe... bueno, ahal danien, baltzen. Baiñe lehen tintau erropok eta enee... lutue hartzeko.

- Ze izaten zan hori tintatzia ez, erropak?
- Tintau, bai, tintau arropa asko.
- Ta nora bialtzen zan? Bertan, Mallabin, bazeuan holako dendaren bat edo tintorerixaren bat edo etxian bertan eitten zan hori?
- Batzuk etxin be tintatzen zittuen, etxin be. Bai.

2.44. Maria Aristondo irakaslea

- **Hizlaria(k)**: Garitagoitia Arriaga, Martzel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-018/021
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:50:50. **Bukatu**: 00:53:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena**: Maria Aristondo irakaslearen inguruko gogoetak. Eskolan ikasitako kanta. "Goazen mendirik mendi...".

Transkripzioa
- Orduan, maistrak danerakuak, ez? Batzuk gogorrak, kastiguak-eta ipintzen zittuenak, eta beste bat, eibartar hau, Maria Aristondo edo zelan zan?
- Bai, bai...
- Horrena rekuerdo ona dakazu, ez?
- Horrena ona? Horixe ona! Horretxekin inguruen horixe... Hori hor lagako naben nik morroe bialdu niñuenien. Ta hori zan... Horrek errekreuen ta ordu librietan igul hartu umiek ta, ba, hor montikulotxo bat deuke Geriek holan, ta, denpora ona euenien, hara eruen ta kantuek erakutsi ta beran gauzak ein ta... Bueno, zan... itzela. Itzela zan.
- Eta bera be eibartarra izanda, hemen zeuen etxian egon zan apopillo edo...?
- Ez, ha ez zan egon gurien. Ha ez dakit hemen edo behekuen. Behekuen egongo zan. Horixe... Ha ez zan egon gurien, ez zan egon.
- Baiña gertukua izan arren, basarri baten...
- Bai, bai, bai. Egunero ezin zeikien Eibarrera jun! Ezin zeikien juen. Eske, bidie egon balitze bai. Gero Basurtuko batek, horrek Basurtoko zakarrorrek?
- Bai...
- Horrek kotxie ekarri eban. Bai, kotxie hor eukitten eban; kotxe zahar bat, beti aberixauta eukitten eban. Ta meka...! Hari gorrixok erakutsi [eutsan]; kotxiorrek suelduok jaten eutsen ondo! Bai, kotxie horraiño ekarri eban.
- Lehengunian aittatu zestazun, hau, Maria Aristondok kantuak erakusten zetsuezela asko. Eta kantu bat gogoratu zenduan "Guazen mendirik mendi" edo...
- Bai.
- Goguan dakazu? Kantatzeko moduan oin?

- Bueno, kantau... Zela kantauko dot, ba, nik?
- Ba, lehengunian kantau zenduan ondo-ondo!
- Bai...
- Eske sekula entzun barik nekan eta...
- Gurien gaztiek, ba, zeremonixie egoten da "cada dos por tres" erderaz esanda, ta, ba, batan kunpleañua edo birena batera edo enfin. Ta gero, kantuen-edo, jardun behintzet danok eitten dou. Danok! Danok! Danok! Ta hori etara neutsen nik lehentxuaoko baten. "Hi, nik hamar urte neukazeneko kantue", ta "Zela? Aber, zelan?", ta, ba, bueno:

"Guazen mendirik mendi euskotar gaztiak,
guazen aldatza gora mendigoizaliak
haxe osasuntsu bat, bizitza indartzera,
aberri guztiei agur egitera".

Ta gero "bis". "Bis" ta, ba, horixe da dana. Bat hori da.

2.45. Buztarginak; zuhaitzen inguruko azalpenak

- **Hizlaria(k)**: Mugarza Idarraga, Enrike
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-020/005
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:08:25. **Bukatu**: 00:10:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
  Natura » Flora
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena**: Buztarginak Berrizen eta Mallabian (Bitoita baserrikoa). Pagoa hainbat gauzatarako erabiltzen zen: buztarriak; gurdiak... Zuhaitz klase bakoitza zertarako erabiltzen zen. "Burtiune" egiteko tantaia edo lizarra erabiltzen zen. Etxe inguruan 3-4 lizar-arbola egoten ziren, trumoien kontra edo.

Transkripzioa
- Buztargilliak ibiltzen zian hemendik?
- Bai, b(a)euzan. Bai. Bat Berrizen ezautu naban, beste bat Mallabixen be bai. Mallabixen, gaiñera, Bitoitan. Bitoitan. Bai. Bitoitako basarrixen. Ta bestie Berrizen. Ta gero gehixao be egongo zien, baiñe nik neuk nire zerien horretxek bixok ezautzen nittun.
- Esan dozu pagua... hori, ez? Gauza askotarako erabiltzen zala...
- Pagua? Bai.
- Buztarrixak eitteko, sutarako...
- Sutarako be bai. Gero, burdixan ardatza eitteko be bai; burtardatza esaten jakona eitteko be bai, esaten dana, erroberen erdiko ejia eitteko. Burtardatza esaten geuntsen guk.
- Egur klase bakoitza, gaiñera, hori, ez? Gauza baterako erabiltzen zan?
- Bai, bai. Gero, burdixan beran armazoie-edo esaten dana, zera, eitteko izeten zan tantaixe. Zeroi, erdiko ejie... Esan gura neban, burtardatza barik, [burtiune] esaten jakona, izeten zan [burtiune]. Ganauek lotzen zittuna, ha izeten zan tantaixe, edo bestelan laixarra be bai. Laixarrezkue be bai. Laixarra da beste arbola bat.

- Eta ze diferentzia dake egur horrek? Ez dakit... Laixarra ta tantaixa ta... ze diferentzia dake?
- Bueno...
- Bata gogorraua da, edo...?
- Gogorraue izengo da zera, tantaixe, laixarra baiño. Neuk pentsau. Ez dakit seguru, baiñe nik pentsau baietz. Ta gero, baserri ingurutan egoten zan laixarra etxe inguruen hiru, lau edo gehixa´ iguel egoten zien. Ta esaten... Nik entzunda aittei-ta izeten zala trumoiegaittik, trumoian kontrakue laixarra arbolie etxe inguruen. Orduen be, ba, ointxe moduen, trumoiek, ba, gogor joten dotsu iguel, ta, ba, oiñeztuegaittik-edo laixar-arbolak egoten ziela etxe inguruen trumoiegaittik. Lehena(o)ko esakerak. Nik aittai entzunde behintzet.

2.46. Auzoko eskola; auzoko baserrien izenak

- **Hizlaria(k)**: Meabebasterretxea, Maria; Sarasua, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-024/006
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:07:50. **Bukatu**: 00:10:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena**: Eskolan 7 urtetik 14ra bitartean egon zen. Eskola noiz egindakoa den. Auzoko eskola zen baina inguruko auzoetatik ere umeak etortzen ziren; Trabakutik behera dauden baserrietakoak ordaindu egin behar izaten zuten. Urtean, pertsona bat arduratzen zen eskolako egoeraz ("maiordomue"); hari ordaintzeko izango zen dirua. Eskola, karearekin zuritzen zuten, "letxerie". Baserri izenak.

Transkripzioa
- Eta eskolan zenbat urtekin-edo hasi ziñan? Goguan dakazu?
- Eskolan saso´ antzien ni, zazpi bataz bai.
- Zazpi bat urte…?
- Ta hamalaura ingurura arte ibili nintzen.
- Bai, honek eskolie ondo ikesi eben.
- Ta… Ba, zortzikin edo primera komuniñue ein [nauen] ta.
- Lehelengo jaunartzie.
- Eskolia zeuek baiño lehenao eindakua zan?
- Bai.
- Askoz lehenao? Edo?
- Asko be ez aurretik. Horrek eskoliorrek oin eukiko dittu hirurogeta hamazortzi larogei urte edo.
- Oseake, zeuek estrenau ez, baiña, bueno…
- Gure aitte-ta ezkondu zin inguruen, hirurogeta hemeretzi bat edo holako bat.
- Eta auzokuak juaten ziñazien bertara?
- E?
- Auzokuak bakarrik juaten ziñazien bertara?
- Ez, etorten zin… Ta zera, pagau itten eben hor Trabakotik beherakuek, hamen eskolara etortzearren.
-A, bai, e?

- Ez dakit, ba, zetako izengo zan. Gero, urtin bat maiordomue edo egoten zan eskolie, bakaziño-denporan, eskolie zurittu-edo eitteko. Ta hartarakoxe izengo zan ha diru´ segurua´. Ba, letxerie edo pintturie edo dana dalako... Letxerie izengo zan lehen, kariaz eindde.
- Ordun kariaz izaten zan letxerie, ipini zurittute, urtute, ta gero brotxiakin haxe.
- Oseake, horri letxeria esaten detsazue?
- Hori kariakin eitten dana bai, letxerie. Hori beti entzun da.
- Oin, ba, pintturak daz, baiña lehena´ kariaz etxin be baztarrak zuritzen zin.
- Zurixe izeten zan ta garbixe bazan, e? Oin, bueno, pintturie ezeixu konparau.
- Bueno, amaraun batzuk kendu ta... Eskobiaz izeten zan enjeneral. Pristi-prastie [...].
- Brotxie [...].
- E?
- Brotxa bat be egoten zan [honan]. Bueno...
- Bai, geruao.
- Ha makillan ipinitte.
- Baldan eindde eskobie sartu ta harekin. Masma [batzuekin goixe...] eindde.
- Eta maiordomua zein izaten zan?
- Bueno, lantzin bat. Eskolan partidue euken guztixek. Aurtengo urtin ni banaz, hurrengo urtin beste etxe batekue.
- Eta hori sorteoren bat eitten zan edo...?
- Sorteun barik saillien jungo zan ha zeretik, numerotik edo. Ez dakit nik zelan izeten zan be.
- Orduan, kanpotik be etortzen zian hona?
- Bai.
- Trabakutik behera daren basarrixetatik eta...?
- Bai, bai. Hor, Lapatza ta Orrospengue be... han... Trabaku baiño harutza´ kamiñupien ta... Baitte Elgetzukuk be etortzen zin ta Abendibarkuk eta... Gero hor txaletak eindde daz oin Donagaraittik han gorutz. Han etxe bat zan, Donetxebarri, hangue, ta Donazkuk be bai ta...
- Orduan, ume asko juntauko ziñazien hemen, ez?
- Hirurogeta hiru kontaute na´ ni hor batera.

2.47. Dotrinaren garrantzia XX. mende hasierako gizartean

- **Hizlaria(k)**: Meabebasterretxea, Maria; Sarasua, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-024/023
- **Iraupena**: 0:03:05. **Hasi**: 00:50:05. **Bukatu**: 00:53:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
  Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Dotrina eskolan ematen zuten. Abadeak ematen zien. Domeka arratsaldetan arrosarioa. Dotrina eskolan erdaraz ematen zuten; abadearekin euskaraz. Jaunartzea egiteko derrigorrezkoa izaten zen dotrina ongi jakitea. Mariak sari bat irabazi zuen dotrina ongi jakiteagatik.

Transkripzioa

- Lehen esan dozu dotriñia ta. Eskolan emoten zenduen?
- Eskolara etrotzen zan abadie, baiña... Eskolara astin hiru bider etortzen zan. Ta ihesi eindde... Maistriek berak be iños ainddu oskun, “Erlojue euki dot gaur txarto” ta baten... Gu aguro.
- Orduan, astian hiru bidar ta...
- Ta gero domeka... errosarixua orduko domeka atsaldin. Ta gero hara jun ez, ihesi handik, eta hurrengo zortzi egun kastigaute.
- Sin recreo.
- Ta aittek eta amak be hara jun ezik, barritz, e...
- Eta dotriñia ze emoten zenduen, euskeraz edo erderaz edo...?
- Dotriñie?
- Euskeraz.
- Bueno, euskeraz, baiña guk...
- Eskolan erderaz.
- Ba, hoixe,ze nik bixetara be badakixaaz ta. Bai, eskolan, eskolan erderaz hori.
- Bai “Eres un cristiano” hori esaten zan ta bestian “Kristiñaua zara”. Batien euskeraz ta bestien erderaz.
- Eta euskerazkua zelakua zan? Gogoratzen dozu zatiren bat?
- E? Gogoratzen dozu zatiren bat euskerazkua zelakua zan dotriñia?
- Euskerazko dotriñie zelaku´ zan aber akordetan zarin!
- Euskarazko dotriñie, ba, gu ze gogoratuko ga´ ba? Agur Marixe ta Santa Marixe, Aitte Gurie...
- Dana. Salbie ta beste gauza asko.
- Euskeria ze izaten zan...
- Aginduek eta danak.
- ... Bizkaiko euskeran ala halako euskera...?
- Guk Bizkakue. Bizkaikue, bai.
- Orduan errezaua ikasteko, ez?
- Bai, geure erakuk
- Bueno, bestie be dotriñie... Ha ondo ikesi biher izeten zan ta.
- Dotriñia, hori da, inportantia zan, ez?
- Hoixe!
- Kasik eskolia baiño gehixao edo...?
- Ez, eskoliek palta gehixao ingo eban ordun be. Oin, barritz, halan be gehixao, baiña... E! Dotriñie ondo ez ekixenak eta primera komuniñoik ta ezin zeixen ein lehen, e!
- Honako liburutxo bat egoten zan. Zenbat orri eukiko zittun harek?
-A! Ez dakit.
- Hamar iguel? Baiña ha dana ikesi biher izeten zan. Nik ha lehen dana ikesi [naban]; oin ez dakit jakingo neuken erdixek.
- Bai! Oin lehendik diferentetuta daz egon be, ta...
- Kartillatxo bat izeten zan ta, bueno, ha dana. Ta, bueno! Ni akordetan naz baten premixue emon osten dana jakin nebalako. Oin ez dakit erdixe be, e?
- Ez zan... ez zan izengo premixo haundixe...
- Erregalutxue, elizako erregalutxue izen zan. Ta jo! gure amak pozik ikusi eben ha.
- Eta dotriñia, esan dozu, ondo ez zekixanak jaunartzia-edo ez zebala eitten? Orduan abadia ze izaten zan, gogorra?
- Bai, hoixe, ondo jakin biher jaunartzia itteko. Igul gure sasoku baiño zaharrauek be geukin batera-ta itten eben aurreko urtin atrasau zielako ta.

2.48. Erlijioaren inguruko ohitura zaharrak

- **Hizlaria(k)**: Meabebasterretxea, Maria; Sarasua, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-024/027
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 01:00:25. **Bukatu**: 01:02:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- **Laburpena**: Baserri batean gaixo bat zegoenean, elizakoak eramaten ziren. Farolarekin eskuan, monagiloa abadearen aurretik. Bidean norbait suertatzen bazen, belauniko jarri behar zen. Ohitura zaharrak.

Transkripzioa
- Gaixorik zeuanian basarriko... ez dakit, basarrittarren bat edo...
- A! Bai, elixakuak erut´a?
- ... elixakuak eruatera?
- Bai, junde na´ ni baten baiño gehixaotan abadiakin.
- Eta ze izaten zan? Zu juaten ziñan aurretik edo zelan...?
- Bai, farola eskun zala, ni aurretik, abadian aurretik. Farola ixotute, e! Kandeliakin.
- Ta gu eskolara juten giñenin, bidin...
- A! Ta ha bidien-edo suertaten bazan, belaunbiko parau biher izeten zan, gure jaune doielako.
- Txiliña edo eukitzen zenduen?
- Baitte, txiliñe joten juten zan ta, bidien be, ta ezaun izeten zan elixakuek oiezena. Lehen elixan be txiliña jotzen zan, bai; [...] be bai ta konsagraziñuen ta. Oin bape ez da joten ta... Harek joten zien bai lehen.
- Eta, orduan, elixakuak emotera juaten ziñanian abadiakin...
- Ordun bidin, lantzin-lantzin, "txin, klin". Ta handik gerotxua´ atzera ta, ba... Zer doien aitzen emotearren izeten zan.
- Eta gero zelan izaten zan? Basarrira heldu eta hiltzen zeuanan edo gaixorik zeuanan inguruan kandelak ixotzen zian edo zelan izaten zan?
- Kandelak ixotute egoten zien baserrikuek.
- A! Orduan ya ixotuta egoten zian zuek...
- Bai. Ta gero emon, ba, zeroi, ta itten otsezan beran biharrok eta... Zozer goix partie bazan, iños armozue emoten otsen abadiai ta...
- Monagilluai bapez?
- Bai, neuri be bai.

2.49. Buzkantzak nola egiten zituzten

- **Hizlaria(k)**: Madariaga Agirre, Antonia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-028/017
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:26:20. **Bukatu**: 00:29:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane

- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
  Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
  Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Ardiak baserrian. Haria egiten zuten gurasoek artilearekin. Haragia ere jaten zuten. Jatekoa. Buzkantzak nola egiten zituzten.

Transkripzioa
- Eta esan dozu harixa eitten zebela aittak eta amak...
- Bai.
- Orduan, ardixak-eta eukitzen zenduezen, ez?
- Asko, asko, ardixek!
- Jateko be bai, ezta, ama?
- Bai.
- A, bai?
- Jan eitten genduzen ardixek neguen. Batzuk ardixek... batzuk gabonetarako-ta ahari kapauek [esaten jaken]. Txikitten kapaute ipini ta harek gizen-gizenak egoten zien. Ta txarrixe iguel txikitxue, baiña harek aharixek ipintten zittuen. Ta amak udan atze... besuek eta hankak gorde eitten zittuen gatza emonda negureko eta udan beste maskaltxuoi udan. Ta txarrixe dauenien harek aprobetxau; harek iztarrak eta besuek, gatza emon ta gorde.
- Ardi-okeliaz, ardi-okleiaz, ezta, jaten [zenduen]?
- Ordi-okelie guk jaten genduen asko. Ta sarritten, gaiñera, lapikuen be bai gabien-ta. Baiña gaberako-ta porruk-eta baiño be eitten eban gure amak: beratzen ipini okelie, zatitxo bat, ta gero siketu ondo, ein zatitxuek, ta prasie etara kanpora beheko suen ipini parrillie, ipini han gañien, ta gorri-gorri-gorri eitten zien. Ta harexek; artuaz zatitxo bat ta gero esnie eran ta ala!, ohera.
- Ohitturarik bazekazuen ardixakin, ez dakit, buzkantzak-edo ze izaten dira...?
- Bai, hori da ardixaz... tripa baten sartzen die danak.
- Eta hori eitten zenduen?
- Bai.
- Eta...
- Hori, ba, ixeten da egun bireko bakarrik.
- Matanzie diño. Ardixana txikixa da, txarrixa modokua ez da. Txarrixana haundixao bai, baiña zelan esaten jako txarrixari? "Buzkentza", ezta?
- "Buzkentza". Txarrixanai ez, ardixana.
- Ardixana.
- Eta zelan eitten zan hori edo...?
- Hori eitten zan, ba, kipulie ta berakatza ipini... Ez, kipulie ta porruek. Zehetu kazuela haundi batera, bota harek ganauek... edo harek eukezan grasa, ba, botaten jakon hara. Ta dana bigun-bigun ein, ta gero garbi-garbi eindde --harek askan garbitzen zien, ure dauen lekuen ondo garbittu-- ta gero amak eitten eban osoik sartu, hara tripa osora sartu. Tripakuk danak etara, garbi-garbi ein, ta hara sartu horrek danok. Ta gero, hau batzeko --hau, badakizu, hau haundixe da-- hau batzeko zoz bat ein --zotza, e!-- zuloko zuluetan-zuluetan, ta batu. E? Zotzaz hau batu. Ta gero lotu sokatxo bataz ta esei ta...
- Beira... Eta hori gustokua eukitzen zenduen...?
- Bai, hori gozua izeten zan!

2.50. Irakaslea, "makiladune"

- **Hizlaria(k)**: Urkidi Ganboa, Mari Karmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Gonzalez, Esti
- **Erref**: MAL-045/006
- **Iraupena**: 0:02:55. **Hasi**: 00:04:50. **Bukatu**: 00:07:45
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Hoyos, Aritz
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Eskola kontuak. Irakaslea nolakoa zen; "makiladune". Zigorrak nolakoak izaten ziren. Zer ikasten zuten.

Transkripzioa
- Ta ze eskolan-ta? Holan akorduz.
- Maistrie gogorra.
- Bai?
- Buenooo, makilladune, makilladun maistrie.
- Euskaraz ein bihar?
- Eeeee?
- Edo erdaraz ein bihar?
- Horixe, nahi ta ez bez, nahiz ta bera euskalduna izen, berak euskaraz jakin bai, baiña euskaraz ein ez.
- Eta gogor eitten otsuen? Gogorra makilladune, eta erakutsi?
- Erakutsi ondo. Oin haren problemie burugogorra zanandako problema handixe. Oin erreztxua ibiltzen ginttezenandako ba ez hain txarto, oin buruen sartzen etxakonak haren erruki e! burun reglie apurtuartekuk.
- Haren erruki esan dozu.
- Bai haren erruki. Belauniko liburu bana ipini eta han hormai begire. Ta bat emon eutsen, regliakin emon eutsen golpiaz odola darixola belarrittik eta dana, baiña berez ez danai ezin sartu, ez penagarrixe, osea... pena emoteko.
- Ganera noberak ezin ein ezebez...
- Ez e bai ixilik egon hadi, ezer ein? ixilik bakoitzak…
- Norberari etorriko ete dan.
- Norberari tokaten etxakonian pozik, ni “con suerte”, bai hainbat bider entzuten egon na, aber zeaitxik ez nintzen juten ba eskolara gehixau. Ezin izeten zunan jun, ze ein asko egoten zunan etxin-ta.
- Esan don zera, ez? apremidxadie ein zotsunala.
- Ez errez errez.
- Ondo sartzen?
- Juten nitzen, berak ori esaten junan ba.
- Gehixau jakiteko...
- Gehixau jungo banintz, ba asko ikasiko nabela, baiña..
- Eta orduan zer erakusten euen maestriek.
- Entzikopledixa osue, liburu handi baten, denetik. Bueno atsalde partez juten zanak egixe esan ba, problemak eta holako gehixau, lenguajik-eta baiño.
- Astirik ez euen han bueltan juateko-edo, atsaldetik ez joateko-edo?
- Ez, bai, atsadetik bai, atsaldetik atsalde osue illundu arte.
- Bai eitten zenduen e?
- Ez klaro partikularrakin sumaute.
- A klaro horixe.

3. Familia eta harremanak

3.1. Eskekoak baserrietan

- **Hizlaria(k)**: , Felix; Gallastegi, Basilio; Goitta, Pedro; Onandi, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: MAL-002/001
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:02:45
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Markuerkiaga, Itxaro
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Eskeko bat zakuarekin baserrira joan zitzaieneko eguna.

Transkripzioa
- Ez da hain [...] baiña esan bir dou ta, zera, [...] izan da, zera etorri jakun baten eskeko bat, ba leiñ eskekuk ibiltxen zin ba, beharrezkuk zakuaz ta zerin ipinitxa, kale erropa osoz ta, umin kontra gixona taxu hortan ez dakit ze ta.
- Harexei begire [...]
- A bai bai, ni ziurtatu ezin da izen, zerutatik, ez, zerutatik ezin da izen ta, [...] zerutatik ordun ta, segidu ein bihar xoat pentsau xoat nora joten daben ta, “Bai handixik nator ba”, esan naijon eta, “zuk biher bada ezagutuko zu nire lehenengo senarra, Juan”,” lagun handidxek ga, siñistuik”, da “zelan dabil ba?”, “han danak dabiz igul antzin”, eske ez dot gure barre etxi ze kristo ta, Ortuzarrenekuk emongo dosta. Bueno “zeoze eingo zaizkizu”, ta “bai ipini agudo”, ze nahixun ta, bankoa etorri nitzan ta etorri herritarrak ipini tzo diru apur bat ta maletie, Koldok. [...] ta “gaur Juanen iztarrak euki dodaz”, ezin da izen ta, “nundik?”, “gixon bat pasa da leiñ ta haretxek esan jazt”, “neuk be jakin nahi neukez, ze ixen den, ta norutz hartu dau?”, “ba hor ziher jun da, zaldi politt bat zeuken ta”, [...] igo gaiñea, junda, besti honek bilurre, [...] asko pasako dalakun ta, balienti honek geldi hor jarritte, bigarrenak berbarik be ezin ein ta, topa dozuena ezetz ikasi be ein, ta, bide eskasa ixan da hori ta beste bat gorutz, kruzero baten Baltikorutz, ibili ei zan begire ta, ezin izen eben aurrera jutie, esan ei zen, “adiskidie ikusi ahal dozu maletadun gixon bat”, ta “bai, haren bile bazabiz hankak azkar eragin zinekez” esan ei zetzen, “bizkor ibili zinekez”, ta, emon dotso zaldixori ta “eukiko dozu oixaktena” ta “bai”, joan da gizon hori bille, ba zerorren bille, maletadunen bille, ta atera maletioi, laguntza barik igon al zaittez beste bidetik, hanka! Ta etorri zan ta ez zeban topau iñor, ta dios hamen martxie, andria ixan zan [...] jaja lagata hortxe [...] etor da etxera ta andri [...] memeli zan baiña“sar zaitxez zuk ze nahizun hara guk baiño nezezidade gehixau daukela Juanek da hareri emoteko ta berari emon dotset”. Ta ondo pasa ei zeban [...] zoridxonak emon /bitsezuz/ bihar dotsezuz gixonai zuk [...]
- Horixe ba.
- Bai.
- Eh bai, e amaittu dozu hori?
- Hori bai.

3.2. Mallabiko antzinako kontuak

- **Hizlaria(k)**: Gallastegi, Alejandro; Gallastegi, Basilio
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: MAL-005/003
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:02:15. **Bukatu**: 00:04:40
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Mugarza Martinez, Pello
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
  Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- **Laburpena**: Txahal-hiltzea. Emakumea goruetan.

Transkripzioa
Edurras, Goittako osaba sana ta Uxartekue, Otzoneko eskatzien, suonduen jauasen, Domingo be éurekin. Orrek mutikuek jauasen da, akordau jakuan aintxe, daun-daun, txala ill bidabela, eta esa(n) jutzan Goittako osabiai:
- Txala ill bijuat ointxe, eutzikutzek?
- Bai, eutzikutzet.
Jun da kortatik ekarri juan txala "txikili-txokolo, txikili-txokolo", bietz-oskolotz baten.
"Ill eingo ete jok" pentzatzen egon ei sittuan eurek eta, baitte, eta ataire ta "digrosk" jo ta garbittu juan txaloi.
Paskula, Domingon andrie, Goittan górutan suan da batamatek esa(n) jutzan Domingok txala ilddabela ta jun dok Paskula etxa:
-Baiñe, Domingo, ser einddozu?
-Su ixixillik, ándrak óilluen árrautzekin da beixan esnias ainddu, bestela ixixillik-esa(n) jutzan Domingok. Txala ildde-garbi ei(n) juan.
Gero, bixaon goxien, Goittako osabie jun suan atza ta, odoloste bat sotzien sartute jeukan Domingok, prasatan erretzen. Goittako osabiai, -gurok?- eskiñi tte, -es neuk jan bijuat- ta buelta ein dde berak ja(n) juan odolostioi. Oixok danoi.

3.3. Umetako kontuak

- **Hizlaria(k)**: Gallastegi, Alejandro; Gallastegi, Basilio
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: MAL-005/021
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:02:15. **Bukatu**: 00:03:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Mugarza Martinez, Pello
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- **Laburpena**: Umetako kontuak.

Transkripzioa
Léna eskolan Mallibixen ibiltten gintzuasen da amai peesta bi atrapau najutzasen etxien. Ju(n) nitzuan eskola. Mallibixen tabernera bat Kristina esate jakona jauan.
-Ónetxek peesta bixon pikupasak emon bistesus.
-Jesus! Estok gitxi jan bier- esa(n) justan.
-Jangoittut- Eta talue lakoxe pikupasak periodiku bat bete-bete emo justan.

Gero, ba, esin jan. Domingo Iñusiñako ta bixok San Pedron beera bagatosak eta "jan eisa(k) pa" esate(n) najutzan. Jate justasen baiñe, geixa jatie gure najuan nik.
-Etxien ónek ikusten bajustesak balarrixok berotuko justesak niri! Janeisak!
-Jaten najabik- atza esate justan.
Gero, ba, janok jan eindde be esin genduasen amaittu. Etxera orduko sasi moltzotxo baten aspixen papelien batu-batu eindde úrrengo egunako gorde najittuan. Úrrengo egunien be ondo etorri sittuan.

3.4. Mallabiko antzinako kontuak

- **Hizlaria(k)**: Gallastegi, Alejandro; Gallastegi, Basilio
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: MAL-005/025
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:08:05. **Bukatu**: 00:08:45
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Ibañez, Jon
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
  Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena**: Antzina gertatutako ipuina. Gaztetan egindako okerkeriak.

Transkripzioa
- Batzuk inderra batu biher, ta lapatzak kortako behidxei manda eulidxek, manda eulidxek gastau ein da.
- Bai.
- Ganadutan be.
- Bai.
- Ta han ta potetxo baten sartu ta han Trabakun plazin zan erromeridxie ta hondik herri e kamioien ta etxerako moduen, neska mordu kontixu, pikau, manda eulidxek etxerako gogue, ariñeketie...

3.5. Umetako jolasak

- **Hizlaria(k)**: Zelaieta, Evarista
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-016/008
- **Iraupena**: 0:03:37. **Hasi**: 00:14:25. **Bukatu**: 00:18:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
  Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna
- **Laburpena**: Umetako jolasak: tortolosak; presoka; aide-aideka; losa-losaka; etab. Garizuman: txilin-txilinka (korroan); txirikilarekin.

Transkripzioa
- Eskolatik urten ta gero jolasian eitten zenduen bertan?
- Bai, elizpien. Elizpien be bai, ta eskola bueltan be bai, presoka, eskolan bueltan, harrapatzen ta... Bertan jolasien.

- Danok batera, ez? Neska ta mutil.
- Bai, neska ta mutil. Ta gero, beste jolas batzuk, ba, neskak bakarrik: tabak. Tortolosaka. Geu. Edo eukitten genduzan, egurtxo batzukin-edo muñekak eitten bagenduzan, geuk ein.
- Egurrekin?
- Zeozekin! Egurrekin edo nabo-buruakin edo zeozekin ein ta gure muñekatxuek. Etxien harrapatzen bazien tela zatitxo batzuk, harei erropie eitteko.
- Ze jolas gogoratzen dozuz? Tortolosak...
- Tortolosak. Gero losa-losaka. Eskola aurrien euezan zazpi losa edo. Losa-losaka. Horrek neskenak. Horrek gauza bixok neskenak bakarrik. Ta gero presoka, eskola bueltan.
- Hori danok batera.
- Bai. Gero elizpien, elizpien, ba, egoten zan kanto-kantoka. Kantoien. Aire-aireka be bai bankuen gaiñien; ta beste bankure pasau biher! Ta bixen bittartien bestiek harrapatzen bazaittu, ba, ala! Horrek.
- Jolasian preso zein geratzen zan erabakitzeko zelan eitten zenduen?
- Preso zein geratzen zan? Ba, azkenengo allegatzen zana. Haxe egon biher preso.
- Holako kanturen bat... Oin "Dona-dona" dan moduan edo halako zeoze?
- Presoka ez, ez gendun eukitten. Presoka, kanto-kantoka, tortoloska... Epoka [batzuk] egoten zien, ba, tortoloska eitteko.
- Hori da, ez? Jolas bakoitzak... Urtian zihar sasoi batzuk zeren...
- Bai. Ta beste batzutan, ba, losa-losaka. Harritxo bat hartu aurrien, ta han [...], ta erreixaik zapaldu barik ibilttie. Erreixie zapaltzen zanien, galdu eitten zan; bueno, barriro hasi biher. Hoixe.
- Garizuma sasoian?
- Eskolan ez jakon igerten.
- Txirikilliakin edo eitten zenduen?
- Horrek erromerixara hasittakun, nausitxuao einddekuen txirikillan.
- Ume-umetan ez zan txirikilliakin jolasten?
- Ume-umetan ez, baiña nausitxuao [einddekuen] txirikillan. Ordun dantzaik ez zan egoten Trabakun hor, ta orduen txirikillan, han kamiñuen pasiuen edo holan. Txilin-txilinke be bai. Holan. Korrue formau ta txilin-txilinke: "Txilin, txilin, San Agustin". Edo holan.
- Zelan da hori?
- Korru bat ein, ezta? Neska ta mutil. Ta erdixen egoten zan bat.

"Txilin, txilin, San Agustin,
cuartillo medio de vino,
para contentar este rebaño..."

- Bueno. Gero, behintzet, batek esaten eban, sokan euen batek esaten eban: "Ba, ni harrapau [naittela] batenbatek" --erdixen daunak--. Ta ariñeketan, harrapatzen.
- Eta hori garizuman izaten zan?
- Bai, hori garizuman.
- Holan, saltoka-edo eitten zenduen edo bueltan edo...?
- Korruen. Korruen. "Txilin, txilin, San Agustin...". Enee! Ahaztu... Hori txilin-txiliñori famosue izeten zan garizuman. Hori beti. Neska ta mutil, ta obatu alkarri ta txilin-txilin, korruen ein ta...

3.6. Garizuman dantzarik ez

- **Hizlaria(k)**: Zelaieta, Evarista
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-016/016
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:43:51. **Bukatu**: 00:45:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
  Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena**: Neska-laguntzea. Garizuma garaian dantzarik ez. Erromeria kontuak.

Transkripzioa
- Orduan, nobixo kontuan eta halakuak be...
- Nobixo kontuek be esan ein biher abadiai. Ha be esan ein biher.
- Eta, gaiñera, orduan neska-laguntzen edo neskia ta mutilla bakarrik ez zian ibiltzen, ez?
- Bueno...
- Edo beti baten bat aldamenian edo...
- Bueno, etxerutzien bai. Etxera... Igul bide zati baten kuadrillan, baiñe gero batan etxia hor euen ta bestiana han ta bestiana hor ta etxera laguntzeko banatu. Banatu.
- Baiña bestela, hori, zuk esan dozuna, ez? Musua edo patxua emon eta halakuak...
- Holakuak esan ein bihar abadiai!
- ... gaizki ikusitta. Pekatua.
- Pekatua. Hoixe. Pekatua. Baiñe esaten eban... Ejerziziuek-eta egoten zienien garizuman-ta gogor eitten eben, ba! Dantzan eittiarren ta bata ta bestia. Ta astebetien kontu asko esaten zittuen ta pixkat jentie makurtute ya: "Ba, ez, ba! Barriro ez dou holakoik eingo!". Ta "Ze pentsatzen don, ba? Dantzan ein barik egotia edo ze pentsatzen don, ba, hik?", eta "Ez jakixenat, ba, nik, ba, baiñe dantzan ez". Allegau, horrek ejerziziuok amaittu ta hurrengo domekie allegatzen zanien, ba, pixkat dantzan eitteko kontuik be ez igul. Gure Juanek esaten dau, soiñolarixek esaten dau, igerten jakola erromerixan ejerziziuek ein barik dauezenin. Ba, neskak dantzara urten gure ez: "Abadiek ezetz esan jon ta...". Ta hurrengo domekan be, ba, bueno, pixka-pixkat. Bueno, gero hiru-lau bat domeka pasautakuen, ba, atzera lehengo moduan. [...] dantzan. Baiñe... bai.
- Igartzen zala orduan, ez?
- Igertzen zala. Harek esaten dau soiñolarixek igerten jakola. Urten gure ez dantzan, ta, ba, mutillek be dantzan ein ein gura, baiña bueno "Ez [juek] gura. Ba, [...] txikito bana erata ' edo. Ez bajon nahi...".

3.7. Garizuma

- **Hizlaria(k)**: Zelaieta, Evarista
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-016/018
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:46:18. **Bukatu**: 00:49:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- **Laburpena**: Garizuman, Santua tapatuta egoten zen. Ezin dantzarik egin. Arrosarioa errezatzen zen etxe gehienetan. Elizatarrak. Meza nagusia. Etxerutzean, emakumeak kontu-kontari. "Guzur-pague".

Transkripzioa

- Garizuman, esan dozu, erromerixa kontuak eta... Santua tapauta egoten zan?
- Bai. Tapaute egoten zan azkenengo aste bi pentsatzen dot izeten ziela: domingo de pasión, erremu egune... Edo bat edo bi. Eztakit. Santuk tapau eitten zittuen. Bai.
- Eta orduan, gaiñera, debekatuta dantzan, kantuan... edozer gauza, ez?
- Bueno... dantzan... hoixe! Dantzan batez be. Ta haxe bakarrik izeten zan gurioi, dantzan eittie! Ta ezin ein.
- Aste guztian horren zain, ez?
- Bai, ba! Aste guztie horren zain!
- Etxian errosarixua ta halakuak errezatzen zenduezen?
- Bueno, lantzin behin bai, baiña taberna baten gatxauek die. Hantxe egoten zan igul baten batzuk eta... Igul iños tokau, ba "Bueno, iñor ez dao ointxe ta errosarixua errezauko dou?" edo holakon baten bai, baiñe... Baiñe etxe askotan bai errezatzen zan, etxe askotan.
- Illuntzixan edo [lana edo artua urkultzen zeoze] ta errosarixua...
- Bai, etxe askotan.
- Zeuen etxian elizatarrak zian?
- Ba, aiztie moja dauket. Zeuk esango dostezu.
- Bai.
- Ezta? Zeoze izengo zan. Elizatarrak danak zien ordun. Danak! Ta batenbat ez bazan, apuntau eitten zan ha. Apuntau, e! Baiña danak elizatarrak.
- Orduan mezia ta meza nausixa ta...
- Bai. Goxien egoten zan lehenengo mezie zortziretan edo holan. Ta gaztiek juten zin goixeko meza '. Ta gero meza nausixe, ba, hamarretan, guresuek-eta juteko. Luzetxueue ta...
- Bestiak bueltau eta...
- Bai, bestiek bueltau eta hoixe.
- Orduan, auzuan-eta meza nausixa, gaiñera, izango zan danak alkartzeko momentua, ez?
- Meza nausixen?
- Bueno, ba, amaittuta edo, basarri batekuak eta bestekuak eta pixkat...
- Bai, egoteko edo... Bai. Edo etxerutzien, bidien honutz, andrak kontuk esaten, asteko kontuek. Ta han euen Gerittik honutzien kruze bat. Esate baterako, Agarreko basarrikuk handik jun biher eban, ta [Amilletegikuek]. Ta han egongo zin andrak kontatzen, ba, harei lekuai esaten jakon Guzur-pague. Han egoten zan kruze bat. Gero, handik honutz etorri ta beste... estaziño bat izetie moduen. Beste bat, ba, [Bastaittara] jun biher dabena edo [Saietsana] edo [Uzarra '] jun biher dabenak, ba, han kontu bat edo bi esan ta banatu. Ta hori izeten zan Karabixaldie, behin edo behin karabin bat egongo zan ta. Karabixaldien beste bat ta gero etxera.

3.8. Ezkontza bat egin aurretik, "elizdeixe"

- **Hizlaria(k)**: Antxia Arrate, Pako; Sangroniz Arriaga, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-026/008
- **Iraupena**: 0:03:35. **Hasi**: 00:11:25. **Bukatu**: 00:15:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- **Laburpena**: Ezkontza kontuak. "Elizdeixe". Hiru jaiegunetan zehar abadeak ezkontzaren berri ematen zuen elizan eta baten bat kontra egonez gero orduan ezkontza bertan behera gera zitekeen.

Transkripzioa
- Orduan, gaiñera, ezkontzia-ta ixa-ixa derrigorra izaten zan, ez? Lehen neska-zahar geratzia edo mutil-zahar edo...ondo ikusitta egoten zan?
- Segun zelako etxin euen. Gero zelako erreiña tokatzen zan be edo kuñetia tokatzen zan be edo kuñetua tokatzen be bai. Hor be aldia egoten zan. Nik dakit, neska bat elegantia Ondarrun. Ta, ba, ez eben mutillan etxekuk ez eben neskia ondo ikusten. Baserri ona [zien be], e, Berrittun, Berrittun. Ez eben ondo ikusten edo zerien, baiña, ba, neskiorrek eta mutillorrek be jarraittu eitten otsen. Ta eliz-deixek, lehen eliz-deixek bota biher izeten zin ezkontzeko. Ta batzuk ezkontzen zin hiru... hiru jaitten bota dirue eliztekin, ta beste batzuk bataz.
- Bueno, elixetan, ba, elixatik abadiek deittu eitten eban: "Bueno, ba, honetxen ezkontza bat da ta iñor kontra bada, ba, hiru egun barruen parte emon deixela, kontra iñor bada". Hiru jaitten hoixe abadik zertzen eban.
- Edo baten.
- Bueno...
- Ta hori be, hori Ondarrukuoi be, ba, aittek eta amak, neskian aittek eta amak hiru jaitten nahi, ta mutillek baten. Ta hortxe etara eben diskusiñue ta neskie bertan itxi eban, neskie elegantie zan baiña.
- Oin ez dao holakoik.
- Eta zelan esan detsazue horri? Osea, ohittura hori ze... "eliztei" edo...?
- Eliz-deixek, deixek. Esatie, ba, eliz-deixek.
- Elizteixek die horrek, ba...
- Deittu. Deittu da, ba, hoixe...
- Bai, bai, bai.
- Elizatik deitzen da, ba, kofradixan, herrixen edo, ba... ezkondu in da pareja bat, ezta?
- Abisua emoten zeben eta...
- E?
- Bai, hori da abisu bat emotia.
- Bai, bai. Oseake, elizteixe eta orduan ya jentiak bazekixan "honek ezkondu bihar dia eta protestaren bat edo zeoze badao"...
- Bai, "...badao, ekarri daixela, ba, haretxek elizteixek amaitzen diñetik, ba, hiru egun baiño lehen ekarri daixela".
- Baiña hori zuek ezautu dozue?
- Bai.
- Bai. Hori be bai, ta gure arrebak be hori ein eben. Ni... Ta geuk be bai! Ez arrebak, geuk be bai!
- Geuk be bai!
- Geuk be bai! Bai.
- Ta, ba, iñor agertzen ez bajatzu kontra, ba, ezkondu eitten za´ ta

batenbat...
- Ta batenbat agertzen bada?
- ... batenbat agertzen bada, ba, akabo.
- "Akabo" ez dakiu...
- Edo "akabo" ez. [Izen] leike, bueno...
- "Zegaittik [dok]" edo "haugaittik" edo "horigaittik"... Bai, bai, izen leike.
- A! Beira...
- Bai, horrek [pasautakuak] dia...
- Ohittura hori ez neban ezautzen.
- Bai, ene!
- Jesus... Orduan, argi ibili bihar, ez?
- Bai.
- Batenbat etorri ezkero protestaka edo...
- Bai. Baiña protestie be hoixe da, nok ein dauen; ta etxeko familixekuk in biheko eban ta...
- Bai, eta arrazoi, fundamentuzko arrazoi bategaittik izan biharko da, bestela, gero...
- A! Bueno, bai, bai.
- Buo! Holakuk asko.

3.9. Mallabiko Arteta auzunean jaiotakoa

- **Hizlaria(k)**: Urkidi Ganboa, Mari Karmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Gonzalez, Esti
- **Erref**: MAL-045/002
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:00:25. **Bukatu**: 00:01:45
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Hoyos, Aritz
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena**: Mari Carmen Urkidi Ganboa; Mallabian 1942ko ekainaren 20an jaiotakoa; Arandoño baserrian. Auzoari nola esaten zitzaion lehen; orain. Ama bertakoa; aita Bolibarkoa (Arta -Arteta- auzoko Lezartza baserrikoa).

Transkripzioa
- Izena- a zeuria zein da?
- Ba Mari Karmen Urkidi Ganboa.
- Eta noiz jaixo ziñan?
- Ba e junixuan hogeixe, Mallabixen, Aniño auzuen oin deitzen dana..., Oin Aniño deitzen dan moduen, ba lehena antxiñe, Arandaño nere baserrixe horrek emoten dotse Aniño oin esaten danai Arandaño, gorengo etxi.
- Urtie ez dozu esan. Zenbatgarren urtian?
- Berrogeta bi.
- Milla bederatzirehun eta berrogeta bixan bai.
- Gurasuak?
- Bertakue nere etxekue ama, eta aitte Gollibarkue (Bolibar).
- Baserrixe aittana?
- Lezartzakue, Arta auzoko Lezartza baserrixe.

4. Natura

4.1. Eperren inguruko kontakizuna

- **Hizlaria(k)**: , Felix; Gallastegi, Basilio; Goitta, Pedro; Onandi, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: MAL-002/002
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:02:45. **Bukatu**: 00:04:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Gezuraga, Kepa
- **Gaia(k)**:
  Natura » Fauna » Hegaztiak
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena**: Eperren inguruko kontakizuna.

Transkripzioa
- Gerin (Geria) e zelan zan ba hori eperra e.
- A bai hori e zera.
- Hori...
- Kanpoko zakunaz etortzen zala ta gosia izan zalarik eperra ekarriko ei zittun, “ba ekarriko dittut” esan ei zeban, ta ekarri dittu. Ta ezer badabil ipintten, ha be egunero ipini be ez ta probetan probetan askotxu jan ei zittun, ta […] honek pentsau dxoan: “zeozer asma biharko dot /bikot/ nik”, ta etorri jakun kanpoko abadioi bestin jantzik erutiarren Martiñegaz ta zera “ba banitxak”. Ta “hola” esan ei zotsan eta “hola”, ta “baaki zer?”, ta “ez”, “gure abadi ganau ona da beruaitxik, belarri bidxek ebai /bitsatez/ biher dotsatez bihar goizin. “O banoi ordun” esan ei ixan dau, “bai, hobeto eingo dau”, hartu liburuori ta hurrengo […] bera badoa abadiori doie, kanpoko hori, etorri da herrikuoi. Ta “Nun da ba?”, “Jun da”, “Jun?” “bai, baina ikusiko dittu,eperrak ikusi?” Ta bai, kaperautzan ta diar ei zotsen: “ekarri bat oin” ta zea, honek neuk bihar dittuaz “bittuaz” belarrittik ebai biharko / biko/ dotsadaz esaten zinduen, ta mutille ez dakitz zer badakitz […] horrek hamen deuzen bittartin eperrak […]

4.2. Basoen inguruko azalpenak: zuhaitz motak; baserritarren filosofia...

- **Hizlaria(k)**: Mugarza Idarraga, Enrike
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-020/006
- **Iraupena**: 0:03:20. **Hasi**: 00:10:50. **Bukatu**: 00:14:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Natura » Meteorologia
  Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
  Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- **Laburpena**: Basoak nolakoak: haritza, pagoa, tantaia... Pinurik batere ez. Filosofia desberdina lehenagoko baserritar eta gaurko baso-jabeen artean. Artea etxe inguruan. Lehenagokoek gustuko izaten zuten artea-zuhaitza. Intxaur arbola.

Transkripzioa

- Lehen esan dozu, ez? Hemen inguruan basuak pagua...
- Pagua, haritxe, gaztaiñie...
- Piñurik eta?
- Piñue gitxi.
- Bape...
- Bai, b(a)euezan, e! Baiñe gitxiao, oingo beste ez. Neu neutzako, klaro... Piñuek, ba, dirue emoten dotsu arin; bestiek, ba... ipintten dozu gaur zuk eta hurrengokuek be iguel ez, ta hurrengokuek be iguel. Baiñe nik hamen batzuei esan deutset: "Jolin, baiñe pague... Baiñe guk nahi doune da oin, geuk ipini ta geuk hartu". Ta harek lehenguek, harek esaten ebena zan: "Ba, bueno, ipini daigun, batenbatek hartuko dau ta!" Ta harek ipini ez baleben, nik be ez naban ezautuko ez pague, ez haritxe, ez tantaixe, ez gaztiñie, ez laixarra... Oin be artie... Artie beste bat da. Erderaz da hau zera... Zela da hau...?
- "Encina"?
- "Encina". "Encina", bai. Ba, artie be etxe inguruen lehen ixe etxe guztietan, baserri guztix(e)tan euen. Ta nik aurten be... Aurten ez, ointxe dala lau urte-edo sartu gendun ta hortxe deuket etxe onduen bat sartute. Gurien gure gaztiek be ez ekixen. Esaten nutsen nik: "Artie... Dios!" Lehena(o) behintzet gure aittek-eta be beti esaten eben: "Etxe onduen artie. Arbolarik polittena zala artie", ta bat hortxe daukou sartute.
- Ta zegaittik edo...? Artiak ze ezaugarri...?
- Ez, haxe lehena(o)ko kostunbrie, lehena(o)ko kostunbrie. Izen, egur gogorra da, e! Artie gogorra. Zer bat, nahi txuletak ebateko "trangadera" esaten dana, nahi edozer eitteko, artia. Arbolie gogorra? Askoriakin-ta jo ta ebateko okelie-ta, izen leikenik materixalik onena artie.
- Gero, intxaurra be...
- Intxaurre ya bigunaue da.
- Baiña hori be basarri inguruetan...
- Bai, bai, hori be bai. Baiñe...
- Bat edo...
- Baiñe peligrosu(e) da, e!
- A, bai? Zeba?
- Ze intxaurrek sustraixe botatzen dau asko. Ta ba(da)ukezu kortie edo ganau-tokixe edo, edo, bestelan, saneamentuko tubue edo, hara tiretzen dau berak sustraixek, ta eitten dau dana astinddu, jaso, bai tuberixie nahi edozer gauza.
- Osea, ura dauan tokirutz?
- Ure dauen tokire tiretu eitten dau. Humedadia. Ta gero, hartzen dau, ba, beran saborra daukena simorrek, ha gustatzen jako. Zera, beste bat platanua esaten jakona be bai; "platanar" esaten dotse batzuk, platanue. Ba, hori be etxe-inguruen txarra da, txarra be txarra. Horrek be terrazuek eta danak jasotzen dittu. Nik hiru-lau kendute deuka(a)az etxe ingurutik holantxik, ze bertan etxian onduen terrazue geunken ta jaso eitten eban. Ta kontratistiek ezetz ta nik baietz, haretxena zala, ze harek sustraixe botatzen [...], ta jaso eitten dabela ta. Ta gurien anaixi(e)k be ezetz. Ta bi eu(e)zan. Keizpie eitten eben edarra, ezta? Baiñe keizpie eitten ebala-ta... Esaten neutsen: "Hara, keizpie eingo dotsu, baiñe ein bihar dotsu bihar ez dan bat. Sartuko da bai sukaldera, ojalaterue ekarri biherko dozu, ta jaso biherko dozu tuberixa guztixe". Ta ezetz ta ezetz. Baiñe gure lehengusuai -- nik ordun ez neuken motosierraik, ta-- abisau neutsen motosierriaz etortzeko, bera lanien zala kamiñuen, kamiñero euen ta. Bota genduzen. Bi. Etorri zanien bota eusten bronka bat, baiñe gero konbenzidu zan. Baiñe motosierriaz ebai arren, atzera brotatzen dau. Atzera botatzen dau,

adarrak botatzen dittu. Ta azkenien akordau jatan... Ze, zelan eitten neban nik hamen motorrak-eta arreglatzen, ta baterixak zelan neukezan, azidue neuken. Ein neutsezan taladruakin lau zulo arboloi, bakotxai launa zulo, bota notsen azidue, ta akabo. Aziduek zertu, ostantzien, ebai arren, barrido botatzen dau adarra. Intxaurrek be bai. Intxaurrek be barrido botatzen dau. Artiek ez dakit, artie ez dot aprobau, baiñe platanue ta intxaurre han probaute d(a)ukaaz, ta barriro botatzen dau.
- Lehen esan dozu basuak. Hemen inguruan baso haundixak egoten zian, ala zelaixak...?
- Bueno, haundixek... Haundixek... Bai, zati polittek. Baiñe zelaixek be bai. Zelaixek be bastante.
- Oin baiño gehixao edo...?
- Bai! Gaur lehengo hurrik emon be ez!

4.3. Mugarriak eta baserritarren arteko tirabirak

- **Hizlaria(k)**: Mugarza Idarraga, Enrike
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-020/012
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:25:10. **Bukatu**: 00:27:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Natura » Meteorologia
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
  Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- **Laburpena**: Mojoiak; mugarriak. Baserritarren arteko haserreak. Urki-arbolak mugak markatzeko erabiltzen ziren. Mojoien azpian zer sartzen zen.

Transkripzioa
- Oin mujoiak-eta aittatzen dozuzela, lehen inportantia izango zan, ez? Basarrittar bakoitzak beran terrenua ondo markauta euki ta basuan sobretodo...
- Ta lehen basarrittarrekin, gaiñera --oin be igul egon leike, ezta? Baiñe-- lehen asko egoten zien ya zerak, liuk be bai mujoiekin. Ya disputak-eta: handik dala, hamendik dala... Bestiek igul mujoie barik zera... izeten zan --nik aittei-ta entzunde, gaiñera-- mujoie be bai, baiñe izeten zan arbolie urkixe. Urkixakin be bai eukitten eben itxurie euren [linderuan] direziñua. Urkixekin, urki-arboliakin.
- Eta, bestela, ze izaten zan mujoia, harri...?
- Harrixakin.
- Harri diferente bat, gaiñera, ez? Bertan tokixan egoten ez zan harri bat...
- Harri bat. Ta gero, harrixai azpixen zulue indde sartzen zan lekuen --nik aittei entzunde-- sartu biher zan egur-iketza, egur-iketza zati batzuk edo, bestelan, teilla zati batzuk, han azpixen. Zulue ein ha harrixe sartzeko --honako zulo bat igual-- ta egur-iketza edo teilla zati batzuk, ta gero harrixe. Ta gero lurrakin. Ha zan [instinto] bat; ya gauza diferentie jakitteko gero etaratzen bazan harrixe, ba... ze esango dot nik? Burdi batekin-edo etaratzen bazan be, ba, jakitteko gero nun eozan. Atxurrakin hasi ta, ba, topatzen zendun ha iketza edo ha teillie ta zenkixen hantxe zala mujonerie.
- "Mojonerie" esaten detsazu?
- Bai, "mujonerie". "Mojon", guk "mujonerie". "Mujonerie", "mujoi-tokixe"

beste batzuk esango dotse, baiñe guk "mujonerie" esaten gontsen.
- Orduan, "mujoia", baiña, zeri esaten detsazu, harrixari?
- Harrixai.
- Eta "mujonerie"?
- "Mujonerie", ba, tokixe.
- Orduan, bai harrixa edo urki-arbolia be esan dozu erabiltzen zala...
- Bai, urki-arbolakin be eitten eben batzuk, eruten eben euren mujonera moduen zeroi.
- Ta liuak-eta egoten ziala...?
- Bai! Mujonerie dala ta ez dala... Neu be iños entzunde mujoiegaittik hasarratute ta...

5. Baserria

5.1. Antzinako bizimodua

- **Hizlaria(k)**: , Felix; Gallastegi, Basilio; Goitta, Pedro; Onandi, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: MAL-002/005
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:07:35. **Bukatu**: 00:09:50
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena**: Lehenagoko bizimoduaren inguruko iritzia. Konparazioak. Garai batean baserrietan ez zegoen ez ur-korronterik, ez argirik, ez bide egokirik...

Transkripzioa
- Ba, oin hirurogeta zortzi urtez hor atzetikuk kontau biheko jittuau!
- Bai, bai [...] lekuen ekixok.
- Orduko bizimodue, geur txarto esaten juau, baiña geur hobeto, neuretzako, lehenaukuek baiño. Orduen, baserri baten ez euen Mallebi guztixen fregaderara urik. Pozuetati edo iturrixetati, handik zertu biheko zan. Ta geur ya etxe bat ez da egongo urik bakoik.
- Kotxeik bakoik be ez!
- E?
- Kotxeik bakoik be ez!
- Kotxeik bakoik be ez. Baiñe urik barik behiñipeiñien. Eta kamiñoik be... Geure akorduen einddekuek die, hirurogeta hiru urte edo lau izengo die Ermuatik Markiñarako [hona goiko] kamiñue ein zala. Ta euen kamiño bat bakarrik Eltzubittik herrire.
- Mallebire, bai.
- Mallebirekue. Ta Mallabittik Areittixora. Mallabittik Ermurekue be oindio urte asko ez dala einddekuek die. Horrek ointsua ' einddekuek.
- Hori geu ezkondu giñan ingurun, ez?
- Bai. Berrogeta hamabi urte inguru edo [holakue]. Ta holantxek gauzak. Hamen miserixeko bizimodue erun eben lehenaoko zaharrak, ze ez urik, ez argiik, ta ez bideik ez euen hamen.
- Ezebez.
- Hamen euen miserixa bat, jantzixaz be bai...
- Honek ez jakixiek baiñe...
- Jantzixaz be bai, eta bidiekin be bai, urakin be bai, ta argixe be...

Ointsuao ipinitteko argixek die honek argi... Ez euen. Petroliue edo karburue. Ta ez euen argiik be. Ta oin txarto bizi gariela? Bai! Sekulo be ez gara ondo biziko, baiñe ordun baiño hobeto oin.
- Orduko zaharrak bai konformidadie, e!

5.2. Lehengo zaharren konformidadea

- **Hizlaria(k)**: , Felix; Gallastegi, Basilio; Goitta, Pedro; Onandi, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: MAL-002/006
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:09:50. **Bukatu**: 00:11:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena**: Lehenagoko zaharren konformidadea. Proba-harria.

Transkripzioa
- Orduko zaharrak bai konformidadie, e! Hamen, horren etxie baiño beheratxuao zien haritz bi edo, ta beste pago bi edo; han proba-harritxo bat. Proba-harritxo bat.
- Bai. Ordun leku askotan proba-harrixe.
- Ta neguen, [hara] lantzien pareja bat lotu etxe bakotxak ta handik gora [hara] Otsonera, granjak dauzen etxe aurrera, behetik gora. Ta ha harrixa han gora altxatzen ebenak e...
- Zeozer.
- Zeozer. Ta gero, ba, lantzin batek, lantzin batek parejok lotute harekin harrixaz. Ta gero hor beste aldien [...], ta horko gizonai bestien parejak ikusten han, ta --Pantxiko juan izena-- ta "Pantxiko, zuk be lotu biheko dozuz, ba". Ta, ba, "Lotu eingo dittut". Andriek urtetzen deutse: "Ez horixe! Ez dozu erungo probara behirik!", ta andriek [...] Pantxikoi [...].

5.3. Antzinako kontu zaharra

- **Hizlaria(k)**: , Felix; Gallastegi, Basilio; Goitta, Pedro; Onandi, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: MAL-002/008
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:13:45. **Bukatu**: 00:15:15
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Markuerkiaga, Itxaro
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena**: Antzinako kontu zaharra.

Transkripzioa
- Konbersasiño bet hontxe honek txapistak ei eban, ta daz. Ta txakur handi bi ta beste txikitxu bat die, ez deuke zeikusik ta esan ei zirin txapisti horrek bere lagunai “ez zeixu lagundu e, aitta aukola makalik eta berana jun zala”

esan ei zeban. Famili bille be ikusi zaittuez, faltan be ikusi zaittuez ta Zaharburun txakurrok, ta zera e, horra Oizen baso baltzan dabil ba, eskalaristie Orozkoku-edo kastellano bat.
- Bai?
- Bai, [...] egun birik batzuk, ta berari be jentek emon dotsela txakurrok. Ta zera e, moluskun hor e, zera e, ehuntze jan, ta “zer nahi dozue?” Ba hondiño bistan dauela [...] harei leku gorde ta, [...] makiño hotsin hor sakonin, Orozkoko gizon hoi ai jun da gaztioi ta, bata ein zotson ta bestiek emon dotsola tirue, baiña buztana hanka artetan sartunde jun zala, ta ez dakixela haren barririk ta jenti ixilik da. Oizen dabiz, txakurrok.
- Bai.
- Ta pintta txikitxu bat, haixe eskasena esate eben ta, niriek izte bena solte lagata zeunkez, ta ni ez naz ezer, [...] daz ba. Honek zera Gerardonak edo hor enpresa orduko zerak e, txakurren [...] edo, oin txapiaz tapauta daz danak, etxie eindde ta, ez dot ikusi zelakuk dazen.

5.4. Antzinako bizimodua

- **Hizlaria(k)**: , Felix; Gallastegi, Basilio; Goitta, Pedro; Onandi, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: MAL-002/014
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:25:55. **Bukatu**: 00:26:55
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
  Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena**: Bizi-kalitatea. Antzinako bizimoduaren inguruko iritziak. Erromeriak. Garbitasun eza.

Transkripzioa
-Orduen denporan erromerixara be... ba, jertsie, konparaziño, jertse azule, horrek, Basiliok daukena baiño azulaguk, bazien. Ta orduen ez euen botikaik eta ez ezebe ta hogei urte edo, hamazortzi-hogei urteko neskak-eta --mahaixa apartaute, ez da esatekue, baiña-- zorri ale galantak jertsien taka-taka ikusten jakuezan.
- Hori bai. Zorrixek?
- Zorrixek? Erromerixan? Saillien.
- Osasune [...] ei jako.
- Ta pantorrilletan behera odol-txipristin ugeri, ta bueno... aurrera! Bueno...! Bai. [...] Egixek die horrek! Horrek guzurrek ez die.
- Bidixingorren baten [... jo eitten dau pantorrillan] ta horiaittik.
- Horrek Bittor Lapatzak...
- Horrek hamen hartuko die, ta guzurre bada, [preguntau] edozeiñi.

5.5. Idi-diruaren inguruko pasadizoa

- **Hizlaria(k)**: , Felix; Gallastegi, Basilio; Goitta, Pedro; Onandi, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: MAL-002/021

- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:02:25. **Bukatu**: 00:03:15
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Markuerkiaga, Itxaro
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Idiak saldu eta idi-diruaren inguruko pasadizoa.

Transkripzioa
- Han izen da beti gorutz ta, karreterun e, ba ein zotsala ospa.
- [...]
- Bai karreteru geure aitta zanak esate eban ba berak ebala konbersaziñu eban [...] ididxek saldu etxin ta idi-diru gurin e mahai gaiñera bota dabe ta gure aitxari esan zotzan berak ha idi-dirue bat bez ez zebala estimau; kortaraa jun ta ididxe falta. Hak emoten zotsela pena bere.
- Hori.
- Bai, osta hori neure bistan e gure aittari esanda. Ha idi-diru bape ez zebala estimau berak. Hak e, ididxe korta jun ta ididxe falta ixeti, harek emon zotsola penie berari.

5.6. Antzinako bizimodua

- **Hizlaria(k)**: , Felix; Gallastegi, Basilio; Goitta, Pedro; Onandi, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: MAL-002/023
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:04:55. **Bukatu**: 00:07:55
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Markuerkiaga, Itxaro
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena**: Antzinako kontu zaharra. Markinako feria. Lehenagoko arropak, ehunezkoak.

Transkripzioa
- Ba, zuen aitte zanak, entzun zotzen hori hori heldu ba, bai, eskopetie zuen aittana, ta bestik e Markiña ferixa [...] ba ferixa, ta ba andrak di aurrin pausun hurran erungo zittun [...] batzeko ta, batak esaten eutson bestiai e “Ezer entzu dozu?” Ta ”Ez” ”Anton da Maritxu ete dire. Ta ”o” ta ”Bai, Anton da Maritxu ete dire” ”Ez dabe bidxek be alkar asko lotsatuko harek” esan ei eutsan besti horrek eta ”Neuk be hori esan netsen gure aguriari” Bestik, ta zestun botillak euren e, tragotxuk etxera ekartzeko, botillak eta xiskun xiskun xiskun zestuk e, soinu ateraten eban pausun ta botilla txikiñek kargieaz, ta ba ”Anton da Maritxu itten dila, bolo-bolo dabil ba hori ba, bolo-bolo dabil ba, hori ez dozu entzun?”
- Ta ez eban entzun, ta gero atzena baiño gauza bat gitxiau.
- [...]
- Bai, e gizonan bragetako botoiek e, josteko ez dau euko e, [...] esan ei etsan. Bragetako botoik josteko. Bai e, baten bat e, ha be holantxerik gauzek, lehenago euskerazko prakak baziren lehena, aurrin amantala.
- Nik ez nittuan ezautu.

- Nik bai, hamentxen zelaidxen be bai.
- Hamentxe Goitietxebarrekoei nik, praka zuridxek nahiko zuri behintzet, bueno ehunezkuk.
- Bai bai ehunezkuk.
- Ta amantalak haunakoxe kuadrue.
- Bai hegaletan botoik, hegaletan botoik.
- Bai txixa eitteko ta altzau bentani hori ta txixa ein ta gero blaust atzea be.
- Nik hori ez dot ezagutu, zera e, alboetan zera botoiek, hargiñei.
- E?
- Hargiñei [...] alboetan botoiek, hori e, Jose Korta zana ta ontxe dela hiruta zazpi urte, aitxa hil zana.
- Harek be euskerazko prakak di, euskerazko prakak esaten...
- Mutikue zazpi-zortzi urte [...] nik , hiruta zortzi urte uste dot aitte hil zana [...] horrek bakit holako prakak [...].

5.7. Markinara feriara

- **Hizlaria(k)**: , Felix; Gallastegi, Basilio; Goitta, Pedro; Onandi, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: MAL-002/026
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:09:10. **Bukatu**: 00:10:35
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena**: Markinara feriara. Argirik ez. Berrikuntzak. Antzinako bizimoduari buruzko iritzia.

Transkripzioa
- Bai.
- Hori zuen aittek entzundekue dok, ferixara doiela Markiñen: "Maritxuu, argiik-eta badozu?"
- Joxepa. Joxepa ez zuan?
- Bai, bai, Joxepa. "Joxepa, argiik bai?", "Bai, ba! Lehen [holan... ibilli] baiña oin bai, ba" esan ei eutsan. Ta "guk ez, ba. Guk [... sartu izan jako] ta holako komerixaiken." Argi barik.
- Bai, lehenao argi baekuk ta urik baekuk... Ta gaur Mallebixen be kamiño barik etxe bat be ez da egongo. Ta gure gazte-denporan ez urik, ta ez kamiñoik ta ez... ezebez.
- Hoixe goiko kamiñuoi ta lehen esan dana. Hauxe [Apottetik] behera doien zahar hau...
- Gero eliza [aldien], Areittixora doiena, Alto de Areitiora doiena. Akabo. Ez Beranora, ez Berano txikire, ta ez Goittara, ta ez Osmara. Kamiño bakuk. Horrek ointxe, geure akorduen eindako kamiñuek die danok.
- Bai, bai, dan-danok.
- Ta orduen, oin txarto bizi dala jentie, baiña gaur baiño txartuao oin arte beti bizi izen da. Aurrerakoik ez dakiu, ez dou ikusten aurrekoik, aurrerakue ez dou ikusten.
- Beste asko be halan egongo zan.

5.8. Urrezko txanponak

- **Hizlaria(k)**: , Felix; Gallastegi, Basilio; Goitta, Pedro; Onandi, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: MAL-002/027
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:10:35. **Bukatu**: 00:12:20
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Arantzeta, Jon
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- **Laburpena**: Baserriko bizimodua. Ezagun batek txakur txikirik ez etxean eta bost duroko urrea aurkitu zueneko pasadizoa. Antzinako txanponak.

Transkripzioa
- Ta beste asko be holan egongo zan, baiñe pobriek harek be ta txakur txiki bategaz etxin. Ta [...] edo ze pasaten zan behintzet biherrin esan zostan, ta bost duroko urri topau txakur txiki bateaz etxin da bost duroko urri topau hantxe, ta gero gure aitta zenak esaten eban mando baba baltza esaten jakona baba txikixe ei zan.
- Bai.
- Ta Durungora jun ta [...] bataz ekarri bost duroko urriaz.
- Bai bai.
- Ordun be urri e.
- Dirue.
- Dirue. Ta diru te gañera harek eta neuk be beste hain beste eingo naben-eta. Porke ha babie pagauko eben biher baiño taku gehixa [...].
- Hori bai.
- Ze urrie urrie izengo da, ta e ha e kobrauko zotsen beste diruaz saltzen daben tamañun.
- Jakiñe ba.
- Horixe ba.
- Lehen amak gurin esaten eban aitte zanai, nire aitte zanai zelan e ttattatik urriaz txahala parau zen, baiña urri ez zan gero zidarra aurkittu ei zan gero zidarra be ezkuatu zan eta... Lehen urri.
- Lehenengo urri.
- Bai lehenengo urri.
- Bai ziderra be.
- Ordun be bai e Lamaiku ta txanpon bat ta zera holakuk asko ziren. Lauzirikuk [...] eta zera bera erosteko dirurik ez.

5.9. Biografia eta jatorria

- **Hizlaria(k)**: Gerenabarrena Astorkia, Maria; Longarte Gerenabarrena, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-009/002
- **Iraupena**: 0:02:16. **Hasi**: 00:01:09. **Bukatu**: 00:03:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane

- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Jatorria. 1914ko abuztuaren 14an jaiotakoa, Amezti baserrian. Maria Gerenabarrena Astorkia. Aita eta amaren izenak. Bederatzi anai-arreba izan ziren etxean.

Transkripzioa
- Eta Amezti basarrixa zer zan, basarri haundixa ala...?
- Ba... Haundixe... Aldapie. Badakizu aldapia zer dan? Baiña, bueno. Ez haundixe, ez txikixe, erregular antzerekue ixengo zan, edo korrientie edo... zelan esaten da?
- Eta zeure izena eta apelliduak eta...?
- Bai. Maria... Bueno, Maria Prantziska ipiñi eusten baiña Maria besterik... iñok be ez daki besteik. Maria Gerenabarrena Astorkia Ibaibarriaga Arriaga.
- Asko dakizuz...
- Eta aittan izena eta aman izena?
- Joxe Mari aitte. Ama Mari Dominge.
- Eta aittan basarrixa zan Amezti?
- Bai.Erosi edo ein eban, baiña hangotxie zan, ixen, ixetez.
- Eta zer ziñazien zuek, anai-arreba asko?
- Bai. Ixen bederatzi ixen giñen. Hiru hil: bat Ameriketan, beste bat gripe denporan etxien, hogeta bat urtekue, ta beste neskatilatxue txikixe. Hil ei zien, nik horrek ez dittut ezautu.
- Eta gripia ze egon zan, gripe fuertia?
- Gripe-denporia egon zan. Ez dozu iñoiz entzun?
- Bai, bai. "Diecisietian" edo halako zeoze, ezta?
- Ez dakit ze fetxa, baiña bai. Gripe fuerte bat egon zan ta nire gixonan aitte be haretxek hil eban. Nire anaixie be bai, hogeta bat urtekue.
- Gripia edo tifusa edo... Tifusa.
- Ez dakit nik igerri etsien be zer zan edo... Ezin eutsitte, behintzet, gizonak.
- Orduan, gaiñera, medikuak eta medikamentuak eta ez zian gaur eguneko...
- Egon, eingo zien, baiña badakizu. Ez dakit, ba, nik. Ezin, behintzet... Ha geixo barrixe ixen biher eban etorritte, orduntxe. Ta ezin atajau ixen eutsen. Odolana edo esaten eben, ta, ba, itto edo ez dakit ba nik zer. Ezin eutsitte [egoten zan] gaixue. Ondo esan dot? Ez ala bai?
- Bai, bai.
- Orduan, anai-arreba asko, batzuk hilda baiña gero...
- Sei geratu giñen. Gero seirek, ba, ointsu-ointsura artien egon ga ' danok. Bai. Ni gaztena.

5.10. Baserriko bizimodua

- **Hizlaria(k)**: Gerenabarrena Astorkia, Maria; Longarte Gerenabarrena, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-009/004
- **Iraupena**: 0:03:20. **Hasi**: 00:05:30. **Bukatu**: 00:08:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Natura » Meteorologia

- **Laburpena**: Baserriko bizimodua. Umetan baserriko lanak egin behar izaten ziren. Udaberrian: patata eta honen inguruko lanak. Gero artua erein. Garia noiz erein behar den. Gaztaina-batzea. Abereekin ere lan handia. Ganajatekoa, lepoan eraman behar.

Transkripzioa

- Zelan gogoratzen dozu zure ume-denporia? Basarrixan eta, ze izaten zan? Lan haundixak eitten zenduezen? Zuek aittari ta amari laguntzen...
- Bai, aittai ta amai laguntzen ezkondu artien.
- Bai?
- Lehen holan ixeten zan.
- Ume-umetatik, gaiñera. Edo?
- E?
- Ume-umetatik.
- Bai, bai, bai. Lehen baserrixen jentie biher zan biherra eitteko, [lurrien] ein biher zan ta. Ta gu, anaixa-arrebak, ba, sei gengozan ta bat kanpuen biherrien. Besterik ez zuan egongo.
- [Bueno, jente larrei egonda etxien be]...
- E?
- Egon be [gaixoik] asko etxien.
- Ba! Gaixorik barik, biharra eittekuek be bai. Ta...
- Eta ze bihar eitten zenduezen? Ittulan eta...
- Ze biher?
- Bai.
- Danetik apur bat.
- Danetik. Zelan esango dotsut? Udabarrixan hasten zan patatie ereitteko manejuek, lurra preparau ta... Gero, patatatik hurrengo, patatie jorratu, gero artue erein, ointxe da sasoie artue ta [illarra] ereitteko. Ba, garixe be jorratu. Garixe zemendixen erein eitten da. Haxe lehelengo ortuen. Zemendixen, aurreko urtien. Gero, hurrengo, ba, patatie, erremolatxie ganauantzako ta, ta artue ta [illarra] ointxe. Ointxe, maiatzien, erein [ohi] da. Ta gero, bera jorratu, garixek ebatie etorten da gero, julio ingurun. Ala? Bai, holako baten. Julio, garixek ebai. Gero, ba, eurek jo. Lehen, holan, eskuakin, harrixen ipinitte ihertute. Gero garbittu. Santa Eugeniak be iguel etorten zin denpora txarra bazan. Urte txarra bazan, euritsue, ba, ahal zanin jo bihar.
- Berua bihar izaten zan, ezta?
- Berue biher ixeten zan ta.
- Ta...
- Ta gaztaiñak batu.
- Gaztaiñia be batzen zenduen?
- Gaztaiñak bai, gaztaiñak zerien, zemendixen.
- Udaguenien.
- Udaguenien, [seguru egon], zemendixan gaztaiñak. Baiña danien ez zin egoten, e? Baiña egon zan lekuen. Gurien be egon zan.
- [...gaztaiñia asko]
- Bai, bai. [Gurin] asko euen.
- Orduan, soluan lan eitten zenduen eta aberiekin be...
- Bai, bai, bai. Aberiekin be bai.
- Aittari-eta laguntzen...
- Aittai-ta laguntzen. Hoixe! Famelixa danak eitten eban, ba, batak biher bat... Ganauei ganajaten, --ganajatekue [esaten] zan bedarra--, ebaitte ekarten eben. Bihar haundixa egoten zan. Lepun ekarri biher izeten zan.

Gero, ba, astuen ta holan ekarten zien, baiñe lepun, kargie eindde, bederatzi arruko [karga...]. Neu be erunde na '.

5.11. Etxeko lanak; arropak garbitzea

- **Hizlaria(k)**: Gerenabarrena Astorkia, Maria; Longarte Gerenabarrena, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-009/005
- **Iraupena**: 0:06:46. **Hasi**: 00:08:50. **Bukatu**: 00:15:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
  Euskara » Lexikoa
- **Laburpena**: Etxeko lanak. Lixiba zelan egiten zen. Arropak errekan garbitzen zituzten. Arropak garbitu, lauzkatu, jo, sikatu.

Transkripzioa
- Eta etxeko biharrak zeintzuk izaten zian? Orduan labadorarik-eta ez zeuan eta lixibia ta zelan eitten zan?
- Etxeko biharrak, ba, amak edo... Ahal zan moduen. Amak be...
- Egosi eitten [...] lixibia orduen.
- Eta gogoratzen dozu zelan...
- Egosten eben?
- Bai, zelan eitten zan hori, lixibia ta...
- Bai, bai. Lehen egoten zan, ba, hartarakotxe euen geurien be barrike haundi bat. Barrikie esaten jako, badakizu zer dan barrikie?
- Bai.
- Barrika haundi bat egoten zan, holako bat, ta, ba, hantxe erropok pixkat jabondu ta ipintten zien, ta ipintten zin haraxe botata. Gero han ipintten jakon hari trapu bat [...] beran gaiñien ipintteko [zikiña] pasau ez dakixon, hautse ipintten jakon. Orduen jaboirik be ez euen ta, hautse ipintten jakon trapuen gaiñin hari barrikiai. Erropen gaiñien, e? Entenditzen dostezu edo...?
- Bai, bai.
- Ta gero ur berue bota goittik behera. Holako zer bat egoten zan, askatxo bat, barrikiek eukitten eban...
- [...]
- Bai. Ta egoten zan... Bueno, fregaderie be antzekua egoten zan. Baiña egoten zan harri bat haren barrikian bueltan bere zerakin...
- Sobratzen zan ura...
- Bai. Hara askatxure ura jun zeitten hango barrikeko erropak egosten, --"egosi" esaten jakuen-- egosten egon zan lekure ha ure juteko. Ta, ba, holantxek izeten zan orduko erropa kontue be.
- Eta barrikiari "barrikia" esaten zetsazuen, ez? "Lixibontzixa"...
- [...] hortaikoxe tipoko bat.
- Barrikie.
- Ta hori danoi eitten zan zorrixe, ahardixe ta zikiñe, ostantzien zelan kendu?
- Hori, ba. Eta trapueri izenen bat...
- Hari trapuai? Ba, ez jakon pasetan...

- Sutako hautsa edo ez dakit ze izeten zan...
- ... hautsik behera. Sutako hautsa izeten zan.
- Garbitzeko, edo zikiña kentzeko edo...
- Erropiai, lejian modure, ba, orduen ez zeuen lejarik-eta, lejian modure erropia garbitzeko ta, ba, hau, ze esango dotsut, ba, nik? Kokue, mikrobixo edo zikiñe gitxitzeko edo, hiltteko edo... Ta halantxik izeten zan.
- Bai, ta ereiñotza be [...]
- Bai, bai. Ereiñotza be botaten jakon hari, e?
- Ta hori ze izaten zan, usaiñandako?
- Bai.
- Ta usain edarra hinketan eutsen erropiai, e! Bai, hori bai.
- Eta hori zenbatero eitten zan? Astian behin, hamabostian behin...?
- Ba, hamabostien behin?
- Astien behin ezin leike.
- Astien behin ezin. Hamabostien edo... Hori ez dakit zenbat denporatik. Ez zeban eukiko iguel fetxaik. [Ez bada be eze] ahal zanien baserrixen be, ahal zanien.
- Eta erropa haundixak-eta, zelan garbitzen zian?
- Bai, bai, haintxe. Ixerak-eta be haintxe.
- Ta ixerak honakuk, harek, lehengo ixerak, harek harizkuek, takarrak eta [hotzak]? Ni akordetan [...]. Oin be [...].
- Eta errekan-eta jabonaduria-edo eitten zenduen?
- Aklarau errekan batzuetan.
- Bai. Jabonadurie eitten zan eskuakin.
- Errekan?
- Bai, errekara junda.
- [...], fregaderara ekarri ure ta [eskuek... eukitten...]. Hemendik, gero aklarau askan edo errekan edo...
- Bai.
- Eta harlosaren baten gaiñian, edo...?
- Bai. Honako harlosak egoten zien, honakuek. Egoten zien pozure edo errekara, etxe onduen potzu zaharren bat baiño ez bada be egongo zan, ba, hau erropa txikixe garbitzeko. Ta, ba, haintxe, askan. Ta ahal zan moduen. Oingo besteko zer barik, e? Hori bai.
- Eta gero zelan sikatu ta...?
- Sikatu? Bihurtu ondo. Ta esei.
- Bihurtu, biren artian?
- Bueno, "en general" biren artien, baiña bi beti ez zien egoten jentie ta, ba, batek... Batek gitxiao... ahal dan moduen, ahal dan moduen.
- Eta gero sikatzeko zer? Bedar gaiñian ala sokaren baten esegitta ala?
- Ez, sokan guk geuk, baiña bedar ganien be askok eitten eban; koloria emoten eutsela esaten eben. Ta sasi ganien siketu be bai. Sasixe badakizu zer dan? Laharra. Sasi ganien siketu be bai. Ni neu horra ez nitzen [...]. Nire orduko, ba, soka edo alanbrekin ipinitta.
- Eta, orduan, ezaun izango zan, ezta? "Hango basarrixan lixibia egin dabe edo..."?
- A! Bai. Gaur be bai hori! Gaur be ezaun izeten da. Bueno, etaraten da siketzera kanpora. Oin, eurixe bada, ganbaran edo ahal dan lekun, baiña ostantzien honakotxe denporiaz danak etaraten dittue kanpora. Kanpuen siketu.
- Eta orduan egoten zan, "Jo, hango basarriko erropa zurixa" edo...
- Bueno...
- Edo hango kontuak andren artian...
- Barrixoko alkarren kontuek [...] alkaueterixia...
- Egongo zian halakuak lekuren baten, ez?
- Bueno...

- Ze hor goixen [...] lau-bost baserri leku baten ibiltzen zien, ezta? [...] Askan.
- A! Bai.
- Harek esango eben: " [...] kolore edarrekuek ekarri dittu".
- Bai. Horrek danok pasauko zien orduen be.

5.12. Amezti baserria nolakoa zen

- **Hizlaria(k)**: Gerenabarrena Astorkia, Maria; Longarte Gerenabarrena, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-009/007
- **Iraupena**: 0:05:46. **Hasi**: 00:20:14. **Bukatu**: 00:26:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena**: Amezti baserriaren egitura. Logelak zelakoak izaten ziren. Sukaldea zelakoa. Beheko sua. Eskaratza. Korta bistan. Ganadu-askak; ganadu-bentanak. Lehengo bizimodua; konformidade handia. Laratza. Trebera.

Transkripzioa
- Amezti basarrixan habitaziñorik-edo eukitzen zenduen ala bakoitza... ala danak batera habitaziño batian?
- Kuartuek?
- Bai.
- Kuartuek danak bana. Bueno, danak bana ez. Mutillek, esate baterako, mutil bi badaz edo lau badaz, ba, ohe bi kuarto bakotxien, ta, ba, ohe bitten, ba, mutil bi edo...
- [...]
- E?
- Bai, kuarto baten [libre] ohe bi, ta hiru-lau lagun ta...
- Oin be bai, oin be bai horrek, e! Oin be bai horrek. Egoten zien. Ta, ba, mutillek mutilleta´, neskak nesketa´, ba, euren kuartuek euren ohiekin.
- Eta sukaldia-ta zelakua izaten zan? Sukalde haundixa izango zan, ez?
- Bai...
- Hauxe da sukalde konpleto bat, hauxe tamañuau. Baiña zelan? Bentana txiki-txiki bat-edo hor, behien losak eta bueno!
- Hamentxe [...] bentana txiki-txiki bat.
- Baiña zeure basarrixan orduan zuk ezautu zenduan sua erdixan eta...?
- Sua erdixen ez, erdixen ez, baztarrien.
- Baztarrian?
- Baztarrien. Esate baterako, hantxe sue, hamen bentanie... Lehen butanorik edo zerik be ez euen, txaparik be ez; hangotxe suaz. Hamen be bai, e! Neu etorri ta gero ta gero be hementxe be suaz hangotxiaz.
- Ta orduan tximinixarik-eta be ez zan egongo...
- Tximinixie beuen, baiña ez zan egoten...
- [...]
- ... danien ez zan egoten, e! Baiña beuen tximinixie.
- Gerora ipini zan, ez, toki askotan?

- Han nere jaixotetxien. Hemen be beuen tximinixia. Bai.
- Baiña leku batzutan [...]...
- Ez, ez. Bai, bai, ez euenak be asko. Lehen be, lehen be, tximinixak-eta, etxiek be, ba, pixkat kategorixie eukenak eta ez eukenak eta zaharrak eta barritxuauek eta... Barri-barri asko ez, e! Baiña holantxik.
- Orduan, gaiñera, sukaldian ordu asko emongo zian, ez? Ama-eta koziñatzen, erropia garbitzen, gero...
- [Hemen] ganauek bistan.
- Ganauak bistan. Eta gero gabetan, gaiñera, edo artuakin zeozer edo...
- Bai! Hemen arto-pilla haundi bat...
- ... edo artilliakin lanian...
- Hau, hau, ba, ni hona etorri ta gero gauzie pixkat adelantau... asko ez ondio.
- Bueno, etorri ta... honek ein dila, honek [haundi] haundixok ein dila hamabost urte [...]...
- Bai, hamabost. Hogei be ixengo die , baiña iguel da. Eskaratza ein zala be, eskaratza arrgelau bitten eindde da, baiña eskaratza ein zala be ixe hogei bat ixengo die. Dana dala. Lehen holantxek atrasau eben gauzie, dana. Dana, ez bat bakarrik. Etxe danak esan nahi dot.
- Jenerala zan, ez? Orduan korrientia ganauak-eta...
- Bai, bai, bai, bai. Ba, hemen kortie hamentxe, hamentxe hormian handiko partetik. Ganau-askak hortxe ta aska-bentanak badakizu zer dien ganauenak? Ba, hemendikaldetik.
- Hemendikaldetik...
- Ta, hemen, bedarra be bai, artue be bai... horraxeaiño dana beteta egoten zan hau.
- Ta ure? Bedarra [...]...
- Eurixa zanien bedarra bustixe [beuen], ein ure be bai.
- [...]
- Lehengo, lehengo bizimodue ta lehengo gauzak...
- Bai, halakuak zian, ta...
- Halantxe izan da, kittu. Danentzako zien harek halantxik.
- Baiña jentie konforme bizi zan. Seguramente oin baiño konformidade haundixaua euan, e!
- Eta laratzarik edo eukitzen zenduen?
- Ze?
- Suan ipintzeko laratza edo...?
- Laratza? Bai, oin be bai. Han. Hortxe da´.
- Han [...] eseitte.
- Baldie be haintxe dauko gure alabiek. Ez dakit [horreri] ze objetutarako, baiña erositta barri-barrixe, goittik behera ez dakit nik zer sartu ez [daittien], ez dakit zer... Dana dala, behintzet, laratza, hangotxe suaz eitten zan koziña dana lehen. Bai. Bueno!
- Hau osokue da txapie.
- Hori, ba, horregaittik. Lehen beheko suan eingo zan, ez? Aspaldi-aspaldi behintzat...
- Horixe! Horixe!
- Bodie be, bazkarixe...
- Treberie ta parrillie ta horrek...
- "Treberia" zeri esaten zetsazuen?
- ... geure bodie be...
- Honi.
- E?
- "Treberia" zeri esaten zetsazuen?
- A! Treberie, parrille ta trebera. Hortxe dao.
- Zetako erabiltzen zan treberia?

- Kazuelarie eukitteko. Hamentxe, e! Sutetik kanpora. Bodie, bazkarixa, hamentxe, koziñerie ekarritte, hementxe, sutetik kanporutz. Ez jakixat hemen bestaldien ez dauen, hemendikaldeti.
- Hau da parrillie...
- Hori parrillie dok.
- Hau...
- Argixak ez detsu trabarik eitten, ezta?
- Zeuk ikusi... Hemendikaldetik! Taluek erreteko parie ta bixek jaz.
- Taluak erretzeko palia esan dozu, ez? Orduan talua be sarri jango zenduen...
- Hau da treberie. Honi ipintten jako brasie azpixen...
- Eta hor koziñatzen da?
- Hor kazuela bat gaiñien. Sagarrak be parrillan erreten di´. Hortxe dao taluek erreteko parie be.
- [Hau da] taluek erreteko parie.
- Oin gaizki, gero grabauko dittut, bestela...
- [...]
- Talua be egunero jango zan, ez?
- Zeuk dakizu ze komeni jatzun ipinttie...
- Bai, bai, lasai.
- Bueno, ba. Talue egunero? Hoixe egunero! Goxien ta gabien.

5.13. Zer jaten zuten

- **Hizlaria(k)**: Gerenabarrena Astorkia, Maria; Longarte Gerenabarrena, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-009/008
- **Iraupena**: 0:03:30. **Hasi**: 00:26:00. **Bukatu**: 00:29:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Zer jaten zuten. Taloa; morokila. Taloa zelan egiten zuten. Gosaria.

Transkripzioa
- Talue egunero? Hoixe egunero! Goxien ta gabien.
- Talua ta esnia edo...
- Talue ta esnie.
- ...morokilla edo...?
- Morokilla be bai, baiña guk geuk gehixa´ usetan gendun talue morokille baiño. Beste batzuk talue usetan... edo... morokilla usetan eben... Gustau zelan eitten zan. Baiña...
- Eta talo-erretzaille onena etxian zein izaten zan? Ama ala...?
- Horri esan.
- Zer ein?
- Talo-erretzaille onena...
- Ona zan.
- Bai?
- Nire suegrie eskasa.
- Bai?
- Eitten zittuen lodixek, honakotxe senderakuk. Nik ezin...

- Taluek onak eitten zien.
- ...Nik ezin jan ha. Neri gustetan jata talue azal bi.
- [...]
- Bai. Ein bai? Talue erre, ta... Ze eitten dotset, ba, nik? Kendu eitten dot hona?
- Ez, ez, ez, ez. Nik ondo hartzen detsut. Mobidu eitten zara ta ondo hartzeko zeuk esplikatzen dozuna. Lasai.
- Bale, bale. Behintzet zeuk dakizu zer ein biher dozun.
- Bai, bai, bai, lasai.
- Ba, taluoi, hoixe, azal bikue neri gustau. Baiñe, ba... asko kostaten da talue, izerdixe ta... Honek mutillok, barritz, nok bete? Ez, egixe da. Bueno, taluek [nik txikitxuek-eta dakiraz] eitten, e! Oin atzamarrak be ezin dabe ein ta...
- Urdaixaz-ta jaten zan asko, ba!
- Urdaixaz. Ta urdixaz ta gozue talue [izen biher eban].
- [...] zartainkada bat urdai ta gero taluek erre ta bueno!
- Esniaz gero gaiñin.
- Talua zelan eitten zenduan?
- E? Talue...
- Talua zelan eitten zenduan?
- Zelan? Hor dao taluek eitteko egurrezko oholezkue be. Baiña... Talue? Holantxik joten eitten da talue.
- Lehenengo orie ein biher da, orie...
- Eta oria zelan eitten zenduan lehelengo?
- Orie? Ure, ur beruaz, ta ondo ontzen bada, ha be hobie egoten da talue be, e!
- Ondu ein biher...
- Ondu ein biher da ondo. Ondu, ondu esaten da honan.
- Bai, masia ondu...
- Masia ondu. Masia ondu. Gero eitten die honakoxe bolatxuk, bolatxuk, taluen tamaiñue. Ta gero, ha eitten da... Batzuk behien eitten eben zeran gaiñien.
- Hor ez da eitten ondo.
- Ez. Nik neuk zer bat neuken eindde, ba, [...] honakotxe bat. Hortxe egon be eingo da ointxe be, baiña iguel da. Holakotxe haunditxuao bat, biribille [itten] zan...
- Talo-parie.
- Talo... talo-ohola. Talo-parie hori dok, baiñe talo-ohola. Ta... Goixen egongo dok igul hor, parien.
- Bardin da. Ohola [...]...
- Bai. Ta, ba, nik eitten neban haintxe. Hartu altzuen ta... Atzamarrak be oingo moduen zubixe eindde barik zuzenauek eta hantxe. Baiña mehie talue, e! Mehie. Ta, ba, gero, ba, eukitten dozu, eukitten dozu zera...
- Bai, lasai. Biharbada trabia eingo detsu edo...
- Ez, ez, ez, ez duke trabraik, beoni eingo deutset igul...
- Orduan, denporia bihar izango zan, ez? Talua holan...
- A! Bai. Bai, hoixe, hoixe.
- [...] suak be [...] eban, sua ta prasie.
- Laster eitten die. [Sua...]
- Han paran emon buelta bat eta gero parrillan “ra!” ta bueno!
- Bai, [dauen modun bai, dauen modun]. Biher dan modun erre bai taluek? Bai, baiña paran lehelengo nik buelta bi, azala in artin. Azala inddekun parrillan, hortxe parrillan, prasie azpittik ta gora-gora holantxik urteten dabe, ba, ondo ondute ta zertute bada´. Ta honek erre ahala guztixe honek jan! Horixe! Ta jatie hoba; hoba jatie be. Ta, ba, holantxik.

5.14. Umetako arropak

- **Hizlaria(k)**: Gerenabarrena Astorkia, Maria; Longarte Gerenabarrena, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-009/016
- **Iraupena**: 0:03:25. **Hasi**: 00:52:15. **Bukatu**: 00:55:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Txopitea, Jon
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Umetako arropak. Narruzko abarkak; gomazkoak.

Transkripzioa
- Galtzak-eta ze arropa ibiltzen zenduen?
- Maria: Abarkak
- Umeetan, umetan zein arropa erabiltzen zenduen?
-Maria: Erropie?
-Abarkak.
- Maria: Abarkie, gero gomazku argittu zin abarkak.
- Lehenengo narruzkuk eta gero gomazkuak. Eta, gomazkoak hobiak?
- Maria: Gomazkoak jakiñe. Hori narruoi labana ta euridxe edo bustidxe bazan, zer izaten zan.
- Pedro: Siku badau […] jo ta siketute eta gogortute hanketan apurtu zittuzen hankak. Nik ein nittun asko, usau eta erabili nittula, bueno, bueno...
- Maria: Nik ez, baiña…
- Pedro: Ortozik hoba da horrekin baiño.
- Maria: Ni ni ez nittun horrek gitxia ebali nittun nik horrek narruzkoak.
- Pedro: Ontxe be dantzan-ta horretaridxoko tipoko usetan dittue.
- Maria: Horrek goxuauek dira, kurtidute dagoz kurtidoratan-eta. Baiña ostantzien holako igul-igulak, baiñe gomazkuek, Nire aiztie-eta, bueno nirie-eta nirie oprduen eta bestiek ne halantzerik, eitten eben.
- Pedro: Hau kutxilluau zakutue. Hau Ameriketan eindde dau ta honek dekoz berrogeta hamar urte, pentseizu e!. Han kutxillue ez da guk eitten dogune, astarik. Pentseizu […] hau […] ekarriniku da hau gerridxen eukitzeko. Esan /gurot/ gura dot goxu-goxu dala. Hau izen be ardidxena da.
- Narrua izango da baiña? Baiña bai gozatutako…
- Maria: Gomazko abarkan aurretik hori esan dogun narruzkoei, baiña horrek oiñetako eskasak die baserrireko be. Bustidxe bada total busti ta likistu ta ezebez. Siku bada gogortzen die hankak, ezin. Gure aiztiek makiña bat bider ei ban udegonien-eta bedarra ebaiten landan ezin ibili, labanak die, ezin ibili, eta erantzi bai abarkok eta galtzutsik be. A txarrak. Gomazkue? gomazkue diruaz be pagaten zan harek ikusitte. Bestela be bai. Gomazkue ona da.
- Pedro: Gero gomazkuek agertu ziren txatuk esaten jakona. Kubiertiaz ein azpidxa egin eta holako txapel bat. Oso senzilluk […]. Elgoibartik ekarten zttiun aittek peridxa egoten zanin. Okerrauek, punta okerrak eta jo ta […]. Harek ez euen gastetarik ezta hamar urtien be. Ekarri be horregaittik eitten zittun merkiek eta.
- Eta nondik ekartzen zittuen?
- Pedro: Elgoibarretik ekartzen zittun aittek.

- Maria: Gomazkuk antzera batekuk izengo zirin. Gomazkoak zirin […] antzekuk. Ekarri eustazan nire lelengo, gora-beherie eitten nabilelako […] pentseu eizu.
Eta harek erabiltzen nittun zapatak modure, janzteko estimauak, Ta harek txatuk etxaldin.
- Maria: Esan gudot gomie, ba gomazkuek, danak antzera batekuk
- Pedro: Beste beste zer bat euken.

5.15. Nagusien arropak

- **Hizlaria(k)**: Gerenabarrena Astorkia, Maria; Longarte Gerenabarrena, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-009/018
- **Iraupena**: 0:05:50. **Hasi**: 00:57:10. **Bukatu**: 01:03:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Astoreka, Ander
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Euskara » Lexikoa
- **Laburpena**: Nagusien arropak. Ehunezko arropak, kirruzkoak.

Transkripzioa
- Maria: Erropi ondo eoten zan, ondo euen bai, bai
- Ta aitta eta edo aittajaunak ta amandreak-eta ze arropa?
- Maria: Baitte, baitte harek be bai, harek gonak ebaltzen zittuen amonak.
- Pedro: gonak o […]raiñoko gonak.
- Gona luziak?
- Maria: Gona luzik goni, goni bakizu zer dan?
- Bai, bai.
- Maria: Ba oingo modun e plegata gauzak ez baiña, gerridxen ze eindde prakei ta lantxerik gerridxen e gerriko zintture zintturoi bera teliana haxe ipintten zetsen ta ixurtsu-ixurtsu ipintxen eben ta...
- Pedro: Oin baiño erropa gehixau andrazkuk.
- Maria: Bai, bai.
- Pedro: kamisie, azpikogonie, soiñukue. Hiru-lau arropa…
- Maria: Batzuk erabiltten zittuen e hori ehunezkuk be. Nire suegriek be baeukazan kamisak ehunezkuk, ta gaiñera ordun e, hau San Antoniuk, San Antoniuk eta honek zeretan, jaidxetan harek mariñero ta mariñera ta kamisie zerbitzen ebenak harek bai kirrizkuek, eukezenak e, harek gitxi euki harek, eukezenak hoixe!
- Orduen ze izaten zan? azpikogonia gero kamisia?
- Maria: Azpikogoni.
- Pedro: ta soiñeku gañin. Ta kortsoa bat, dana sokie euken kortsoa bat.
- Maria: ba kortsie bai…
-Pedro: Hori neskak be […].
- Maria: Hori txaleko esate jakon kortsiai.
- Pedro: Txaleku bistan doie.
- Ta kortsia edo hori zer izaten zan estutzeko-edo?
- Pedro: Estutzeko estutzeko.
- Gerridxa…
- Maria: Bueno, kortsie zan beste gauza bat hau e, kortsi bat oin hori,

oinguai be kortsie esaten jako, ta lehengu guntze barriz lehengue, guntze esaten jakon. Guntze kortsian antzekue, hau, ez di bat baiña antzekuk di, hamen goittik, goittik honañokue.
- Eta zetako izaten zan hori?
- Maria: Ha izeten zan, ba ez dakitz ba nik ze…berotzeko! Ha berotu ta zinttiakin bere bere apraposko zinttiakin lotu eitten zan ha, txaleko modure izaten zan ha guntze. Ta ba…
- Pedro: Gauza batzuk itzalezko kanbidxu ein dabe erropak, ta andrazkuk batez be.
- Maria: Ba alderdi bidxek, alderdi bidxek lotzeko zinttatxu bateaz lotzen zan, ta honako lekutik, honañokue izaten zan ta, haixe. Beste bat baxkie esaten jakon, baxkie, ba zelan esango dotsut ba nik hori… Tela zuridxa izeten zan jeneral, ta baxkioi zeran kamisian ganetik erabiltten ebena, hori hori oin gero ontsule pentseten dot nik lehen lehena ez zan ha izengo, eskuturretan ta, zera, zerakin puntilliakin, honako lekuetan be puntilliakin-ta adornautekue, ta ha, ha ez dakit noz erabiltten eben ba. Nik neuk ez dot useu baiñe.
- Ta hari Baxkie esaten…
- Maria: Baxkie esaten jakon. Ta ba holako soñekue ez, gerrirañokue izeten zan hori be. Ta kamisie.
- Ta orduen lotzeko ze? noberak lotzen zeban kortsie?
- Maria: Hori, hori esan dot […]
- Pedro: Lotu orduko zintturoi moduko…
- Baiña noberak, ez? Aurrekaldian lotzen zan ta…
- Maria: Bai, bai. Aurrekaldetik egoten zan e alderdi bidxek juntatekue hantxe, ta ba eitten zan e, eukitten zunak e, zapatak eukitten dittu igual soki sartzeko e halako zer batzuk, halakoxik eukezan ta ba e lotu eitten zan ha, gorputze gogortzeko edo sostentzeko edo berotzeko edo ez dakitz zetako. Zozer behintzet atako […].
- Hori zuk ezagutu zenduan, zure amak erabiltzen zeben?
- Maria: e?
- Zure amak-eta erabiltzen zeben?
- Maria: Bai bai, nire amak be bai.
- Ta ze izaten zan hori, egunero eruaten zan hori?
- Maria: Hori?
- Bai.
- Maria: Ez, ez hori jaixe jaixegunin.
- Domekan edo…
- Maria: Jaixegunetan edo holan, iñora joizenin-edo. Ta ba holantxik.
- Orduan erropa kontuan be?
- Maria: Ez, erropa kontuen nahiku ondo lehen.
- Bai. Gizonezkueri…
- Pedro: Oin baiño tela gehixa behintzet aldin.
- Maria: Gizonezkueri ba kantzontzilluk ta prakie.

5.16. Gizonezkoen jantziak.

- **Hizlaria(k)**: Gerenabarrena Astorkia, Maria; Longarte Gerenabarrena, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-010/001
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane

- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena**: Gizonezkoen jantziak.

Transkripzioa
- Boda bat´a juteko ta trajia eitten ta bestie eitten, ta oin...
- Erropak? Bai, bai, lehen zer gehixao [...]...
- [Jake bat] eta praka batzuk eta... bueno! Ez jako emoten inportaik hainbeste.
- Eta gizonezkuetan, esan dozue, kantzontzillo luziak eta...
- Bai.
- Frakia gaiñetik...
- Prakie gaiñetik.
- Eta gero...
- Alkondarie eta jertsa edo kamixeta, ba... Kamixetie bai, e!
- Ta brusia edo...?
- Kamixetie sendue, enjeneral. Bai, senduk.
- Eta brusia be eruango zan, ez?
- Brusia gero. Txalekue esaten jakona be bai.
- Ointxe be banakak erabiltten dittue. Nire lehengusue be brusaz ibiltten da perixara-ta doienien ta. Ta ondo emoten dotso! Brus baltza. Ondo... Tratante tipue. Txapela ta...
- Ta txapela beti, ez?
- Txapela bai.
- Mutillak...
- Lehen txapela.
- ... mutiko-mutikotatik...
- Txapela beti.
- ... txapela.
- Txapela beti.
- Txapela be galtzen juan zan eta zihero galdu da, ez?
- E?
- Txapela eruatia...
- A, bai, bai, bai. Txapela.
- Umetatik [hasitzen] za´ ta, ba, beti txapela, beti txapela, beti txapela... ohittu eitten zara [txapelera].

5.17. Emakumeak goruetan

- **Hizlaria(k)**: Gerenabarrena Astorkia, Maria; Longarte Gerenabarrena, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-010/002
- **Iraupena**: 0:00:32. **Hasi**: 00:01:20. **Bukatu**: 00:01:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Lanbideak » Antzinako lanbideak » Lihoa (linua) eta ehuleak
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena**: Goruetan egiten ikusitakoa. Emakumeak gauetan jarduten zuten goruetan.

Transkripzioa
- Eta erropak eta... esan dozu liñua. Zuk ez zenduan... ez zenduan ezagutu liñua, baiña...
- Liñua ez.
-...entzunda zelan eitten zan edo...?
- Bai, zelan eitten zan...
- Bai. Goruetan. Goruetan etxien ikusitte na´ ni neskatotxue nitzela. [Gorulaak] eitten zittuen andrak gabetan.
- Erromerixan.
- Bai, erromerixie izengo zuan, bai. Baiña hak biherra, ha, nik horrek ez dakiraz zelan eta zer.
- Hartu... geure [beheko-lauen] ta eitten ebela esaten eben.
- Bai, ba...
- Hor, gure solun, liñue. Ta gero ha, ez dakit, ba. Hemen ha tratetako modurik ez, ta norabaittera erun eitten ebela pentsetan dot gero azkenaldera.
- Azkenin, azkenin...
- Baiña lehenenguen liñu-pozuk. Pozun eukitten eben.

5.18. Lihoaren inguruko lanak

- **Hizlaria(k)**: Gerenabarrena Astorkia, Maria; Longarte Gerenabarrena, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-010/003
- **Iraupena**: 0:01:23. **Hasi**: 00:01:52. **Bukatu**: 00:03:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena**: Lihoa (linua). Pedrok lihoaren lanak azaltzen ditu.

Transkripzioa
- Hartu... geure [beheko-lauen] ta eitten ebela esaten eben.
- Bai, ba...
- Hor, gure solun, liñue. Ta gero ha, ez dakit, ba. Hemen ha tratetako modurik ez, ta norabaittera erun eitten ebela pentsetan dot gero azkenaldera.
- Azkenin, azkenin...
- Baiña lehenenguen liñu-pozuk. Pozun eukitten eben ekarritte nik dakit zer eitten. Liñu-pozuk esaten eutsen pozu batzuk. Gero handik ha har`az txarrantxakin ta...
- Baitte. Ganbaran ointxe be haintxe egongo da, honakoxe... untzakin, e! Txarrantxetako. Gero...
- Baitte harixe eitteko [erradun] makiñie be zati bat be hantxe da´.
- Baitte.
- Baiña ezebez.
- Orduan, ze izaten zan? Txarrantxian jo ta... ze bihar izaten zian?
- Hau. Eskuaz esan dou lanie izpittu?
- Bai.
- Ba, hori da, liñua, bedar bat, bedar zatar bat, takarra. Ta ha gozatzeko ha jo ta bigundu esaten dabe. Ta gero har´az txarrantxiaz. Ha`z barrun duken gozue kendu, ta hak balixo. Baiña bueno...! Biherra?

- Barrukuakin eitten zan harixa, orduan?
- Biherra, kontizu, negargarri badauke, e!
- Ta gero, harixe eitten eben baserrixetan. Nik ez dakit, ixera asko ezingo eben ein, e...
- Gero eitten eben, harek erun eitten zittuen harixe eitteko lekure.
- Baiñe herrixen euen hori, ehulie.
- Ehuliak edo, ez? Ehuna eitten zeben...
- Bai. Ta gero ein harixe, ba, Berrizen edo hor [...].

5.19. Antzinako bizimodua

- **Hizlaria(k)**: Solozabal Unamunzaga, Antonia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-011/003
- **Iraupena**: 0:03:50. **Hasi**: 00:05:20. **Bukatu**: 00:09:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena**: Donatz baserria zelakoa zen. Sukaldea. Jatekoa baserrian. Artilearekin egindako koltxoiak

Transkripzioa
- Eta basarrixa, Donatz esan dozu, zelakua zan? Habitaziñuak-eta zelan zekazen?
- Txikitxuek eukezan, baiña ez eukezan txarrak. Oingo modun kristelakin-ta ez, baiñe ba ez zan... txarra ez zan. Ta gero barrixe ein gendun ni [...] barrixe, barri-barrixe.
- Eta sukaldiak beheko sua eta...
- Beheko sue bakarrik. Ta gero, bentanatxo baten, bentana bat, holan, zuluekin --ahaztuta [deuket] zela esaten jakon, ez dakizu?--han prasie-ta bota ta eitteko. Holan, bentanan... Ahaztuta [deuket] zelan esaten jakon. Holako zertxo... honako zer batzukin parajetxo bat egoten zan, ta hara bota prasie ta han eitten zittuen gauza fintxuauek; zopie edo, egosten denpora askuen. Ta horrek eitteko ya bentanatxo bat euen ta haintxen bentanan... Ha, han, beittu hara! Halako txikixe, baiña burdiñezkuk, e! Ta haintxe behera botatzen zan beheko sutik prasie.
- Oseake, kozinatzeko...
- Bai, behintzet, eta... gauza batzuk kozinatzeko haxe. Ta, bestelan, beheko su´ ta akabo.
- Eta gero, beheko suan ze egoten zan? Lapikua, treberia... Ze eukitzen zenduen holan...?
- Lapikue. Erremolatxie egosi [be] behixendako, lapikue egosi; ta, ba, parrillie, holan, sagarrak erretzeko holako haundixe, han sagarrak erre; babak egosi... ba, jateko guztie haintxe. Ta gero, holan, atzera eta´ prasie, ta han ipintzen zan kazuelie edo gisautxue edo... zeoze euena, ezta?
- Orduan jatekua-ta ze izaten zan, egunero-egunero ze bazkaltzen zenduen?
- Babie gehixenien, ta domeketan garbanzue. Baba zurixe edo gorrixe, beti haxe.
- Eta gero gabian?
- Esnie! Talue edo morokille, artue ta esnie; berakatz zopie; ta gaztaiñie

"todo el año".
- Bai? Hau gaztaiña-tokixa da?
- Hau hemen... ha gehixa´ hau baiño.
- Baiña gaztaiñia...
- Gaztaiñie ona, bai, bai. Erre holan...
- Tanboliñian edo...?
- Bai, badakizu, e!
- Eta gaztaiñia erretzeko zeoze eitten zetsazuen? Holan, moztu pixkat edo...?
- Berak eukitzen zittuen zuluek-eta, ta [guk], holan, buelta emon. Han erre ta gero eta´ [...] han behera zeozen gaiñera, ta haintxe, ipini mahaixen ta jan.
- Eta sukaldian ze gehixao zeuan? Beheko sua, esan destazuz...
- Fregaderie beti. Ta ontzixek eukitzeko be bai. Bai, bai, guk ezkatza, etxie, politte euki gendun.
- Kortarako leihorik edo... Kortia bistan, sukaldetik bistan...? Ez?
- Atie.
- Atia?
- Zarratute ta atie [bai] pasatzeko, ezta? Baiña atiakin, e! Kortie bistan ez, e!
- Umetan edo aittari, edo amari, entzunda danak habitaziño bakar batian lo eitten zebela?
- Horrek guzurrek. Nik ez dakit, ez dakit holakorik.
- Zeuenian...
- Et, et. Bai, bai, bai...
- ... umetan ya habitaziñuak.
- Bai, bai, bai. Hiru habitaziñotxo euken ta haintxe arreglatzen giñan danok.
- Koltxoiak-eta zelakuak izaten zian?
- Ba, koltxoiek... zenbat denpora da kendu zala onak? Ardixan laniakin eitten zien. Baiña koltxoiek onak, e! Guk ardixek geunkezan, ta koltxoiek onak, e!

5.20. Baserriko bizimodua

- **Hizlaria(k)**: Solozabal Unamunzaga, Antonia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-011/004
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:09:10. **Bukatu**: 00:10:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena**: Abereak baserrian. Lan-banaketa baserrian. Soroan zer ereiten zuten. Kaletarrak sarri joaten ziren baserrietara jateko eske.

Transkripzioa
- Ardixek jatzi, basora eruen...
- Ardi-zain ibiltzen ziñan?
- Buo! Umiek, ez dakizu? Neskatuek...
- Ze eukitzen zenduen? Umetan, basarrixan, ze ganau edo ze zekazuen?
- Ba, behixek, nik ez dakit zenbat, lau edo bost edo ta...

- Ardixak...
- Ardixek. Kaballuk be bai. Haintxe bizi.
- Eta kaballua...
- Mendixen. Aitte juten zan ikust´a domeketan ta. Haintxe.
- Erabiltzeko, oseake, kaballuan nunbaittera juateko ala...?
- Mendixen, mendixen, mendixen. Astue Eibarr´a, astuen. Ipini asto-zarak eta sartu han pitxarrak eta porruak eta Eibarr´a.
- Hori amak eingo zeban, ez?
- Neuk be bai, hamahiru urtekin hasitte.
- Ama ta aittan lana zein izaten zan basarrixan? Aitta ganauaz arduratzen zan eta ama soluaz edo zelan...?
- Danak, soluen danak. Ba, amak jatekue in ta, ba, aittek kortakue ta... [Errez] arreglau biher da.
- Soluan ibilitta zu be egongo zara, ez?
- Ene, Maria, Jose! Biher be bai!
- Garixa erein eta...
- Artue, nabue... Han lekak! Oin be bada´z lekak. Babak. Badoie oin be hori solora edo norabaittera.
- Basarrixan beti biharra, ez?
- Beti biharra.
- Beti zeoze eitteko...
- Ta kalien be diferente oindik, e! Zenbat etortzen zien hara basarrira. Gu kamiñuan kontran bizi giñen ta talue ta esnie jat´a ta. "Emongo dozue talue ta esnie?" ta...
- Gustoko zeken, orduan, herrikuek talua ta esnia. Zeuek ya aspertuta egongo ziñazien, ez?
- Bai, ondo, baiñe...
- ... baiña kanpokuak...
- Holaxe.

5.21. Baserritarrak feriara

- **Hizlaria(k)**: Solozabal Unamunzaga, Antonia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-011/012
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:20:45. **Bukatu**: 00:22:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- **Laburpena**: Gizonezkoen arropak: tunika; txapela. Feria garrantzitsuenak: Markina-Xemein, Abadiño, Elgoibar. Feriara joateko dotore janzten ziren. Elkartasun handia baserritarren artean. Bizimodu aldaketa.

Transkripzioa
- Eta gizonezkuak zelan juaten zian jantzitta? Blusa...
- Tunikiakin.
- Tunikiakin?
- Motza be bai, luzie be bai ta txaketak be bai ta jantzitte ondo juten zien. Bujanda edarrak beti, e!

- Bufandia?
- Bai, bai, bai. Bujandie bai.
- Ia, kontuz...
- Ene! Nik [kendu dot...].
- Ez, ez, lasai. Eta txapela beti, ez?
- Beti.
- Txapela buruan...
- Bai.
- Gizonezkuak ze izaten zian, gero, ferixara-ta juatekuak, ez?
- Bai. Ferixara jun ta afaldu ta...
- Hemen inguruan ze ferixa zian?
- Markiñen, Abadiñon... Abadiñon, Markiñen, Elgoibarren. Horrek izeten zien hemen jentie juten zana. Gero, Bilbon be bai, baiñe Bilbora gure aitte ta gitxi, behintzet. Abadiñora, Markiñera edo Elgoibarrea.
- Eta ferixara juateko dotore jazten zian?
- Dotore edo, ba, beti praka diferentiek eta tunikatxue ta bujanda edarra be beti, e! Ta, ba, abarkak galtza zurixekin. Bai, bai, abarkak.
- Eta ferixara juateko, zaldixan ala...?
- Hankakin! Zaldixen...?!
- Zeuen kasuan, zaldixa esan dozunez...
- Baiñe mendixen [ibiltzen zien] zaldixek.
- Oseake, oiñaz.
- "Takarra-takarra", kontuek [kontatzen] [Diñotsut, ba]. Oin ezautu be ez dabe eitten honek alkar. Nun bizi garien be ez dakiu. Baiñe lehen junto juten zien. Iguel, ba, hemendik hiru gizon edo lau edo ta "Jungo gaittuk?" ta "Ze ordutan?", "Hamar ta erdietan honaxe", ta danak kontu kontatzen jun gero. Pozik!

5.22. Argindarra baserrian

- **Hizlaria(k)**: Gerenabarrena Astorkia, Maria; Longarte Gerenabarrena, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-012/002
- **Iraupena**: 0:06:05. **Hasi**: 00:01:20. **Bukatu**: 00:07:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Astoreka, Ander
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
  Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- **Laburpena**: Argindarrik ez Amezti baserrian. Karburoa; petrolioa; kandelak; argizaiolak... Pedro gaztea zenean jarri zen etxean lehenengo bonbilla. Zentrala auzoko baserritar batzuen artean egin zen. Aranbaltzgo erreka. Muniozguren baserri inguruan beste zentral bat egin zen.

Transkripzioa
- Eta umetan Amezti basarridxan zerenian, orduan bazekazuen argirik?
- Maria: Ez.
-Argindarrik. Ondiokan ez, ez?
- Maria: Ez. Argi barik, hori karburue edo petroliue. Karburue izen zan argindarra izeten zan.

- Pedro: Bakizu ez, zelakue dan karburu?
- Maria: hHn han jak.
- Pedro: Han ate burun da.
- Maria: Ez dozu ikusi...?
- Pedro: Ikusten zu ha katxarru han atian?
- Zutunik, ez?
- Pedro: Bai, haixe da karburu.
-Maria: Haren harrixe saltzen eoten zan eta ekarri eitten zan. Ta han potuen barrure botate zan haixe harridxek eta, goixen eukitte ban ure. Katxarruek e, haraxe katxarrure bota biher, ta argi ederra eitte eban e, ederra argidxe. Hori eukitten zittunak be bere zertzuk, baiña...
- Ze eukitten zeban, ze pega edo ze eukitten zeban?
- Maria: ba ondo abilinen argi ederra eukitten zeban.
- Ta esan dozu barruen argidxa-edo sartzen dala?
- Maria: Kandelak, kandelak
- Eta nun erosten zenuezan horrek?
- Horrek' horrek dendan, edozein dendatan egoten zin kandelak. Pon, petroliu-eta ez. Petroliu-eta egoten zin ez dakitz nik ze esango dotsut eogten zin bera eukitzeko, bera eukitten eben etxiek-edo egoten zirin drogeridxetan-edo, eta petroliu-ta handik erosten zan. Hau karburu be bai, harexek izeten zin horrek.
- Orduan karburua, petroliua eta argidxa?
- Maria: Kandeli.
- Pedro: Kandeli, argizaridxe. Argizaridxe asko. Ez dakizu argizaridxe?
- Bai, honek luziok...
- Maria: Biribilduta egoten di. Gaur ez dakitz asko dauen hori.
- Ez gutxi ikusten da.
- Maria: Egon eingo da.
- Eta argidxa noiz gogoratzen dozu zuk lehenego bonbillia? Ya gaztetxua ziñanian edo...
- Pedro: Neu gazti nintzala argidxa ipini zan berton. Orain zentrala hor errekan, izengo dira oin dala berrogeta hamabost bat urte igul. Geuri e propio geuri bost-sei etxeko-edo daneta hamen ipini zan, ta haretxeaz. Baiña urez egon bihar dabe /bidabe/ ezta, udan gitxitxua, ta barriz gabaz argidxe ta horretan.
- Eta nun esan dozu zeuala zentrala?
- Pedro: Hementxe berton, hortxe tontor ostien. Horra asko kostau zan presie, zulu itzala ein eben gure aittek-eta, ta ura ekarri ein biher hara, igul kilometro bat baiño gehixauen. Ta gero handik goittik behera aldapa bidie ipintten jako aldapie, hemendik hara goiko etxietaraiño eta presiñue bihar dau bidau/ ba turbiñiek-eta. Eta handik gero, bueno ta joe, ha geuze itzela zan! Bonbillak orduntxe.
- Bonbilla bajue izango zan ez ondiokan?
- Pedro: Bueno, oin oin bestekue ez, baiña argi itzela eitten eban, baiña pasetan zan, oin beste ez euezan gauzak graduaute, ta zuk amatauten bazendun, ta harek be amatau bestie, ba bonbillak erre ta holakuk eitten zittuen.
- Orduen esaten dozu zeure aittak eta eindakua zala?
- Pedro: Bai geure aittek.
- Auzoko gizonak-eta?
- Pedro: Bai. Auzo auzo danak. Batzuk ez zirin sartu. Kasureko hori bizitza biko etxi zan hori, bata sartu zan bestie ez, beste bat be sartu bestie ez. Bakizu gora-beherie dana nahasta, aittu ezin dana, dirue zana. Pillo bat kosta zan hori ordun. Gero ze ein zeban? Oiñestuk erre. Danak kostetan die asko.
- Eta tokidxan izena, zein? Hor esan dozu mendi-tontorrian atzekaldian

izenik izenik bazekan toki horrek?
- Izena? Arranbaltz, Arranbaltzko errekie izaten zan, hantxe euan.
- Maria: Zuluen ein biher.
- Pedro: Bai ba, zuluen ein biher dozu /biozu/ goittik behera emoteko. Horiaitzik zan ure ekarteko.
- Bai, presiñua emon bihar jako, ez?
- Pedro: Goittik behera emotie, ta ba han eitten zeban argidxori.
- Eta ze auzotako, zeuek…
- Pedro: Geuk, hortxe goiko etxiok, ta beste bat da handik aldetik eta geuk hementxe.
- Biña bertokuak, ez?
- Pedro: Bertokuk, berto bertokuk. Gero hau Iberdrola sartu zala, ba oin zemat urte? hogeta hamar bat urte izengo die.
- Eta orduan argidxa zeuek presa hori edo…
- Pedro: Dan-dana zan propio geurie ha.
- Eta beste auzuetan be halakorik ein zan-edo?
- Pedro: Bai. A beste auzuetan?
- Bai.
- Pedro: Gero beste bat euen Muniozguren, bestela holako argi bat. Muniozguren bakizu zein da? Ho haruntza dauen etxie? Ba han geunken, beste barridxue ha Longa gero harek. Ba guk baiño eurretik ba danak izengo ziren horrek […]. Hak gero errotak be ipini zittun hareaz argidxegaz ta horretan segidu zan bizimodue. Baiña ha asko zan. Ha petroleu ta ikusitte. Petroleue bakizu ze? holako keie-ta.
- A bai, e?
- Pedro: Bueno, karburu asko gehixa zan, baiña oso-so txarto. Kortara jun bihar dozu /bizu/ ta ze, argirik bez. Hara jun bihar dozu /bizu/ ta argirik ez. Beti argidxe mutikon bat-edo argidxe eitten, aitte edo ama-edo kortara jun bihar baeban /bibaban/ edo bestie ein bihar-edo. Ba hortxe, holantxik kostunbrau zan, ba halantxerik zalako.

5.23. Ur-korrontea baserrian

- **Hizlaria(k)**: Gerenabarrena Astorkia, Maria; Longarte Gerenabarrena, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-012/007
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:11:50. **Bukatu**: 00:13:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Astoreka, Ander
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
  Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- **Laburpena**: Ur-korrontea etxera 1950 inguruan ekarri zuten. Baserri ondoan erreka.

Transkripzioa
- Eta ura, ur korrientia etxian?
- Pedro: Ure baldaka.
- Eta zuk noiz ezagutu zenuen?
- Maria: Ure?
- Bai.

- Pedro: Ure años zinkuentan ekarri zan, hori guk. […] ta hemen pozo handi bat euen ganaduntzat-eta, hementxe berton, bua, beste, hor handiko sakonin dau beste pozu moduko bat, beidxek eta sokiaz, txahalentzako baldiaz bide batez ta, edateko ure ba Ibarrara-edo, han itturridxe ta hara mutiku ta neskato ta horreta.
- Hamen errekarik e?
- Pedro: Ez, errekie hor behien, baiña ttattarra, erreka ttattarra, estu.
- Izena?
- Pedro: Horrek ez dauko izenik.
- Errekatxua.
- Pedro: Bai. Beheko errekastua-edo. Gero, hortik beheraku, ba artibai-edo ez dakitz zein dan hori beste erreka handitxuaue.
- Eta putzuak zer ziran?
- Pedro: Ezebez, posos, posos, biditatik beteten zan euridxe etten banin, ta ur asko hartzen ban hak pozuk e, ganauek sartute pekotzat ta gehixa […]. Ganauntzat harek ez ban balidxo besterik.
- Maria: Oingo moduko ur garbidxe ez pentse, lelengo sartzen ban ganauek hankakin zikintzen zeban eta ba bestiek haxe edan biher ya.
- Pedro: Ta ganauek be garbidxe da ta garbidxe da ta aurrera, aurrera, aurrera, aurrera ta…

5.24. Laian egin ondoren burdinazko area pasatzen zen soroan

- **Hizlaria(k)**: Gerenabarrena Astorkia, Maria; Longarte Gerenabarrena, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-013/012
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:24:40. **Bukatu**: 00:26:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
  Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- **Laburpena**: Laian nola egiten zuten. Ondoren burdinazko area pasatzen zen soroan.

Transkripzioa
- Eta laixetan, orduan, esan dozu, lau-bost laixari. Eta, orduan, soro txikixetan edo zelan?
- Sorue edozelakue. Haundixe bada, denpora gehixao biher dozu eitteko, baiña ein, ein edozelakun. Bueno, esan nahi dot, txikitxuauen ta haunditxuauen bardin.
- Eta, orduan izaten zan, indarra ein eta lurra...
- Altzau.
-Bueltau.
- Bueltau ein bihar zan...
- Laixak izeten zien holakotxe hanka-bikuek. Ikusi dozu iños?
- Bai, kerten batekin, ez?
- Bai, bai. Ta batera jo biher. Hankan joteko be... Ta ez zan entzun hanketan sartzen zanik.
- Egongo zan holakorik be, ez?
- Ez zan entzuten, baiña peligrosue izengo zan, ba. Ta, ba, haxe. Danak batera, "dda!", atzera tiretzen zan, ta sartu azpittik laixioi ta buelta emoten

jakon. Gero barrido haxe. Atze-atzeraka jun biher izeten zan norbera, e?
- Orduan, aurrera ein biharrian, atzeraka.
- Atzeraka nobera.
- Etetako.
- Ta nekosue da.
- Eta, gero, ze ein bihar izaten jakon lurrari?
- Aratu.
- Gero aria pasau?
- Ariaz.
- Bai, zera, burdiñezko arie izeten da, ta haretxeaz pasetan zan ganauekin. Garixe, enjeneral, ereitten zan, ha laixetute. [Artorako be eitten zan] lurre errezen eitten zana, baiña garixe-ta derrigor ein biher. Gero goldia argittu zanien, enee...! Bizitzie salbaute.
- Bai, e? Diferenzia haundixa.
- Bai. Baiña basarriko biherra dana nekosue.
- Eta goldia, hasieran, ganauakin, ez?
- Goldie ganauakin. Aldapetan-ta ezin ein izeten zan ha, lurre botaten zan asko ta, baiña goittik behera edo zeozelan, asko...
- G: [...banakie be egoten zan]. Gero lur-altzetak eta egoten zin. Karruk. Karruk. Karrue ikusitte eukiko dozu lurra altzetakue, kabliaz.
- Eta hori be eitten zenduen?
- Hori nola eitten zan? Ba, ipintten zan [...], soluan guenien poleie, polea bat, ta karrue... Karrue han da´ toldopien; lurra altzetako karrue hortxe dao, kotxien parin.
- [Hantxe daz...] tapaute daz [...]...
- Bale. Ta eitten zan, kablie...
- Bai, bai, lurra batzen juan behetik eta gora eruan.
- Bueno...!Ni mutiko gogortxue, belozidadie hor goittik behera karruaz...! Behien kargau --ba, behien han egoten zin beste pare bat hiru bat--, zestukin ri-ra kargau, ta idixek goixen lotu kablie ta idixek behera, karrue gora. Asko altzetan zan, e! Bueno...!
- Eta hori ze eitten zan, urtian behin? Edo zenbatero?
- Zeuk nahi zendunin, era danien ta siku dauenien ta... Urtien, ba, solo bat edo. Baiña, ostantzien, goldaik-eta horrek, edozein erraminttak aldapan lurra behera botatzen deutsu. Ta behien... ta goixen falta ta... Hemendik honako bat, igual, barrena gero altzau, baiña altzau, e! Lurre. Ta, ba, sasoie ordun ona ta bueno...! Biherra...!
- Eta hori ze eitten zan, auzolanian be bai edo basarri bakotxak beran soloko...?
- Ez, hori bakotxak berik. Kasureko, horrek auzuk ez zaben bihar be, lauek die ta. Ta, ba... Horixe egongo zan...

5.25. Familia giroa

- **Hizlaria(k)**: Zelaieta, Evarista
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-016/001
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: 1924ko urriaren 26an jaiotakoa Trabakugoikoa baserrian. Sei anai-arreba. Familia giroa.

Transkripzioa
- Noiz jaixo ziñan?
- Hogeta lauen.
- Hogeta lauan...
- Bai. Hogeta lauan jaixota.
- Ta ze hillebetetan edo?
- Urrixan hogeta seixan.
- Oin dala gitxi pasau dozuz orduan...
- Bai, oin dala gitxi larogei urte bete dittut. Jo! Hori da gogorrena.
- Bueno, baiña halan egonda...
- Bai, larogei urte. Baiña bueno, holan da.
- Jaixo bertan jaixo ziñan? Trabaku-goikuan?
- Bai, bertan.
- Eta familixa haundixa ziñazien?
- Sei. Hiru mutil ni baiño zaharrauak, nire hurrengo beste neska bat, ta gero beste mutil bat. Sei. Baiñe betik esaten dot, ni retxazorik barik hartutako umie izen nitzen. Tabernie euen ointxe moduen, ta hiru mutil zaharrauek ta gero neskatillatxo bat... Pozik!
- Ama sobretodo, ez?
- Amama.
- Ta amama. Neskatxua beti laguntzeko ta...
- Berari neskatotxo bi hil ein jakozen, bai, gaztetan. Euki neskatotxo bi ta, bata [garrotilluakin] itto; bestia han pozu baten, basarriko pozu baten. Ta berak neska baten gogue euken.
- Eta zeu etorri ta...
- Bai. Ta gustora hartu! Horixe esaten dot nik. Gero zelakue ixengo nitzen gero ikusiko zan, baiña orduen, behintzet, pozik.

5.26. Gaixotasunak

- **Hizlaria(k)**: Zelaieta, Evarista
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-016/003
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:02:45. **Bukatu**: 00:04:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena**: Gripe epidemia Europa osoan. Tuberkulosia.

Transkripzioa
- Orduan, [gaiñera], gaixotasunak halakotxiak zian, ez? Gripia be, gripe-sasoia egon zanian fuertia jente asko hil zan, ez?
- Bai. Hor esaten dabe gripe bat egon zala, [...]? Europa guztixen egon zala? Ez dakit zelan zan hori. Jente asko hil zala. Hil jente asko ordun sasoien edo urte horretan. Gripe-denporie esaten jakon. Gure amak-eta esaten eben: "Enee, beste mutil bat euki eban eta gripe-denporan hil zan". Ta beste bat, ha be gripe-denporan. Gripe gogorra.
- Orduan, zuek entzuten zenduen . Amak-eta esaten zeban, ez?
- Bai, bai. Ta orduen hiltten zienak izeten zien tuberkulosuek. Ez euen ezebe hori kentzeko. Ezebez. Tuberkulosisa eukena, lehentxuao, gerotxuao, hil.

- Gripe-denpora horretan Mallabixan bertan hildakorik eta...
- Zerekin?
- Gripiakin.
- Ez dakit nik...
- Entzunda edo ez?
- Ez dakit. Hori gripe-denporiori ni baiño aurreraokue zan. Baiñe bai tuberkulosisakin Mallebixan be. Nik ezautzen dot etxe bat -bueno, antxiñe, e!--, ba, batenbat euken gaixo horrekin. Ta umiek etara ein zittuen; beste umiek kanpora etara, senideren bati edo etxe batzuetara. Kontagiosua zan ta...

5.27. Emakumeen bizimodua

- **Hizlaria(k)**: Zelaieta, Evarista
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-016/020
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:50:20. **Bukatu**: 00:51:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena**: Emakumeen bizimodua antzina. Baserritik irteten zirenean, feriara, azokara joateko izaten zen.

Transkripzioa
- Gaiñera, lehen andrazkuak gitxi urtengo zian, ez? Etxian biharra, ortua...
- Gaiñera, andrazkue holan norabaittera urtetzie... Ferixara-edo bai, baiña, ostantzien, ondo ikusitte ez euen.
- Ferixetara-eta juaten zian?
- Ferixan, merkaue, plazakue. Zapatuen plazara.
- Bai, zeoze saltzera edo...
- Bai. Edo eguenetan Markiñen. Oin be egoten da; ordun be bai. Markiñen eguenetan; eguen goixien Markiña '. Ba holantxik, horta´ bai. Baiña, ostantzien, gehixaoko barik kafe bat hartu edo eittera... pentsau be ez! Andramarixetan edo... Hori, Andramarixe, Mallebiko jaixe izeten zan. Mallebiko jaixe.
- Oso egun espezialetan, ez?
- Bai, Andramarixetan edo egun baten, baiña ostantzien ez.

5.28. Baserriaren egitura; aurrerakuntzak

- **Hizlaria(k)**: Garitagoitia Arriaga, Martzel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-018/003
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:04:55. **Bukatu**: 00:06:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- **Laburpena**: Baserriaren egitura bera umea, gaztea zela. Egurtokia; arditokia. Ur-korronterik ez zuten artean.

Transkripzioa
- Eta basarrixak, esan dozu, distribuziño ona zekala. Habitaziñuak eta…
- Bai, bai. Ba, esaten dotsut, zer bat, portal bat, ez zera, e? Oingo zera, hori harrizko harri edarrok eta horrek ez, e? Holako… korriente bat. Portal haundi bat euken. Egurtokixe ezkerrien eskumako ate haundi batekin, esan dodana, arditokixek, haundi bat. Haundixe, e! Bai, bai, han berrehun ardi sartuko zien. Guk ez gendun sekulo berrehun euki, eukiko genduzen, ba, berrogei edo holako bat.
- Bai, baiña kapazidadia…
- Baiña kapazidadia beuken harek. Handik mailla bi, akordun [duket] ondo, hiru mailla, hiru. Sala bat, sala majo bat, holantxik ezkerrien ate batekin kuartu bat. Mutillen kuartue, e? Mutillena, ze mutil mordue giñen ta han ohe biko gelie, kuartu bat. Eskuman beste ate bat sukaldera. Sukaldie beheko sue, e? Beste gauzaik ez, e? Beheko sue ta ure… errekan. Ura… Ta handik gero eskumara sala edar bat; bai, sala majo bat euken. Ta salian parien hiru ate filan holan ta hiru kuartu filan eukezan. Distribuziño politte euken. Zaharra zala. Zaharra akabo zelakue! Ez dakit nik…
- Aitta zan bertakua?
- E?
- Aitta zan bertan…?
- Bai, bertan jaixue zan.

5.29. Ama neskame egondakoa Bilbon; etxean apopiloak hartzen zituzten

- **Hizlaria(k)**: Garitagoitia Arriaga, Martzel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-018/009
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:18:10. **Bukatu**: 00:20:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Euskara » Euskararen egoera
  Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena**: Ama neskame egon zen Bilbon. Erdaraz oso ondo zekien. Baserrian izan zituzten apopilo erdaldunekin oso ondo ulertzen zen. Maistrak eta abadeak hartzen zituzten etxean.

Transkripzioa
- Orduan, aitta gerran egondakua… edo soldau.
- Bai.
- Eta, ama, kriada Bilbon.
- Bai, ez dakit etxe baten edo gehixautan egon zan. Dakit, ta, gaiñera, gauza… gauzie ikesi ein eban, e! Hak ekixen gauzie… kozina modure, ta... esan gure dot: ekixen biherrien. Biherra, etxeko martxie, ez “como madre de casa”, hori, ba, zan... ikesi. Ikesittekue. Ikesittekue.
- Erderaz be ikasiko zeban.
- Bai! Baitte baitte, baitte! Erderaz perfektamente ekixen hak, bai, bai, bai.

Hagaittik gurien egoten zien ba apopilluek! Danak izeten zien erderazkuek, danak. Euskeldune hauxe, Ariztondo.
- Bai, ez? Bestela maistra eta abade guztiak kanpotarrak eta…
- Ez, abadiek euskeldunek. Abadiek e… Bai, danak, danak. Aber, aber… Bai, danak, danak euskeldunek; hamengoxe Arratixekuek, ta… bai, Lemona, Iurre… Arratixekuek, hamenguek, hamenguek, bai.
- Orduan, maistrekin behintzat eingo zeban erderaz, ez?
- E… baiña bixek batera ez zien sekule egon, e! Maistrak egon zienien abaderik ez gendun hartzen.
- Bai, bai, gaiñera…
- Ez, ez, formal, e! Hori be holan da. Maistrak egon zien, bai, lau bat behintzet bai, hango ta horko, ta azkenengue maistrie eon zan. Abadiek e… abadetxie e… eurek arreba bat-edo ekarteko modun eukenak abadetxie euken eta hara etortzen zien bizi izeten. Baiña beste batzuk, ba, hogeta hiru urtekin abade ein ta, mutikotxuek, ta harek igul ez eban eukitten iñor ta harek gurera… gurera etorten zien. Hemen esaten otsien, hemen, Trabakun, hemen preguntatzen eben. Hor “La Esperanza” autobusien bajatzen zien ta, ba, direkziñua ekarriko eben, Trabakua […], ta hamen galderak, aber nun geratu leiken apopillo. Hona etorteko, ba, oiñez... neguen-ta ezin, ezin, kilometro bi eskas ta, ba, bueno, txarto. “Jun zaittez Martzelengana, Goikoetxera” ta danak hara ta hartzen genduzen.
- Bai, ez?
- Hartzen genduzen ta han egoten zien. Oin, lehenengotik esaten jakuen, e: “Gurien gero… gurekin familixie formau biher dozu ta hau etxe zahar hau [adaptau] biher dozu /biozu/ ta holan izen biher dau /bidau/, e!”.
- Jateko dauena hori da…
- Ta “Bai, bai, konforme” ta “konforme”. Komune, adibidez, ba, oholezko komune, alturiakin, holakoxe altura bat, jarri… jarri modure egoteko, ta… komune; handik ikuillure, kortara, juten zan zera, zikiñe, ta… Enfin.
- Baiña adaptatzen zian, ez? Konforme egoten zian.
- Bai, bai, bai. A! Konforme ez euenak ez euken zereiñik han!

5.30. Antzinako sukaldeak; tresnak

- **Hizlaria(k)**: Garitagoitia Arriaga, Martzel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-018/011
- **Iraupena**: 0:03:50. **Hasi**: 00:22:55. **Bukatu**: 00:26:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Euskara » Lexikoa
- **Laburpena**: Sukaldea nolakoa zen. Beheko sua; "suarkie"; mahai borobila; "ixillue" (armairu antzeko bat); tximinia...

Transkripzioa
- Basarrixa... Beheko sua esan dozu lehen, sukaldian beheko sua besterik ez zekazuela. Goguan dakazu beheko sua nun egon zan?
- Ba, nun?
- Erdixan edo baztar baten edo...?
- Ba... Bai, baztarrien. Baiña ertz baten. Hau izetie moduen, ba, hortxe beheko sue. Alde bixetan, alde bixetan... Orduen, gaiñera, izeten zan, ba,

berotu biher bazenduzen hankak... Gero suarkie esaten jakona, holako alturatxo bat eukitten eban suek bueltan. Ha izeten zan egurrezko zer bat, kuadro bat. Hamen eitten zan sue, ta hamen bueltan jentie egoteko, hamen egoten zan, ba, alturatxo bat. Silliakin hara arrimau, hankak hemen ipiñi ta hankak epeldu edo berotu edo... Orduen ez euen kalefaziñoik!
- Eta zelan deittu detsazu horri?
- Suarkie, suarkie. Suarkie deitzen jakon hari egurrai; egurrezko kuadrotxo bat. Kuadrue ez zan izeten, rektangularra; baiña igul da. Hau kuadruau baiño rektangularra gehitxua´ ha. Ta sue hemen.
- Hankak ipintzeko bertan eta...
- Bai, hankak eta... galtza bustixek eta siketu biher zienak eta!
- Bai, bai.
- Bai, holan. Ta han, ba, iguel sartuko zien sei-zortzi silla-edo bueltan; edo sei edo zazpi edo holan. Gero, mahai biribil bat. Mahai biribil bat sukalde... familixa dana sartzeko modukue. Ta sillak, [behintzet, sillak], nik goguan dauket, mahai bueltan. Ze mahai biribillien jente asko kabitzen da. Izen leike hauxe baiño haunditxuaue zeozer, baiña han sartzen giñen danak. Danak. "Taka-taka-taka", sillak buelta guztien, ba, zortzi-beratzi lagun. Ta haxe. Haretxek euezan. Ta euezan... isillue esaten jakon armaixo modoko bat, isillue.
- Isillue...
- Bai, "isillua" zuek esanda, gipuzkera "isillua" izengo da. Ta izeten zan jarri-leku ta guztiko zer bat, ta bastante, bastante zera, iguel aldenik aldenekue ta gora eukitten eban... Behien aramaixo modukue honako alturaiño; ta goixen koillarak-eta sartzeko, sartu ta holan eskegitte ipintteko zer bat, zer bat, tallau bat edo holako dibujo bat. Han "dak-dak" koillarak siketzeko ta han egoteko han ipintzen zien. Platerak sartzeko beste rejilla bat; rejillatxo bat ta platerak "dazst, dazst" sartu. Gaurko... ze esango dotsut? Lababajillasien sartzen dien antzera edo? Han sartu ta haintxe egoten zien ontzixek bistan. Bistan. Armaixuek...
- Isillue.
- ... horrek zien. Gure sukaldien euezenak horretxek zien.
- Eta gero eukitzen zenduen gelatza edo lapikua...
- A! Bai, hori bai, tximinixie. Hor sue ta, ba, tximinixie, ba, saliente bastante zera. Iguel eukiko eban metro bat edo zera saliente pareteti, ormati, ta ha forman juten zan holan: kanpana eitten, gora estutu eitten zan. Goixen, ba, gero tubo moduko baten urtetzen eban kanpora teillatuti gora, baiña behien, behien, suan... hau, suarkie dana hartzeko besteko tximinixie izeten zan. Ha tximinixie [han behera izeten] zan, ba, gauza asko kabitzeko lekue eukitten eban. Hak eukitten eban bordillo bat, ba, jenero asko sartzeko modokue. Ni morro´ egon nitzenien --atzo, lehengun esan [neuen], ba?--, orduko su-tximinixan tabakue, orduko su-tximinixan ez dakit zer. Ba, hori da leku bat gauza asko egoten zana, egoten zana. Euren zera, ba, espaziotxue, hau baiño zabaltxuaue, honen bixon zabalera ingurukue, tximinixati han buelta guztien. Ta hamen, ba, jenero asko sartzen zan. Jenero asko sartzen zan. Bai, bai. Holan, ba.

5.31. Ur-korrontea baserrian

- **Hizlaria(k)**: Garitagoitia Arriaga, Martzel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-018/016
- **Iraupena**: 0:04:00. **Hasi**: 00:36:25. **Bukatu**: 00:40:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Euskara » Lexikoa
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- **Laburpena**: Bera umea zela ura etxearen kanpoko aldera ekarri zuten. Ordura arte erretenean etortzen zen. Arropak nola garbitzen zituen amak. Errekara joan behar izaten zen; bertan sua egin eta lixiba egiten zuen. Ura baserrira ekarri zenean, aska bat egin zen eta harrezkero bertan garbitzen zen arropa. "Hautstrapue". Sutako hautsa eta ereinotza erabiltzen zituen amak arropa garbitzeko.

Transkripzioa

- Eta ur-korrientia? Zure goguan ya... ez dakit, umetan...
- Bai. Ur-korrientie nik lau-bost urte, lau urte neukezela sartu zan gurien. Sartu zan ez, e! Kanpotik. Kanpora. Kanpuen ein eben zer bat... erropak garbitzekue ta jotekue ta harri bat eta... [Depositтuakin] han distribuziño bat; bost etxei partidu geuntsen edo zien, ein eben. Hori etorri zan, ba... hori etorri zala die hirurogeta hemeretzi urte edo holan; nik lau urte edo holan neukezela, ta larogeta hiru pasaute deuka´z. Oseaske, bai, hortxe, hirurogeta hemeretzi, hor-hor, hor-hor ekarri zala ure. Artietan erretenien... "erretena" guk esaten dotsau, ba, lur-bidien atxurraz etaratako kanala? Han, han etorten zan. Goixen hartu ta, ba...
- Eta erropak garbitzeko-eta ama zelan ibiltzen zan? Edo, bueno, sukalderako ura bihar zanian edo edozer gauzatarako?
- Ba...
- Erekatik hartu bihar edo...?
- Hori uroi ipiñi zanien ondo. Artietan hara errekara lexibie [eitten] juten giñen astuakin. Astuakin tiñako bat hartu, han, sue ein ta egosi ta han eitten eban bere biherrak. Eta gero, ba, erropa bustixek etxera ekarri astuen, ta gero eskegi edo zabaldu edo zertu, siketu. Baiña errekara, e! Ta errekara, holan, hara behera, ha beheko zulora. Ta han ein sue ta... Paraje... Parajie zan, ba, auzue juten zana; txandaka antzien, ze batera... Han bat zan. Han jun biher zan etxe bat. Ta zu goxetik juten baziñen, beste bat bazkalostien edo... Bi ezin zeikezan egon, ze sue eitteko leku bat euen; tiñakue ipintteko, ta sua ein ta... lexibie esaten jakon.
- Orduan, zeuen moduan, beste guztiak be bardin arreglatzen zian, ez?
- Nahi ebana, nahi ebana.
- Nahi dot esatia, basarri guztietan bardin arreglatzen zian?
- Bai, bai, bai, ez euen...
- Astuakin tiñia eruan eta lixibia bertan eitten zeben?
- Ez euen beste... beste erremedixoik ez euen. Ez dao beste zerik. Gero ure etorri zanien, ba, bakotxak zerak ein zittuen, askak, --aska... aska...ure franko-- ta han harri bat joteko edo zeratzeko ta ordun ondo! Ordun fuf! Ordun...
- Dotore, ez? Elegante...
- Bueno...!
- Eta astuan erropia eruan, errekara juan, eta tiñia be zelan eruaten zenduen? Astuan kargauta edo...?
- Ba, hantxe. Hantxe zeozelan. Nik ez dakit... Ze materixal izengo zan be ez dakit eta. Ez dakit ze materixal izengo zan, ze egurre ezin leiken izen; izen biher eban metala derrior, ze suek bestelan erre eingo eban. Metala. Ta... ze materixel izengo zan? Ba, "ni idea".
- Eta bertan, han, leku bat preparauta zeuan...?
- Bai. Azpixen ein sue, hori ipini ganien, ta [hametik], ba, tiñakuen han

egosten zan. Ta ganien "haus-trapue" esaten jakon --ha amak beti gordeta eukitten eban--, haus-trapue ganien. Ba, tela sendo bat izeten zan, ta ha ipini ganien, erropa zeren ganien, ta haren ganien suteko hautse. Ta eriñotza. Eriñotza bastante sartzen eutsen harek zerai, lixibiai. Eriñotza. Ta eriñotz-usaiñe --"laurel" edo hori, zuk ezautzen dozu, ezta?--, eriñotz-usaiñe edarra da gero, e! Erropak be bai, jazten danien be usein edarra! Ta asko sartzen jakon.
- Ta haura ze izaten zan orduan, usaiña emoteko ta...?
- E?
- Usaiña emoteko izaten zan, orduan, ereiñotza?
- Ba, edo... Ez dakit, ba, garbittasunerako ala useiña emoteko, baiña usein edarra eukitten eban, e! Edarra, edarra, edarra! Bai.
- Eta gero erropa guztiak berriz basarrira ekarri eta gero han esegi...
- Bai, bai, bai. Han be lagatzen bazendun, hara jun ein biher zan! Ta ez zan ha... luzie zan baiño txarra. Bajatu biher zendun eta igon ein biher zendun atzera ta, ba, han ahal dala ez zan itxi biher ezer, ze ostera bat nahikue izeten zan. Ta, baiña orduko bizimodue, andrazkuandako batez be...

5.32. Mallabia eta inguruan ezagutu zituen errementariak

- **Hizlaria(k)**: Mugarza Idarraga, Enrike
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-020/001
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:00:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
  Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- **Laburpena**: Ttanboliña. Errementariak egiten zituen lanak. Berrizen eta Mallabian (Pradera abizenekoa) zeuden errementariak.

Transkripzioa
- Erregaldaria ferreteruan edo...?
- Ferreterixan baten. Edo, bestelan... Ordun izeten zan, gaiñera, errementarixe. Errementarixek eitten zittun horrek. Ferreterixie be gero, baiñe aurretik errementarixek ein biher izeten zittun. Erderaz esaten dana "herreros" eitten zittuen.
- Hemen inguruan errementaririk?
- Bai, Berrizen. Ta gero bertan Mallabixen be bai. Bertan Mallabixen be bai.
- Ta zeuek nora juateko jokeria zekazuen?
- Berrizera, enjeneral, gu. Berrizera.
- Hemen, Mallabin, nun zeuan? Kalian bertan edo...?
- Bai, kalien bertan. Ta, gaiñera, Pradera, Praderatarra.
- Praderatarra, hemen bertakua? Mallabiko...
- Bertakue, Mallabikue. Bai.

5.33. Aita arotza zen; egiten zituen lanak

- **Hizlaria(k)**: Mugarza Idarraga, Enrike
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar

- **Erref**: MAL-020/003
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:04:00. **Bukatu**: 00:05:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
  Lanbideak » Arotzak
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Familia giroa. Aita arotza zen; gurdiak egiten zituen. Basoko lanak; botatako zuhaitzak kamioian kargatu.

Transkripzioa
- Aittitta ta amaman basarrixa gitxi gorabehera zelakua zan kontau destazu.
- Bai.
- Eurak zelakuak zian? Ez dakit, ipuin-kontalarixak edo...?
- Gurien aitte bai. Aitte bai. Aitte zan bastante... Gero, arotza zan. Burdixek-eta eitten zittun basarrixetarako. Ta gero lehen esan dotena, ba, gari-joteko makiña horr(e)az makinistie. Ta gero, beran bizimodue izeten zan beti... Orduen arbolak botatzen-ta ibiltten zien; orduen, tantaixek eta paguek eta. Ta, ba, kamioie etortzen zan Durangotik, "un tal Zarandona, transportes Zarandona de aquellos años". Ta ha kamioie kargatzen. Ta kargau be, barritz, bota biher izeten [zittuen] tabloi bi, ta tabloien gaiñetik bultzeka. Gaur, ba, barritz, grapiaz heltzen deutse, ta "ras!" kargatzen dittue. Goxien gos guztixe eitten eben kamiokada bat kargatzen; atsaldien beste bat. Egunien kamiokada bi. Ta hori biherra gogor eindde!
- Orduan, arotza zan eta berak eitten zeban dana? Zuhaitzak kargatzen lagundu...
- Bai. Bueno, egunero ez zan izeten ha zuhaitzak kargatzen, e! Izeten zan, ba, astien igul bi bider edo. Ta, ba, beste egunetan, ba, burdixek ein ta solorako beste... arie edo, narra edo, lurre zapaltzekue, txilindrue edo... gauza asko.
- Orduan, arotzerixiaz aparte, gero beste lan batzuk eitten zittuan. Ba, hori, ez? Egurra kargatzen lagundu edo...
- Bai.

5.34. Zuhaitzen inguruko azalpenak

- **Hizlaria(k)**: Mugarza Idarraga, Enrike
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-020/004
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:05:50. **Bukatu**: 00:08:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
  Natura » Meteorologia
- **Laburpena**: Tantaia; pagoa; "gaztaiña-arbolie"; haritza. Lehen pagoa moztu egiten zen. Materiala zertarako erabiltzen zen. Pagoa putzura botatzen zuten.

Transkripzioa
- Esan dozu "tantaixak". Zeri esaten detsazu?

- Tantaixe da zera, txopuan antzeko arbola bat. Ta bestie pague, ta bestie gaztaiña-arbolie, "castaño", "roble", "haya"...
- Baiña, orduan, "tantaixa" esaten detsazu arbola klase bati?
- Bai. Pague barik, tantaixe da beste bat luziaue. Pague da motzaue. Oin ez da egoten, e! On ya luzien isten (d)eutse, baiñe lehen ebai eitten eutsezan adarrak, ta g(e)atzen zan trongo motza. Adarrak zabaldu eraitten eutsezan. Gaur, barritz, isten (d)eutse dana gora ta gora, ta gaur urtetzen dabe tantaixen antzera pague be. Ta lehen ez. Lehen pague zabaldu eitten eben; puntie ebai eitten eutsen, ta adarrak gorutz doiezenak ebai, ta zabaldu. Adar gehixao urtetzen eutsen; zabaldu eitten zan. Ta gaur ez. Gaur pague-ta sartzen dittue, ta danai laga eitten jako. Oin beste biher klase batera hazten da gaur zera.
- Eta "pago-tantaixa" entzunda dakazu?
- Bai. Pago-tantaixe, ba, hoixe, ointxe esan dotena. Pago-tantaixe isten jakona, luzetzen isten jakolako, tantaixe.
- Baiña lehen halakorik ez zeuan...
- Lehen, bai batzuk, baiñe gitxi. Lehen izeten zan pago motza. Pago motza.
-Eta luzieri halan esaten jakuen? Pago-tantaixa?
- Bai, pago-tantaixe.
- Baiña gero, berez, aparte, "tantaixa" beste arbola klase bat zan...?
- Beste... Haritxai. Haritxe. Haritxeri esaten jakon tantaixe.
- A! Haritxa zan, orduan...
- Haritxe, bai.
- Eta zetarako zabaltzen jakon... Zegaittik izaten zan hori...?
- Egurre... Bai. Sue eitteko hartzeko ta, gero, ganauendako buzterrixe eitteko izen biher eban trongo motxa. Ze, astilletu erdittik --trongo sendue izeten zan, ba, ta--, astilletu erdittik, ta astilletu, ta gero ha egurre, gaiñera, sartzen eben uretan. Potzuen eukitten eben, ez dakit zenbat denporan, baiña potzuen egoten zan. Gero, horrek egurrorrek hobeto aguentatzen eban.
- Ta potzua ze izaten zan, konserbatzeko edo...?
- Bai, bera materixala gero hobeto konserbau ein deixen edo izengo zan, ba, zera, kokua urten ez deixon edo zeoze holako zeren bat izengo zan.
- Buztargilliak ibiltzen zian hemendik?
- Bai, b(a)euzan. Bai. Bat Berrizen ezautu naban, beste bat Mallabixen be bai.

5.35. Egun abereak modu desberdinean hazten dira; belar-ondoa

- **Hizlaria(k)**: Mugarza Idarraga, Enrike
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-020/008
- **Iraupena**: 0:02:55. **Hasi**: 00:15:45. **Bukatu**: 00:18:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
  Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
  Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- **Laburpena**: Basoak; zelaiak. Ganadua kortan egoten zen; gaur egun kanpoan edukitzen da. Lehenagokoak eta oraingoak, behi klase desberdinak. Belar-ondoa; belar-metak. Belar-metak nola egiten zituzten.

Transkripzioa
- Lehen esan dozu basuak. Hemen inguruan baso haundixak egoten zian, ala zelaixak...?
- Bueno, haundixek... Haundixek... Bai, zati polittek. Baiñe zelaixek be bai. Zelaixek be bastante.
- Oin baiño gehixao edo...?
- Bai! Gaur lehengo hurrik emon be ez!
- Lehen ganaua-ta kanpuan eukitzen zan edo...?
- Ez, dana barruen. Ganaue, gaiñera, eitten jakon, kontu haundixe eukitzen zan, bai kortan be... Itxi, itxi, ondo dao...
- Bai?
- Kortan b(a)euen be, neguen be, atiek be bittartiek baeukezan, iriakin-ta tapau, zuluek be tapau, ganauek be kortan mantiakin... Mantak, ganauen mantak, proban-ta oin ebalten dittuen modukuek. Orduen proban ebali ez arren be halako mantiaz gabien eukitten zan, mantiakin tapaute, lepotik ipinitte ganauai ta asko. Oin, ostera, kanpuen. Danak kanpuen. Eurixe ta kanpuen. Bueno, tejabanie-edo eukitten dabe, ezta? Baiñe zaparrada batzuk behintzet kanpuen hartu biher.
- Eta ganau-klase iguala zan, ez?
- Ez, diferentie da.
- Igual hau gogorraua, orduan?
- Hau gogorraua, hau kanpuen egoteko. Harek zien esaten jakona "esne-behixek"; behi pintanak zien, "behi pinttak" esaten jakuen. Harek esne... esnie jazten jakuen harei, ta honek ez. Honek die beti okelarako. Okelie.
- Ta, orduan, zelaixak-eta ze izaten zian inportantiak, gero ganauandako jatekua, bedarra...?
- Bai. Bedarra ebai, gero eitten zien metak. Metie esaten jakon, ba, gaur eitten dittue farduek. Orduen fardoik ez zan eitten hamen; Naparruen-ta bai. Baiña hamen zela ez euen farduek eitteko-ta makiñarixaik-eta, ba,orduen eitten zan metie. Sartzen da palo bat erdixen, ta hari paluai buelta guztixen beti tolostu-tolostu gehixa´ ta, ba, metie jasotzen zan goraiñok. Ta gero neguen, apurke-apurke, ba, etaratzen.
- Metia, esan dozu, ardatza...
- Bai.
- ... bedarra tolosten juan...
- Tolosten.
- ... gero gaiñekaldian zeoze ipintzen jakon?
- Gaiñe-gaiñien ipintten jakon zaku bat edo. Zaku bat ipintten jakon ure sartu ez [deleixon]. Ostantzien, aldemenetik, ba, laban eitten deutse eurixek, baiñe goiko-goiko gaiñetik zaku bat igu(e)l ipintten jakon. Edo, bestelan, ohol bat edo txapa zahar bat b(a)euen edo "lo mismo". "Ardatza" esaten jakon, "meta-ardatza". Batzuk "metie", beste batzuk "ardatza", "bedar-ardatza"... Ta guk "metie" esaten geuntsen, "bedar-metie". Gero "irie" be bai; "garue" esaten jakona, "irie". Guk "irie"; batzuk "garue" esaten deutse.
- Eta iriakin metia eitten zan be bai?
- Baitte.
- Baitta?
- Bai.

5.36. Garo-batzearen inguruko aipamenak; ira-sailen subasta

- **Hizlaria(k)**: Mugarza Idarraga, Enrike

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-020/009
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:18:40. **Bukatu**: 00:21:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
  Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- **Laburpena**: Garo-batzea. Oiz mendira joaten ziren iratara. Bertan egiten zuten lo. "Zamie". Gurdia kargatu eta baserrira eramaten zen garoa. "Erremata", ira-sailen subasta. Simaurra.

Transkripzioa
- Eta hemen nora juaten ziñazien iratara?
- Hamen?
- Bai.
- Orduen hamen bertan inguruen be danien, baiñe juten zan Oizera gaiñera be bai, e! Gurien, ni ez nitzen jun, e, baiña gurien anaie-ta bai idetan Oizko gaiñeraiñok. Ta egun bi bertan ein garue batzen. Bertan lo ein. Hori izeten zan, ba, oktubrien. Ta bertan lo ein. Ta gero hor goiko gaiñien kargau zamie esaten jakona, adar batzuk. Adar batzuk ipini arboliai ebaitte. Ta ha kargatzen zan, ta gero ganauekin hor goittik behera aldatz haundixe da, ta tiretzen, tatarras. Gero, hor beheko lautadan burdixe kargau; gero burdixaz etxera ekarri; gero hamen barrido metia ein. Biherretan...? Buoj! Ta gaur ideik iñok be ez dau nahi, bedarra be sobratzen hasitte da, ta lehen bedarra... Bueno! Bedarra... pagau eitten eben askok!
- Zuk ezautu...
- [...]
- Bai, esan, esan.
- Ta idie be bai, e! Idie be eitten zien subastak. Herrixek han Oizen gaiñien, herrixek deukez Oizko gaiñien basuek deukez. Ta herrixek eitten eban subastau. "Erremata" esaten jakon ordun, "erregatien", "erremata" esaten jako, ba... "subastie" erderan moduen, baiñe guk euskeraz "erremata", "idien erremata". Ta, ba, batak hainbeste pagatzen eban, bestiek ez dakit zenbat... Ni ez naz akordatzen zenbat, baiñe behintzat pagau eitten zan. Ta oin debalde, ta iñor jun be ez; bertan, ta iñor be ez. Baiñe izen, harekin idiaz eitten zan simaurre --kortan, ganauei azpixa ein ta simorre-- ha bai solorako. Gaurkue ez. Gaurkue bedarraz ta lastuakin-ta eitten dana ez da iguela. Idiaz eitten dana usteldu eitten da, deseitten da. Simaurre hobie asko be, ebalteko, nahi beran solorako ya saborra be hobeto duke. Saborie esan gure dana hobie, neutzako. Idiek eta lastuek eta, bai, baiñe usteldu ez da itten. Idie usteldu itten da. Ta bedarra ta, bedarra ariña´ , baiñe lastue nekez. Lastue ez da... ez da deseitten.
- Orduan, onena iria?
- Idia. Ni ez naz holako basarrittar haundixe, ezta? Baiña nik neuk ikusitte. Ni basarrixen, ba... nik ez dakit. Ikusittako gauzak nabil esaten, ze ni jun nitzen hamalau urtekin Eibarrera biherrera. Baiña ikusitte, ta entzunde aittai-ta zelan...

5.37. Herri-basoak; toponimia

- **Hizlaria(k)**: Mugarza Idarraga, Enrike

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-020/010
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:21:40. **Bukatu**: 00:23:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Oiz mendian herri-basoak zeuden. Toponimia. Herri-basoak; erabilera.

Transkripzioa
- Iria esan dozu, bueno, irian erremata-edo eitten zala. Herrixak basuak zekazen...
- Bai, Oizko gaiñien.
- Oizko gaiñian bakarrik...?
- Bueno, ni akordatzen naz idian erremata han egoten zana. Gero hamen, oin, gero diputaziñuek hartu eban, ta hamen beste mendi bat be baeuken. Beste mendi bat euken hamen. Gaur hari mendixai esaten jako "Herri-basue", baiña ez da herri-basue, gaur diputaziñuana da. Guk, ba, lehena´ zela zan herrixana, "Herri-basue" gure gazte-denporatik eta, baiñe da gaur diputaziñuana.
- Eta herri-basua ze izaten zan? Basarrittarrak-eta bertara juateko aukeria egurretara, edo...?
- Bai, egurre nahi bedarra be bai. Hor, oin esan doten basuen, "Herri-basue" esaten jakona, hor bedarra egoten zan. Ta horko bedarra be, ba, erremata-edo eitten jakon, ta nahi dabenak erosi eitten eban; burkada bi edo bi edo bat edo nahi dana.
- Eta egurrakin zeoze...?
- Egurre be, ba erosi eitten zan. Ba, hainbeste arbola edo... Erosi ta, ba, gero zehetu sutarako. Egur mehie be bai; adarrakin egur mehiek. Kargak eitten zien, porke ha izeten zan sue lehelengo ixotzeko. [Biher eben], gaiñera, labako-sue zanien, ixotzeko halako mehie bihar dozu lehelengo, inddarra emoteko.
- Eta, orduan, horretarako, bertatik hartzen zan be bai...
- Bai. Ta hori, ba, "Herri-basue" euken horrek izena ta herrixana zan. Baiña pasau zan --nik entzunde, behintzet, e! Oin, seguru ezin neike esan, baiñe-- Mallabixan bertan eskolak-edo [ei] zien. Eskola... bertako herrixen barruen; aurretik, ba, barriadetan euezan. Baiña eskolak ein zienien, itxurie herrixek zorrak ein zittun. Zorrak. Ta ez euen... Ba, Mallabixen be ze izengo zan, ba? Herri... baserrixek-eta bakarrik, eta baserrixetatik be ze diru etarako eban, ba?

5.38. Mallabiko udalaren herri-basoak

- **Hizlaria(k)**: Mugarza Idarraga, Enrike
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-020/011
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:23:15. **Bukatu**: 00:25:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

- **Laburpena**: Udalak herri-basoak saldu zituen zorrak ordaintzeko.

Transkripzioa
- Ta hori, ba, "Herri-basue" euken horrek izena ta herrixana zan. Baiña pasau zan --nik entzunde, behintzet, e! Oin, seguru ezin neike esan, baiñe-- Mallabixan bertan eskolak-edo [ein] zien. Eskola... bertako herrixen barruen; aurretik, ba, barriadetan euezan. Baiña eskolak ein zienien, itxurie herrixek zorrak ein zittun. Zorrak. Ta ez euen... Ba, Mallabixen be ze izengo zan, ba? Herri... baserrixek-eta bakarrik, eta baserrixetatik be ze diru etarako eban, ba? Gaur egunien bai. Gaur poligono bi deukez itzelak, ta gaur Mallabixe da herri bat aberatsa. Baiñe, itxurie, zorrak ein zittun, ta diputaziñue ein zan jabe, haren zorrak zertzeko, horren basuorrena. Diputaziñuek hartu eban. Handik. Nik hori entzunde, behintzet, e! Nik baiño hobetua´ jakingo dabe batzuk, baiñe. Bedorrek dakar izena "Herri-basue", ta gaur diputaziñuana... hor egon dana zeoze... tinglaun bat.
- Bai, esku batetik bestera zelan pasau ete dan...
- Bai. Ta nik entzunde eskoliakin behintzet zelan pasau zan. Pasau eitten die gauzak! Ez dabe danak ondo urtetzen. Pentsauko eben orduen herrixen, ba, eskolak eittie. Baiñe ez zan egongo nundik, ta harek kontrtistik, ba, dirue biheko eban eskolak pagatzeko. Ta herrixe in gero jabe. Ta orduen, ba, ez zan izengo... Gaur harek mendixek --horrek herri-basuorrek gero diputaziñuak...-- horrek balio dau millonadie. Millonadak, e! Ze da´ piñuz beteta; gero, haritx amerikanue be bauke zatixe. Zati haundixek die; terrenuek bakarrik be... puoj! Gaur ondo ipinitte dao, e! Gaur ya mujonaute da´, diputaziñoko mujoiek ipinitte beren letreruekin ta dana da´ ondo... ondo markaute da´.

5.39. Kalera saltzera zenbatero jaisten ziren

- **Hizlaria(k)**: Meabebasterretxea, Maria; Sarasua, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-024/020
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:42:05. **Bukatu**: 00:45:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
  Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena**: Kalera zer jaisten zuten; tratura nora joaten ziren. Bi egunetik behin joaten ziren. Esnea, sagarrak, untxiak eramaten zituzten. Oilotokia basoan izaten zuten. Oiloa lokatu.

Transkripzioa
- Eta kalera-ta ze jeisten zenduen? Esnia ta...
- Ba, esnia ta... Ez. Sagarrak iños bai. Ni kalera Ermure junde na´ hamabi urte, hamahiru, hamalau ingurura arte be bai. Urte bi ingurun. Egun bittik bat juten giñen. Esne apurre erun, ta han Itturrin bodegie esaten eutsen, ta ardaue ekarri gorutz. Ta bai, sagarrak be bai. Gero konejuk ipintten be hasi giñen, ta eskatu eitten zittuen bezeruek eta, ia konejorik eta... Etxien hilddekue gure izeten eben ha be. Bueno, hori nik itxi ta gerua´, arreba gaztiaue juten zan ta neuk hiltten nittun ta...
- Ta arrautzak eta...?
- Arrautzak bai. Ein zenbat eitten zittuen, ba? Etxe ondotik han

handikaldien euen gurin basuen oillo-txabolie. Ta [zukue] emoten jakuen. Ta oillarra be eurekin eukitten eben, ta iños oillolokie txitak ondorik zittula sasixen etara txitak eta... Oillo beste [azeri] be ez dakit euen...
- Eta oilluak, orduan, basuan egoten zian?
- Basuan txabolie. Eurek sartu ta urten eitten eben. Baiña gero aspertu giñen, miruek eta basakatuek-eta hasi zien ta gero ekarri. Ta oin, ba, barruen eukitten dittuu.
- Orduan, esan dozu, arrautzak gitxi, ez?
- Oin aspertute arrautzie jaten ta lehen...
- Arrautzak... Harek oilluk igul lau-bost urtekuk be egongo zin ta hiru egunetik baten itten baeben igul... euezenok hartu ta etxera. Oin, ba, oilluk urte bittik-edo kanbixatzen ibiltten ga´.
- Oin arrautzie, normalin, honenbeste oillo, horretxen beste arrautza itten dabe ixeixa. Bai. Baiña...
- Ixeixe barik! Sasoien...
- Baiña emoten jakue euren pentsue, emoten jakue euren gauza danak, baiña... Ordun emon be ez, ta gero eurek be ez. Hori pasatzen da. Oin baserri danetan da oilluek... Bueno! Holantxik.
- Eta zeuek arrautzia jan eta? Basarrixetan umetan goguan dakazue...?
- Arrautzie jan... Bai. Honan, zartankada patata-erriei bat edo ganien botata...
- Gutxi...
- Oin larrei lez jaten dou, baiña ordun...

5.40. Ogia nola egin

- **Hizlaria(k)**: Antxia Arrate, Pako; Sangroniz Arriaga, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-026/020
- **Iraupena**: 0:04:00. **Hasi**: 00:37:30. **Bukatu**: 00:41:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Garia
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Euskara » Lexikoa
- **Laburpena**: Ogia nola egiten zuten. "Artesia". "Txantxaguria". "Sotilla". Ogiaren inguruko lexikoa.

Transkripzioa
- Zeuek ogixa eitten zenduen?
- Bai.
- Lehen bai.
- Hemen bertan?
- Hemen ta honek danin.
- Danin basarrixetan.
- Eta ogixa zelan eitten zan? Toki espezialen bat egoten zan ogixa eitteko?
- Bai, artesia.
- Bai, artesia esaten jakon, ba, holako armaixo modoko bat hantxe...
- Batzuk esaten dotse "artesie", beste batzuk "oremaixe".
- Bueno, ba, izen [daittela honen] mahaixonen modun, ba, tapiaz; barrun huekue. Ta hantxe eitten zan.
- Eta masia zelan eitten zenduan?

- Bueno, ba, urune, garixana zera, hori. Ta gero aurretik eukitten zenduen aurreko laba-aldikue, haren zatitxo bat gordeta eukitten zendun.
- Txantxaduria, labaduria, labadurie.
- Zatitxo bat gordeta eukitten zendun. Ta ha urunetan hantxe egoten zan, ta haraz eitten zan, ogixe bixar ein bihar bozu, gaur gabin haraz zatitxuaz eitten zendun, ba, masa bat, ogi baten tamaño ingurue edo. Ta ipintten zendun urunetan tapaute. Ta bixamon... bixar goxin egoten zan ha dana holan...
- Harrotute.
- ... harrotute dana egoten zan.
- Eten-eten eindde egoten zan ha.
- Ta gero, haraz bixamonien barrido ipini, ba, hamar ogintzako-edo urune tamaiñue.
- Launtzat edo bostentzat, bardin da, ipiñi.
- Ta ta ha masie haritxi urunai nahastau ta ure izen daittela, ba, artuantzako berue izeten dan lez, harentzako epela bakarrik.
- Hozittute.
- Dana masa haundi bat itten zendun, ta [hari be], ba, dana ondo-ondo, ta tapau itten gendun guk. Mantatxo bataz edo tapau, ta atz´a barrido jagi daittela ha. Ha masa nausixe jagi arte itxain, ez dakit ordu-erdin bat edo ze izeten zan.
- Segun zelako denporie euen...
- Ta gero, ba, ogixek in, formak, formak: ogixek, biribille edo luzie, zeuk gure zendun modokue. Ta hari be barrido itxain laban sartzeko [...] jagi arte barrido. Ogixe itten dao biher haundixe, egun erdi.
- Egun erdi ona bihar...
- Egun erdi juten zan. Bai, bai.
- Eta hori ze izaten zan astian behin edo?
- Bai, astin behin. Itxain in biher izaten jakolako, ba...
- Asteko ogixe itteko egun erdi.
- Bai. Bata jagi arte, gero atzera barrido masa, atzera barrido masa... ba, egun erdi.
- Eta esan dozu aurreko laba-aldiko zatitxo bat, ez?
- Bai.
- Bai. Halakoxe ikubilla lakoxe moltzotxo bat.
- Eta horri zelan esaten detsazue?
- Horri txantxa...
- Txantxaduria. Hemen baserrixetan txantxaduria. Labaduria zan hori. Lebaduria edo zela esaten jako horri, ba?
- Bai, bai, bai.
- Ba, "txantxaduria" esaten jakon hari.
- Orduan, bihar gogorra izaten zan, ez? Laba-sua eittia ta ogixak...?
- Buo, gogorra ez, baiña [kargu antxian] ibili bihar.
- Ba, beti ibili bihar dozu... ganian egon biher dozu.
- Bai, gaiñera, ogixa inportantia, ez? Edo aste guztiko ogixa inportantia izaten zan basarrixan...
- Bai.
- Bai, andra batzuk eitten eben ogixa, baiña...
- Denpora larregixen bazeunken be, ba...
- Jagixegi.
- ... jagixegi ta txarto. Atz´a batu ein biher ta... hoba izeten zan, ba...
- Beste batzuk, ostera, gitxiei jagitte eitten eben, ta gitxiei jagittekue sotillao izeten zan.
- Bai, [...]
- Lotue, ogi lotue, eskasa.
- Sotilla?

- Sotille.
- Sotille. Eta hori ze da? "Lotua" esan detsazu, zelan...?
- "Tupidue" esatie lez.
- "Tupidue" izetie lez, gitxi harrotuikue, ha lotue izeten zan ta.

5.41. Baserriko lanak; tresnak

- **Hizlaria(k)**: Antxia Arrate, Pako; Sangroniz Arriaga, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-026/026
- **Iraupena**: 0:04:00. **Hasi**: 00:52:10. **Bukatu**: 00:56:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
  Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- **Laburpena**: Laietan egindakoak. Nola egiten zen. Goldea etorri aurretik, soro guztiak laiatu egiten ziren. Golda txikia eta handia.

Transkripzioa
- Pako: Lekue nehikue egoten zan baserrixen, e!
- Miren: Bai, [inddarra oin baneka batzen dou], ezta? Baiña ordun ba...
- P.: Ordun euezan danak, burdike ekartzen zan ta.
- M.: Eurek ostro ta guzti esegi eitten genduzen ta igartutakuen, ba, jota ipini ta garaua apartau ta gero, ba, zakure inddarra. Bakarrik ganbaran [...] lotzen zana izeten zan...
- P.: Artue ta patatie.
- M.: ... artue ta patatie. Bestela, garixe bere lekun, euren kaxetan, ta inddarra zakutan. ta ganbaran, ba, traste asko. "Trastero" esatie lez.
- Bai, basarrixan be beti, ez? Edo goldia ya erabiltzen ez dana edo... Orduan, zeuen... ez dakit, umetan-eta, zeuen akorduan, laixetan-eta eitten zan hemen inguruan?
- M.: Bai, geu be [indekuk] geu be.
- P.: Neu be... etxin laixetan asko indde na´ ni. Hona, honarte, beheko etxe zaharrin. Hortxe ein [naben] laixetan gehixen. Gurien bai laixetan itten gendun, baiña gitxi.; gero goldia. Goldiaz geu hasi giñanin, barriz, dana beheruz bota ta kitto.
- Eta laixetan zelan eitten zan?
- P.: Eskuaz hartute dzaust! sartu ta erain-erain ein ta “raust!” ta goiko hankiaz eutsi zerai —zelan izeten zan bera?—, beheko laixiaz eutsi ta goiko hankiaz laixie sartu. Edo beheko laixie sartu? Zelan? Lehelengo behekue sartu biher izeten zan. Joten zan, erain...
- M.: Eske horrek ikusi barik...
- P.: ... eten. Eten zohixe, lurre. Ta gero okertzen zendun ta goiko eskuaz...
- M.: Barrurao sartzeko.
- P.: Bai. Goiko eskuaz zerai eutsi, laixiai eutsi ta bestiaz beheko laixia sakatu aurrera. Ta gero ha sartu ta buelta emon.
- M.: Lurrei.
- P.:Ta japa, koño! Ni neu gustoren...
- M.: Baiña holan lau edo illaran plantaute, e?
- P.: Bai, lau edo bost lagun, haxe da onena, bostekua onena.
- M.: Bai, zatixe eruten zendun.
- P.: Bai, baiña hirukuk eta bikuk eta [be hantxe].

- Klaro, jenterik ez dauenian, ez?
- P.: Bai. Andrie igul bakarrik [...] laguntzat gizonak eta... Nik laixetan gustora zurekin ein naben baten.
- M.: Baiña bata bestiakin ibiltten giñen ordun be, [auzuk], ba, bata bestiakin.
- Eta hori, laixetan, ze eitten zan edozein parajetan ala...?
- P.: Bai, edonun eitten zan hori, bai.
- ... ala mugarte asko zeren tokixan eta aldapatsua zanian edo...?
- P.: Aldapak [ziñin] lekun ta danin. Bai, ez... Honek... lauen be bai, zelaixen be bardin.
- M.: Ordun, hori, goldie etorri orduko danak; laue bazan, laue ta aldapa bazan, aldapa.
- P.: Hauxe goixau nik ez naben ezautu sekulo goldatute. Edo... laixatute. Hau beti goldatu eitten zan. Hemen auzuen euken goldia, dosko golda haundi bat. Ta euren jornala ipinitta euezan goldak be.: soluen eguneko hiru pezeta —hori gerrataurrin, e?— ta mendira o basua goldatu bihar bazan, eguneko durue goldik jornala eukitten eban.
- Eta esan dozu, klaro, goldia etorri aurretik dana laixau ein bihar zala...
- P.: Dana laixau, bai.
- Eta goldia gitxi gorabehera noiz etorri zan?
- P.: Lehelengo-lehelengo...
- Baiña gerra-aurretik,...?
- P.: Bai,...
- ... bastante aurretik edo...?
- P.: Golda txikixek esaten jakenak, pala batekuek, gu jaixo baiño aurretik. [...]
- P.: Etorritte euen hori pala bakarroi gu jaixo baiño aurretik etorritte euezan, txikixek, honako palatxuek. Ta gero hori doskue etorri zan, hori etorri zala, ba, gerrie baiño aurretik hori be, hori dosko golda haundixoi. Hori ehun urtez honantzekue hori be, larogei bat urte o holakue iguel izengo da, e?
- M.: Ez dakit, nik beti ezautu dot eta...
- P.: Ze beti? Zuenien goldia-ta ekarritte gerratostien.
- P.: Gurien bai, baiña nik aurretik iñona bai beste etxietan. [...]

5.42. Abereen ermandadea

- **Hizlaria(k)**: Madariaga Agirre, Antonia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-028/011
- **Iraupena**: 0:04:45. **Hasi**: 00:16:45. **Bukatu**: 00:21:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
  Euskara » Lexikoa
- **Laburpena**: Abarkak aitak egiten zituen. Auzoko ermandadea. Abereen narrua abarkak eta uztarrien erak egiteko erabiltzen zuen. "Ixurre".

Transkripzioa
- Abarkak esan dozu aittak eitten zittuala...
- Aittek.

- Eta ze...?
- Eitten eban ebai...
- ... ganauakin, osea, ganau-narruakin...?
- ... ganauan, holan, ferixetan-ta... Lehena´ ganauek, ba, "ermandadie" esaten jakon , kuadrillak auzunan eitten eben danak, zera, hillien honenbeste bota ta ganau bat bati galtzen bajakon, ba, pagau ha [harean] diruaz.
- [...] partidu, ezta?
- Ta gero... Ez. Ha narrue iñok gure badau, saldu eitten eben. Ta gehixen aintzen otsanak. Eta gure aittek narru bat hartzen eban, ta narrue izeten zan pare bat urterako abarkak-eta eitteko.
- Eta ez bakarrik abarkak. Buzterrixan eriek, lotzeko buzterrixa, erie...
- Baitte, eriek be bai buztarrixe lotzeko.
- Badakizu, ezta, zer dan eriak holan lotzeko bueltaka-bueltaka?
- Zer dia "buztarrixan eriek"?
- Buztarrixa da idixei, guk hamen polittauek...
- Hamen, buruen ipintzen jakena.
- Bai. Eta "eriek"?
- Eriek diez, ba, narruakin ebeitte, holan, [...] ta bueltaka-bueltaka lotzen da.
- Ta hareaz mosutik zihar idixa lotuta egoten zan.
- Bai, osea, gogor jartzeko, bai. Eria, horretarako da.
- Holan eitten zan hori.
- Eta, orduan, aittak erosi zeban narrua...?
- Narrue erosi ta harek... markau eitten zittuen. Markak eukezan umienak txikitxuauek, gurik haunditxuauk eta markaute berai narrue siketzen euken lekuen markau eitten zittun. Ta gero harek kutxillo fin-fiñaz ebaten zittuen --txikixenak, txikixenak eta gero nausixenak-- lantzien pare bi edo, ze harek beratu ein biher izeten zien. Uretan ipini egun batzuetan eta bigun-bigun eitten zien. Ta gero orduaintxe, zeindde... ze esango dotsut, ba? Papel bat aber [...]...
- Dantzarixei eitten jake, ba? Dantzarixek, guk... nik erositte [dauket] mutikuendako.
- Beittu, eitten jaken... Entzun! Esango dotsut. Ez dot apurtuko hau...
- Ez. Lasai!
- Holantxe...
- "¡Mira, mira qué estilo...!"
- Holantxe musturre josi. Ikusten dozu?
- Bai, bai, bai.
- Holan josi hau musturrau.
- Buelta emoixozu, ama.
- Ta gero [...]. Ta gero hamen ixurra hartu danien, hemen bueltan, ixurra hartu zeindde narru mehe-mehe-mehiaz. Entzun?
- Bai, bai, bai. Eta "ixurra" zer da?
- Ixurre? Da, ba, hartzen jako, ba, gona barrenai be ta goniei be? Ixurre haixe da! Oin badakixu?
- Tolostuta barrurutz, ez?
- Ez, ixurra da...
- Holantxe.
- Ta gero tiratu ta... "Fruncido".
- A! Bai!
- Ederaz "fruncido".
- Hoixe, hoixe da ixurre. Holantxe ipintten eban ha gaiñe.
- Eta zeuk, baiña, ikusitta zelan eitten zeban...?
- Bai.
- Bai? Eta narrua, baiña, lehelengotik zeoze emoten zetsan, ez dakit, kokua

edo... pixkat ontzeko edo?
- Ez.
- Karia edo botatzen jakon?
- Arie bota... Karie, karie botaten otsan siketzen euela. Pixka-pixkat, e! Igurtzi eitten otsan trapu batekin danien. Hori da konserbetako, kokoik ein ez dakixon. Ta gero, ba, ebai; gero esei, lotu ta esei eitten eban. Ta, gero, biher zanien, ba... Niri eitten ostazen plazara-ta juteko aittek eitten zittuen kendu gaiñeko bixarra dana zerai, abarkiai, bueltan, ta begixek eitten otsazen. Zelan esango dotsut? Zapatiek, zapata zaharrak-eta mihiñe eukitten dabe, ba? Mihiñe?
- "Lengueta"...
- Bai. Bai, bai, ba.
- Ba, harixe mehe-mehe ebai, ta sartzen otsazen... hau da... esango dotsut. Beittu, ekatzu hona, esango dotsut. Hau da zera, ezta?
- Bai, abarkia.
- Hau da abarkie, ta hau ixurraz [...], ta hamen, hamen honan beste bat eukitten eban honek. Ta hamen ta hamen begixek eitten otsazen har´az.
- Zer, ez dabil ondo?
- Bai, bai, bai, bai. Ez, nik esplikaziñua hartzen. Zu lasai.
- Beittu, ta hamen ta hamen begi baltzak eitten otsazen harekin; sartu ta gero han [...]. Ta begixek bal-baltzak begixek.
- Osea, dotore-dotore, ez?
- Abarka dotoriek abarkak! Bai, gure aittek horrek...
- Artistia zan orduan, ez?
- Artistie zan, bai.
- Hori zenbat bidar esan daben...
- Artistie zan horretan...

5.43. Artilezko koltxoiak

- **Hizlaria(k)**: Agirregomezkorta Eizagirre, Rosa; Olalde Astarloa, Esteban
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-031/010
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:19:00. **Bukatu**: 00:21:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  Euskara » Lexikoa
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
- **Laburpena**: Artilezko koltxoiak. "Lastamarrajie", arto-malutarekin egindakoa izaten zen. "Txibittie", makila bikoitza; harekin koltxoia jotzen zuten harrotzeko.

Transkripzioa
- Eta izarak ehunezkuak. Eta koltxoiak zelakuak ezautu zenduezen umetan?
- Guk koltxoiek lanazkuek beti, lanie.
- Ardi-lanie.
- Ardi-lanie beti.
- Arta-malutazko...?
- Bai. Ha... Baiñe ha zera zan... azpikue.
- Jergoia edo...

- Bai, zelan esaten gendun, ba? Koltxoie...
- Lastamarragie.
- Lastamarragie esaten geuntsen.
- Bai.
- Halakuekin soldautzan be egonda na´ ni. [Hamengo] antzera.
- Zelan esaten detsazue?
- Lastamarragie edo.
- Holako, geiñie zabalik deuken tela... poltsa haundi bat ixeten zan.
- Bai, poltsa haundi bat ixeten zan. Ha bete zerakin...
- Arto-malutekin.
- Arto-malutekin.
- Ta harro-harro ein ta gero gaiñin koltxoie.
- Bai, ta arto-malutak be ixeten zien arto... barruko fiñek, enjeneral, apartautikuek. Enjeneral, barruko, artuan barruko... geiñeko zerak zakarrauek izeten die, gogorrauek; barrukuek izeten die asko be fiñauek. Ta harek apartaten zien, ba, aurrez, mordue, igual da, ta haretxi sartu ta haintxe. Harek azpixen ta gero gaiñetik...
- Ardi-lanazkua?
- Ardi-lanazkue. Bai.
- Ta ardi-lanazkuak be, koltxoiak, lana eukiko zeban, ez? Lantzian behin astindu edo...
- Bai, bai.
- Bai. Gero, soltau telioi, etara [hara] kanpora ta jo makillekin, ta harro-harro ein ta...
- Makillekin edo txibittak esaten geuntsen guk, makilla bikotxa.
- Eta zelan esaten detsazu?
- Txibittie. Makilla bikotxa ta goixen bata bestiai juntatzeko narruzko zer bat izeten zan.
- Honek euken hori. Nik ez naban... Nire jaixotetxien ez euen holakoik. Baiña holan...
- Garixe, edo... babie joteko be bai hoixe, hoixe usaten gendun.
- Kanpuen bota baba-otsro mordue ta harekin "bla!" ta "bla!" ta...
- Harekin inddarra emoten jakon doblie baiño gehixao. Bueno! Ta erdixe neke. Emoten jakon bueltan ta jo-ta "blast!", "blast!" joten eban harek, inddarraz jo. Baiñe... ta emoten otsen belozidade bat txibittiaz, esaten geuntsen. Narruzko zer bat eukitten eban goixen, ta jo-ta bueltan "blast!", "blast!" ....
- Ze zan, zeuek etxian eindakua edo...?
- Bai, bai, bai, bai, bai, etxien. Makilla bi.
- Makilla bi.
- Makilla fuerte bi izeten zin.
- Ta holan, ta...
- Koskatxue...
- Koskatxue ipini...
- Koskatxue etaratzen jakon.
- ...ez daixen kanpora urten. Ta handik han narru zati bat ipini ta beste bat. Ta ha bestie goikue juten zan inddarrien kanpora.
- Bai, bai, goikue inddarrien, urrinddik. Ta harek inddar haundixe ta babie be haretxekin joten gendun. Babie asko hartzen zan, ba, lehen.

5.44. Karea zertarako erabiltzen zuten

- **Hizlaria(k)**: Agirregomezkorta Eizagirre, Rosa; Olalde Astarloa, Esteban
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar

- **Erref**: MAL-031/014
- **Iraupena**: 0:04:40. **Hasi**: 00:30:20. **Bukatu**: 00:35:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
  Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- **Laburpena**: Ortuan zer landatzen zuten. Barazkiak. Gaztetan kokorik ez zen egoten ortuan; karea erabiltzen zuten. Inguruan karobiak; karea nola egiten zuten. Harria nondik ekartzen zen.

Transkripzioa

- Dana dala, esan dozue berduria-ta jaten zala, baiña lehen ortuetan-eta hartzen zan gaur besteko... Ba, ez dakit, lekak, porruak...
- Bai, bai, bai, bai. Beti.
- ... zanahorixak...
- Zanahorixie gitxiau.
- Gitxiau.
- ... tomatia, letxugia...
- Tomatia ta letxugie ta horrek bai. Eta lekak eta horrek beti. Guk umetatik ezautu dou hori.
- Bai, baiña lehen tomatie be sartzen zan, landarie ez zan hamen etxien ez gendun hartzen. Hortik, Berrizen euezan hor, [...] hartzen zan.
- Sasoien plazan-edo erosi.
-Bai, landarie eitten gendun. Guk enjeneral...
- Eta piperra be bai beti.
- Bai, beti, baiñe... Ta gero sartzen gendun solo baztarrien goittik behera landarak igual mordue, artotza baztarrien. Ta hantxe heltzen zien.
- Ta oin baiño, oin baiño erreztxua´ hartzen zan, e?
- Bai, bai.
- Oin, bueno! Badao plagatan! Kontra eitteko botikie eta abarra erabili biher!
- Bai, bai.
- Gu gaztiek giñenin botikaik ezeri ez jakon, ezeri be ez jakon botatzen!
- Eske ez euen eta, botikaik eta. Ez euen ta botikaik klaseik!
- Eta hoba; ez egotie sanuaue.
- Bai, sanuaue.
- Hori ez dakit nik harek eitten daben ala zer. Gaixotan badao baztarretan...!
- Baiña lehen karia be erabiltzen zan asko, ez?
- Hori da! Hori da! Ha sanuaue, e! Horrek beste danok baiño.
- Guk karie asko, e! Ze honek lurrek gogorrak die ostantzin ta guk urtin behin edo, urtin baten, kamionkada karia ekarten gendun urtero.
- A! Orduan ekarri eitten zenduen? Hemen inguruan ez zeuan karobirik edo...?
- Ez, hamen ez. Guk, enjeneral, Markiñatik ekarten gendun. Bai, Ittuarte, Markiñako Ittuarte zan ekarten ebana, kamioie beuken, ta berak euken zerak. Ta gero, bestelan, hurrengo hor zeretik, hemen, Atxartetik. Atxarte, Mañarixan aurrera jarraittu hor zerin ta hortxe da´.
- Bai, nik ezautute dauket. Ta han... Ta neri eskolara juten nitzenien, karie eitten be, [harri bola batzuk], harrixek bota...
- A, bai, klaro, karie bai.
- ... ta [halan eitten zan]...
- Hamen, hamen beuezan ni gaztie...
- Laba moduko zer haundi baten, han harrixe erre eitten eben. Ta harekin

eitten eben karie.
- Kare-hatxa izen biher. Bai. Hori Santa Eufemia hatxa dana da kare-hatxa. Horkotxe harrixe da.
- Nungua?
- Santa Eufemikue. Hor Markiñetik hor...
- Bai hemendik be! [Artetatik] eruten eben harek.
- Baitte. Bai, hamen be bai ta [...] be bai hor behetik be Mallebittik. Mallebixan han kurban, Mallebi pasaute, bertan kurban ezkerreko aldetik badao, ba, etxe bat? Oin zera dao han...
- "Cárnicas".
- "Cárnicas", almazenak? Harek almazenak daozan lekuen euen kanterie, holakotxe kare-hatxana, ta handik...
- Bai, bai. Ixen biher dau harri garbixe...
- Bai, bai, bai, harri garbixe.
- ... hortako.
- Hamen Oizen ez dao; Oizen zera dao hare-harrixe, hemen horrek etxiorrek duken moduko harrixe. Baiñe hori diferentie da. Hori, kare-hatxa diferentie da. Ta ha eitten da zerien, zulo baten, egurre bota ta gero gaiñetik zera botatzen jako, harrixe. Ta sue ein. Suek, eta suek erre eitten dau.
- Sue azpixen ta gaiñetik bota harrixoi...
- Ta barrido haxe.
- Ta gero hantxe, erre ta erre, ta gero hautse.
- Ta gero azpittik etara. Parrilla, parrilla bat eukitten eban ta [ha] hautse ta harrixek parrillan geratzen zin, ta azpittik etara gero karie. Ta harek eitten eban hau lurre erre.
- Lurre... harek bai eitten dau errextu.
- Bai, erre eitten dau. Karie balego oin be, baiña ein be ez dabe eitten ta! Ein, leku batenbatzutan bai hortxe Gernika ondun-edo eitten dabe oin be karie. Bai, eitten dabe.
- Bai. Hor... zerak... almazen baten egoten die poltsak.
- Poltsak egoten die...
- Iños ekarri dou ha be. Eta letxugie erein ta ein biher dan lekuen bota ta lurre gozatu eitten dau. Ta pentsetan dot harek...
- Bai, ta kokuek erre. Kokue galtzen dau harek!
- ... kokue be eliminau eitten dabela. Karie ona da, e!
- Karie kokue galtzeko.
- Bai. Eta sanue!
- Bai. Kokue oingo moduen ez euen lehen kokoik hamen gure zeretan.
- Ez, e?
- Kokue erre eitten dau ta! Ha dauen lekun ez da ibiltten bareik!
- Ez. Bareik be ez ta...
- Bareik be ez ta karakolik be ez ta eze... hori beste koko-harra, hori be ez. Ze harek berak erre eitten dittu kokuek eta harek hil eitten die.
- Orduan, lehenaoko produktuak hobiak zian, ez?
- Asko, asko. Bai, bai, bai.
- Garbixauek, garbixauek, enjeneral, karie [ibiltten] zan ta.
- Esan dozu, lurra gozatzeko karia botatzen zala...
- Bai, bai, bai, bai, erre eitten dau.
- Lurra gozatu eitten dau, samurtu, erreztu. Errez-erreza lurra isten dau, solte-solte.
- Soltie gero.
- Bai.
- Eta gero, ongarrixa beti izaten zan simaurra, ez? Lurrandako abonua edo...
- Bai, bai, bai, abonue, abonue.

- Simaurre.
- Simaurra.
- Simaurre. Ta gero landendako ekartzen zan txori-satsa esaten jakona. Orduan txori-satsa esaten jakon.
- Hori hautse jaurtzekue.
- Abonue jaurtzekue.
- Karia modun jaurtzekue.

5.45. Basoak; perretxikoak

- **Hizlaria(k)**: Agirregomezkorta Eizagirre, Rosa; Olalde Astarloa, Esteban
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-031/016
- **Iraupena**: 0:04:00. **Hasi**: 00:36:15. **Bukatu**: 00:40:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
  Euskara » Lexikoa
  Aisia » Mendia eta hondartza » Perretxiko bila
- **Laburpena**: Garai batean hariztiak eta pagadiak. Nahi beste perretxiko batzen zituzten; urritxak eta gibelurdinak batez ere. "Rebolloia"; "onddue"; "kuletrue".

Transkripzioa
- Basuen, ba, haritxek eta paguek eta egoten zin.
- Haritxek eta paguek basun.
- Hagaittik egoten zin ordun perretxikuek, urdiñek eta urritxek, edarrak.
- Bu! Jan ezinddeko beste perretxiku batzen gendun guk ordun. Jan ezindde perretxikue! Bai. Etxetik urten ezk´o, perretxikue? Bueno! Ta ganauek larr´a eruten genduzen goxien, ta txapelakin, txapela bete perretxikokin etx´a.
- Eta ze perretxiko izaten zian orduan?
- Urritxe ta gibel-urdiñe ta onddue [betik ez].
- Onena.
- Urritxe ta gibel-urdiñe, haretxek izeten zien.
- Ordun ez zan ezautzen robilloie-ta.
- Ez, ez, ez, ez. Robilloie oin, ointsuen ezautu da hemen.
- A, bai, e?
- Bai. Ta guri erakutsi oskun robilloie ze zan nire lehengusu batek. Praillie zan, Perun egon zan bera, euen --hortxe [Apottekue]; Apotteko Felipe--; hona etorri zan baten. Ta hortaxek, Trabak´a giñoiezen erromerixa´ edo, ta gurekin joien hametik.
- Ez, San Martiñen errosarixue.
- Edo San Mar... A! Zeoze, behintzet, horrutz giñoiezan hortxe goiko kamiñun, ta bera konbersaziño horretxeaz ta berak [...]. [Bajatu] zan kamiñuen goittik behera piñudire [hementxe], hortxe kamiñuen goittik behera bajatu zan piñudire ta haintxe topau eban, ta "Honetxek dittuk". "Mekauen", esan nutsen "holakuk han gure piñudi baten baitte kamionkada bat be egongo zuan, ba, saso´ baten!", ta "Bai?", ta "Bai! Bueno!". Jo-ta hankapien kendu ezindde robilloie! Baiñe ez gekixen zer zan! Ta orduntxe haretxek erakutsi oskun jaten ta oin harrezkero...
- Oin topau ezin!

- Oin topau ezin!
- Nahi baiña ezin oin?
- Ez. Baiñe hori be hazten da piñudixek biher dau hor, dozena bat urte ingurue biher dittu emoten hasteko hori robilloioi.
- A, bai, e?
- Bai. Ta hobeto, gaiñera, aurretik solo edo holako ibili, ta gero piñu sartutako lekun hazten da gehixen. Gero gastauz juten da; piñue haundixe hazixez gastauz juten da. Bai. Hamen be hortxe daz piñudixek eta lehen asko hazten zan ta oin bape ez [da´...].
- Eta zuek, orduan, igartzen dozue perretxikuak be gero eta gutxiao darela edo...?
- Hori bai, behintzet. Bueno, segun. Segun zelako edadeko piñue dauen.
- Baiña, ez dakit, honguak lehen beste dare edo gastatzen...?
- Hongue pasa dan urtin asko egon da itxurie.
- Bai, bai, piñudixetan egon da, baiña orduen onddue egoten zan...
- Haritxe dauen lekun.
- Haritxe dauen lekun.
- Arbolie dauen lekun.
- Tantaixe, enjeneral. Tantaixek-eta hemen danien egoten zan, ba. Orduen piñurik ez euen ta!
- Bai, hori...
- Hamen piñurik ez euen.
- Oin hirurogei urte ta be ezautu gendun onddue. Bueno...!
- Bai, onddue asko egoten zan.
- Bai.
- Bai, baiña, enjeneral, horixe, hortxe, hor goixen be tantaixek egoten zien asko.
- Eta horrek oingo kerten-luziok barik potoluek ta azpi-zurixek. Harek, harek izeten zin ondduek ederrak!
- Kirtena sendue, sendo-sendo [kirtena], altura gitxi ta bal-bal-baltza geiñie ta onddue, ha izeten zan onddue.
- Piñudikue, enjeneral, kerten-luziaue da.
- Bai, bai.
- Eta zeuek ezautzen dozue edo sasoi baten biharbada gehixao ikusiko zan, perretxiko bat gorriska dana?
- Bai.
- Eta oso estimaua...
- Kuletrua edo esaten jakona? Bai!
- Kuletrua? Zuri-zurixe [...] lehelengo...
- Gorringua, ez? Emoten dau arrautza-gorringua dala...
- Bai, bai, bai, arrautza gorringua [lantxik].
- Bai, bai, bai, guk umetatik [ezautute] hori.
- Gero zabaldu eitten zan. Ha gaiñeko [...] tela zurixe apurtzen jakon, ta ordun, ha apurtu [aldin] izeten zan zeindde pelotie [latxik]. Ta gero zabaldu eitten zan, zabaldu-zabaldu-zabaldu eitten zan.
- Bai. Ordun be bai, ta oin be bai. Oin ba haxe ha.
- Bai, baiña oin topau be...
- Oin ez dakit nik piñuaaittik ala zegaittik...
- ... Ez dot jun dan urtietan be. Ez dot urtietan be ikusi!
- ... oin ez dou ikusi. Baiña gaztetan bai.
- Baiña guk gaztetan perretxikue ezautzen gendun... bueno!

5.46. Eskolara joan aurretik esnea saltzera Ermura

- **Hizlaria(k)**: Urkidi Ganboa, Mari Karmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Gonzalez, Esti
- **Erref**: MAL-045/004
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:02:25. **Bukatu**: 00:04:25
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Hoyos, Aritz
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Eskolara Mallabira. Auzo-eskolak. Goizez esnea banatzera joaten zen Ermura eta asto eta guzti joaten zen eskolara.

Transkripzioa
- ... eta etzakixenat, hiru lekutan egoten zala?, behintzat e dantzalekuek.
- Eta umetan eta eskolara?
- Eskolara Mallabire.
- Mallabire etortzen zunan, jutalditxue euan ez?
- A zein neu?
- Bai.
- A gure ama be bai.
- Hire ama be bai.
Gure ama be Mallabire, ordu erdi.
- Ez euan eskolan, porke Artixen eta baeuen ez?
- Bai baiña trabes, ia bide zuzenik barik.
- Bai mendittik eta...
- Bai, bai baiña biderik ez, alrebezau, guk bide zuzenaue, beti Mallabire, Artixera sekule bez, ezeta bez, biderik jakin bez e, juten jakin ez hara, ez. Ta eskolan hasi ba horixe, geu baiño nausixauakin, etxekookin [...] hasi eskolara eta Mallabixen, gero ia etxien beti, premiñie eta ba lehengo, goixez e, esnie partitzen Ermure bajatzen nintzen neu eta eskolia ez galtzeko ba Mallabire asto eta guzti, Ermun esnie partidu ta asto ta guzti eskolara, lotu eskolian ondun astue, da neuk urten arte, gero danok bueltan asturen ondoren etortzen nintzena zen bazkaltzera etxera.
- Pozik?
- Horixen, danak pozik astuan ondoren, gero han barriro atsaldin, ta gero ba bueno, hori buelta handidxek erein barik ba, aitte e berba eitten junan maistriakin eta partikularra emongo dostela atsaldien, goixez e Ermurekue ein eta atsaldien ba bestiek eskolatik urtetzen ebenien, ba partikularra, bueno beste batzuk be bai, lau, gitxi baiña beste batzuk be bai geratzen zittunan partikularrien, ta hantxe illundu arte eskolan.
- Orduan eskoal diñot, Eibartik eskolara goxerdire edo...
- Ermutik.

6. Euskara

6.1. Gerezitara joan zireneko kontakizuna

- **Hizlaria(k)**: , Felix; Gallastegi, Basilio; Goitta, Pedro; Onandi, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: MAL-002/007
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:11:00. **Bukatu**: 00:13:45
- **Multimedia**: audioa online entzungai

- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
  Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- **Laburpena**: Gerezitara joan zireneko kontakizuna. Toponimia.

Transkripzioa
- Beste baten keixak jatera jun giñen, hor, Trabakutik hurrengo tontorrera, han etxie... [...] etxie pasau ta Gomesian. Han, kamiño eskiñan keixa-baltzak, edarrak. Ta, ba, keixara igon dou. Horren anaie, ni, ta hori, Eibarren bizi dana, Eugenio, keixata '. Harek eskupetia, Eugeniok, anaiana, Iñixiona. Ta andriorrek sentidu gaittu keixan ta: "Hona Prin! Prin! Prin, hona, hona! Heldu hórrei! Heldu hórrei!" Ta salto ein dou keixa gaiñetik, ta horri, Lapatzai: "Ekarrik ona eskupetioi". Ta txakurre, ba, hor, hamar bat metrora edo, goratxua '. "Bau-bau-bau". "Danba!", nik. Ta hauxe ein eutsen buztanai, buelta. Ta gero, [horra], Lapatza, mutikuek --zesteru zan aitte, hor Eibarren bizi dana, aitte-- ta tentau harek, Manuelek: "Ta txakurrek, Priñek, ondo jaten jok?", ta "Bai, esnetan ogixe bustitte. Bape ez duke hagiñik ta esnetan busti ogixe ta jaten dau". Ja! Gustora Lapatzako zaharroi. Ta, ba, gero ospa. Ta gero, amak esan bere mutikuoi, ba, txakurrai ze pasau jakon. Tirue bota eutsela bata-batzuk eta... harek ezautu ez gu, urrintxuao egon be ta... Ta gero, hori behekuoi, Ortuzar Txikixe, nobixie euken han, Eltzubixen. Ta harek mutiko gaztiok, ba, zeintzuk izen ete dien edo, basuok errekistatzen. Ta harek Eltzubiko atiek "kirrink" ein dabela ta Ortuzar Txikixe ixen zala. Ortuzar Txikixek kulpak.
- Kulpantiek danak librau.
- "Kirrink" ein ebala atiek ta... Ba, etxera juten zuan, nobixien etxera. Hori [bere etxekuoi].
- Zeuek be dezentiek! Bidexingorra [ixa einde...] hor behetik ziher, ta tranpie ipini [zontsen].
- Zeri?
- Ortuzarri.
- Tranpie ipini!
- Tranpie holakotxie.

6.2. Abarkak nola egiten ziren

- **Hizlaria(k)**: Gerenabarrena Astorkia, Maria; Longarte Gerenabarrena, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-009/015
- **Iraupena**: 0:04:15. **Hasi**: 00:48:00. **Bukatu**: 00:52:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Txopitea, Jon
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Lexikoa
  Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak
- **Laburpena**: Abarkak zelan egiten ziren. Uhala; abarka ziriak. Larrua.

Transkripzioa
- Badakizu zuk, zelan eitten ziran abarkak?
- Bai, nik ez nittun ein...
- Baina, ikusitta bai?

- Ba izeten zen ha be ganauan narrue. Ganauan narrue ipiñi tamaiñuen, bakotza hanka tamaiñokue, ta eitten jakoen ba hauxe zabalera inguru eta holan ein jo ta […]. Honen hertzie ebai eitten zan. Han honek holan ebaidxe holan. Han ebagidxen sartzen eutsen zera uhela. Han, ta geratzen zan gero.
- Horrek, izenik bazekan? Zozkixe edo honi…ez. Honek ze izen zekan?
-Abarka-ziridxe. Ta honi sartzen eutsen, lehen esan dotena, uhela, eta halako uhalak emoten eutsen hanka formie hari narruai. Josten eutsen holan, holan josten eutsen aurreko musturre. Ta gero hemendik honutz, hemendik honutz. Hori honak eñiko hau zera, hari uhelari dana bueltan eitten eben, eta halan ipintten eben. Gero lazuk esaten jakon, lazuk, ba holantxerik, lazue sokie sartzeko ipintzen eutsazan hegaletan abarkiai ta ta sokie sartu eta ibili apurtu artien.
- Pedro: Hau zan erremintti propioa ta hauxe narrun uhela sartute laguntzeko, ez dakizu? Abarka txikidxe esaten jako esan be.
- Maria: Honek berbaz ezin leike aittu be ein.
- Eta narrua ondu eitten zenduen…
- Maria: Narrue, hori narrue, hori izeten zan…
- Sikatu edo…
- Pedro: Kurau ein biher izeten zan.
- Kurau ein biher izeten zan, ez?
- Maria: Hori narruori izaten zen, lehen ba zeziñe eitten zan baserridxetan. Badakizu zeziña? Txahala edo, txahala nekez.
- Pedro: Behidxe edo txahala hiltzen zanien.
Maria: Behidxe edo ididxe edo dana dalakue.
- Pedro: Halanik […] josi. Horman-edo zabal-zabal
- Narrua?
- Pedro: bai. Gero ebai ein biher izeten zan gero burdidxan. Ganauen burutako ta hareaz eitten zien. Abarkiek ba ez deu biher materidxelik asko baia ganauen tirak eitteko-ta lepokue en jeneral zuzen eta sendue, dauenik eta ganau senduena, hari ataten jakozan zuzen-zuzen ebai.
- Eta horixe izaten zen baserri bakoitzian halako narrua ataratzen zan hala?
- Maria: Ez hori eitten zan, baserri danetan ein be ez zittuen eitten horrek.
- Ez? Erosi eitten zan bestela?
- Pedro: Bai. Saltzen bada, baiña saltzen kurtidu ta gozuen e!
- Nestelan baserridxan nun izaten zan ganbaran-edo…
- Maria: Bai, bai. Leku baten…
- Pedro: Baiña ez pentsau bertan txarrauek eitten zinik. Gero zebuakin-eta gozatu eitten zien noberak eta… Gero burtedie esaten dana, burdidxeri eta buztarridxeri eitten jakon aklopaziñue etxin eitten zan. Hareri esaten jakon burtedie. Oin be hor dago gurin, ataridxen hor da buztarridxe beren…
- Titzeko geuzie, honakotxe bueltaku izeten da hori burtedie. Han sartu biher izeten /bizeten/ dau nardiki edo burdidxan burtidune edo dana dalakue ganauek tiretzeko.

6.3. Toponimia; hidronimia

- **Hizlaria(k)**: Mugarza Idarraga, Enrike
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-020/016
- **Iraupena**: 0:04:45. **Hasi**: 00:33:10. **Bukatu**: 00:37:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane

- **Gaia(k)**:
  Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
  Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
  Euskara » Lexikoa
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena**: Iturriak; errekak. "Elgetzuko itturri zaharra". Sorbaldan makila bat jarri eta puntan "edarria" eramaten zen. "Orrospengo itturixe". Orrespengo baserria; izena nondik datorren (berez Pagoeta baserria da). "Eltzubiko itturrixe".

Transkripzioa

- Basarrixan, orduan, bueno, inguruan zelaixak eta basuak eta... Itturri eta manantialik, halan, inguruan ezautzen dozuz? Lehen esan dozu aittittan-eta basarrixan bai, ez? "Elgetzuko itturri zaharra" edo...
- Bai, bai.
- Zeuek hemen, hemen inguruan...?
- Guk hamen... hau lelehelengo hau etxiau in zanien ez euen urik. Ta hamen gure etxetik beste berrehun metrora euen errekatxo bat, "Errekatxue" esaten geuntsen, erreka txikitxo bat. Handitxik ekarten zan egur bat lepuen --gure aitta ta ama ikusten nittun--, ta puntan, egurrien, galdara bat ipinitte: "edarrie". Hortxe museuen duket, edarrie esaten jakona. Edarra bat han, ta bestekaldien beste bat. Edarrie da: goixe duke estuaue ta behie zabalaue. Ta, han, harek goixe estuauek, baibenien, ure, tapaik zelan ez duken, urtetzen ez dotse isten, estuaue da ta. Ta pixkat urtetzen baeban ze ipintten jakon bakizu han edarriai puntan? Idie. Ida berdiek hartu, sartu han, ta idiek ez dutse mobitzen isten, ta harekin ekarten eben. Ta oin hori ure ekarten gendun hori errekatxue-edo ya desaparezidute da´.
- Ene! Sikatu ein da?
- Ez da´. Eske piñuek txupau eitten dau. Hamen asko. Nik ezautu dittudanak beste bat be bai hor harutzatxuao be bai beste bat, itturri bat. Harek bastante aguantau eban. Ointxe kamiñuau in zanien ein eben barrenuekin-ta ya zertu eben, desaparezidu eben. Jun in zan, ze hain euen behien, ta in ebenien barrenuek-eta, urek barrenuek-edo in ezkero, grietak-edo esaten dana zartatik alde eitten dau. Urten eban harek be. Baiñe hor beuen bat.
- Eta hango itturrixan izena gogoratzen dozu?
- Ez, hari "Eltzubiko itturrixe" esaten geuntsen, Eltzubiko itturrixe". Bueno, Eltzubikue bestie, hau "Orrozpengoko itturrixe". Orrozpengo. Baserri bat euen hor izena eukena Orrozpengo. Horrek be ze esan gura dauen esango dotsut.
- Bale. Itxoin, e! Momentu bat. Ia, esan destazu: "Orrozpengo itturrixa", baiña gero, "Eltzubiko itturrixa".
- "Eltzubiko itturrixe" beste bat.
- Ze zeren gertuan edo?
- Bai. Handik beste bostehun metrora.
- Orduan, "Elgetzuko itturrixa" bat zan zeuena, gero "Eltzubiko itturrixa"...
- Ta Orrozpengokua.
- ... eta "Orrozpengo itturrixa". Eta aber, basarrixan historixia, ze...? Bai, izena kuriosua da, bai.
- Orrozpengokue da, hori baserrixoi ein ebenien, hori lehen esan dotenoi euen, ba, Bentie. Lehen esan dot, ba, Trabakua ta Bentie? Ba, harek orduen ipini etsen horri izena, ze zelan euen bertatik lasterrien, "Hor ez bengo". Horrek esan gure dau "Si no estarías ahí" erderaz. "Hor ez bengo. Hor ez baengo. Hor ez bahintz egongo" esan gure dau. Ba, "Orrozpengo", "Hor ez

bengo". Ostantzien, izena dau berak basarrixek "Pagoeta".
- Oseake berezko izan da...
- Berezko izena: "Pagoeta".
- Pagoeta.
- Ipini etsena. Baiñe gero horrek beste baserrixok eta hor ipini etsen "Orrezpengo".
- Kuriosua...
- "Pagoeta". Ta "Pagoeta" dau izena, ipinitte duke izena, ze itxurie behien, hartu etsenien etxien basie --basie, ba, zimentaziñue-- zimentaziñue, ba, pago --lehen esan dotena-- pago-arbolak, pago trotxuekin behie hartu euen itxurie. Ta "Pagoeta" hagaittik ipini etsela entzunde nik gure aittei-ta. Basie etxie eitten hasteko, plataformie esan gure dana, pago mokorrekin, esan gure dana, pago-zatixekin-ta --lehen esan dotena, buztarrixe eitteko-ta tronguekin, erdittik ebaitte-- harekin ein ebela, ta hagaittik ipini etsela izena "Pagoeta".
- Orduan, azkenian, basarri-izenak eta historixa haundixa dake, ez? Hemen inguruan, sobretodo...
- Bai!
- Basarri izena eta gero, gaiñera, beran gatxizena.
- Gatxizena. Hamen behien zerien be...

7. Ekonomia eta industria

7.1. II. Errepublika eta ekonomian aldaketak

- **Hizlaria(k)**: , Felix; Gallastegi, Basilio; Goitta, Pedro; Onandi, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: MAL-002/013
- **Iraupena**: 0:03:55. **Hasi**: 00:22:00. **Bukatu**: 00:25:55
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
  Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- **Laburpena**: Laneko kontuak; baldintzak, seguruak. II. Errepublika aldarrikatu zenean lege berriak irten zirela eta horren inguruko aipamenak. Azken urteotan egon diren aurrerapenak; bizi-kalitatea.

Transkripzioa
- Seguruek-eta lehen, gu biherrin ibilli giñenien [Mallabi-...etan], zazpi pezeta jornala, ta txakur haundi bat segurorekue. Segurue [zer zan be ez genkixan].
- [Monte Pío] esaten eutsen.
- Ta segurue zer zan be ez, ta txakur haundi bat jornaletik kendu eguneko. Ta gero, ba, segi! Ekitteko ordue: zortzirek; isteko, ba, hamabixek edo, ondo. Baiña atsaldien, ordu bixetan ekin ta izerrak urten arte...
- Jainkuen gauzak agertu arte biherra.
- Aldemenekuek bata bestiei esaten: "Ointxe laste [itzuliko] jotsau, jainkuen gauzak argittu dittuk eta". Izerrak argitzen zienien... Ta gero, errelebuen eittia etorri zan treintan. Ta errelebun eittia etorri zanien...
- Trenta y uno.
- Treinta y uno? Trenta y unun. Errelebun eittie etorri zanien, ba, jarri zien lege batzuk, itxurie, aurretik be egongo zien, baiña, ba, ordun, zortzi ordu einddekun "da!" isteko. Ta guk ez zortzi ordu ta ez hamabi, guk esaten

ebenin itxi ta esaten ebenin ekin.
- Harek [...].
- Bai. Ta gero etorri zien... Hori ordenioi errelebun eitteko urten ebenin, ba, orduek. Ta lehenengo kamiñotan [ibili zin] obreruk, hamen, Trabakotik Markiñerako ta horretan argittu zienak, ba, hemen, Barakaldo aldeko ta horko zer batzuk, orduk joten eban momentun erreminttak "bloust" bertan itxi, ta harek ipiñi eben orduetako [asuntu hoi]. Baiña ez euen, gure gazte-denporan ordurik ez euen. Ordurik barik eitten zan biherra, esaten eben moduen. Ta ezer [enojorik] bada, "aiba kontue ta jun etxera". Ta "dda!", pagau bertan tokatzen zana ta etxera! Geur txarto esaten da, baiñe geur geuzak normalao daz, ta normaltzen doiz, gerua normalao doiz horretan asuntuokin, horrekin asuntuokin.
- Orduen be [... bata bestia...] ondo ta.
- [...]? Bai, baiñe orduen, ez bizikleta bat, ez automobil bat... Zakutxue lepun hartu ta kuartillo bat ardau. Botillie bai haundixe, baiña kuartillo bat ardau.
- Zakue burun hartute eskolara be, gero!
- Bai, baiña kuartillo bat ardau hartu biherrerako, ta egun guztiko kuarttillue. Ta eguerdixen erango lukiela be bai, baiña "ño!", illuntziko be tragotxo bat ona dok, ba! Ta itxi. Ta halantxe, miserixie garbixe.
- Miserixie garbixe!
- Zaharrak, erdixek baiño gehixa, gantzontzilloik be ez zeben ebaliko. Gaztiek, emakumiek behiñipehin, ni erremerixan nebillen denporan, ez paparrekoik ta ez besteik ez zeben usatzen. Libre.
- [...] ibili zittuan. Oin, berrogeta hamasei [urtekuk] bertsuak etara zittuen gona motzei. Ta [...melena...]
- A! Melena ta [a la...] beste bat izeten zan.
- Ta hor, horko... Lapatzak, Bermeon dauenak, eitten jittuan horrek.
- Neuk be bai makiña bat neskai! Hamengo kofradixakuei gehixenei [ebatzen] najutsen.
- Melena itxittakuen ze tipotan izeten...
- Melena, hona.
- Melena, gora, gora.
- Ez, [a la razon] gora.
- [A la razon] gora.
- [A la razon] honaiñok goraiñok ebaitta.
- Baiña kokota labaiñaute.
- Melena, zeindde horrek dekon modun. Baiñe bueltan ebaitte.
- Bai, baiña kokota labaiñaute. Kokota garbittu labaiñiaz.
- [A la razon] hori.
- Bai.
- Gurien aitta zana ibiltzen zan ebaten.

8. Iritziak

8.1. Antzinako bizimodua

- **Hizlaria(k)**: , Felix; Gallastegi, Basilio; Goitta, Pedro; Onandi, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: MAL-002/017
- **Iraupena**: 0:00:10. **Hasi**: 00:29:50. **Bukatu**: 00:30:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Arantzeta, Jon

- **Gaia(k)**:
  Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena**: Antzinako bizimoduaren inguruko kontuak.

Transkripzioa
Bai e honek e oin hemen hartuko dittu eta ikasiko dittu, baiñe siñistu eziñeko gauzak diez lehenakuk ondik mordue daz horrek e deklaratzeko.

8.2. Mallabiko antzinako kontuak

- **Hizlaria(k)**: Gallastegi, Alejandro; Gallastegi, Basilio
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: MAL-005/027
- **Iraupena**: 0:01:21. **Hasi**: 00:09:34. **Bukatu**: 00:10:55
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Ibañez, Jon
- **Gaia(k)**:
  Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
  Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- **Laburpena**: Antzinako bizimodua. Idi-probak.

Transkripzioa
- Orduko sagarrak bai konformidadie.
- Bai.
- Hamen e horren etxi baiño beheratxua ziren haritz bi- edo ta beste pago bi-edo aproba dittuat.
- Bai, ordun leku askotakuak proba dittuaz.
- Ta neguen a lantzin pareja bat lotu.
- Bai.
- Etxe bakotxak.
- Bai.
- Ta handik gora, ha Utzunen granjak dauzen etxe aurrera behetik gora.
- Bai.
- Ta ha harrixa han gora altzatzen ebanak zozer zozer ta gero ba e lantzin batek lantzin batek parejak lotute.
- Bai.
- Ha hakin harridxaz gero hor beste aldin, hau bizitza biku da, ta horko gizonai bestien parejak ikusten lan ta Patxiku agertzen da. “Patxiku zeuk be lotu egin biharko dozuz ba!”.
- Bai.
- E ba ba lotu eingo dittut ba ta handik urteten dotse: “Ez horixe ez dozu erungo probara behirik!”, ta andrik arrazo.
- Bai.
- Patxikuk itxi ein bihar ba itxi ta beno...

9. Aisia

9.1. Mallabiko antzinako kontuak

- **Hizlaria(k)**: Gallastegi, Alejandro; Gallastegi, Basilio
- **Elkarrizketatzailea(k)**:

- **Erref**: MAL-005/007
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:08:25. **Bukatu**: 00:10:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Mugarza Martinez, Pello
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Mendia eta hondartza » Perretxiko bila
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- **Laburpena**: Aita perretxikotara. Baserritarren arteko haserreak.

Transkripzioa
Uxarteko osabie ta gure aitte jun sittuan bein perretxikuta, Iñusiñako basora. Beranin esese, bestianin be perretxikuten iñor ibilli daitten apenas gustatze jakuan Ainddiberko etxekandriai, Patxi Ainddiberren amai.
Bat ein juek an osabiek, Patxik eta gure aittek eta asarratittuk Ainddiberko etxekandrie ta Uxarteko osabie. Bata erremarian alde batetik eta bestetik bestie.
Ainddiberko etxekandriek makillie ei jeukan eskuen. Jaurti jutzek golpie makillias eta makilliorrek erremalangie jo. Uxarteko osabiek golpe ei(n) jutzek beste puntetik eta bixek alkarri tireka ibilli sittuan, alkar bensitzen.
Patxik albotik:
- Ortxe ama, aprobau ortxe!- Esate ei jutzan.
Apurke, apurke, Uxarteko osabiek tiretu te tiretu, apurke apurke, erremalangan katittuko espada ainddu ein bier. Ainddu jutzek eta Uxarteko osabiek irebasi.
Éskutatik makillie etautzenien Áinddiberko etxekandriek:
- Beiñ eukaut urrau! - esa jutzan.
Ori ortxe akabatzok.

9.2. Trabakugoiko taberna

- **Hizlaria(k)**: Zelaieta, Evarista
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-016/004
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:04:10. **Bukatu**: 00:05:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Baserri txikia zen beraiena; Evaristak bertan zuten tabernatxoa ume-umetatik ezagutu zuen.

Transkripzioa
- Ta basarrixan tabernia beti euki dozue? Zuk umetatik ezautu dozu?
- Baserri txikixa euen gurin. Gitxi. Tabernatxue, batakin, bestiakin, defendidu eitteko beste. Besterik ezebez. Behi bi egoten zien. Baserri txikitxue, ta tabernatxuoi, ta hortxe. Hortxe.
- Basarri txikixa esaten dozunian, solo gitxi...
- Solo gitxi ta jenero gitxi. Ta diru gitxi. Hoixe.
- Jenero gitxi... Kalera saltzen zenduen zeozer?
- Ez, ez. Guk ez gendun kalera... Ez geunken.
- Ez. Taberniakin ya...
- Ez euan, gaiñera, kalera saltzeko beste. Ez euan.

- Etxerako beste, ta gero tabernakuakin...
- Bai, hortxe. Bizi.
- Tabernara, zuk beti ezautuko zenduan tabernia, jentia, mobimientua... ez?
- Bai, beti. Beti.

9.3. Gerra aurreko urteetan dantzaldiak non egiten zituzten

- **Hizlaria(k)**: Urkidi Ganboa, Mari Karmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Gonzalez, Esti
- **Erref**: MAL-045/003
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:01:45. **Bukatu**: 00:02:25
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Hoyos, Aritz
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Kultura » Dantza
- **Laburpena**: Gerra aurretik Mallabian hiru saloi zeuden dantza egiteko: Errementarianean, Zesteroanean...

Transkripzioa
- Orduan be erromeridxak-era egongo ziren dantzak eta...
- Bai, Mallabixen itxurez e, hiru saloi-edo....
- Euazen e?
- Bai.
- Bueno igual e gerra aurrian, karo gerra aurrien.
- Izan leike
- Errementarixanian, Sesteruanien eta etzakixenat, hiru lekutan egoten zala?, behintzat e dantzalekuek.

10. Herria, azpiegitura

10.1. Mallabiko antzinako kontuak

- **Hizlaria(k)**: Gallastegi, Alejandro; Gallastegi, Basilio
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: MAL-005/008
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:10:30. **Bukatu**: 00:13:40
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Mugarza Martinez, Pello
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
  Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena**: Baserritarren arteko haserreak.

Transkripzioa
Otzoneko artápien léna, Uxarteko osabie ta Seberiano jeuasen alkarrekin. Berue itzela. Geri-Iberreko ama-sémiek, txalas Ermun ixenda, beetik gorutz jatorrasen.
Amak esan ei jutzan Seberianoi:
-Ur apur bat ekarrikustek, mutiko, egarrixek najatok eta?
Seberianok:
-Es, nik es.

Úxarteko osabiek:
-Neuk ekarrikotzut.
-Ia ekarteustan ba!
Ekarri jutzek Úxarteko osabiek ure ta, soose góson bat edo bi emon Úxarteko osabiai. Gero, árek alde ebenien, Seberianok ure ekarteik es, baiñe, gósuk jateko gogue ta gósuk eskatu Úxarteko osabiai.
Úxarteko osabie okerra. Akordau jakok ara estartertza jun da - an sapartaburuk gorri-gorrixek- áretxek sapartaburuk ártzie ta eru jutzesak Seberianoi:
-Amen jukas ba, arek emondako gósuk gure baittuk.
Baietz! Artu eskun da, rraaau! sartu jittuk auen gólpien, erre jutzek aue, Jesus!, gero dana arrantzie ta eskarmentue. Úxarteko osabiek anka. Úrrengo dómekan Ortusarreko etxonduen, Úxarteko osabie ta gure aitte mesetatik etxa, ta Seberianon aitte mesa nausitta. Antxe akordau jajok Seberianon aittai Úxarteko osabie amenasatzie:
-Se eitzan gure Seberianoi lenguen? Se eitzan gure Seberianoi?
Úxarteko osabiek étxeukan beste erremedixoik, kontisu. Obatu jutzek Úxarteko osabiai ormian kontra, rraau! bastartu te, albotik ánka eindde librau suan.
Álan esate juan berak.

10.2. Baserriko ekonomia gerraostean

- **Hizlaria(k)**: Leixarra
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: MAL-007/001
- **Iraupena**: 0:05:03. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:05:03
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Garai batean udal idazkariak baserrietan ereiten ziren gari, arto kopuruak... apuntatzen zituen. Apuntatzearren ere kobratu egiten zuen. Artoa, garia, patata, baba gorria... gerraostean kopuru bat entregatu behar izaten zen. Errazionamendua kalean eta baserrietan, desberdin. Estraperloa.

Transkripzioa
- Garixek apuntatzie pagau ein biher izeten [eben], sekretarixuek kobrau eitten juan ha be, Bustinduik. [...] Bustinduik, hak kobrau zera, garixek apuntetie be berak.
- Apuntetie?
- Bai.
- Apuntetie be bai?
- Geuk e... Bai! Apuntetie pezeta bi [...] harek. Ta beti esaten gendun nik eta Estanisek eta: "Horra? Horra diruik barik ezin lei juen". [...] diruik barik mezie entzuten, baiñe horra ez, horra alperrik [jun biher dok]...
- [...] garixek erun ta, gaiñera, apuntatziarren pagau?
- Bai. [Lehendik apuntatzen ibiltzen zan...]. Apuntatzie kobrau eitten eban hak pezeta bi. Ta babak-eta apuntetie be bai, ta artuek-eta be bai. Ta patatie entregatzen gendun, ta artue be bai ta babie be bai, baba gorrixe be bai berak esaten daben beste. Ta garixek [...] mordue...

- Zuk ez dozu eukiko goguen hori, entregatzen zanik.
- E? Zer?
- Ke, ba! Ez, ez. Neu be justu-justuen akordetan naz [...] eruten zittuena ta...
- Bai, [...] nik.
- Astuaz eruten gendun...
- Horraz neu be akordetan naz, zela [eruten zenduen].
- Astuaz sekula ez garirik, burdixaz.
- A! Babie ta artua astuaz bai.
- A! Babie bai, babie etxera eruten zan ta. Baba gorrixe etxera eruten zan.
- Bai, artue ta babie be bai astuaz.
- Beti egoten zan honen entregua. Ha esaten eben, ba, Franco-k gerria irabazi eban, ta zerak lagundu otsen gerran, horrek zerak, alemanak eta italianuek. Eta gero harek zor haundixek ein, ta harek zorrak pagetako.
- Harek pagetako.
- Harek zorrak pagetako zera zala ha esaten eben. Baiñe... guri ez zoskuen esaten holakoik, baiñe jentik hoixe esaten eban, ta ixen be hartarakoxe, zorrak pagetako gerran lagundu otsenai.
- Zein euen sekretarixo?
- E?
- Mallebin zein?
- Orduen denboran , entregatzen gendun denporan, Bustindui sekretarixue. Bustindui egon zan sekretarixo orduan.
- Hori ez euen ondo eitten Mallebixen, ze entregau Berrizen ta Zaldibarren-ta baiño gehixa entregau biher izeten gendun [laborie]. Ta erreziñua etorten zan asko gitxia; olixu bazan, azukri bazan, ta dana.
- Bai, terreno iguelin Berrizen lako hiru entregatzen gendun guk.
- Hemen, Aldapanekuek eta be Zaldiberrera pasauta euezan [umientzako], umik zienien Franzisko-ta. Ta harei asko be gehixa emoten otsen. Zaldiberren danok baiño gehixa [ume birena] emoten otsen.
- Bai, ba, zonak euezan apuntaute ta hau be "zona rural" zan hau basarrixau ta zona ruralai emoten otsen gitxia asko be.
- Klaro, harek baserrittik hartuko dabela berak jateko lain ta...
- Bai, [basarrixetan hartzen da]. Txarrixa be eukitten dabela ta... baserrikuei gitxia emon...
- Gero, ba, guk be [aurrian sartu] nahi izen gendun, baiña guri ez doskuen emon izen berandu artin. Ta gero, guri be emon oskuen ta geu be hasi giñen han juaten. Baiña denpora gitxixen. Gu hartzen hasi giñenien amaittu ein zan.
- Amaittu zan. Gastau ein biher dabelako emon oskuen guri [...]. Gastau zienien, gehixa ez eben... raziñoik ez zan...
- [...] hiru-lau bider edo [gehixaotan] hartu gendun Zaldiberren...
- [...] gastau ei zan ta.
- Bai, ta [...] zelan juten giñen? Oiñez ordun errez! Oin ezin geike jun baiña orduen oiñez! Ta asko gehixa emoten eben han.
- Oiñez... Oiñez jun ahalan, oiñez jun ta ekarri ahala euki bagendu, ekarriko gendun!
- Neu be junda na [baten baiño gehixa]...
- Orduen [kofradetako-ta litro bat olixo-ta egongo zan ta...]
- ... Erreziñua [emoten eben], eta gero holakotxe etxe bakoitzari tanto bat, jateko olixue, azukria ta, ba, gauza batzuk.
- Bai, bai, gitxi.
- Erdi debalde antxian zela izaten zan ha.
- E?
- Debalde edo zeoze pagauta, zelan eitten zan?
- E, debalde ez! Pagau ein biher [izeten zan].

- Pagaute. Pagaute raziñokue, pagaute.
- Ta gehixao gura baeban...
- Ez dakit zenbat urte izengo dan, ta ahaztu [...]
- Gehixao be [egoten...] estraperluen, baiña estraperlokue karue izeten zan olixue. Orduan litrua hogei duro pagau biher izeten zan. Ta gero jornalien, kamiñotan harri-joten, irabazten genduen hamar pezeta egunien. Ta hogei duro eitteko, badakizu zenbat biher ein bihar dozun? Hamar egun ein biher harri-joten! Litro bi-hiru erosteko [...]. Zure amak be goguen eukiko dau hori. Zuen ama... [...] ama gaztia da zatixa ni baiño... aittek bai, aittek goguen eukiko dau.
- Baiñe amak be bai. Amak be bai, ordureko ezkonduta euen ama be ta.
- Hirurogeta bederatzi urte dauke.
- Deukoz?
- Bai.
- Bai, ni baiño gaztiaue da, baiña... goguen eukiko dau bai hori...
- [...]. Ha zan ona!
- Hori gerra-ostie izengo zan, ezta?
- Bai, gerra-ostie. Orduen urtiek luziek izeten zien, oin arin juten da baiña. Ez olixoik ta ez ogiik eta...
- Olixue hoixe, ta olixue beti biher. Ordun txarrixa hazten zan bai, ta txarrixan koipiaz asko, e!
- Bai, bai, txarrixaz defensa haundixe euen.
- Erosi be iños [...] txarrixan koipie. Eta merke izengo zan [...]. Holantxik, ba. Orduen sasoi ona ta orduen ondo ibiltten giñen.
- Bai, sasoia ta gosie ona...

10.3. Baserriko lanak; urteen joanean egondako aldaketak

- **Hizlaria(k)**: Gerenabarrena Astorkia, Maria; Longarte Gerenabarrena, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-013/011
- **Iraupena**: 0:03:30. **Hasi**: 00:21:10. **Bukatu**: 00:24:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
  Baserria » Baserriko lanak » Garia
  Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- **Laburpena**: Laietan nola egiten zen. Normalean lauren artean egiten zuten. Goldea etorri zenean, aurrerapen handia. Beste aurrerapen batzuk: gari-garbitzeko makina... Gari-ebakitzeko makina.

Transkripzioa
- Ta zenbaten artian eitten zan orduan...? Laixarixak zenbat izaten zian? Biñaka edo...?
- Ez. Lau, en general, izeten zan. Zohixe. Lau edo, bestela, bost, baiña... Lau edo bost. Handik gora [ez zan izeten], ze alkar hartu ein biher izeten eben. Danak batera ein biher izeten eben. Ta batera eitten ez baeben, zohixa apurtu ta, ba, ez zan...
- Baiña danak tiretzen baeben, e?
- Bai.
- Buelta guztin.

- Alkar hartzeko , ba, lau edo bost [zohixek]. Ta laixari...
- Dakixenak bostek ondo hartuko eben, e?
- Laixari onak... bai, baiña kosta eitten da hori asko, e? Laixari onak ugeri etaraten eben, e? "Rra!" ta, ba, atzera, "rra!". Sartzen eutsen azpittik laixie ta barriro be haxe. Albora begira egoterik ez zan egoten [...], e? Danak batera.
- Eta hori ze zan, goldia-ta etorri aurretik, ez?
- Gero goldie, gero goldie.
- Enee! Goldie etorri zanien [egon ei zan]...
- Badakizu, ezta, goldie zelakue dan?
- Goldie etorri zanien, bueno...! Badakizu, laixetan...
- "Salvación".
- Bai, ez? Hainbeste esku ez zian biharko.
- Gauza asko, gauza asko... Lehen garixe be eskuz joten eben, ezta? Losie ipinitte ta. Hori ez dakit motorra... motorra be antxiñekue izengo da, e? Matxakie.
- Bai, bai... Nire...
- Baiña gero garbitzeko ta, gari-garbitzeko makiñie. Bueno! Horrek adelantuek, bueno, hemen.
- Nire aittek ekarriko eban [... hona], bueno, lehenengo hona, sozidade modure. Ordun, ba, ha be diru asko kostetan zan, ta eitten eben auzuen hiru-bost-sei edo juntau, danen artien pagau, danak [ibilitte]. Sozioko gauziek [... beti...] zeozer, ta gero itxi etsen horri be.
- Eta hori, zer erosteko? Goldia edo matxakia, motorra?
- Hori?
- Honek gari jotekuaz, jotekuaz dabil hau.
- Jotekuaz nabil.
- Eta, orduan, auzuan, halan, sozidade moduko bat, ermandaderen bat, edo zer zan?
- Bai, bai. Halan juntau ta danen artien ekarri. Baiña beti izen da zeozer: edo batak hau ein dabela, bestiek hori ein dabela... Dana dala, holan, ba, urte batzutan segidu eban, behintzet.
- Bai, [bide galantin] be. Gero, oin, [azken aldien] be bai, Longa aldien hori sozidadien egon zan.
- Bai, bai.
- Gari-joteko...
- Ebateko makiñie be etorri zan gero, garixe ebatekue.

10.4. Trabakugoiko taberna

- **Hizlaria(k)**: Zelaieta, Evarista
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-016/005
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:05:00. **Bukatu**: 00:06:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
  Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Tabernara nor joaten zen: baserritarrak; harakinak... Ondarroa eta Bilbo arteko bidea egiten zuen autobusa ere bertatik pasatzen zen.

Transkripzioa
- Ezautuko zenduan tabernia, jentia, mobimientua... ez?
- Bai, beti. Beti. Ordun diferente zan: jente guztixe oiñez ibiltten zan. Ez euen... Batenbat bizikletan edo holakon bat bai, baiñe oiñez. Ta iguel etortzen zien baserrixetara, ba, karnazeruek, Eibarkue edo Durangokue edo, ba, txahalak ikusten --aber zelako txahalak deukozen erosteko-- edo beste baserri batzutara, ba, arbolak ikusten --lantaixek-eta erosteko--. Holako jentie.
- Eta bertatik pasatzen zian eta...
- Harek, ba, iguel eitten eben jatordutxo bat edo batzuk gaba be bai. Hara urriñeko baserrin batera jun ta, ba, bueno, bertan geldittu lo eitteko. Hurrengo egunin jun.
- Orduan, lo eitten-ta geratzen zian?
- Bai. Autobuse bai. Autobuse beti egoten zan Bilborakue.
- Umetan be ezautu zenduan?
- Beti ezautu dot. Ondarroa-Bilbao. Hori betiku zan.
- Eta jentia, oiñezian, batetik bestera pasatzeko ta batzutan gaba pasau bihar...
- Bai. Berandutu eitten bajakuen, ba... gaba pasau ta hurrengo egunien juen. Batzuek hori.

11. Politika

11.1. Eskolako kontuak gerra garaian

- **Hizlaria(k)**: Zelaieta, Evarista
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-016/014
- **Iraupena**: 0:04:25. **Hasi**: 00:35:35. **Bukatu**: 00:40:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Eskolako kontuak. Maria Aristondorekin ikasitakoak. Gerra garaian Zengotita auzoan zegoen irakaslearen inguruko kontuak. Abertzaleak izatearren desterratuta.

Transkripzioa
- Profesoria ona.
- Zeuen kasuan, orduan...
- Bai, profesoria ona, ona. [Hari] nik ezin [neike] kejarik emon. Ezin leike.
- Denpora askuan jarraittu zeban berak edo...?
- Eingo zittuan lau edo bost urte.
- Ze izaten zan, batetik bestera bialtzen zittuen edo...?
- Nik ez dakit, harek [plazaik] fijua eukiko eban ta. Batetik bestera bieldu edo beste batzuk eurek juen leku hobiaue egoten bazan, ze iñok ez eban gure izeten hor mendi-musturretan egoteik. Baiñe ha egon zan. Ba, gerra-denboran bakixu ze pasau zan? Maistra on bat euen beste eskola baten, Zengotita. Ta hori maistrioi nazionalistie zan. Hori kastigau ein eben. Kastigau ein eben, Francok, e! Gerra-denporan. Hori ta beste bat. Mallebiku zan bestie be, Mallebiko maistra bi. Klaro, hori ezkonduta euen, ta baeukezan lau ume edo bost be, ta hori ezin zan juen, Soria aldera edo

horra bieldu zittuen. Ta bestie solterie zan ta jun zan beste maistrie.
- Desterrauta moduan?
- Bai, desterraute. Esan eutsen lekure. Ez dakit, ba, urte bat edo bi edo dana dalakuek haintxe ein biher. Hori ez zan juen. Bueno, bestie jun zan, ein eban bere denporie ta etorri zan. Ta gero, hemen Mallebixen-edo emon eutsen numaitten eskolie. Ta hori ez zan juen. Ta horrek etxin emoten eban eskolie. Nire semiek horretxekin ibili zien Berrizen. Ordun epokan Berrizen bizi giñen urte bat edo, sei urte ein genduzen ta. Preguntau oin be nire seme nausixai hori maistrioi zelaku zan. Preguntau!
- Zelakua?
- Ona! Erakustaillie! Berrogeta hamar urte daukez nausixek ta hantxe ibili zien horretxekin eskolan. Ta hori kastigaute egon zan ta ez zan juen. Ezin zan juen. [Ha] ume txikixekin nora jungo zan, ba? Ta gero, ba, Berrizen emoten eban, ba, eskola partikularra atsaldetan. Ta honako lokal baten kajoitxuk-eta ipini --ez zeuken beste lekurik eta--, ta pasilluen ta... Ume asko eukitten eban gero Berrizen!
- Bai, e? Partikular?
- Partikular. Ume asko. Holakotxe maistrie zan hori be. Hori be zan diputaziñuan maistrie egon zana. Ta kastigau ebelako alde ein biher eban horrek, nazionalistie zalako. Ta hori ezin juen, ta gero etxien.
- Halako kasuak, desterrautako jentia, bai maistra edo abaderik-edo tokau jatzuen inguruan?
- Ez. Horretxena dakit, horretxena. Ta gero tokau jaku, ba, umiek, gurien bixek umiek horrekin ibili zin Berrizen. Harengana juten zien gure modukuek, persona [bajuau] euzenak, industrialen umiek be bai, danetarikuek juten zien harengana maistriangana. Oin hil zan. Merezi, horixe bai merezi ebala!
- Zelan zekan izena? Akordatzen jatzu?
- Ines. Bai. Ines zan hori.
- Rekuerdo ona orduan horrena be?
- Bai.

11.2. Mallabia inguruan zeuden errotak; gerra ondorengo urteetako egoera

- **Hizlaria(k)**: Mugarza Idarraga, Enrike
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-020/002
- **Iraupena**: 0:03:05. **Hasi**: 00:00:55. **Bukatu**: 00:04:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
  Baserria » Baserriko lanak » Garia
  Lanbideak » Polizia
  Baserria » Baserriko lanak » Errota
- **Laburpena**: Garia kutxetan gordetzen zuten eta errotara zakuetan eramaten zuten. Inguruko errotak: Iruzubieta; Berrizen ere errota bat zegoen. Gerraostean errotak prezintatu zituzten. Herrira entregatu behar izaten zen garia. Errazionamentua. Durangora eramaten zituzten inguruko gari guztiak. Ziortza aldera, San Cristobal ondoan, Mauma errota. Guardia zibila.

Transkripzioa
- Esan dozu, garixa kutxetan gordetzen zenduela...
- Bai.
- Eta gero, gari hori errotara eruateko, zakuetan...?
- Zakuetan ipini.
- Zaku hori ze izaten zan? Zelakua izaten zan?
- Ba, zakue [izeten] "de"... espartzuzkue, "esparzo".
- Normal-normala edo...?
- Normala, bai.
- Toki batzuetan entzunda dakat zaku hori izaten zala normalian baiño fiñaua. Zeuenian ez?
- Bai, bai, bai, bai. Fiña izeten zan, hari fiñauaz izeten zan. Gaur [izen] holako zakurik ez da egoten, e! Egon eingo die, baiñe gitxi. Gaur dana da plastikozkua!
- Baiña orduan errotara eruateko zakuak. Eta hemen inguruan ze errota edo...?
- Hamen, Iruzubietan bat; beste bat Berrizen be bai. Ta gero, gerra-ostien, honek errotok... Klaro, gerra-ostien etorri zan dana razionamentue, ta zerrau ein zittuen, prezintau, errotak, jentiek erun ez deixen. Ze geuk be hogei anega garixe hartu arren, hamazortzi herrire entregau biher izeten geuntsan. Hogei anega hartu ta hamazortzi herrire entregau biher. Gerra-ostien zan hori. Dana euen razionamentuen: olixue razionamentuen, jaboie razionamentuen, lentejak razionamentuen... Ta, ba, garixe leku askotan ez zan egongo, ta, ba, izengo zan hori, ba, hara eruteko ta, ba, batuko eben. Ordun be eingo zittuen negozio zerak, baiñe...
- Orduan, gerra-ostian errotak itxitta egon zian, edo prezintauta?
- Prezintau batzuk be ein zittuen. Ta gero, ba, eurak eukezan ipinitte. Durangon euen bat "Lapikona" esaten eutsena, ta hara erun biher izeten zan. Kamioi bat etortzen zan, ta hara eruten zittun garixok urune eitteko. Hori zan, ba, ez eruteko beste leku batzutan. Ta gero, ni ez nitzen jun, baiña gurien anaie-ta be bai junda euezan, hamen Gerietik harutz, "Maume" esaten eutsen, han, "Maume"-ra errotara. Gabien errotara.
- Geriatik harutz, norutz, baiña?
- Ya zeren parterutz, Ziortza parterutz; "Maume" esaten eutsena, San Kristobal onduen, handikaldetik. Ta, ba, gabien jun biher, ze Guardia Zibillek urtetzen eben igul, ta kendu eitten eutsen. Harrapatzen baeben, garixe kendu; gari barik etx(e)a, astuakin bakarrik. Ta, ba, gabaz jun biher. Ta ni ez nitzen jun, e! Baiña gurien anaie-ta bai, junda euezen. Bai, gerra-ostien gauzie bastante gaizki eu(e)n. Gaizki. Nik beti esan dot: "Halakorik ez daixela etorri".
- Gerria beti da gogorra, ez?
- Bo! Bo!
- Gauza onik ez dau ekartzen...
- Ez, ez.

11.3. Etxejabeari ordaindu behar izaten zitzaion errenta nolakoa zen

- **Hizlaria(k)**: Meabebasterretxea, Maria; Sarasua, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: MAL-024/003
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:02:30. **Bukatu**: 00:05:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane

- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- **Laburpena**: Errentan zeuden baserritarrak, nagusiari garia eraman behar izaten zioten eta gainera dirua ere ordaindu behar izaten zitzaion. Gabonetan, kapoiak eta garo burdikara bat ere. Gerraostean, herrian ere garia entregatu behar izaten zen. Abadeari garia eramaten zitzaion baita ere.

Transkripzioa
- Eta errentan bizi zianak, ez dakit, loturaren bat zeken jabiakin?
- Errentan bizi zienak? Guk, behintzat, garixe eruten gendun; setencientos ez dakit zenbat kilo urteten eban zortzi anegak, ta beste zortzi pagau itten genduzen ondiok. Ta beste hogeta lau euro, ha errenta moduen zan.
- Hogeta lau euro ez. [...]
- Bai, "ciento veinte pesetas". Ta gero, kontribuziñuek be geuk pagau biher. Oin kontribuziñoik... Bai, oin be badaz, etxiana, baiña basuanik-eta ez dao oin ta...
- Alkiler bat.
- Alkilerrien pagau in bihar noberak!
- Eta esan dozu garixa emoten zetsazuela?
- Garixe be bai. Ta gero etxerako palta. Hara ta herrire ta abadiai be bai beste apur bat eta...
- Oseake garixa jende askondako, ez?
- Ta baztarra guztixek gari-eraitten. Garixe edo artue izeten zan lehen. Gero, ba, landa in zienien, bedarra ebaten gero, geratu barik. Ta gero siketzen-ta aspertu zanien, siluek.-eta in genduzen. Ein genduzen...guk baiño aurretik beste batzuk be bai, ta guk be laster txamar. Ta oin harek be hutsik daz...
- Esan dozu jabiari garixa emoten zetsazuela, zortzi bat anega edo, eta hori noiz izaten zan? Urtian ze sasoittan?
- Ba, hartzen zan ingurun erun biher. Garixe jo...saso´ hontan entregau, ze garixek trillatzen zien, ba, San Inaziotarako edo hortara.
- Julio-agosto.
- Bai. Agostun be iños bai, denporaldi txarragaittik atrasaute ta... Urte baten, nik ez neuken urte asko, baiña euri itzelak eindde gehixenak usteldu be ein zittun. Bai. Ta holantxik, ahal zan modun.
- Eta gero Gabonetan zeoze emoten jakon?
- E?
- Gabonetan zeoze emoten jakon etxe-jabiari?
- Guk ez, baiña batzuk baeuken kapoiek-eta eruten eutsezenak. Guk ez. Guk Gabonak orduko... gero hori... A! Ta burkada bat ide be bai eruten geuntsen.
- Garue...
- Bai. Ba, orduntxe eitten zien kontuk, Domu Santu bueltan edo azkenoi.
- Orduan, etxe-jabia...
- Bai, [...] errentie pagatzeko egon bihar!

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Gerea auzoko sakristaua (MAL-002/003)

Gerea auzoko kontakizuna; abadea; sakristauaren inguruko kontuak.

2. Antzinako bizimoduaren inguruko kontuak (MAL-002/011)

Antzinako bizimoduaren inguruko kontuak. Goldea, laia... Goldaketan.

3. Osma auzoa (MAL-002/019)

Osmako erromeria. Auzoetako erromeriak. Neskatan-mutiletan.

4. Artzain Ameriketan; kontakizunak (MAL-003/001)

Ameriketan artzain egon zeneko kontuak. Kamioia izorratu zitzaieneko eguna.

5. Artzain Ameriketan; egun guztian lanean (MAL-003/002)

Ameriketan artzain egon zeneko kontuak. Lana aspertu gabe egiten zuen.

6. Ardizain Ameriketan; artzainen arteko harremana (MAL-003/003)

Bakarrik ibiltzen zen Pedro ardizain. Artzain bakoitzak bere artaldea zaindu beharra. Artzainen arteko harremana.

7. Ardizain Ameriketan; bildots garaia (MAL-003/004)

Artzainaren eginbeharra. Bildotsak. Ugazabaren ardura zein izaten zen.

8. Ardizain Ameriketan; ardi klaseak (MAL-003/005)

Ameriketan artzain egon zeneko kontuak. Ardi buru beltzak, animalia oso argiak.

9. Mallabiko antzinako kontuak (MAL-005/001)

Antzinako kontuak.

10. Mallabiko antzinako kontuak (MAL-005/013)

Baserritarren arteko kontuak.

11. Baserritarren izatea (MAL-007/005)

Antzinako bizimodua. Baserritarren bizimodua, izaera; ez zuten pentsatzen abade, mojei ezer eman behar ez zitzaienik.

12. Baserriko ekonomia gerra ostean (MAL-007/007)

Artoa, garia gerra ostean, oso garesti zeuden.

13. Errotak Berrizen (MAL-007/009)

Errotak Berrizen. Sasoi batean ugariak ziren.

14. Sua baserrietan (MAL-007/011)

Baserriak sua hartzeko arrisku gehiago zegoen antzina. Baserrien egitura. Haize klaseak. Basoak.

15. Basoen egoera (MAL-007/012)

Basoak oso zikinak daude: sasiak... Ardi eta ahuntzek asko garbitzen zituzten basoak.

16. Baserriko ekonomia (MAL-007/014)

Jornalik ez zegoen lehen, eta etxean hazitako txahala garrantzitsua izaten zen diru pixka bat ateratzeko. Baba, artoa, ogia... Txerria haztearen inguruko azalpenak.

17. Abadeen eragina gizartean (MAL-007/015)

Abadeen indarra gizartean. Garizuma garaian egiten zituzten sermoiak.

18. Abadearen inguruko kontakizuna (MAL-007/016)

Sagardoa eta abadea.

19. Gerra Zibileko kontuak; frontea (MAL-008/002)

Gerra garaiko kontuak. 1937an Bilbotik Santanderrera eta handik Asturiasera joan ziren. Tifusa pasatu eta Teruelera. Handik Huescara.

20. Gerrako pasadizoak (MAL-008/003)

Gerrako pasadizoak.

21. Garraioak: lehenengo autoa; motorra (MAL-008/009)

Antzinako bizimodua. Lehenengo autoa, motorra.

22. Antzinako bizimodua; aldaketa ugari (MAL-008/010)

Antzinako bizimodua nolakoa; aldaketa ugari.

23. Goruetan zelan egiten zen (MAL-009/011)

Goruetan zelan egiten zen. Ardatza. Artilearen lanak: garbitu, izpitu.

24. Artilearen inguruko lanak (MAL-009/012)

Artilearen lanak: garbitu, izpitu. Lihoa (linua). Galtzagintza. Ardatza, "txabillia", gorua.

25. Artilearen inguruko lanak (MAL-009/013)

Ardatza, txabilia, gorua. Haria egin eta gero, bihurrak kendu. Galtzetorratzak.

26. Umetako arropak (MAL-009/017)

Umetako arropak. Neguan ez zuten hotzik izaten.

27. Auzoko emakumeak goruetan (MAL-010/004)

Goruetan egiten zuten auzoko emakumeek. Ehulea Berrizen.

28. Linapotzuak eta karobiak (MAL-010/005)

Linapotzuak; karobiak.

29. Linuaren lanak (MAL-010/006)

Linuaren lanak zeintzuk ziren.

30. Linua (MAL-010/007)

Linua. Ehulea Berrizen.

31. Aitaren buru ona (MAL-010/008)

Eskola gutxi hartutakoak. Aitak buru ona; kanta-paperak ikasten zituen eta dotrinan saria jaso zuen.

32. Eskolako kontuak (MAL-010/009)

Eskola zaharra. "Kartzela-etxea", umeak zigortuta edukitzeko txokoa. Zer ikasten zuten. Dotrina. Ordutegia.

33. Umetako jolas batzuk (MAL-010/010)

Jolasak: txilin-txilinka, losa-losaka, aponak, presoka, sokasaltuan, txirikilarekin...

34. Arreoa gurdian (MAL-011/001)

Biografia. Donatz baserrian jaiotakoa, grabazioa egin zenean 93 urte. 8 anai-arreba. Baserriko bizimodua. Anaia ezkondu zenean arreoa gurdian nola eraman zuten ondo gogoratzen du.

35. Jaunartzearen inguruko azalpenak (MAL-011/005)

Jaunartzearen inguruko azalpenak.

36. Erromeriak ermita inguruetan (MAL-011/006)

Ama Juana eta aita Juan José. Erromeriak Trabakuan; ermita inguruetan. Mallabiko ermitak. Lehengo bizimodua; konformidade gehiago.

37. Lixiba nola egiten zen (MAL-011/007)

Lixiba nola egiten zen. Hautsa, ereinotza, e.a. Etxean jabonadura egin eta errekan jo egiten zen.

38. Laietan nola egiten zen (MAL-011/008)

Laietan nola egiten zen. Esku bakoitzean laia bat; 4-6 lagun ibiltzen ziren.

39. Amak artilearekin egiten zuen haria (MAL-011/009)

Mallabiko ehulea. Linuzko arropak; haria nork egiten zuen. Amak artilearekin egiten zuen haria.

40. Umeen arropak (MAL-011/010)

Artaldea baserrian. Artilearekin haria nola egiten zen. Oinetakoak, abarkak. Umeen arropak, amak egiten zituen.

41. Emakumearen bizimodua (MAL-011/011)

Emakumearen bizimodua, lanak. Gaur egungo egoera.

42. Eskola kontuak (MAL-011/013)

Eskola kontuak. Adin desberdinetako umeak elkarrekin. Jolasak.

43. Umetako jolasak; tortolosak (MAL-011/014)

Umetako jolasak: tortolosak.

44. Berrikuntzak baserrian (MAL-011/015)

Umetan baserrian egiten ziren lanak. Berrikuntzak: ura, argia. Ermutik ekarri zuten argindarra.

45. Gari-jotzea, auzolanean (MAL-011/016)

Gariaren inguruko kontuak. Gari-jotzea, auzolanean.

46. Okina baserriz baserri (MAL-011/017)

Artoa. Errota, Berrrizen. Okinak joaten ziren baserriz baserri garia erostera.

47. Baserri-jabeak, errenteroak (MAL-011/018)

Baserri-jabeak; errenteroak. Antzina, garitan ordaintzen zen errenta.

48. Jai handiak auzoetan (MAL-011/020)

Abadeak: Don Luis; Don Alejandro. Jai handiak egiten ziren auzo bakoitzeko festa egunean.

49. Elkartasun handia (MAL-011/022)

Baserriren bat erretzen zenean, laguntasuna. Etxe-erre batzea. Etxeginak.

50. Alfara lanera (MAL-011/023)

Baserriko gizonak lantegietara lanera. Mallabiko baserritar asko Alfan hasi ziren.

51. Eibarrera merkatu plazara (MAL-011/024)

Herrira saltzera. 10 bat lagun elkartu eta Eibarrera joaten ziren. Astoa non lagatzen zuten. Eibarko plaza oso garrantzitsua.

52. Agrariako batzarrak Trabakuan (MAL-011/025)

Agrariako batzarrak baserrietako emakumeentzat Trabakuan. Auzoko emakume guztiak joaten ziren DKV-an bertara.

53. Hil-kanpaia (MAL-011/028)

Mezak noiz izaten ziren. Kanpaiak. Hil-kanpaia. Hildakoa gizonezkoa bazen, kanpai gehiago joten zituzten. Umeren bat hiltzen zenean, kanpaiak desberdinak izaten ziren.

54. Bataioa; ume txikien arropak (MAL-011/029)

Bataioa. Ume txikien arropak.

55. Mutilen jolasak (MAL-011/030)

Mutilen jolasak.

56. Ira batzera Oizera (MAL-011/031)

Ira-batzera Oizera joaten ziren. Erabiltzen zituzten tresnak.

57. Gerra ostean kaletik baserrietara jatera (MAL-011/032)

Gerra ostean ez zuten goserik pasatu. Zer jaten zen. Kaletik jendea joaten zen baserrietara jateko eske.

58. Eibartik Mallabira gerra garaian (MAL-011/033)

Gerra garaian, Eibartik jende asko Mallabira joan zen. Bertako baserrietan pasa zuten gerra sasoia.

59. Gerra Zibila Mallabian (MAL-011/034)

Gerra garaia. Tropak beraien baserri ingurutik pasatu ziren. Mallabian lasai pasatu zituzten hilabete gordinenak.

60. Fruta-arbola asko izaten zuten; sagar klaseak (MAL-011/035)

Fruta-arbola asko izaten zituzten. Sagar klase ugari zegoen.

61. Gaztainak (MAL-011/036)

Gaztainak. Inguruko basoetan batzen zituzten.

62. Intxaurrak (MAL-011/037)

Intxaurrak. Intxaur-saltsa nola egiten duen.

63. Sasimedikoak (MAL-011/041)

Sendabedarrak. Sasimedikoak.

64. Mallabiko errementaria (MAL-011/042)

Mallabiko errementaria, Lucio. Perratzailea. Probarako idiak.

65. Basoak (MAL-011/044)

Basoak. Herri-lurrak.

66. Bizimodu aldaketa (MAL-012/001)

Bizimoduaren aldaketa; gai horren inguruko kontuak.

67. Berrikuntzak baserrian (MAL-012/004)

Argindarraren inguruko kontuak. Irratia noiz ekarri zuten baserrira.

68. Berrikuntzak baserrian (MAL-012/005)

Argindar nahikoa ez aparailu guztiak erabili ahal izateko. Estraperloa.

69. Argindarra baserrian (MAL-012/006)

Zentrala nork zaintzen zuen. Argi gorabehera handiak.

70. Garbitasuna baserrian (MAL-012/008)

Amezti baserrira ur-korrontea nondik ekarri zuten. Arropak garbitzera errekara. Garbitasuna. Eskolan zorriak. Batana-belarra zorriak uxatzeko.

71. Ezkontzak baserrietan (MAL-012/010)

Arrioa nolakoa izaten zen. Neskaren etxean bazkaltzen zen; ondoren gurdiak bete eta mutilaren baserrira. Afaria auzokoei. Behiak, gurdiak dotoretu egiten ziren. Errondak. Erromeriak.

72. Ezkontzak baserrietan (MAL-012/011)

Ezkontza. Eztei-bidaia. Ezkontzen inguruko kontuak. Baserria txukundu egiten zen.

73. Ezkontzak baserrietan (MAL-012/013)

Ezkontzak. Sukaldaria eramaten zen baserrira. Zer jaten zen. Erromeria gauean.

74. Soinujoleak (MAL-012/014)

Soinujolea ezkontzan. Soinujole ezagunak: Modesto; Zelaieta, "Trabaku"...

75. Mallabi inguruko erromeriak (MAL-012/015)

Eibarko orkestra batzuk Mallabira joaten ziren, Trabakuara. Trabakuako erromeria, itzela. Markina, Barinaga, Berriatua, Munitibarren ere erromeria ezagunak. Elizaren eragina. Erromerien beherakada. Bizimoduaren aldaketa.

76. Erromerien beherakada (MAL-012/016)

Jendea kalean lan egiten hasi zen; bizimodu aldaketa. Erromerietan mutilek sarrera ordaindu behar izaten zuten. Soinujoleak plaza ordaindu behar.

77. Neskatan erromerian (MAL-012/017)

Erromeriak. Kalabazak mutilei. Neskatan-mutiletan.

78. Arreoa gurdian baserrira (MAL-012/018)

Arreoa. Gurdian eramaten ziren gauzak. Hiru gurdi joaten ziren normalean.

79. Bizimodu aldaketa ezkondu ostean (MAL-012/019)

Ezkondu osteko bizimodua. Baserri berrira egokitu beharra.

80. Gazte asko moja/fraide joaten ziren (MAL-012/020)

Baserriko neska asko moja sartzen ziren. Fraideak baserrietara mutil eske. Auzoaren inguruko azalpenak.

81. Lehengo bizimoduaren aldaketa (MAL-012/022)

Bizimoduaren aldaketa. Lehenago familia handiak, ume asko.

82. Ume asko Gerea auzoan (MAL-012/023)

Garai batean ume asko egon zen Gerea auzoan, eta eskolan guztiendako tokirik ez.

83. Eskola-zaharra (MAL-012/024)

Eskola zaharra. Abadea izaten zen irakaslea. Kartzela-etxea. Zigorrak.

84. Laietan nola egiten zen (MAL-013/009)

Baserriko lanak: laietan nola egiten zen.

85. Baserriko lanak: lurreta (MAL-013/013)

Lurra altxatzeko karroak. Polea batekin egiten zuten lurreta. Baserri bakoitzak ahal zuenean egiten zuen lan hau.

86. Ferratzaile eta errementariak (MAL-013/018)

Anaiak perratzaile lana egin zuen. Mallabiko ferratzaile eta errementari zaharra, Lucio. Lehenago ganaduak asko perratzen ziren, baina gerora lana gutxitzen joan zen. Berrizen ferratzaile famatua zegoen.

87. Mallabiko errementaria (MAL-013/019)

Errementariaren lana zein izaten zen. Arotzeria lana ere egiten zuen.

88. Errementariak baseriko tresnak egiten zituen (MAL-013/021)

Errementariaren lana. Baserriko tresnak egiten zituen. Olarriagan ere errementaria zegoen.

89. Emakumearen bizimodua baserrian (MAL-013/024)

Emakumearen bizimodua baserrian. Lehenagoko emakumeak baserri batera ezkondu eta neskame bezala egoten ziren. Etxekoak zaindu behar...

90. Mallabiko euskararen berezitasunak (MAL-013/027)

Baikontizu; ezkontizu.

91. Trabakuan egiten ziren apustuak (MAL-014/003)

Lehenagoko apustuak. Ahari-probak. Auzoen arteko norgehiagoka. Trabakuan egiten ziren apustuak.

92. Lehiarako ahariak nola zaintzen diren (MAL-014/004)

Ahariak nola zaindu behar diren probetarako direnean.

93. Ahari eta idi-probak; idiak nola zaindu (MAL-014/007)

Ahari-probak; idi-probak... Ermuan, Mallabian... egiten ziren idi-probak. Toki askotan galdu egin dira probatokiak. Idi-probetarako idiak nola preparatu behar diren.

94. Idi-probetarako idien ezaugarriak (MAL-014/008)

Idi-probetarako idi bereziak behar izaten dira. Indartsuak bai, baina plazan egoten jakitea ere garrantzitsua izaten da.

95. Astoa garrantzitsua baserrian; asto-probak (MAL-014/009)

Asto-probak. Auzoko parrokian probalekua dago eta bertan egiten zituzten asto-probak. Lehen astoak oso ugariak izaten ziren; oso garrantzitsuak baserriko lanetan laguntzeko gainera.

96. Herrira zer eramaten zuten saltzera (MAL-014/010)

Herrira zer eramaten zuten saltzera.

97. Bizikletan herrira erosketak egitera (MAL-014/011)

Bideak nolakoak izaten ziren. Herrira saltzera joateko egin behar zituzten komeriak. Bizikleta baserrietan. Erosketak egitera bizikletaz nola joaten ziren.

98. Bizikletan herrira erosketak egitera (MAL-014/012)

Bizikletan herrira erosketak egitera. Garraioak.

99. Sagarrak lasto artean kontserbatzen zituzten (MAL-014/023)

Sagarrak lasto artean kontserbatzen zituzten.

100. Ur-sagardoa nola egiten zuten (MAL-014/030)

Ur-sagardoa nola egiten zuten.

101. Ardorik ia ez zen edaten baserrietan (MAL-014/032)

Mutikotako kontuak. Ardoa nondik ekartzen zuten. Lehenago ez zen ia ardorik edaten baserrian.

102. Ira-batzeren inguruko kontuak (MAL-014/034)

Ira-batzearen inguruko kontuak. Gaztetako ibilerak. Sorgin-haizea.

103. Garoaren garrantzia; zertarako erabiltzen zen (MAL-014/035)

Garoaren garrantzia baserrian. Zertarako erabiltzen zen. Karea ere gurdian ekartzen zuten. Karea oso arriskutsua da euria egiten duenean.

104. Karea nola egiten zen (MAL-014/036)

Lehenago etxe askotan karobiak egoten ziren. Karea nola egiten zen; harria ere berezia izan behar zen.

105. Ohitura zaharrak; hilarriak (MAL-017/001)

Ohitura zaharrak. Hilarriko trapua nolakoa izaten zen. Kandelak. Elizaren indarra.

106. Baserri bakoitzak bere hilarria (MAL-017/004)

Ohitura zaharrak. Baserri bakoitzak bere hilarria izaten zuen elizan. Meza garaian, etxekoak hilarriaz "jabetu" egiten ziren (kandela piztu; etab.). Arimen sepultura.

107. Hileta-elizkizunak; kanpaiak (MAL-017/005)

Klase desberdinetako hileta-elizkizunak. Kanpai-hotsak. Hil-kanpaia.

108. Seinaleak baserri batetik bestera (MAL-017/006)

Garai batean baserri batetik bestera seinaleak jartzen ziren. "Zapixe". "Biharkuntza"ren bat zegoenean, aditzera eman behar izaten zen.

109. Elizakoak ematera etxera (MAL-017/007)

Abadea elizakoak ematera joaten zen etxe eta baserrietara.

110. Medikuaren garrantzia (MAL-017/008)

Medikuaren garrantzia. Garai batean garbitasun gutxi etxeetan. Ur-korronterik ez.

111. Baserriko bizimodua; fraideak ume eske (MAL-017/010)

Baserriko bizimodua zelakoa. Lan eta lan; umeei ere lan asko eragiten zitzaien. Neska-mutilak neskame, morroi, fraide... Fraideak ume eske joaten ziren baserrietara.

112. Errenta-ordaintzea (MAL-017/011)

Etxe-jabeak; errenteroak. Batzuk garitan; beste batzuk dirutan ordaintzen zuten errenta. Santo Tomas egunean izaten zen errenta-ordaintzea.

113. Errentaren ordainketa; baserriko bizimodua (MAL-017/013)

Lege bat ere jarri zen, errenteroak baserriak erosteko aukera ematen zuena... Errenta noiz ordaintzen zen; zerekin... Baserriko bizimodua. Soroan lan asko egin behar zen bizimodua aurrera ateratzeko; garo-batzea; gana-jatekoa...

114. Haragia gatzetan ipintzen zen (MAL-017/014)

Baserria nolakoa zen. "Gatzunaskie". Haragia gatzetan nola ipintzen zen. "Gatz-barrittu".

115. Oremahaia (MAL-017/015)

Oremahaia. Kutxak.

116. Emakumezkoen arropak (MAL-017/016)

Emakumezkoen arropak. Gona luzea; amantala, "baskie". Buruko zapia. Kopetak. Abarkak; zapatak...

117. Gizonezkoen arropak; jostuna (MAL-017/017)

Jostuna, baserriz baserri ibiltzen zen. Ama ere jostun izandakoa. Gizonezkoen arropak: frakak eta txalekoa; alkandora.

118. Umeen arropak (MAL-017/018)

Umeen arropak. Ume jaio berrien inguruko hainbat kontu.

119. Erditzeetan auzoko emakumeen laguntza (MAL-017/019)

Ume txikiak nola hazten ziren. Ume asko erditzeko garaian hiltzen ziren. Partera, emaginak. Auzoetako emakumeak izaten ziren baserriz baserri ibiltzen zirenak laguntzen.

120. Bataioak; ohitura zaharrak (MAL-017/020)

Ume jaioberriak ahal bezain laster bataiatzen ziren. "Batiue": ama ondo jartzen zenean, senide eta auzoko andreei ematen zitzaien merienda. Eliza-sartzea. Ohitura zaharrak.

121. Ur-korrontea; argindarra (MAL-017/021)

Ura; argindarra etxean. Karburoa; petrolioa.

122. Errotak (MAL-017/022)

Inguruko errotak.

123. Auzoko ermandadea (MAL-017/023)

Auzoko ermandadea. Aita izaten zen sarritan ermandadeko kontuak eramaten zituena: abereak ikusi...

124. Su-erre batzea (MAL-017/024)

Suaroa; baserria errez gero egoten zen asegurua. Su-erre batzea.

125. Gonbidautzak auzoko jaietan (MAL-017/025)

Gonbidautzak, auzoko jaiak izaten zirenean egiten ziren.

126. Trabakuako taberna (MAL-017/026)

Trabakuako taberna. Aititak eta amamak erosi zuten taberna.

127. Erromeria Trabakuan (MAL-017/027)

Erromeria igandero. Anaiak soinua joten zuen. Inguruko herrietatik jende asko gerturatzen zen. Neska-laguntzea.

128. Trabakuako erromeria; garizuma (MAL-017/028)

Garizuman, "txilin-txilinka" egiten zen. Trabakuako erromeria. Inguruan egiten ziren beste erromeria batzuk.

129. Bizitzarekiko ikuspegia (MAL-017/029)

Bizimodua asko aldatu da. Berak lehenagokoa nahiago du.

130. Baserriaren egitura; komunikazioak... (MAL-018/001)

Jatorria. Gerea auzoko Goikoetxe baserrian, 1922ko apirilaren 26an. Baserria nolakoa zen. 1949an berriztu zuten. Ordura arteko egitura zelakoa zen. Apopilo bezala jende asko egon zen. Duela gutxira arte biderik ez bertaraino. 3 autobus Ondarroara joateko: Ituarte, frantsesa eta "txaperue".

131. Posta nola heltzen zen baserrietara (MAL-018/002)

Mallabiko aguazilak kartero lana ere egiten zuen. Korreoa nola jasotzen zuten.

132. Aitona-amonen inguruko kontuak (MAL-018/005)

Aittitta (Pedro) eta amamaren inguruko kontuak. Zaldibarrera joan ziren bizi izatera. "Ardangelie", ardo zahagiak gordetzen ziren tokia. Baserritarrek ez zuten ia ardorik edaten; ardo korrientea ganaduari emateko ohitura zegoen (txahala egindakoan...). Aittitta nolakoa zen. Tarrañuelak jotzen zituen.

133. Mallabitik Zaldibarrera oinez (MAL-018/006)

Aittitta eta amamarengana Zaldibarrera oinez joaten ziren. Zengotitatik, Ariatzu menditik behera.

134. Aita soldadutza egitera Melillara joan zen (MAL-018/008)

Aita soldadutzaegitera Melillara joan zen.

135. Umea zela (11 urte) umezain joan beharra, eskola utzita (MAL-018/010)

Eskolan erdaraz egin behar izaten zuten. Eskola kontuak. 11 urterako umezain joan behar izan zen; baina eskolara joatea asko gustatzen zitzaion.

136. Sukaldeko tresnak (MAL-018/012)

Sukaldean izaten zituzten tresnak: parrila; trebera. Jatekoa non prestatzen zen.

137. Logelak nolakoak; koltxoiak (MAL-018/013)

Logelak. Koltxoiak nolakoak izaten ziren. Etxean ardilanazkoak zituzten; morroi egon zenean arto-malutazkoak ezagutu zituen.

138. Argindarra baserrira noiz eta nola ekarri zuten (MAL-018/014)

Argindarra. Auzoan baserri batzuk elkartu eta ur-jauzi bat jarri zuten. Argi gutxi ematen zuen. Gerora alternadore bat ekarri zuten. Ur jauzirako ura errekatik hartzen zuten (Artibai). Oiz menditik jaisten ziren errekak (Artibai, Lea eta Mundaka). Argia, baserri batetik eman eta kentzen zen kableen bidez. Sarritan argirik eman ezin (elurra zelako...).

139. Argindarra inguruko auzoetan (MAL-018/015)

Argindarra ez zegoen auzo eta baserri guztietan. Longan ere presa bat egin zuten beranduago. Urteetara, Iberduero sartu zen inguru guztietan. Argindarra eduki arte, karburo edo petrolioarekin moldatzen ziren.

140. Emakumearen bizimodua baserrian (MAL-018/017)

Emakumearen bizimodua baserrian. Aitaren izaera. Ermura morroi joan zeneko kontuak. Etxe hartakoak nolakoak ziren. "Aikoprakak" (?).

141. Mallabiko auzo desberdinetan auzo-eskolak; herriko eskola (MAL-018/018)

Eskola kontuak. Gerea auzoan eskola ederra izan zuten. Sukaldea eta aldagela ere zituen. Goita auzokoak ere bertara hasi ziren joaten sasoi batean. Zengotita eta Berano auzoetan ere eskola zuten. Osmakoak herrira joaten ziren.

142. Eskola kontuak: irakasleak nolakoak ziren; zigorrak (MAL-018/019)

Maistrak. Zigorrak. Irakasle bat batez ere oso jotzailea zen. Euskaraz hitz egitearren zigorrak ipintzen zituzten.

143. Euskararen egoera: zigorrak; debekuak (MAL-018/020)

Amorotoko senide baten inguruko kontuak. Hileta-elizkizuna. Amuriza abade zegoen bertan eta orduan kontatutako istorioa (maistra euskaldun batek mutikotxo bati euskaraz hitz egitearren emandako astindua).

144. Gerea auzoa; beraien baserrian apupiloak hartzen zituzten (MAL-018/022)

Maistrak eta abadeak apopilo izaten zituzten baserrian. Gerean parrokia dute. Abade-etxea; sakristau etxea.

145. Antzinako usadioak: hilarriak (MAL-018/024)

Eliz bueltan hilarriak daude oraindik.

146. Emakumeak meza-liburuarekin elizara (MAL-019/001)

Erlijio kontuak. Emakumeak meza-liburuarekin joaten ziren elizara.

147. Klase desberdinetako elizkizunak (MAL-019/002)

Etxejauna eta errenteroak asko desberdintzen ziren. Hileta-elizkizunak ere, klase desberdinetakoak zeuden: primerakoa, segundakoa...

148. Maila ekonomikoaren araberako hileta-elizkizunak (MAL-019/004)

Lehenago, hileta-elizkizun desberdinak egiten ziren hildakoaren familiak zuen maila ekonomikoaren arabera.

149. Hilarrien inguruko ohitura zaharrak (MAL-019/005)

Elizaren indarra gizartean. Eliza barruan, familia bakoitzak bere hilarria izaten zuen. Mantel beltza. Otzara handi batean ogia egoten zen. "Olata-garixe". Santikurutz eguneko bedeinkazioa. Pare bat anekdota gai honen inguruan.

150. Santikurutz Eguneko ohitura zaharrak (MAL-019/006)

Mallabian ez du Santikurutz Eguneko bedeinkaziorik ezagutu. Letaniak auzoetako ermitetara. Erramu Egunean, "sobria" egiten zuten. Ereinotza eta erramuarekin egindako gurutzeak; ur bedeinkatua. Santikurutz Egunaren inguruko esaera zahar bat.

151. Erramu eguneko bedeinkazioak (MAL-019/007)

Erramu eguneko bedeinkazioa. Zumarraren azalarekin batzen ziren gurutze guztiak. Ur bedeinkatua.

152. Dotrina ongi jakiteak zuen garrantzia (MAL-019/009)

Elizaren indarra. Dotrina ongi ikastearen garrantzia. Behin baino gehiagotan lehenengo saria irabazi zuen hainbat lehiaketatan. Abadeak Ekin aldizkarian idazten zuen eta bertan ere agertu ziren saria irabazitakoan.

153. Abadeak apupilo baserrian (MAL-019/010)

Beraien baserria eliza ondoan zegoen eta sarritan izaten zituzten abadeak apopilo. Abadearekin harremana.

154. Bulak erosi beharra (MAL-019/011)

Jai egun batean baserrian lanean jarduteko, bulak erosi behar izaten ziren. Haragia jateko ere bulak behar ziren guraso eta seme-alaba guztientzat.

155. "Akolitoa"ren zereginak (MAL-019/012)

Denbora luzez "akolito" bezala egon zen elizan. Bere lanak zeintzuk izaten ziren. "Introducto"-a, latinez egiten zuten.

156. Letaniak (MAL-019/013)

Letaniak. Noiz egiten ziren (bezperen ondoren); ibilbidea zein izaten zen; e.a. Meza nagusia hasi aurretik, abade eta herritar guztiak "eliz-bueltie" egiten zuten.

157. Abade eta fraideen sermoiak (MAL-019/014)

Sermoiak nolakoak izaten ziren. Abade batetik bestera alde handia. Garizuma garaian Arantzazutik fraideak etortzen ziren, eta horien sermoiak izaten ziren gogorrenak. Erromeria eta dantzaldiak gaizki ikusita zeuden; dena zen bekatua. Soinuari, "infernuko hauspua" esaten zioten.

158. Erlijioak zuen garrantzia lehenagoko gizartean (MAL-019/015)

Abadeei berorika egiten zitzaien; errespetu handia. Egun, abade gazteagoekin tratua oso desberdina da: "ez dok eta bai dok". Konfesatzearen inguruko kontuak. Erlijioaren garrantzia gizartean; noiz hasi ziren gauzak aldatzen.

159. Mezaren inguruko azalpenak (MAL-019/017)

Akolito egon zeneko azalpenak. Kanpaiak sakristauak jotzen zituen. Meza erdian jo behar izaten ziren kanpaiak, akolitoak jotzen zituen.

160. Ermuko baserri batean morroi; eginbeharrak (MAL-019/020)

Ermuan morroi; hango ibilerak. Ongarai baserria. Etxeko beharren arduradun; ganadu-zain... ibiltzen zen Martzel. "Cooperativa de Consumo" Ermuan. Errefuxiatu bat eduki zuten ezkutatuta. Diru kontuak; txanponak.

161. Ermuan morroi; hango ibilerak (MAL-019/021)

Gazta; bildotsak; e.a. Ermuan saltzen zituzten. Esnea bezeroei banatzen ibiltzen zen Martzel.

162. Gerra garaian jaiotetxera joan-etorria senideak ikustera (MAL-019/024)

Gerra garaiko kontuak. Frontea Kalamuan egon zen 7 hilabetean. Garai hartan bera Ermuan zegoen. Gernika eta Durangoko bonbardaketak. Baserrikoak ezkutatu egin ziren; eta, 14 urterekin, bera geratu zen baserriaren arduradun. Gerea auzora egin zuen joan-etorria, gurasoak eta familia nola zeuden ikusteko. Tropak; moroak. Orduko pasadizoak.

163. Tropak ez ziren Ermuan gelditu (MAL-019/025)

Ermuko baserrikoek ihes egin zuten. Erreketeak; gorriak. Tropak pasatu eta berehala itzuli ziren.

164. Gerra garaiko kontuak: fusilatuak... (MAL-019/027)

Gerrako kontuak. Herrietan egon ziren hildakoak; fusilatuak.

165. Tropak Mallabitik pasatu, eta aurrera egin zuten (MAL-019/028)

Tropak pasatu zirenean, non gelditu ziren. Frontea; Bilbon defentsa gogorra. Mallabian bonbak eta tiroak bai, baina soldaduak ez ziren bertan gelditu. Eibartik jende asko joan zen Mallabira ihesi; gehienak kaletarrak.

166. Hegazkin aleman bat Ermuan jausi zeneko pasadizoa (MAL-019/029)

Gerrako pasadizoak. Durango eta Gernikako bonbardaketak. Hegazkin aleman bat jausi zen Artamendiko sagastian, Ermuan. Pilotuaren inguruko azalpenak.

167. Gerra garaiko kontuak; Errepublikanoen baliabideak (MAL-019/030)

Zaldibartik Olakuetarako bidean beste hegazkin aleman bat jausi zen. Errepublikaren aldeko tropek ez zuten baliabiderik alemanen eta Francoren tropen aurka egiteko.

168. Bonbardaketak Durangon, Gernikan (MAL-019/031)

Durango; Gernikako bonbardaketa. Auzoko gizon bat ere Durangon hil zen. Auzoko familia bat Munitibarren hil zen.

169. Errepublikaren aldeko soldaduen baliabideak (MAL-019/032)

Gorriek antolamendu eta baliabide gutxi zituzten.

170. Soldadutzako kontuak (MAL-019/035)

Oiartzunen egon zen soldadu sasoi batean. Azkenengo urtean Etxalarren egon zen. Zapatari moduan jardun zuen ia soldadutzako denbora guztian.

171. Baserriaren inguruko aipamenak: egitura; mugarria (MAL-020/013)

Beraien baserriaren inguruko kontuak: Aurreko zatia beste baserrikoa da... Mojoia.

172. Lur-sailen trukaketa; bideekin harra-marrak (MAL-020/014)

Baserritarren arteko tratuak; "permutie". Lur-sailak trukatu egiten ziren. Bideekin egoten ziren harra-marrak. "Zor dan bidie".

173. Bide klase desberdinak (MAL-020/015)

Bideak: kaltzada; gurdi-bideak; andabideak. "Zor dan bidie"; bidezidorra.

174. Gari-joteko afaria eta "montxorra" (MAL-020/018)

"Montxorra"; baserria amaitu eta ematen zen afari edo bazkaria. Gari-jotzeko afaria. Umetan gari-jotzen zeudela mozkorra harrapatu zuen. Gabon gaueko kontua.

175. Baserriko bizimodua; aitona-amonaren baserriko gogoetak (MAL-020/019)

Elgetzu baserria, aitona-amonen etxea. Lurrezko lapikoa; erditik jaten zuten. Ardoa. Azunbrea, bi litro. Baserrietatik ardo bila tabernara joaten ziren.

176. Amaren familiaren inguruko kontuak (MAL-020/020)

Amaren jaiotetxea; Aizpe baserria, Osma auzoan. Familia ugaria zen eta "Txepetxak" gaitzizena jarri zieten; "Aizpeko txepetxak".

177. Mallabiko auzo desberdinak (MAL-020/021)

Osma; Goitana; Gerea auzoak.

178. Baserriak erretzeko arrisku handia (MAL-020/022)

Bi baserri ezagutu ditu erretzen: Trabakua eta Urizar (Usar). Karburoa, kandelen arriskua. Suaroa; suaren aurkako asegurua.

179. Ganaduen ermandadea (MAL-020/023)

Ermandadea. Urtean behin ganadu guztiak eramaten ziren beraien baserri aurrera. Ganaduen inspekzioa.

180. Harginak; inguruko harrobiak (MAL-020/025)

Etxeginak. Harginak. Munoki baserrian (Gerea auzoan), arotza eta hargina. Markinarako bidean, harrobia zegoen. Harriak, ganaduekin ekartzen ziren gurdi-bolantearekin (errobera handiagoak; idi pare birekin).

181. Karobiak inguruan (MAL-020/026)

Karobiak. Harria Markinako harrobitik ekartzen zutela uste du. Inguruan karobi dezente zeuden.

182. Karobi zuloak nolakoak izaten ziren (MAL-020/028)

Karobi zuloak nolakoak ziren.

183. Aitak erabiltzen zituen esaerak (MAL-021/001)

Eguraldi kontuak. "Mendi-eurixe". Aitak erabiltzen zituen hainbat esaera; berba. Ilargia; trumoia...

184. Lehenagoko sinesmen eta ohiturak (MAL-021/002)

Lehenagoko kontu zaharrak ahazten joan dira. Gabonetako ohiturak. Ogiari gurutzea egin; muin eman eta ogi-koskorra hurrengo urtera arte gordetzen zen. "Ogi-salutaue".

185. Bedeinkatutako gurutzeak jartzen ziren soroan (MAL-021/003)

Pazko-eguneko usadio zaharrak. Sahatsaren egurrarekin gurutzeak egiten dira. Bedeinkatu eta Santa Kurutz egunean soroan ipintzen zen. Ur bedeinkatua.

186. Bedeinkazioen inguruko azalpenak (MAL-021/004)

Bedeinkazioen inguruko azalpenak. Karobi edo txondorretan ez du gurutzerik ikusi.

187. Bedeinkazioaren garrantzia (MAL-021/005)

Ur bedeinkatuaren inguruko azalpenak. Bedeinkazioen garrantzia; erlijioaren indarra. Meza-mutil joateko esan zioten umetan, baina berak ez zuen nahi izan.

188. Gerea auzoa (MAL-021/006)

Gerea auzoan eliza handia zuten; San Adrian. Eskola ere bertan zuten. Auzoko jai-egunak nola ospatzen ziren bere ume denboran. Umeen bedeinkazioa. Seme-alaba asko baserri gehienetan.

189. Trabakuaren jatorria; inguruko baserriak (MAL-021/007)

1928an egin zen Trabakuako baserria. Gurasoen jatorria. Aita, Elgetzu baserrikoa (Goitana auzoa); ama, Osma baserrikoa. Trabakua ingurua. Baserriaren jatorrizko izena, Kontrabenta omen da. Arriesgana gaina, Trabakuaren benetako izena. Baserri izenak. Bentaren historia.

190. Eibartik ere hildakoak Ziortzaraino oinez eramaten ziren (MAL-021/008)

Bide zaharrak: galtzada. Eibartik ere hildakoak Ziortzara eramaten zituzten oinez. Zenarruzan, hilarriak. Elizbidea.

191. Eibartik ere hildakoak Ziortzaraino oinez eramaten ziren (MAL-021/010)

Bide zaharrak: galtzada. Eibartik ere hildakoak Ziortzara eramaten zituzten oinez.

192. Aldundiko bidezainaren zereginak (MAL-021/011)

Anaia Aldundiko bidezaina zen. Bere ardurapean zegoen bide zatia nondik-norakoa zen. Bidetik pasatzen zen trafikoa ere apuntatzen zuten.

193. Denek erdiko lapikotik jaten zuten (MAL-021/013)

Gurasoen jatorrizko baserrien inguruko azalpenak. Auzolana. Beheko sua; tresnak. Baba-lapikoa; jatekoaren inguruko azalpenak. Mahai borobila; erdiko lapikotik jaten zuten. Ardoa.

194. Amandreak arto-landarearekin kentzen zituen euliak (MAL-021/014)

Amandreak arto-landarearekin kentzen zituen euliak. Euli ugari baserrian; nola kentzen zituzten.

195. Sukaldeko tresnak; beheko suaren inguruko azalpenak (MAL-021/015)

Beheko suaren inguruko azalpenak; lexiko interesgarria. "Mukurre". Sukaldean egoten ziren tresnak. Jatekoak nola eta non prestatzen zituzten.

196. Baserri-giroarekin lotutako lexikoa (MAL-021/016)

Baserri giroarekin zerikusia duen lexiko interesgarria. "Ganau-askak", sukaldera begira. "Karrajue". Iturrira ur bila; "txolota".

197. Gari-jotzeko makinaren ezaugarriak (MAL-021/017)

Gari-jotzeko makina, auzoko baserrien artean erositakoa. Makinaren inguruko azalpenak: motorra nolakoa zen, "matxakie"...

198. Auzolana; abisua emateko izara zuria jartzen zen (MAL-021/018)

Auzolanean egiten ziren lanak. Auzokoen edo aldameneko baserrien laguntza behar izaten zenean, elkar abisatzeko, soroan izara zuri bat ipintzen zen.

199. Karburoa ezagutu zuen; argindarra Ermuko zentraletik (MAL-021/019)

Iturriaren izena, "Elgetzuko itturri zaharra". Argindarra ezagutu zuen umetan, baina karburoa ere ezagutu zuen. Ermuko zentraletik jasotzen zuten argindarra; "Malengon" izena zuen. Oso argi gutxi. Argizarie.

200. Baserriko ogia egiteko sekretuak (MAL-021/020)

Baserriaren egitura. Ogia egiteko gela bat zegoen. Oremahaia. Baserriko ogia egiteko sekretuak. Orea nola egiten zen. Labeko-sua. Hazgarri bezala zer erabiltzen zuten. Labea zerekin garbitzen zuen. Sagar-erreak. Labeko sua egiteko erabiltzen zen egurra.

201. Logelen ezaugarriak; ganbara eta sabaia (MAL-021/021)

Logelak. Koltxoiak arta-malutazkoak. Oilo-lumak. Ganbarak nolakoak; zer gordetzen zen. Sabaia. Garia, kutxatan gordetzen zen. Artoa zuritu, urkuldu. Arrosarioa errezatzeko ohitura.

202. Gaztainak etxe ondoan gordetzen ziren batutakoan (MAL-021/022)

Gaztaina ugari inguruan. "Gaztaina-lokotza". Etxe ondoan gordetzen ziren gaztainak batutakoan. Gerora, ganbarara igotzen ziren. Gaztaina-erreak.

203. Gereako auzo-eskola (MAL-022/001)

Auzoko eskola Gerean zegoen. 20 minutuko bidea zuten bertaraino; kalzadatik joaten ziren. Eguraldi txarra zegoenean, eskolan bertan bazkaltzen zuten.

204. Gerea auzoko eskola; argindarra ematen zuen zentralean egindako okerkeria (MAL-022/002)

Eskola nolakoa zen; sukalde txiki bat ere bazegoen. Eguraldi txarra zegoenean, bertan geratzen ziren bazkaltzen. Auzoan argindarra ematen zuen zentral bat zegoen. Nola funtzionatzen zuen; behin egindako okerkeria. Eskolako materiala.

205. Sakristauak tabako landareak erein zituen gerraostean (MAL-022/003)

Sakristauak gerraostean tabako landareak zituen ortuan (errazionamendua zegoen garaian). Etxean egiten zen tabakoa garai hartan: landarea sikatu eta prozesu guztia. Auzoko umeek egin zioten okerkeria.

206. Tabakoa nola egiten zen (MAL-022/004)

Tabakoa nola egiten zen baserrietan. Prozesua azaltzen du: nola sikatu; kaxatan ipini...

207. Gerra ostean baserri askotan erein zen tabakoa (MAL-022/005)

Amamak pipan erretzen omen zuen. Osma auzoko Aizpe baserrikoa zen. Pipak nolakoak izaten ziren. Tabakoa baserrietan gerra ostean landatu zen. Gerra aurretik erosi egingo zela uste du.

208. Auzoko eskolako kontuak (MAL-022/006)

Sakristaua. Elizaren ondoan sakristau-etxea zegoen. Eskola ere ondoan zegoen. Eskola kontuak. Irakasleak. Señorita. Pilar. Antzerkiak egiten zituzten. Gurasoak irakaslearekin kontaktu gutxi.

209. Oinetakoak: narruzko abarkak; abarketak (MAL-022/007)

Osaba batek narruzko abarkak egiten zituen. Etxeko abere baten narrua erabiltzen zuen abarkak egiteko. Oinetakoak: abarkak; abarketak. Abarkak sutondoan sikatzen zituzten baserrian.

210. Gomazko abarkak; gerra ostean materialik ez (MAL-022/008)

Autoen gurpilen kubierta zaharrekin egindako abarkak. Ondoren, gomazkoak hasi ziren. Bizikletaren gurpilen kubiertak. Berria erosi ahal izateko kubierta zaharra entregatu behar izaten zen.

211. Narruzko abarkak baserrian egiten zituzten (MAL-022/009)

Narruzko abarkak osabak egiten zizkien. Narrua ganbaran izaten zuen sikatzen; eskuz egiten zen lan guztia.

212. Artilearekin amamak haria eta aitak abarka-sokak egiten zituen (MAL-022/010)

Abarka-sokak aitak egiten zituen etxean. Amamak gorutan egiten zuen; haria egiten zuen ardi-ilearekin. Aitak txabilan haria ipini eta sokak egiten zituen. Lehenago abarka-sokak zuriak izaten ziren.

213. Amamak gorutan nola egiten zuen (MAL-022/011)

Amamak gorutan egiten zuen. Artilea garbitu eta ondoren kardarekin ilea kardatu egiten zuen; korapiloak kentzeko izaten zen hori. Kardatu ondoren haria egiten zen. Gorutan nola egiten zen.

214. Galtzak eta jertseak egiteko orratzak (MAL-022/012)

Albandorratzak, galtzak edo jertseak egiteko erabiltzen ziren. Arropak. Eibarko sastrerian panazko jaka egin zuen.

215. Umeek eskolara egurra eraman behar izaten zuten (MAL-022/013)

Eskolan estufa bat zuten; egurrarekin funtzionatzen zuen. Berotasuna baino kea gehiago. Umeek eraman behar zuten egurra eskolara.

216. Gerra osteko hezkuntza: zigorrak; hizkuntzarekiko jarrarera (MAL-022/014)

Irakasleak. Margarita González, Tolosakoa. Francoren garaian, euskaraz hitz egitea debekatuta zegoen. Zigorra. Munduarekiko ikuspegia.

217. Antzinako bizimodua: garraioak; berrikuntzak (MAL-022/015)

Ama oinez joaten zen Durangora erosketak egitera. Bilbora joateko autobusa zegoen. Garraioak. Bizimodua zeharo aldatu da. Erlojua etxean eta elizan. Kanpaiak.

218. Euskararen egoera hezkuntzan: debekuak (MAL-022/016)

Eskolan euskaraz hitz egitearren zigorra. Lagunartean eta etxean beti euskaraz. Hizkuntzaren erabilera. Erdara jakitearen garrantzia. Arabara erdara ikastera soldadutzara joan aurretik.

219. Gurasoek erdara gutxi (MAL-022/017)

Amak erdara pixka bat zekien; aitak, oso gutxi. Aita, Marcelo, arotza zen. Guardia zibilak ingurua zaintzen ibiltzen ziren. Ehizan egin ahal izateko, baimena atera behar izaten zen. Anekdotak.

220. Baserriz baserri joaten ziren kanpotarrak: motxailak; "hungrianoak"... (MAL-022/018)

Motxailak, zubi azpian egoten ziren. Gurdia zaldiekin. "Hungrianuak"; jantzita nola joaten ziren.

221. Baserriz baserri joaten ziren saltzaileak (MAL-022/019)

Kaldereroak edo "konponarrak". Galiziatik etortzen ziren. "Kinkalleruek". "Telerua", telak saltzen ibiltzen zen baserriz baserri. "Paraguerue". Baserrietako neskak josten ikasten zuten.

222. Baserriz baserri joaten ziren saltzaileak (MAL-022/020)

Baserrietan zeuden antzinako tresna eta gauzak trukean egiten zituzten. Tela saldu eta dirua beharrean, baserriko kutxak, ontziak... hartzen zituzten.

223. Zorroztailea baserriz baserri (MAL-022/021)

Zorroztaileak. Hauek ere Galiziatik etortzen ziren. Errobera handi batekin lan egiten zuten. "Txorroztaillie". Baheak saltzen zituztenak zaldiekin ibiltzen ziren.

224. Erdara ikastearen garrantzia baserritarrentzat (MAL-022/022)

Baserrietan erdara ikastearen garrantzia. Soldadutzara joan aurretik Arabara joaten ziren mutil asko. Amak erdara nola ikasi zuen.

225. Mallabiko Gerea auzokoa (MAL-024/001)

1933ko ekainaren 29an jaiotakoa; Goenengoa baserrian.

226. Baserriak errentan; etxejabea (MAL-024/002)

Jatorria. Aita eta ama non jaiotakoak. Baserri izenak. Baserritar gehienak errenteroak ziren. Adán de Yarza, jauntxo handia.

227. Baserriko bizimodua umetan (MAL-024/004)

Baserriko bizimodua umetan. Itaurren; iturritik ura ekarri; astoak larrera eraman; e.a. Eskola gertuan zuten.

228. Behiak nola hazten ziren (MAL-024/005)

Behiak kortan egoten ziren gehienetan; orain bezala landetan ez.

229. Auzoko eskola; irakasleak (MAL-024/007)

Ume asko batzen ziren eskolan. Guztiak ez ziren sartzen eta nagusienak beste gelatxo baten egoten ziren. Maistra, Margarita González; Durangoko Rementería. Neska-mutilak elkarrekin.

230. Eskolako kontuak (MAL-024/008)

Neska-mutilak elkarrekin. Eskola-liburuak. Tinteruak. Morralean liburuak, koadernoa eta pizarrina eramaten zuten. Eskulanak.

231. Eskolan zer ikasten zuten; irakaslearen inguruko aipamenak (MAL-024/009)

Eskolan zer ikasten zuten: Matematika; Geografia; Historia de España; e.a. Klaseak erdaraz ematen zituzten. Zapatu goizetan ere klaseak izaten zituzten. Tolosako maistra, Trabaku goikoan egoten zen apupilo. Bortzeria handi batzuekin ibiltzen zen. Bidea noiz egin zen.

232. Oinetakoak: bortzeriak (MAL-024/010)

Oinetakoak. Bortzeriak nolakoak izaten ziren. Ultzeak zituzten azpikaldean.

233. Maistra, Trabakugoikoan apupilo. (MAL-024/011)

Maistra, Trabakugoikoan egoten zen. Eskolan, sukaldea ere bazegoen. Baserriko sukaldean beheko sua; laratza zuten. Eskolan, txapa zegoen. Eskolako eraikina, egun elkarte moduan erabiltzen da.

234. Eskolako lanak egiteko argirik ez baserrian (MAL-024/012)

Sasieskola; eskolara joan gabe geratzen ziren batzuetan. Zigorrak. Etxerako lanak bidaltzen zituen maistrak, baina baserrietan argirik ez zen egoten. Karburoa edo kandelak erabiltzen zituzten.

235. Inspektorea eskolara joaten zeneko kontuak (MAL-024/013)

Inspektorea behin edo behin agertu zitzaien. Maistraren ardura.

236. Baserriaren egitura; lexikoa (MAL-024/014)

Baserria nolakoa zen. Eskaratza; sukaldea nolakoa zen. "Txahaltokixe"; "askaurrie"; "karrejue". Beheko sua nolakoa izaten zen.

237. Argindarra auzoan; aurretik, karburoa eta kandela (MAL-024/015)

Argia noiztik dute baserrian. Auzoko baserri batzuren artean ipinitako saltoa. Aurretik, karburoa eta kandela erabiltzen zuten. 20 urtetan zehar beraiek izan zuten auzoko baserriei argia emateko ardura.

238. Berrikuntzak baserrian: argindarra (MAL-024/016)

Argia etxetik ematen zuten bolante batekin. Nagusiek argia ikustean zer esan zuten.

239. 8 urterekin Bilbora amonarekin (MAL-024/017)

8 urterekin Bilbora joan zen amonarekin. Autobusez joan ziren bertara. "Zer dok hau!!". Orduan ez ziren etxetik, Mallabitik kanpora irteten. Gaztetan soldadutza egitera Zaragozara joan zen; Salamancan ere egon izan da.

240. Ur-korrontea baserrian; garbitasuna (MAL-024/018)

Etxean ur-korrontea duela 41 urte sartu zuten. Etxearen kanpokaldean zegoen askan berriz, betidanik ezagutu izan du. Lan-banaketa baserrian. Galdara non garbitzen zuten. "Arraukie".

241. Elikadura baserrian (MAL-024/019)

Elikadura baserrietan. Taloa eta esnea; morokila; artoa eta esnea. Babarruna. Gaztainak; sagar erreak. Baba zuria, noizen behin; garbantzuak, jai egunetan. Letxuga azukrearekin.

242. Elikadura baserrian jai egunetan (MAL-024/021)

Elikadura baserrian, jai egun eta Gabonetan. Gisatua; bakailaoa; olio asa; konpota; turroia... Intxaur-saltsa.

243. Gabonak baserrian; Santa Ageda (MAL-024/022)

Gabonetan opariak izaten zituzten; Errege eguna. Gabon kantak; umeak eskean. Santa Ageda.

244. Jaunartzearen inguruko kontuak (MAL-024/024)

Jaunartze bakarra. Traje berezia egin zioten egun horretarako; gosaltzeko arroz-esnea. Neskak nola joaten ziren jantzita.

245. Jaunartzea egin ondoren, monagilo (MAL-024/025)

Jaunartzea egin eta gero hasi zen monagilo bezala. Abadeak berak aukeratzen zituen mutilak. Latinez esan behar izaten zituzten gauza asko. Meza nagusiaren aurretik, prozesioa elizaren bueltan.

246. Erlijioaren garrantzia; elizako ohiturak (MAL-024/026)

Lehenago mezara jende asko joaten zen. Joaten ez zena, gaizki ikusita. Monagiloaren arropa, gorria izaten zen. Hileta-elizkizunetan, beltzez janzten ziren. Kanpai batzuk sakristauak jotzen zituen.

247. Asentzioko letaniak (MAL-025/002)

Asentzioko letaniak hiru egunetan egiten ziren.

248. Erramu eguneko eta Santa Kurutz eguneko bedeinkazioak (MAL-025/004)

Erramu egunean gurutzeak bedeinkatzen ziren eta Santa Kurutz egunean soroan ipintzen zituzten.

249. San Juanetako ohitura zaharrak (MAL-025/006)

San Juanak. "San Juan sorbia". Ohitura zaharrak.

250. Domu Santua; Arimen Eguna: ohitura zaharrak (MAL-025/007)

Arimen Eguna; Domu Santu Eguna. Mezak. Hilarriak. Mantila beltza. Ohitura zaharrak. Sakristauaren eginbeharrak. "Olatie". Kanpai klase desberdinak. Garai batean oso jende gutxik izaten zuen erlojua. Kanpaien garrantzia.

251. Hil-kanpaia (MAL-025/008)

Hil-kanpaia, desberdin jotzen da hildakoa gizonezkoa edo emakumea bada.

252. Hileta-elizkizunak (MAL-025/009)

Elizkizunak. Hileta-elizkizunak: primerakoak... Abadeak jasotzen zuena (garia; dirua...).

253. Sakristauaren eginbeharrak (MAL-025/011)

Sakristauaren lana zein izaten den. Egungo egoera. Batzuetan berak egin behar izaten du "ospakizuna".

254. Elizaren inguruko ohiturak eta debekuak (MAL-025/013)

Gure Jauna hartzeko baraurik joan behar izaten ziren.

255. Konfesatzera joatearen inguruko aipamenak (MAL-025/014)

Konfesatzera joatea. Abadeak belarrietatik tira egiten zien mutilei.

256. Mallabia aldean ezagutu dituen abadeak (MAL-025/015)

Ezagutu dituen abadeak. Don Pedro Buruaga; don Silvestre; don Víctor Ajuria (euskarazko lehehengo meza Bizkaian bertan eman zuen); Mikel Zarate...

257. Abadeari berorika egiten zitzaion (MAL-025/017)

Abadeari berorika egiten zioten. "Ez don eta bai don...".

258. Elizako kontuak (MAL-025/019)

Lehenago "maiordomuak" batzen zuen dirua elizan.

259. Medikuari berorika egiten zitzaion (MAL-025/020)

Medikuari ere berorika egiten zitzaion. Lehenago zaldian joaten zen medikua baserrietara.

260. Mallabiko medikua; Ermuko partera (MAL-025/022)

Baserrietara ere medikua joaten zen umea erditzen laguntzera. Ermuko partera.

261. Sasimedikoak eta sendabelarrak (MAL-025/023)

Sasimedikorik ez dute ezagutu. "Sasibeterinarixu". Berbena belarra. Usenak.

262. Bidegintza (MAL-025/024)

Bidegintza. Baserrira doan bidea noiz egindakoa den. Foru Aldundiaren esku egon da hainbat urtetan.

263. Bidegintza: kaltzada; burdibideak... (MAL-025/025)

Bide zaharra. "Bidegiñan egin behar urtean behin; elizbideak konpontzen. Kaltzada; burdibideak.

264. Kaltzadaren inguruko azalpenak (MAL-025/026)

Burdibidea; kaltzada. Putzuak. Kaltzada nolakoa zen; nondik-norako bidea.

265. Aurrerapenak baserrian: ur-korrontea (MAL-025/027)

Ur-korrontea etxean noiz jarri zen. Gauzak nola aldatzen diren...

266. Garbitasuna eta aurrerapenak baserrietan (MAL-025/028)

Garbitasuna ur-korronterik gabeko etxeetan. Gauzak nola aldatzen diren... Komunak baserri askotan, etxe osteko karkaban egoten ziren.

267. Mallabia inguruan zeuden errotak (MAL-025/029)

Garia errotara eraman beharrean, Trabakuan aldatzen zuten. Gerraosteko kontuak. Toponimia. Errotak inguruan; izenak. Muniozguren baserrian errota. Bizimodua asko aldatu da.

268. Labasua astean behin (MAL-025/030)

Garia gurdiarekin eramaten zuten Trabakuara. Labesua astean behin egiten zen.

269. Labesua non eta zelan egiten zen (MAL-025/031)

Labesua non egiten zuten eta nork. "Artesie" edo "oremahaixe". Zer behar izaten zen ogia egiteko. Artoa. Sagar erreak. Hazgarria.

270. Labea nola garbitzen zuten (MAL-025/032)

Labea garbitzeko zer erabiltzen zuten. "Ipittie".

271. Sagar klase desberdinak (MAL-025/033)

Sagarrak erretzen zituzten labean. Sagar klaseak. Sagastiak baserrietan.

272. Gaztainak nola batzen zituzten (MAL-025/034)

Basoak asko aldatu dira. Lehenago ez zegoen pinurik. Gaztainadi handiak. Gaztaina denboran, gaztainak batzen zituzten "lakatz" eta guzti.

273. Lehenengo pinudiak Mallabian (MAL-025/035)

Lehenengo pinudiak noiz landatutakoak. Pinuak zein sasoitan landatzen diren.

274. Gaztaina-batzea (MAL-025/036)

Gaztaina-batzea. "Kaku haundixakin" botatzen zituzten gaztainak. Lexikoa.

275. Gaztaina-erre jana (MAL-025/037)

Gaztainak "lakatz" eta guzti gordetzen zituzten etxe kanpoan. Gaztaina-erre jana.

276. Basoko animaliak (MAL-025/038)

Basoan ikusten diren animaliak. Azkonarra; basurdeak; zaldiak; azeriak... Azkonarra artoa jatera joaten zen baserrietara. Basakatuak; "katamixorra".

277. Basoko animaliak (MAL-025/039)

"Ogi-gaztaie" edo "satanderie". Nolakoa da.

278. Garotara Oiz mendira (MAL-025/045)

Garo-batzen Oizera. Lan astuna izaten zen; zer erabiltzen zuten garoa mozteko. "Burkarie".

279. Garoaren garrantzia baserritarrentzat (MAL-025/047)

Etxe bakoitzak bere garo-sailak izaten zituen. Garoaren garrantzia

280. Baserriko lanak: lurra prestatu, erein, ebaki... (MAL-026/001)

Baserriko lanak: lurrak altzatu; patata eta artoa erein; artoa jorratu; gari-ebakitzea. Gari-ebakitzearen inguruko azalpenak. Lexikoa. Ume-umetatik lanean.

281. Umetan baserrian lagundu beharra (MAL-026/002)

Ardiak zaintzen umetan. Hilabete egiten zuten etxetik kanpo. Eskolara gutxi joandakoa. Gerra garaian eskola itxi zuten.

282. Baserriaren historia (MAL-026/003)

Pako, Longa Etxebarri baserrikoa. Miren, Longartegoikoa baserrikoa (Bolibar). Baserriaren historia. Baserri izenak.

283. Adán de Yarza, etxe-jabe handia (MAL-026/004)

Adán de Yarza, baserri-jabe handia. Izatez lekeitiarra, baina Mallabian baserri askoren jabea.<

284. Ezkontzen inguruko azalpenak (MAL-026/009)

Ezkontza kontuak. Doteak; maiorazgoa.

285. Bizitzaz duen ikuspegia (MAL-026/010)

Pako 1925eko uztailaren 8an jaiotakoa da. Bizimodua asko aldatu da.

286. Errentaren ordainketa: noiz, zenbat... (MAL-026/011)

Etxe-jabeak; errenteroak. Mirenen familia, errenteroak. Errentaren ordainketa. San Inazio egunean, oilaskoa eta arrautzak eramaten zizkioten ugazabari Lekeitiora. Gabonetan, errenta ordaintzen zen.

287. Etxe-jabearekin harremana nolakoa (MAL-026/012)

Etxe-jabearekin harremana nolakoa zen. Ugazabak bitartekari bat jartzen zuen baserritarrekin harremana izateko; "maiordomua".

288. Baserriaren egitura (MAL-026/013)

Baserriaren egitura. Garai batean nolakoa zen; nola gogoratzen dute. Sukaldean, beheko sua. "Ezkatza".

289. Longartebehekoa baserria (MAL-026/014)

Longartebehekoa baserriaren inguruko azalpenak. Baserriaren egitura.

290. Baserriaren egitura: sukaldea (MAL-026/017)

Sukaldea nolakoa zen; beheko sua. Tximinia. "Kaperrotie" (kafea ehotzeko errota). Lexikoa. Eskaratzako lurra, losazkoa. "Laratza"; "topiñe"; "treberie".

291. Talogintza (MAL-026/019)

Taloa nola egiten den.

292. Taloa eta morokila (MAL-026/021)

Morokila nola egiten zen; noiz jaten zen. Goizetan, taloa jaten zuten gehienbat. Jatorduak.

293. Elikadura baserrian (MAL-026/022)

Baserriko bizimodua. Jatorduak. Kafea, azukrea, bakailaoa.

294. Elikadura baserrian (MAL-026/023)

Ardizain ibiltzen zirenean zer jaten zuten.

295. Baserriaren egitura: logelak (MAL-026/024)

Baserriaren egitura. Logelak. Artilezko koltxoiak. "Lastamarrajie"; arta-malutarekin egindako koltxoiak.

296. Baserriaren egitura: ganbarak (MAL-026/025)

Baserriaren egitura. Ganbarak. Zer gordetzen zen ganbara bakoitzean.

297. Lurreta nola egiten zuten (MAL-026/028)

Lurreta egiten zen bi urtean behin. Soro handia zenean, auzolanean egiten zen. Karga, zestotan kargatzen zuten eta batak besteari pasatzen zion.

298. Gaztaina batzea (MAL-026/029)

Ganbarak. Sagarrak. Gaztainadiak. "Batzakixe", gaztainak batzeko makila. "Lokotza", gaztainaren oskolari esaten zaio. Baserrian non gordetzen ziren. Gaztaina erreak, egosiak.

299. Mendiola baserrian jaiotakoa (MAL-028/001)

Noiz jaiotakoa. 1914ko urtarrilaren 17an. Mendiola baserrian jaiotakoa, Anboto.

300. Anboto ingurua; baserriak (MAL-028/002)

Mendiola baserriaren inguruan dauden baserriak; auzunea. Anboto. Antoniak 3 urte zituela baserria utzi zuten.

301. Mallabiko Zengotita baserrira noiz eta nola iritsi ziren (MAL-028/003)

Mendiola baserria utzi eta Barrenetxe baserrira joan ziren, aitaren arrebaren baserrira. Hauteskundeetan gertatutakoa. 7 urte ingururekin, Zengotita baserrira joan ziren bizi izatera.

302. Abarkagintza (MAL-028/004)

Baserriko bizimodua. Abarkak etxean josten ziren. Artilezko galtzak.

303. Baserriko bizimodua: goruetan nola egiten zuten (MAL-028/005)

Artilearekin haria egiteko eman beharreko urratsak. Aita eta amaren artean egiten zuten haria. Amak goruetan egiten zuen. Gomazko abarkak hasieran, oso garestiak.

304. Basoko lanak: ira-batzea... (MAL-028/006)

Antoniak aitari laguntzen zion baserriko lanetan. Basoko lana: ira-batzea... Aitajaunaren inguruko kontuak; "Erlabe". Erlabe baserrian jaiotakoa.

305. Baserriaren jabetza; errenteroak (MAL-028/007)

Aita, Axpe-Arrazolakoa. Gurasoak gazterik ezkondu ziren. Zengotita baserrian errentan egon ziren. Etxe-jabeari ordaindu beharrekoak. Baserriko bizimodua.

306. Umetako arropak, oinetakoak (MAL-028/008)

Baserriko bizimodua. Arropak; oinetakoak. Eskola, auzoan bertan zuten. Euria zegoenean, zakua eramaten zuten soinean.

307. Hauteskundeetako gorabeherak (MAL-028/009)

Garai batean, hauteskundeetan zer gertatzen zen. Etxe-jabeek botoa erosten zieten baserritarrei.

308. Narruzko abarkak (MAL-028/013)

Narruzko abarkak.

309. Umetako jolasak: txirikila (MAL-028/015)

Umetako jolasak: txirikila. Nola jolasten zuten.

310. Abarkagintza (MAL-028/016)

Narruzko abarkak aitak nola egiten zituen. "Abarkistena".

311. Haragia nola kontserbatzen zuten (MAL-028/018)

Txerria hiltzen zutenean, odolosteak egiten zituzten. Txerriaren edo ardiaren haragia harrizko aska batean sartzen zuten kontserbatzeko.

312. Ermandadeko abereak (MAL-028/019)

Gatza erabiltzen zen baserrietan haragia kontserbatzeko. Ermandadeko abereak.

313. Elikadura: haragia (MAL-028/020)

Asto eta zaldiaren haragia ere saltzen zen garai batean.

314. Ur-korrontea baserrian (MAL-028/021)

Zengotitabengoa baserrira joan ziren bizi izatera 8 urterekin. Ur-korrontea.

315. Argindarra baserrian (MAL-028/022)

Argindarra. Umea zela ekarri zuten argindarra. Petrolioa erabiltzen zuten. Indar-etxeak.

316. Baserriko bizimodua (MAL-028/027)

Gaztea zenean nolako miseria zegoen baserrietan. Ardi okela beste baserri batera eramatera joan zeneko kontuak.

317. Baserriko bizimodua (MAL-028/028)

Baserriko bizimodua. "Arraukie".

318. Garbitasuna baserrian (MAL-028/029)

Etxe aurreko askan egiten zituzten garbitasunak.

319. Garbitasuna baserrian (MAL-028/030)

Arropak garbitzeko lekua.

320. Etxejabeari ordaindu beharreko errenta (MAL-028/031)

Etxe jabeari ordaindu beharrekoa. Garia, dirua, ikatza. Ispilla baserriko errenta: oilandak eta dirua.

321. Baserriaren errenta (MAL-028/033)

Etxe-jabe handi batzuk, kapoiak eskatzen zituzten errentan. Kapoiak nola hazi behar diren.

322. Kapoiak nola hazi (MAL-028/035)

Kapoiak nola hazten ziren. Ilunetan edukitzen zituzten. "Gangarra" txikitu egiten zaie.

323. Haragia nola kontserbatzen zuten (MAL-028/037)

Txerriaren edo ardiaren haragia harrizko aska batean sartzen zuten kontserbatzeko. "Gatzunaskie".

324. Lixiba; familia giroa baserrian Gabonetan (MAL-029/001)

Lixibaren inguruko kontuak. Aitonak esaten ziena umeak zirenean Gabonetan zer jan behar ote zuten galdetzen ziotenean. Gabon gauean ardoa merkeagoa izaten zen. Familia giroa.

325. Baserriko bizimodua umetan (MAL-029/008)

Antzinako bizimodua; miserian bizi ziren. Artilearekin aitak goruetan egiten zuen. Zengotita auzotik Berrizera eramaten zituen Antoniak anai gazteak eskolara. Gerora auzo-eskola egin zuten. Baserriko bizimodua. Gaurko bizimoduaren inguruko iritzia.

326. Gaurko egoeraz zer pentsatzen duen (MAL-029/009)

Gaurko bizimoduaren inguruko iritziak. Gazteen egoera; ekonomia kontuak.

327. Miserian bizi ziren (MAL-029/010)

Antzinako bizimodua; miserian bizi ziren. "Bortziki" (bortzegi) zapatak; anekdota polita.

328. Antzinako bizimodua; etxeko giroa (MAL-029/011)

Antzinako bizimodua; oso gogorra. Aitonaren esaera. Etxeko giroa; jatekoaren inguruko kontuak.

329. Antzinako bizimodua; familia giroa (MAL-029/013)

Antzinako bizimodua; familia giroa. Jende nagusia nola zainduta egoten zen.

330. Umetako jolasak; familia (MAL-029/018)

Umetako kontuak; jolasak. Gauza gutxirekin, baina pozik. Etxejabeari gari asko entregatu behar izaten zioten. Aitaren inguruko azalpenak.

331. Eskola kontuak; dotrina (MAL-029/032)

Eskola kontuak. Zengotitako auzo-eskola. Udan, baserrian lan asko egoten zen eta neguan bakarrik joaten zen eskolara. Maistraren senarra, medikua. Denbora librea izaten zuenean, bera ere eskolara joaten zen, maistrari laguntzera. Dotrina, amarekin ikasi zuen. Eskolan zer ikasi zuen. Dotrina, Garizuman bakarrik egoten zen. "Txantela" ematen zuten, konfesatutakoan. Ezkondu aurreko kontuak; abadearen galderak erantzun behar izaten zituzten txartela lortzeko.

332. Umeen bataioak (MAL-029/034)

Konfesatzearen inguruko kontuak; abadeei kritika. Umeen bataioaren inguruko azalpenak.

333. Bataioaren inguruko azalpenak; ohitura zaharrak (MAL-029/035)

Bataioen inguruko azalpenak. Umea jaio eta lehenbailehen bataiatzeko ohitura. Ohitura zaharrak. Elizara sartzea.

334. Bataioaren garrantzia (MAL-029/036)

Bataiatu gabeko umea hilez gero, umea linbora sartzen zela esaten zuten abadeek.

335. Erlijioaren inguruko ohitura zaharrak (MAL-030/001)

Erlijioaren inguruko ohitura zaharrak. Errespontsua. Pater noster.

336. Elizan gizon eta emakumeak banatuta (MAL-030/002)

Elizan gizon eta emakumeak banatuta esertzen ziren. Hilarriak.

337. Erlijioaren eragina gizartean (MAL-030/003)

Abadeen indarra; erlijioaren eragina familia eta gizartean.

338. Gabon-kantak (MAL-030/004)

Gabon-kantak. Umetan diru-eskean irteten zireneko kantak.

339. Gabon-kanta (MAL-030/006)

Gabon-kanta.

340. Gabon-eskea (MAL-030/008)

Gabonetan eskean irteten ziren auzoan. Gabon gauean izaten zen diru-batzea eta urteberri egunean jaten zituzten orduan emandakoak.

341. Urteberri eguneko kantak (MAL-030/009)

Urteberri eguneko kantak.

342. San Juan eguneko ohitura eta sinesmenak; San Juan kanta (MAL-030/010)

San Juan kanta. Baserri guztietan San Juan sua egiteko ohitura egoten zen. Suaren gainetik salto egiteko ohitura. Sta Kurutz egunean, gurutze bedeinkatuak. San Juanetan, lore-sorta bedeinkatzen zen. San Juanetan egiten ziren beste usadio zahar batzuk.

343. Sinesmen eta ohitura zaharrak (MAL-030/011)

Pazko egunean sua eta ura bedeinkatzen ziren. Elizakoak; ohitura zaharrak.

344. Eguraldiarekin lotutako ohitura eta sinesmenak (MAL-030/012)

Eguraldi txarra zetorrenean, ur bedeinkatua bota eta errezatu egiten zen. Errezoa. "Errogatibak" (erreguteak) egiten ziren euria egiteko.

345. Sorgin kontuak; ipuinak (MAL-030/013)

Sorgin kontuak. Bere jaiotetxea Anboto mendiaren maldan zegoen eta sorgin kontu asko entzuten zituen. Laminak. Antzinako ipuinak; kantak. Bertako aitona oso kontularia zen. Aurreko belaunaldien bizimodua.

346. Kanta zaharrak; Urkiolako kanta (MAL-030/014)

Kanta zaharrak. Urkiolako kanta; kopla zaharra.

347. San Antonio Urkiolakoa; kopla zaharrak (MAL-030/016)

San Antonio Urkiolakoa; kopla zaharrak.

348. Aitonak kontatutako kontuak (MAL-030/017)

Aitonak kontatzen zizkien kontu zaharrak; Urkiolako San Antoniorekin bazuen fedea bikotearen inguruan.

349. Kopla zaharrak (MAL-030/018)

Kopla zaharrak.

350. "Dingilin, dangulun..." haur-kanta (MAL-030/019)

"Dingilin, dangulun...", umeei kantatzen zitzaien kanta.

351. Auzoko neska-mutilak erromeriara (MAL-031/001)

Auzoko neska-mutilak erromeriara nola joaten ziren.

352. Ardantza baserriaren historia (MAL-031/002)

1923-09-01ean Ardantza baserrian jaiotakoa, Osma auzoan. Baserriaren egitura; historia. 1792an egindakoa.

353. Baserriko bizimodua; berrikuntzak (MAL-031/004)

Baserria nolakoa zen. Sukaldea. San Migel eguna, bertako jaieguna. Garai batean familiako kide guztiek ontzi beretik jaten zuten. Beheko sua. Ur-korronterik ez 1946 ingururarte.

354. Ur-korrontea nola eraman zuten baserrira (MAL-031/005)

Ur-korrontea nola ekarri zuten; nondik. Iturburua inguruko soro batean aurkitu zuten. "Albergie".

355. Ur-korrontea baserrietara (MAL-031/006)

Iturburuak nola aurkitu zituzten. Ura baserrietara nola banatu zuten. "Apartalekua".

356. Etxe inguruan iturburuak (MAL-031/007)

Iturburuak nola aurkitu zituzten.

357. Amak lixiba errekan egiten zuen (MAL-031/008)

Abereentzat aska. Alberga. Amak lixiba errekan egiten zuen. Lixiba nola egiten zen. Izarak astoan eramaten zituen. Oiz-etik behera datorren errekari, "Zubittekoerrekie" esaten diote.

358. Berrizko "ehulie" (MAL-031/009)

Lihozko izarak; ehunezkoak. Berrizen "ehulie" zegoen. Umetan errotara joaten zirenean, tela nola egiten zuen ikusten zuten. Liho(linu)-sororik ez dute ezagutu.

359. Elikadura baserrian (MAL-031/011)

Garia, artoa eta baba ereiten ziren. Jatorduak. Zer jaten zuten. Baba zuriak garizuman jaten zituzten. Etxean hazten zutena jaten zuten; herrira gutxitan jaisten ziren. Baserritar batzuk larunbatetan tratura joaten ziren Durangora.

360. Elikadura baserrian; Gabonak (MAL-031/012)

Gabonetako jatorduak. Barraskiloak; bakailaoa. Txerri-hiltzea. Haragia gatzetan jartzen zuten urte guztirako kontserbatzeko. "Puestak".

361. Soroan, ortuan erabiltzen ziren ongarriak (MAL-031/015)

Lurra gozatzeko karea erabiltzen zuten; ongarri bezala simaurra. Txori-satsa, belardietarako.

362. Perretxikoen inguruko azalpenak (MAL-031/018)

Perretxiko kontuak. Gibelurdiñak.

363. Garai batean "trunbie" (trufa) ugaria inguruetan (MAL-031/020)

Garai batean "trunbie" (trufak) ugaria zen toki batzuetan. Eibarko jatetxeetan asko ordaintzen zuten; sukaldean jaki estimatua.

364. Soroan zer ereiten zuten (MAL-031/021)

Soroan zer ereiten zuten: garia, artoa, baba, e.a. Belarra ere ereiten zen: sekula-belarra; pagotxa; e.a. Abereei zer ematen zitzaien jateko.

365. Baserriko lanak umetan (MAL-031/022)

Umetan ganadu-zain.

366. Mallabiko auzo-eskolak (MAL-031/024)

Rosa, Barinagakoa. Eskolara Iturretara joaten zen. Osma auzoko eskola. Gerea, Berano eta Osma auzoetan eskolak. Foru Aldundiak umeentzat eskola-materiala eta ikatza ere bidaltzen zuen.

367. Umetan baserrian lagundu beharra (MAL-031/025)

Umetan baserrian asko lagundu behar izaten zen eta askotan eskolara joan ezin.

368. Barinagako baserri izenak (MAL-031/026)

Rosa, "Zulua" baserrikoa (Barinaga).

369. Ermura goizean goiz esnea bezeroei banatzera (MAL-045/005)

Esne-saltzera Ermura joaten zen goizean goiz; ondoren eskolara.

370. Umetako okerkeriak eskolan (MAL-045/007)

Umetako okerkeriak. Irakaslearekin zintzo ibiltzen ziren; zigorren beldur. "Maisue, santue".

371. Umetako okerkeriak etxean (MAL-045/009)

Umetako okerkeriak. Etxean zuten neskameari egindako bihurrikeria.

372. Umetan izaten zituen ametsak (MAL-045/010)

Umetan izaten zituen ametsak.

373. Umetako ametsak; nagusi egindakoan dendari izatea nahi (MAL-045/011)

Umetako kontuak. Nagusi egindakoan, dendari izan nahi zuen. Umetako jolasak.

374. Umetako beldurrak (MAL-045/012)

Umetako beldurrak: "sakamantekas"-a. Toponimia; errekak. "Salamatu"; toki-izena. Motxailak.

375. Umetako ibilerak; nagusiekin hartu-emana (MAL-045/013)

Nicolás Kareaga; gizon jatorra.

376. Umetako kontuak: karameleroa (MAL-045/014)

Umetan gozoki gutxi jaten zituzten. Karameleroa. Jatekoak: txokolatea; txorizoa...

377. Auzoko jaieguna; erromeria (MAL-045/015)

Auzoko ermita, Arteta. Baserritarrak errentero. Artetako erromeria; zazpi korro egoten omen ziren (hau da, zazpi soinujole). Toponimia. Inguruko erromeria onena. Artetako jaia, maiatzaren 6an. San Inazio Eguna.

378. Arteta, gerra garaian gordeleku garrantzitsua (MAL-045/016)

Artetako jaia, maiatzaren 6an. San Inazio eguna. Gerra garaian, babesleku eta ezkutaleku garrantzitsua izan zen Ermuar batzuentzat.

379. Artetako jaiak (MAL-045/017)

Artetako jaiak. Umetan ere dotore janzten ziren egun horretan.

380. Umetako arropak (MAL-045/018)

Umetako arropak; oinetakoak. Erromeriatara abarketekin, baina elizara zapatekin joaten ziren.

381. Artetako jaien inguruko azalpenak (MAL-045/019)

Karameleroa Ermutik joaten zen Mallabira. Artetako jaiak. Taberna. Ardoa zahagietan. Zahagiak nolakoak izaten ziren.

382. Igandetan esne-saltzera eta ondoren elizara (MAL-045/021)

Igandetan ere esne-saltzen joaten ziren Ermura; ondoren elizara. Arratsaldean arrosariora. Ermuko bikoteak Anbretik gora joaten ziren pasioan.

383. Umetako jolasak (MAL-045/022)

Umetako jolasak: sokasaltoan; txirikilarekin; txintxaurreka (?). Intxaur denboran, "potxilloka".

384. Umetako okerkeriak (MAL-045/023)

Umetako okerkeriak; sagar-lapurretan. Pikuak ere harrapatzen zituzten.

385. Umetako bihurrikeriak (MAL-045/024)

Umetako bihurrikeriak. Umetan, haserreen beldur.

386. Begoñako Ama Birjina herriz herri (MAL-045/025)

Umetako kontuak. Begoñako Ama Birjina herriz herri eraman zutenekoa; Mallabira iritsi zenean Mari Carmen aingeruz jantzi zuten. Prozesioa; meza.

387. Etxez etxeko saltzaileak (MAL-045/027)

Baserriz baserri ibiltzen ziren saltzaileak: tela-saltzaileak... 7 urte zitueneko anekdota (ume jaioberria) etxean eta tela saltzailea etorri zenekoa).

388. Neskatan-mutiletan; Trabakuko erromeria (MAL-045/028)

Neskatan-mutiletan. Mutilak izaten ziren neska-bila ibiltzen zirenak. Gaztetako kontuak: erromeriak; josten ikastera ere joan zen Eibarrera. Neguan Trabakuan egoten zen erromeria.

389. Gaztetako ibilerak; erromeriak (MAL-045/029)

Gaztetako kontuak. Erromeriatara joateko adin bat behar izaten zen. Zenbat urterekin hasten ziren nagusien arropak janzten. Galtzerdiak vs. galtzak.

390. Neskatan-mutiletan (MAL-045/030)

Nola ezagutu zuen gerora senarra izango zena.

391. Josten ikastera Eibarrera (MAL-045/034)

Josten ikastera Eibarrera. Lehenengo etxerako arropak josten zituen; gerora poliki-poliki beste batzuentzat josten hasi zen: dantza-taldea...

392. Ardiak noiztik izan dituzten (MAL-059/002)

Artzaintza. Aurretik ere ardiak izan zituzten, baina pinua sartu zenean kendu egin zituzten. Soldadutzatik itzuli zenean, berriz ere ipini zituzten.

393. Ardiek lan ugari ematen dute bildots sasoian (MAL-059/003)

Ardiek lan ugari ematen dute bildots sasoian. Azpiak egin, pentsua eman, bildotsak erautsi. Batzuetan bildotsa maite ez duen ardirik ere egoten da, "maite ez duena". Ardi batzuk beste baten bildotsa hartzen dute.

394. Ardiak gobernatzea (MAL-059/004)

Egunean zehar ardiak larrera eramaten ditu; gaua pasatzera berriz, etxera.

395. Ardi antzuak gobernatzea errazagoa (MAL-059/005)

Ardi antzuak ez dira ardi umedunekin batera ipintzen kortan. Ardi antzua gobernatzea errazagoa da. Hesiaren inguruko azalpenak.

396. Ardiak eta ahariak (MAL-059/006)

Ardiak eta ahariak. Mendian dagoen arriskua, bi artaldetako ahariak nahastea.

397. Bildots sasoia (MAL-059/007)

Bildots sasoia. Zenbat aldiz aharitzen den ardia urtean. Bost hilabeteko haurdunaldia izaten du ardiak. Bere ardiek urtean gehienez bi bildots izaten dituzte.

398. Ardi klaseak (MAL-059/008)

Ardi klaseak; latxa egokiena paraje honetarako.

399. Ardiak ezagutzeko markak (MAL-059/009)

Ardiak izen desberdinak jasotzen ditu urteen arabera: urtekoa, urtebikoa. Ardien markak.

400. Ardiak arkeran noiz dauden erraz jakiten da (MAL-059/010)

Ardiak arkeran daudenean igarri egiten zaie. Zenbat bildots haurdunaldi bakoitzean. Aharia eta "urrixa" (ardi emea).

401. Bildots gehienak saldu egiten dira (MAL-059/011)

Bildotsak. Gehienak saldu egiten dituzte. 12 bildots inguru lagatzen ditu hazteko.

402. Bildotsari buztana moztearen zergatia (MAL-059/012)

Bildotsari buztana moztearen zergatia.

403. Ahariak kapatzea (MAL-059/013)

Ahariak kapatzea. 3 urtean behin aharia aldatzea komeni izaten da.

404. Ardiei ilea noiz moztu (MAL-059/014)

Ardiei ilea ilbeheran mozten die artaziekin.

405. Ama zenak artilea egiten zuen (MAL-059/015)

Artilea. Ama zenak egiten zuen, berak ez. Gorua.

406. Ardien gaixotasunak (MAL-059/017)

Ardiak izaten dituen gaixotasunak: gibelekoa; udaberriko belarrak ekartzen duen gaixoa; hankako gaixoa...

407. Ardien gaixotasunak (MAL-059/018)

Ardiak izaten dituen gaixotasunak. Zintzarriak ardi indartsuenei ipintzen zaizkie. Dunba.

408. Gaztagintza (MAL-059/019)

Gaztagintza. Esnea jetzi eta epela dagoen bitartean legarra ematen dio berak. Gogortzen denan, epeletan ipini, eta ontzietan sartu. Estutu eta 24 ordura, gaztanontzian ipintzen du. Gazta egiteak lan asko ematen duela dio. 3 hilabete inguru behar ditu gaztak saltzeko prest egon arte.

409. Gaztak sikatu eta saldu (MAL-059/020)

Gaztak sikatu eta saldu. Gaztaren eta bildotsaren prezioa. Diru-laguntzak. Merkatuaren egoera.

410. Ardi-txakurraren zeregina (MAL-059/021)

Ardi-txakurrak egiten duen lana. Txakurrari erakutsi beharra.

411. Ardiak zaintzeko erabiltzen dituen arropak (MAL-059/022)

Ardiak zaintzeko erabiltzen dituen arropak. Txapela, gerrikoa eta abarkak.

412. Sineskerak (MAL-059/023)

Sineskerak. Erramu egunean, gurutzea bedeinkatzen da. Ohitura izaten zen gurutzea kortako atean ipintzea.

413. Larretan egoten diren belarrak (MAL-059/024)

Larretan egoten diren belarrak. Uztai belarra; lekario belarra. Belar onena, hirukotxa, sekula belarra... Ur belarra edo lakarra.

414. Basoetan eman den aldaketa (MAL-059/025)

Basoan orain pinua nagusi; ardientzako txarrena. Pagoa, urkia... galduta. Tinkoak ipintzen dituzte, esolak.

415. Belar kaltegarriak (MAL-059/026)

Belarrak abereei eragiten dizkien kalteak. Perretxikoak.

416. "Compresores Betiko"tik Lambrettara (MAL-060/002)

Gaztetan "Compresores Betiko" lantegian hasi zen lanean, Eibarren. Han zegoela, Lambretta lantegitik deitu zioten, eta bertara joan zen motorrak asko gustatzen zitzaizkiolako.

417. "Compresores Betiko" (MAL-060/003)

15 urte zituela sartu zen Eibarko "Compresores Betiko" lantegian. Han ikasi zuen ofizioa, debalde. Gero, 150 pezeta ematen zizkioten hilean: amari ematen zion dirua. Mallabitik Eibarrera aitaren bizikletarekin joaten. Bederatzi orduko lanaldia zuen. Lantegia non zegoen azaltzen du.

418. "Compersores Betiko"ko lana (MAL-060/004)

"Compresores Betiko"n zer lan egiten zen azaltzen du. 20, 40 eta 60 zaldiko konpresoreak egiten zituzten. Birabarkiaren ("cigüeñal") ajustea eskuz egiten zuten.

419. Betidanik motorrak gustatu (MAL-060/006)

Betidanik gustatu izan zitzaizkion motorrak. Enrikeren aita makinista zen, eta eskolara joan baino nahiago zuen aitarekin "trilladorarekin" ibiltzea.

420. Lambretta (MAL-060/007)

Betidanik gustatu izan zitzaizkion motorrak, eta pozik hasi zen Eibarko Lambrettan lanean. Lau italiar zeuden montajea erakusten.

421. Aitagandik ikasia (MAL-060/008)

Enrikeri beti gustatu izan zaio gauzak ondo egitea. Aitarekin arotzerian ibiltzen zenean, beharra bukatutakoan tresnak garbitu eta bere lekuan jaso behar zirela ikasi omen zuen.

422. Lambrettako lanak (MAL-060/009)

Eibarko Lambretta lantegiari buruzko kontuak. Hasiera batean, Italiatik ekartzen zituzten piezak. Motorren montajean, proba elektrikoak egiten eta errepidean motorrak probatzen aritu izan zen Enrike. Bost lagun ibili ziren motorrak probatzen. Eibartik Areitioko gainera joaten ziren motor probatzeko. Motorraren heldulekuan txartela bat edukitzen zuten oharrak idazteko.

423. Motorrak probatzen (MAL-060/010)

Eibarko Lambretta lantegiari buruzko kontuak. Hasiera batean, errepidean probatzen zituzten motorrak. Gerora, lantegi barruko gela batean hasi ziren motorrak probatzen.

424. Motorren garraioa eta salmenta (MAL-060/011)

Eibarko Lambretta lantegiari buruzko kontuak. Eibarko fruta-saltzaile batek bere kamioian eramaten zituen Espainian saltzen ziren motorrak. Bueltako bidaian, fruta ekartzen zuen. Motor asko saldu zen Ingalaterrara.

425. 400 beharginetik gora Lambrettan (MAL-060/015)

Eibarko Lambretta lantegiari buruzko kontuak. Egunean 65 motor egiten zituzten. 400 beharginetik gora aritzen ziren lantegian.

426. Lambretta: kateko lana (MAL-060/018)

Eibarko Lambretta lantegiari buruzko kontuak. Kateko lanari buruzko azalpenak. Zer lan egiten zituzten, zenbat langile aritzen ziren eta makinak nolakoak ziren aipatzen du.

427. Lambretta: motorrak probatzen (MAL-060/019)

Eibarko Lambretta lantegiari buruzko kontuak. Motorrak probatzen ibiltzen zen Enrike.

428. Lambrettaren itxiera (MAL-060/020)

Eibarko Lambretta lantegiari buruzko kontuak. Lantegiaren itxierari buruzko azalpenak. Lantegiaren bideragarritasun plana egin zuten. Geldialdian egon eta lana egiteagatik 100.001 pezetako zehapena ("sanción") jarri zioten Lambrettako langile bakoitzari.

429. Italiarrekin lanean (MAL-060/023)

Eibarko Lambretta lantegiari buruzko kontuak. Gerentea nor zen aipatzen du. Lambrettan sartu zenean, italiarrekin aritu zen motorren montajea ikasten. Italiarrei buruzko kontuak.

430. Lambrettak konpontzen etxeko garajean (MAL-060/025)

Lantegiko lanaz gain, Lambrettak konpontzen zituen bere garajean. Lambrettak horretarako baimena eman zion.

431. Lambretta eta Vespa (MAL-060/026)

Vespa motorrak Durangon konpontzen zituzten, eta Lambrettak, berriz, Enrikek. Lambretta eta Vespa motorren ezaugarriak eta ezberdintasunak azaltzen ditu.

432. Motorren modeloak, berrikuntzak eta "cigüeñal"a (MAL-060/027)

Eibarko Lambretta lantegiari buruzko kontuak. Motor modelo ezberdinak egiten zituzten. Itxura gehiago aldatzen zitzaion motorra bera baino. Bulego teknikoari buruzkoak. Gorabeherak izaten ziren birabarkiarekin ("cigüeñal").

433. Emakumeak ere Lambrettan (MAL-060/028)

Eibarko Lambretta lantegiari buruzko kontuak. Emakumeak ere aritzen ziren kateko lanean.

434. Eibarko industria (MAL-060/029)

Lantegi batzuetan hamabietan irtetzen ziren, beste batzuetan hamabiak eta laurdenean eta besteetan hamabi eta erdietan. Denak batera irten ezgero, ez ziren espaloietan kabitzen. Kale betean joaten ziren. Portal guztietan zeuden akabatzaileak, grabatzaileak, eskopetaginak...

435. Lanaldia (MAL-060/030)

Eibarko Lambretta lantegiari buruzko kontuak. Laneko ordutegia. Zapatuetan ere lana egiten zuten. Aste Santuetan ere lana egiten zuten. Laneko seguroa.

436. 12 urtean, "Vuelta España"n (MAL-060/031)

12 aldiz atera zen "Vuelta España" txirrindulari lasterketan, Lambrettarekin, "enlace" modura. Lantegiak aginduta joaten zen: Lambrettaren propaganda egiteko. 21-22 etapako itzulia izaten zen.

437. "Vuelta España"ko kontuak (MAL-060/032)

12 aldiz atera zen "Vuelta España" txirrindulari lasterketan, Lambrettarekin, "enlace" modura. Enpresak aginduta ateratzen zen, Lambrettaren propaganda egiteko. Txirrindulari-taldeak: Kas, Licor 43... Eguraldiarekin gorabeherak. Garai bateko bizikletak.

438. Eibarko bizikleta lantegiak (MAL-060/034)

Eibarko Zeus bizikleta lantegiari buruzko azalpenak. Eibarko bizikleta lantegiak: Zeus, GAC, BH eta Orbea.

439. Lehengo bizikletak (MAL-060/035)

Lehengo bizikletak burdinazkoak izaten ziren. Gaur egungo bizikletak eta lehengoak alderatzen ditu.

440. Velosolex Orbea (MAL-060/036)

Orbearen motordun bizikletak: Velosolex. Nolakoak ziren azaltzen du.

441. Lambrettak konpontzen (MAL-061/001)

Enrikek etxean duen Lambretta motoa nondik nora ibili izan zen kontatzen du. Enpresan erakusketarako erabiltzen zuten eta berak erosteko aukera izan zuen. Gaur egun ere erabiltzen ditu.

442. Honda motorrak kopiatu nahian (MAL-061/002)

Lambrettak egiten zituzten fabrikan saiatu ziren Hondan egiten ziren bezalako motorrak egiten baina ez zuten horrelako lanak egiteko prestakuntzarik.

443. Lambrettak berritzen (MAL-061/003)

Enrikek Lambrettak berritzen ditu. Nola berritzen dituen eta nondik lortzen dituen azaltzen du.

444. Lambrettekin Espainiako itzulian (MAL-061/004)

Espainiako txirrindularitza itzulian ibili izan zen Enrike zenbakiak apuntatzen. Arropa eta kasko bereziak izaten zituzten.

445. Velosolex motorra (MAL-061/005)

Orbea fabrikan egiten ziren Velosolex motor dun bizikleten motorraren piezak nolakoak ziren erakusten du Enrikek, motorraren funtzionamendua azaltzeko eredu bat du.

446. Lambrettaren motorra (MAL-061/006)

Lambrettaren motorraren abiadura desberdinak eta piezak azaltzen ditu. Lambretta fabrikako pieza txikiak eta oroigarriak ere gordetzen ditu Enrikek.

447. Langileek fitxatzeko makina (MAL-061/007)

"Esperanza y compañia" fabrika hustu zutenean, Enrikek txatarra artetik langileek fitxatzeko erabiltzen zuten erlojua erosi eta, berritu ondoren, martxan jarri zuen berriro ere. Beste erloju bat ere berreskuratu zuen. Enrike Lambretta fabrikako motorrak konpontzeaz arduratzen zen eta horregatik hainbat koadro oparitu zizkioten.

448. Aparatu berriak (MAL-061/008)

Hainbat musika disko ditu Enrikek eta martxan mantentzen ditu oraindik. Bizikletarako egurrezko hagunak ("llanta"k) eta Mallabian izan zen lehenengo telebista ere gordetzen ditu. Lambretta fabrikan piezak gordetzeko erabilitako egurrezko armairuak ere baditu eta bertan konponketak egiteko piezak gordetzen jarraitzen du.

449. Argazki eta miniaturak (MAL-061/009)

Enrikek tailerrean dituen argazkiak azaltzen ditu. Lambrettak sorturiko motor desberdinak, txirrindularitzako argazki desberdinak, etab. Lambretten miniaturak eta propagandazko hautsontziak gordeta ditu.

450. "Kamiñeruaren" materiala (MAL-061/010)

Enrikek gordeta mantentzen ditu herritarrek erretzera bota nahi zituzten apaiz arropak eta "kamiñeruaren" poltsa eta eskuliburua ere baditu.

451. Espainiako itzuliko oroitzapenak (MAL-061/011)

Enrikek Espainiako itzulian erabilitako materialak eta sinatuta gordetzen dituen maillotak erakusten ditu.

452. Lambretta fabrika sortu aurreko argazkiak (MAL-061/012)

Enrikek Lambretta sortu aurretik Eibarren egindako argazkiak ditu bilduta.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-19

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com